

Bizitzaren sentimendu tragikoaz
Migel Unamuno

1

Idazten duenak arriskua du; hitzaren arriskua du, gaizki ulertua, gaizki interpretatua izateko arriskua izan dezake. Baina, orain arte bederen, ez dago sentitzen eta pentsatzen dena inorenganatzeko beste erarik: eta zer sentitzen eta pentsatzen den, horixe da esaten edo idazten dena. Hitza egiaren agertokia da. Eta hitza agertu artean ez dago berak adierazten duena. Hitzik gabe bizitzarik ez dago. Baztertu ezinezko baina beharrezko arrisku hori dela eta, Wilhelm von Humboldt-ek ohartarazi zuen: “Inork ez du hitzean pentsatzen beste batek bezala, eta ezberdintasun txiki horrek dar-dar egiten du, zirkuluak uretan bezala, mintzairan zehar. Ulertze oro, aldi berean, ez ulertzea da, pentsakidetasun oro, batera, adostasunik eza”. Eta mintz hauskor honen gainean dago eraikirik kultura, hau da, giza bizitza. Horregatik obra baten egiazko zentzuaz erabaki beharrak beti ere izaera hipotetiko eta behin-behinekoa du, behin betikorik gabea.

Unamunok arrisku hori bere gain hartu eta bere aliatu egiten jakin zuen, bera, beste ezer baino lehen idazlea izan baitzen. Idazteak, arnasa egitea bezain naturala eta beharrezkoa zuela dirudi. Nietzschek *Fröhliche Wissenschaft*-en esandako hitzak azpimarra zitzakeen: “B. Aber waren schreibst Du dann? A: Ja, mein Lieber, im Vertrauen gesagt: ich habe bisher kein anderes Mittel gefunden, meinen Gedanken loszuwerden”. Eta Unamuno, gainera, --Larra bezala, 98ko belaunaldiaren asmaketa bera-- idaztean beren burua erretratatzeko duten idazleatarikoa da. Haren hitza haren bizitzarekin konfunditzen (ko-funditzen) da, azken buruan osotasun bakar eta zatietan bilakatuz. Haren obretan “betierekoturik” gelditu da, haren ideiak baino gehiago, hezur eta mamizko gizon bat, ale bakarra, ordezkazina, estilo bat. Idatzi, entsegua, poesia, eleberria eta teatroa idatzi zuen... Baina literatur genero ezberdinak barik, horiek gauza bera esateko era batzuk besterik ez ziren. Erabili zituen literatur generoak, berak asmatuak ez badira ere, askatasun nahikoaz manipulaturik daude, kritikari purista eta ortodoxoa txunditu eta haserrarazteko adina behintzat: haren nobela ez da egiazko nobela (horrexegatik “nívola” deitu zion), ez teatroa benetako teatroa, eta haren filosofiak edo teologiak ere ez dituzte ortodoxoak asebetetzen, eta haren entsegu politikoa ere, berez, ez da halakoa. Unamunok baina, ez zituen genero ezberdinen arteko aldeak, filosofikoa eta literaturazkoa adibidez, leundu nahi. Aitzitik, ezberdintasun horiek, azken buruan, ezinezkotzat jotzen dituela ematen du¹. Unamunoren estiloak batasun zatiezina osatzen du, hau da, berekiko erabat hurbila. Haren idazkeran beti ere Unamuno aurkitzen dugu. Haren idazkera bere pertsonaren luzapena besterik ez da. Eta hori horrela izanik, idazkeran mamitu nahi izan zuen bere irrikarik barnekoena; bere burua betierekotzea, etorkizunerako gelditzea, hain zuzen. Hori dela eta, interes berezia izan zuen gurenganatzeko, ez ideia batzuk, ez pentsaera edo sistema logiko bat, sentimenduak baizik, hots, biotika bat, hezur eta mamizko gizon bat, azken buruan, “jaio, sufritu eta hiltzen dena --batez ere hil egiten dena-- , jan eta edan, eta jolastu eta lo egin eta pentsatu eta nahi izaten duena” (*Bizitzaren sentimendu tragikoa*-ren 1. kap.). “Horixe besterik ez da filosofia ororen subjektua eta, aldi berean, objektu gorena” (1. kap.).

¹ [Hauxe da Manfred Frank-en tesia \(*Stil in der Philosophie*, Reclam, Stuttgart, 1992\) Habermas-en aurka: “filosofiaren eta literaturaren arteko genero-ezberdintasunik ezin egotea” \(*Gattungsunterschiede*\). Frank, honetara, Derridagandik hurbilago dago. Habermasek azken autore honi ezberdintasuna hori leuntzeko salaketa egin zion eta.](#)

Haren obra bat, edozein, irakurtzeak, Unamunorekin edo Unamunogandik zehar bidaiatzera garamatza, haren paisaia zehar, haren geografiatik, haren fobia eta gustuetan zehar abiatzera. Azken buruan, ez gara hutsik irteten, kezkatu, pentsakor eta urduri baizik. Edonon Migel jaunaren ironia zorrotza aurkitzen dugu: “Nik beti eragile izan nahi izan dut, eta, gehienez ere, irakatsi baino gehiago, iradoki. Ogia saltzen badut, hori ez da egia, legamia edo hartzidura baizik” (“Nire erlijioa”, III, 253).

Areago oraindik, Unamunok, ororen aitzin, poeta izan nahi izan zuen. Poesia, harentzat, genero gorena zen, edozein kasutan gainerako guztiak bereganatzen dituen. Hitzaren poesian ari da hegaz askeago eta gorago. “Esan beharra dugu, aurretik, filosofia makurtuago dagoela poesiarantz zientziarantz baino” idazten du Unamunok eskuartearen dugun obra honen hasieran. Arrazoia du José María Valverdek hau dioenean: “Unamunok bere ahots osoa poesian aurkitzen du, haren pentsaera, pentsaera poetikoa delako. Eta horregatik “pentsaera poetikoz” hitz egin daitekeela uste dugu, “pentsaera filosofiko” eta “pentsaera zientifikoaren” aldamenean”. Jaime Ferreiro Alampartek² Unamunori “Rilkeren espiritukidea” deitzen dio. Eta horretarako bada ezaugarririk, kanpoaldean ere bai. Rilkek *Kristautasunaren Agonia* irakurria zuen, hark berak Merlineri egindako eskutitz batean aitortzen duenez (1925eko azaroaren 14an): “Je passe mes soirées en lisant Unamuno (*L’Agonie de Christianisme*)”.

Alampartek arrazoiz aipatzen duen Unamunoren beste espiritukide bat –agian bestea– San Joan Gurutzekoa da. Rilkek *Arimaren gau iluna* irakurtzen zuen bere bizitzako azken urteetan. Eta Rilkek Unamuno eta San Joan Gurutzekoa irakurtzen zituen artean, Unamunok erbestean alemaniar poeta irakurtzen zuen.³ Heideggerrek ere filosofia makurtuagorik dagoela poesiarantz zientziarantz baino ulertzen zuen. Behinola beraren “filosofia Rilkek poetikoki esandakoaren hedadura kontzeptuala besterik ez zela” aitortzeraino heldu zen⁴. *Geliebte Verse*-n, nor bere hamar poema gogokoenak zeintzuk ziren jakiteko, Alemaniako kultur bizitzako pertsonaia batzuei eginiko inkestaren ondorioa biltzen duen liburuan, Heideggerrek hiru poema besterik ez zuen aipatzen: hirugarren Rilkeren *Die spanische Trilogie* izan zen. “Guk zeharka egin genion galderari erantzunez” –dio Alampartek– “filosofoak *Die spanische Trilogie* era kontuan hartu izan duela, halaber, *Das Ding* lana idaztean⁵. Alamparte aurrerago doa oraindik: “Guk uste dugu Heideggerren esaldi famatua bera ere 1946ko “Über den Humanismus” eskutitzean dagoena, hots *Der Mensch ist nicht der Herr des Seins. Der Mensch ist der Herr des Seins*” trilogian duela bere etorki zuzena” (151). Honi erantsi beharko litzaioke, haren bizitzako urterik zailenetan, erbestealdikoetan (1924.etik 1930.era) Unamunoren gainerako obra guztia poesia besterik ez dela, *Cómo se hace una novela*, hitzurre batzuk, eskutitzak eta zenbait artikulua salbuetsirik.

2

Bizitzaren sentimendu tragikoa, filosofiazko (filosofoen barkamenaz) edo teologiazko (teologoen barkamenaz) saio bat baino lehen unamunotar obra da. *Bizitzaren sentimendu tragikoa*, halere, Unamunoren obrarik filosofikoena da. Bere genealogia haria bilatu nahi badiogu Jacobirengana joan behar dugu, Schopenhauer, Kierkegaard

² [España en Rilke, Taurus, 1966, 326 or.](#)

³ [Cfr. José de la Luz León-i eginiko eskutitza \(1928.9.6\)](#)

⁴ [Otto Friedrich Bollnow-ek aipatua: Rilke, 2. ed. gehitua, W. Kohlhammer, Stuttgart, 1956. Bada gaztelaniazko itzulpena ere, J. Ferreiro Alampartek egina: Rilke, poeta del hombre, Taurus, Madrid, 1963; gure aipua 20. orrialdekoa da,](#)

⁵ [Vorträge und Aufsätze-n bildua.](#)

eta Nietzschegandik zehar iraganez. Nietzsche da Unamunoren belaunaldiko idazleengan eragin handiena izan zuen filosofoa. 1928an Unamunok Nietzsche-renik oso gutxi irakurria zuela aitortzen du, “ia ezer ez. Batez ere aipamen eta erreferentziaz tu haren berri”⁶. Aleman filosofo honekin biek antzeko filosofi jarrera izateak elkartzen du. Norbaitek Unamunori “nolabaiteko Nietzsche euskalduna” deitu dio. Jacobi, bistan da, ez zuen Unamuno ezagutu, eta europar filosofi tradizioak berak ere ez du oraintsu arte kontuan izan, Kantek garaian jadanik haren kritikari gisa izandako garrantzi handia gora behera, eta Hegelek bera ondo kontuan hartu izan arren. Schopenhauer eta Kierkegaard, ordea, astiro irakurri zituen Unamunok eta eragin erabakigarria izan zuten harengan.

Halere, Unamunori ez zaio filosofia, filosofia moduan interesatzen. Beti ere bizitzaren etsai iruditzen zaio. Inoiz ez duela seriotan hartzen ematen du. Ortegari arrazoi eman behar diogu hau dioenean: “Unamunok arduragabetasun nabaria sentitzen du nire antzera, haren politika txalotzen eta haren metafisika anekdota baten mailara balioesten dutenenganako. Eta halere, Unamunoren espiritu filosofi sistemetatik eta literatur generoetatik zehar hara eta hona noraezean ari da, batean ere heldutasunik izan gabe, politikan sineskera iraunkorrak eta, beraz, substantiboak aurkitu dituen artean”.⁷

Zer da, hortaz, liburu hau? Ideia paradoxiko baten hedaketa, bizitza ideia bat ez dela, ezin izan daitekeela edo, hobe esanik, ideia batean ezin laburbil daitekeelako ideiarenean hedaketa. Existenzialista avant la lettre, badaki ideia bat ez dela argi haragitzen ez bada, bizitzatik abiatzen ez bada, betetzen ez bada (eta honetan Hegelengandik hurbilago zegoen berberak susmatzen zuena baino). Ideiak, edonola ere, bizitzaren funtzio bat izango dira; alderantziz inoiz ere ez. Nola heldu zen Unamuno ondorio horretara? Beharbada atzera begiratzeak hori ulertzeraz lagun gaitzake.

3

Unamuno “hondamendiaren belaunaldikoa” da (Gabriel Maura, Faro, 1908.eko otsailak 23) edo “98ko belaunaldikoa” (Azorín, *Clásicos y modernos*, Madrid, 1913)⁸. Nahiz eta, agian, horren kide guztiak elkarrekin lotzen dituen bakarra, guztien espiritu komuna “hondamendi” deituriko horren erreakzioa izan. Estatu Batuek eta Espainiak “Parisko Ituna” sinatzean (1898.eko abenduaren 10ean), Madrilek bere azken koloniak galdu zituen (Kuba, Puerto Rico, Filipinas), honela 1492an, Kolonen lehen aurkikuntzaz hasieratik eta “inperialista” gisa kalifika daitekeen abentura amaituz. Tarte horretan, lau mendetan zehar, politika, kultura eta erlijio arloan intrantsigentzi historia garatu zen, lehenagoko tolerantzi epe anizkorrean ez bezala, judu, arabiar eta kristauen kultura ezberdinen arteko elkargune hura, noizik behingo erriertak gorabehera, hautsirik. Gloriaren atetik Espainia nahitaez bere hondamendira eramango zuten “gaitzak” ere itzuri ziren; Espainia “inkisitorialki monoteista” hark, denboren araberrako politika egokia prestatzeaz baino katolikotasunaren defentsaz eta bere koloni interesengatik kezkatuagoak, ez zuen esku hartu nahi izan Europako kultur mugimenduetan, bere

⁶ [José de la Luz León-i Hendaiaitik bidalirik eskutitza \(1928.9.2\)](#)

⁷ [Ortegak aipatzen duen hitzaldia Unamunok Bilboko “El Sitio” elkartearen egin zuen. “La conciencia liberal y española de Bilbao” izenburuz \(UOC VII, 756\).](#)

⁸ [Hemen “98ko belaunaldia”z mintzatzean esaera honi eman izan zaion adiera orokorrean aipatzen dugu, belaunaldi bereko eta kideetasun hurbileko talde gisa, eta ez ideologi monolito gisa, jadanik gaitzurik dagoen kontzeptioa beraz. Ez gara arituko, beraz, horren mamitze zehatzagoaz edo haren osakideen arteko ezberdintasun inoiz aski batera gaitzez, hau guztiau gai honi buruz dagoen literatura ugarian luzaz eztabaidatu denez gero.](#)

xedea haien aurka agertzea zela uste izanik. Horrela, Frantziako ideia liberaletatik kanpoan edo zuzenki haien aurka jarri zen protestantismoaren hedaduraren ondorioz Alemanian sorturiko erlijio tolerantziaren kontra edo Ingalaterrako industri iraultzaren aurrerakaden aurka⁹. R. Carrek orduko bizi-egoera hitz hauetan laburbiltzen ditu: “Ezein espainolek ez zuen baimenik Voltaireren, Rousseauren edo Buffonen obrak libreki erosteko. Zabuka ari zen Inkisizioaren laguntzaz, Eliza, Espainiaren eta Europa landu eta ikasiaren arteko dibortzioaren sinboloa, aurrerapen intelektual edo material gutzietarako bideak ixten zituen noraezeko oztopoa zen”¹⁰. Jaime Ferreriro Alampartek, beste ikuspuntu batetik, ondorio berera heltzen da:

“ Die Inquisition verhinderte, daB viele Errungenschaften der spanischen mystischen Theologie in das christliche Denken der nachfolgenden Zeit einfließen konnten. Die Verfestigung der spanischen religiösen Lebens, die im 17. Jahrhundert beginnt und bis zur Mitte des 19. fort dauert, ist allgemein bekannt. Diese Verfestigung gab es nicht in Deutschland, dank der von der Reformation ermöglichten freien Auslegung. Das spanische 18. Jahrhundert ist durch den bourbonische Zentralismus und die Überlegenheit der französischen Kultur der Aufklärung bestimmt. Aber die Spanier, einschließend ihrer hervorragendsten Gestalten der Aufklärung, Feijoo und Jovellanos, haben weder den naturwissenschaftlichen Empirismus noch den Rationalismus “more geometrico” von Descartes angenommen. Vielleicht haben die fort dauernden Kriege, in die Spanien sich z.Z. der Habsburger mit Frankreich verwickelt sah, zu der geringen Sympathie der Spanier für die französische Zivilisation beigetragen. Auf alle Fälle reicht diese Opposition gegenüber Frankreich sehr weit zurück, denn die Annäherung Spaniens an Deutschland schon im 13. Jahrhundert entsprach in hohem Maße der Notwendigkeit, sich gegen den übermächtigen religiösen und weltlichen Einfluß zu behaupten, den Cluny in 12. Jahrhundert ausgeübt hatte. Die französische Revolution hätte auch eine Befreiung des geistigen und materiellen spanischen Lebens von einer religiös versteinerten, aber wirtschaftlich mächtigen Kirche bedeuten können; jedoch machte die napoleonische Invasion diese Möglichkeit zunichte. Viele der Spanier, welche die Prinzipien und die Ideen der Revolution zunächst akzeptierten, lehnen sie später ab, angesichts der Verwüstung ihres Landes und der tiefen Wunde des Krieges. Dagegen wurde die Romantik, geboren in Schoße der Revolution, mit Begeisterung von den spanischen Dichtern ausgerufen.”¹¹”

⁹ [Karl Löwith-ek Donoso Cortés tradizionalista espainolaren “die christliche Diktatur von oben” hura Proudhon-en “der athistischen Neuordnung der Gesellschaft von unten” delakoaren aurka jartzen du.](#)

¹⁰ [Spain 1808-1936. \(Gaztelaniaz Ariel-en argitaratua. Bartzelona, 1966. 88. or. Itzulpena aipatzen dugu\)](#)

¹¹ [“Aufnahme der deutschen Kultur in Spanien” \(in Klaus-M. Kodalle \(Ed.\): Chr. F. Krause \(1781-1832\) Studien zu seiner Philosophie und zum Krausismo. Hamburg 1985. 137-138 orr.\):](#)

[“Inkisizioak eragotzi egin zuen espainiar teologia mistikoaren lorpen ugari hurrengo mendeetako pentsamendu kristauean sartu ahal izatea. Espainiar erlijio-bizitzaren sendarpena. XVII. mendean hasi eta XIX. mendean erdira arte luzatzen dena, orokorki aitortzen den zerbait da. Sendarpena Alemanian ez zen gertatu. Erreformak ahalbidetu zuen interpretazio libreaki esker. XVIII. mende espainiarra borbondarren zentralismoak eta Ilustrazioko frantses kulturaren nagusitasunak baldintzatzen du. Baina espainiarrek. Ilustrazio figura geilenak ziren Feijoo eta Jovellanos berek ere ez zuten natur zientzien empirismoa, ez Descartes “more geometrico” rako arrazionalismoa onartu. Agian gerra iraunkorrak, zeinetan garai hartan Habsburgotarren Espainia Frantziarekin nahastu baitzen, izan ziren espainiarrek frantses zibilizazioari begikotasun gutxiagorekin begiratzearen kausa. Nolanahi ere, Frantziarekiko oposizio hori oso atzetik dator, zeren XIII. mendean gertaturiko Espainiaren Alemaniarenganako hurbilpena neurri handi batean Clunyk XII. mendean izan zuen eragin erlijiozko eta mundutar izugarriaren kontra bere burua baieztatu beharretik sortu baitzen. Frantses iraultzak espainiar bizitzaren askapen espiritual eta materiala ekarri ahal izango zukeen, erlijio-aldetik zurrundurik baina ekonomi arloan ahaltsua zen elizarengandik, baina hala ere Napoleonen inbasioak ezabatu egin zuen ahalbide hori.](#)

98ko krisiak argi utzi zuen problema hura liberalek uste baino sakonagoa zela. “Kontzientzi krisi” bat gertatzen zen, politika edo ekonomia arlokoa baino gehiago, ideologi arloko krisia alegia. Krisiaren larritasunak garai hartako lumarik onenak elkarrenganatu zituen Angel Ganivetekin hasita, *Idearium español* (1897) eta beste askorekin segituz, horien artean J. Martínez Ruiz (Azorín): *El alma castellana* (1900) edo Rafael Altamira: *Psicología del pueblo español* (1902), haietako banaka batzuk aipatzearen. Eta noski, Unamuno ere bai.

Euskal Herrian barruan ere urraketa larria gertatu zen, neurri handiz karlistaden ondoko egoeragatik, haietatik guztiak –karlistak zein liberalak– galtzaile irten baitziren. Ondorioz, Euskal Herriak 1876. urtean bere foruak galduko ziren.

Azorín, Baroja eta Maeztu moduko aitzindariak bilatu zuten erantzuna politikan zuzenki esku hartzea izan zen. Horrela “hiruren taldea” eratu zuten, eta horiei Unamuno erantsi zitzaizkien, bilbotarrak ari garenean beti ere gehitu beharreko ñabardura bereziki. 1890.etik 1905.era urte erabakigarri haietan 98ko idazleek “Espainiaren problemari” perspektiba soziopolitiko erradikal ezberdinetatik aurre egin zioten (Cfr. Blanco Aginagaren *La generación del 98*. 110 or.). Zehazki esanda, Unamunok 1892-1896 urteen artean jarrera marxista-sozialistak izan zituen. Baina hasierako iraultza-irakinaldi hark, politikan zuzenki esku hartzeko borondatearekin batera, ez zuen luzaro iraun. Bide berriak bilatu ziren.

4

1880. urtean Madrilera ikastera joan zenean, Unamunok hiru pentsaera korrante aurkitu zituen. Eskolastika, Krausismoa, eta Positibismoa.

Filosofia **neoeskolastikoaren** aldeko pertsonaia nabarmena J. Balmes izan zen. Honek, *Filosofía Fundamental* deritzon bere obran bereziki, aro berriko filosofía guztiak kritikatu zuen. Descartesengandik hasi eta aleman Idealismoraino, hura “errakuntzaz beterik” zegoela esanez. Eta ere bereziaz kantiar filosofiari eraso zion¹², honetatik nahitaez Fichteren sistema “panteista” datorrelako, eta Schelling-en eta Hegel-en sistemak ere bai; azken hau bere *Cartas a un escéptico en materia de religión* delakoan (VIII. eta IX. eskutitzak) kritikatu zuen. Kant jo eta bazterturik uztea lortzen badugu, aldi berean gainerakoen ondorio txarretatik libratuko gara. Balmesek obra argitaratzean zituen intentzioak berberak azaldu zizkigun: “Espainia filosofi ikasketek orain duten hedadura baino handiagoa izateko laguntza eman nahi izateak bultzatu nau hau argitaratzera; eta [...] mehatxatzen gaituen arrisku larri batetik aldeztu aurretik babesteko gogoak: funtsezko errakuntzaz beteriko filosofia bat guregana sartzeko ari delako. Garai nahasi hauek gora behera, Espainian halako garapen intelektuala nabari da, zenbait urte

[Iraultzaren printzipio eta ideiak aurrenean onartu zituzten espainiar asko, gerora haietatik aldendu egin ziren, beren herrialdea basamortu bihurtzen eta gerraren zauri sakonak ikustean. Aitzitik erromantizismoari, iraultzaren altzoan jaiotari, abegi suharra egin zioten espainiar poetek.”](#)

¹² [“Kant-en obren garrantzi galgarria agertu besterik ez dut egin nahi, horretaz oraindik konturatu gabe eta haren lana belarriz oniritziz, hura espiritualismoaren eta filosofia sanoaren berrezarletzat jotzen dutenei aldeztu aurretik abisatzeko, hura egiaz giza espirituaren historiak eskaintzen dizkigun eskola disolbatzaile nabarienen fundatzaile baita: gehiago oraindik, inoiz izan diren idazlerik arriskugarrienetako bat litzateke, baldin eta haren kontzeptuen iluntasunak, adierazpenaren iluntasunaz, adierazpenaren iluntasunaz areagotuak, gehien-gehienei, bai eta filosofi ikasketetan trebatuei ere, hura irakurtzea jasanezina egingo ez balie.” Balmes J: *Filosofía fundamental*. Obras completas, Bd II, Biblioteca de Autores Cristianos, Madrid 1948, 735. or.](#)

barru indar handia izango duena; eta modagatik barreiatu diren errakuntza horiek printzipiotan errotzetik jagon beharra dugu. Horrelako ezbeharretik ikasketa sendo eta ongi zuzenduekin baino ezin gaitezke aurretik babes: gure garai honetan gaizkia ez da erreprezio soilaz loturik mantentzen; ongiaren ugaritasunean ito beharra dago”¹³. Gaizkia, Balmesen ustez, filosofia modernoa zen, liberalek Espainian sartzen ahalegintzen zirena.

Krausismoa XIX. mendeko liberalen asmaketa izan zen, horrekin kontserbadoreei eraso egiteko. Halere, haren izaera idealista sendoak, --gizarte-eraldaketarako alde aurretiko baldintza gisa gizabanakoaren barne-aldaketa proposatzen baitzituen-- ahanzi egiten zuen XIX. mendeko espainiar gaitz nagusiak gizartearen izaera klasistatik zetozeela, gizarte hura jauntxokeriaren eta oligarkiaren menpean zegoen eta. Hala eta guzti, XIX. mendeko Espainiaren berrikuntzan garrantzi handiko zeregina bete zuen.

XIX. mendearen azken herenean Espainian mugimendu berri bat hasi zen nagusitzen, **Positibismoa** alegia. Korronte hau, hasieran, medikuek eta biologoek bultzatu zuten, beren zientziarako metodoa esperimentalak eskatzen zuten eta; pixkanaka kultur arlo guztietara hedatuz joan zen, soziologiara batez ere, Espainian, nagusiki, Comte eta Spencerren izenekin loturik sartu zelarik. Korronte honen helburua, ororen gain, espekulazio metafisikoaren agerraldi guztiak kritikatzeko zen, eta oso bereziki Eskolastikarenak. Hasieran Unamunok bere erlijio-fedearen oinarriaren bila Positibismora jo zuen; Spencer aztertu eta itzuli egin zuen. Bestalde, Madrilen ikasle gisa ibili zen urteen ondoan (1884ra arte) Unamuno alderdi sozialistan sartu zen.

1895.eko otsaileko zenbakian, La España Moderna aldizkariak Unamunoren saio bat argitaratu zuen izenburu honekin: “La tradición eterna”. Ekaina arte agertuko zituen bost saioetako lehena zen. Zazpi urte geroago, 1902an, horiek guztiok liburu gisa berrargitaratu ziren, *En torno al casticismo* izenez.

Artikulu sorta honek espainiar beherakadaz dihardu. “Kasta nagusiari” eta Gaztelaren zeregin historikoari erasotzen zien, Europari azkenean bere ateak itxi zizkiolako; Herria egoera nahasi hartatik europarzaletasunak atera zezakeelako baikortasunaren pean mugitzen zen. Unamunok Europaren aldeko apustua egiten zuen hor. Espainiak, hortaz, europartu beharra zeukan.

Unamunok betiereko tradizio egiazkoaren eta orainaldiko tradizio gezurrezkoaren artean bereizten zuen. Bereizketa horrek testuinguru honetan funtsezko zeregina zuen. Imajinen eta hitzen jolasean, Unamuno *tradizio* kontzeptua (betiereko tradizioaren adieran ulerturik) *tradizionalismo* kontzeptuaren kontra jartzen du (berau tradizioaren kontzepzio hertsia eta partzialekiko atxikimendutzat ulerturik, eta horrexegatik Unamunok adiera peioratiboa ematen dio). Iragana, Unamunoren ustez, betiko hilik dago, baina ez iragan osoa, iragan “historikoa” baizik, hots, azaleko gertakarien iragana alegia. Tradizionalistek tradizio iragan hilean bilatu nahi dute eta hor heriotzaren betierekotasuna besterik ez dute aurkitzen. Egiazko tradizio “betierekoa” da eta, horregatik, gizatiarra, hots, gizateria osoari eta ez, soilki, herri bakar bati dagokiolako adieran. “Betiereko tradizioa gizakiaren beraren izaeraren barrena da”. Beraz, jatortasunari kontrajartzen zaio.

“Betiereko tradizioa”z zuen ideia oinarritzeko, Unamuno *barnehistoria* kontzeptua sortu zuen: “Historiaren uhinak, beren urrumaz eta eguzkitan distira egiten duen bitsaz, itsaso

¹³ [Balmes o.c., 10.](#)

etengabe eta sakonera gainetik biraka ari dira, berau askoz ere sakonagoa izanik itsaso isilaren gainean ondulatzen den geruza baino, horren azken barrenera eguzkia behin ere heltzen ez delarik. Egunkariak egunero kontatzen diguten guztia, “orainaldiko une historiko” honetako historia guztia, ez da itsasoaren gainaldea besterik, hots liburu eta erregistroetan izozten eta kristaltzen den azalera, eta, behin horrela kristaldu eta gero, geruza gogor bat da, eta bizitza barnehistorikoaren aldean ez da handiagoa, gu bizi gareneko azal urri hau berak barruan daraman suzko gune neurrigabearen parean dena baino. Egunkariak ez diote ezer historia gabeko milioika gizonen bizitza isilaz, eguneko ordu guztietan eta globoaren herrialde guztietan eguzkiaren aginduz jaiki eta beren alorretara eguneroko lan ilun eta isilarekin segitzera doazenaz eta, halere, lan hori ozeanopeko madrepora bezala, oinarriak ezartzen ditu, horren aginean Historiaren irloteak altxa daitezten. Nioenez, erabateko isiltasun nagusi horren gainean soinua oinarritzen eta bizi da; neurrigabeko Gizateria isilaren gainean Historian zaratotsa egiten dutenak jaikitzen dira. Itsasoaren barrena bezalako bizitza barnehistoriko, isil eta etengabe hori aurrerapenaren substantzia da, egiazko tradizioa, eta ez liburu, paper, oroigailu eta harrietan ehortziriko iraganaren bila joaten den beste gezurrezko tradizio hori”.

Soinua isiltasunari kontrajartzen zaio; historiaren uhinak barrenalde gelduari; irloteak madreporari; egunkariak, paperak... historia gabeko milioika gizonen. “Orainaldiko une historikoa” azalekoa da, pasakorra, kristaltzen eta izozten dena. “Liburu eta erregistroetan” kristaldua “geruza gogortzen” da, baina balio gutxikoa da. Gainalde kristaldua = Lurraren gainazala; bizitza barnehistorikoa = Lurraren suzko erdigunea. Barnehistorikoa, betiereko tradizioa, isiltasunak irudikatzen du; “orainaldiko une historikoa”, aldiz, hotsak du irudikatzen (uhinen “urruma”, “soinua”, “zaratotsa”, “azantza”). Soinua neurrigabeko Gizateria isilaren gainean oinarritzen eta bizi da”. Unamunoren aburuz, dudarik ez, egunero lanean ari den neurrigabeko gizateri jendealdra hori zaratotsaren antolatzaileen pean zapalduarik dago, hots, beren burua nabarmentzen eta, horrez gainera, goian direlako, baina behean daudenei esker bizi izanik, paper-harrietan beren burua irautarazten nahi dutenen azpian. “Historia gabeko milioika gizon horien lanak eusten dio historiatzat erakundeturik dagoen “kontakizunari”.

Barnehistoria delako nozio aski zirriborrozko honek zeregin garrantzitsua izango zuen Unamunoren geroko obretan, *Paz en la guerra*-n adibidez. Geroago bestelako neurri eta garapenak izango zituen, *Mi religión y otros ensayos*-en batez ere “¡Adentro!-n norbere baitan gertatzen diren bi “ni”-ren artean bereizketa egitean, biak etengabeko borroka dialektikoan. “Ni” horietako batak bere burua agertu eta historian iraun nahi luke; besteak, isilak, haurtzaro errugabearen urteak nahiago. Lehenak ez du hil nahi; haren barruan bihotzak (sentimenduak) eta buruak (arrazoimenak) borrokan dihardute; bestea, aldiz, kontenplaziozko “behakuntzazko”, errugabetasun galduaren itzuleraren, haurtzaroaren bila ari da; ni horren ikuspegitik Unamunok bere burua “fartsantetzat” salatuko zuen, heriotzaren beldur, berekoikeriaz historian betiraun nahi izateagatik.

1897. urtean Unamunok jasaniko krisi gogorrak bere aurreko ideialak birplanteatu eta haietan sakontzera eraman zuen. Unamunoren gogoetak nolakotasunean neurri berria

izango zuen. 1900 eta 1904 arteko krisiaren ondoko urteak¹⁴ Unamunorentzat borroka-urteak izan ziren, zientzia enpiriko-positibistaren (mendearen bukaerako kultur agertokian nagusi izaniko positibismoaren eraginpean zeuden oraino haren kontzepzio marxistak¹⁵) eta transzendentziari zuzenduriko fede-segurtasunetik sakonki sentituriko beharriaren artean. Hartatik, sinetsi nahi izatean zetzan fede “heroikoa” sortuko zen¹⁶. Borroka horrextan mamituko zen kontzepzio “tragikoa” zeritzona.

Kontzepzio “tragikoak”, bere aldetik, Unamunok lehen defendatu zuen arrazionalismo aurrerazale hura ezereztuko zuen. Schopenhauerrek¹⁷, Nietzschek¹⁸ eta Kierkegaardek¹⁹ urte hauetan eragin erabakigarria izan zuten Unamunorengan. Ez zuten eragin txikiagoa izan Leopardik, Senancourrek (*Obermann* liburuarekin) eta Amielek²⁰, horiek ere beren idazlan literario-poetikoetan, bizitzaren kontzepzio “tragikoa” defendatzen dute eta.

Eragin hauek guztiok Unamuno borondatearen filosofia “erromantikorantz” eraman zuten, egintza “heroikoak” hor erdiko zeregina izanik. Horrelako egintzaren paradigma existentziala Unamunok On Kixoterengan (edo Eneko Loiolakoaren baitan) aurkitu zuen: cfr. *Vida de Don Quijote y Sancho* (1905): “Gauzen itxurazko harremanak ordenatzen dituen *logikaren* ezezko ororen aurka, haien ukitu substantzialak ordenatzen dituen *kardiakaren* baiezkua altxatzen da. Buruak kontzientzia egunen batean urtuko zaiola diosan arren, heure bihotzak, larritasun infinituak iratzartu eta argiturik, arrazoimena gidari ez duen mundu bat badela irakatsiko dik. Egia, bizierazten duena da, eta ez pentsarazten duena”.

Honetara, Unamuno bai Descartes-en filosofiaren eta beronek irekiriko korrante “arrazionalistaren” aurka, eta bai Espainian hain erroturik zegoen eta Donoso Cortés-ek, Balmesek eta Menéndez Pelayok defendatu eta hedaturiko katolikotasun neoeskolastikoaren kontra ere jarri zen.

¹⁴ [*„Plenitud de plenitudes y todo plenitud“ idazkiak \(UOC I, 1171-1182\) \(1904.eko abuztuaren\) epe hau ixten du, krisiaren azken puntua jarririk. Cfr. Pedro Cerezo Galán: “Die Philosophie des Willens bei Unamuno”, in El Aracáduz 4. Zkia. \(1989\), 121-142. orr.*](#)

¹⁵ [Espainiako positibismoaz cfr. Diego Nuñez: *La mentalidad positiva en España. Desarrollo y crisis*, Madrid 1987. Autoreak horren eragina garai hartako bizitza kulturean noraino heldu zen erakusten du, eragin hori, alde batetik eskolastikoei, baina bestetik krausistek ere oztopatu nahi izan zutelarik.](#)

¹⁶ [Garai honetan Unamunok filosofo protestante liberalen obrak irakurri zituen, Harnack, Ritschl edo Troeltschenak adibidez, horientzat fedezko egintzak garrantzi handiko zeregina izanik.](#)

¹⁷ [Unamunok 1890.etik Schopenhauer irakurria zuen, berberak Mugicari egindako eskutitz batean aitortzen duenez. Cfr. “Cartas inéditas de Miguel de Unamuno”, S. Fernández Larraín-ek bilduak, Santiago de Chile 1965, 109. eta 153. orr. Schopenhauerren irakurketatik, batez ere, heldu zen Unamuno Kantengana, arrazoimen praktikoaren nagusigoaren ikuspuntutik irakurriko zuena, baina beti ere Schopenhauerren leihatilatik.](#)

¹⁸ [Cfr. Gonzalo Sobejano: *Nietzsche en España*, Madrid 1967. Nietzschek Unamunoren baitan izandako eragina dela eta, ikus 276-318. orr. “Ondorio gisa, esan daiteke iseka, gupida, antipatia edo haserre-lekukotasun hauek \[...\] ez dutela baztertzen, aitzitik, aurreuposatzen eta nabarmentzen dutela Unamuno Nietzschekin lotu zuen ahaidetasuna. Haren dibergentziak gora behera, Unamuno da, hitzen eta ideien azpitik dagoen zerbaitetan, Nietzsche gehien gogorarazten digun idazle espainola: bizitzarekiko keinuan alegia. Baina ez zuten arrazoirik haren imitatzaila zela uste zutenek. Unamunok ez zuen hori izan nahi, baina neurri batez behintzat Nietzschearen anaia espirituala izan zen, eta, haren mintzaira bera erabiltzearen, haren “agonista” izan zen bete-betean bizitzaren sentimendu tragikoan.” \(318\).](#)

¹⁹ [Zuluetari eginiko eskutitz batean \(1904\) Unamunok Kierkegaard mendearen hasieratik kontaktzen du. Cfr. “Cartas inéditas..”, 73. or.](#)

²⁰ [Cfr. Unamunok 1897an idatzirik Diálogo íntimo \(UOC VIII, 779-882\). Unamuno barrutik ulertzeko hain garrantzizkoa den liburu hau lehen aldiz 1970. urtean argitaratu zen.](#)

“Baina, beharbada, gure pentsaerako heroiaren bila joan behar izanez gero, ez genuke haragiz eta hezurrez bizi izandako ezein filosofoengana jo behar, fikziozko eta ekintzazko izaki batengana baizik, filosofoak oro baino egiazkoagoa bera; On Kixoterengana alegia. Izan ere bada kixotismo filosofikoa, noski, baina filosofia kixotetarra ere bai. Besterik al da ba, funtsean, konkistatzaileen filosofia, kontrarreformatzaileena, Loiolakoarena eta, batez ere, jadanik pentsaera abstraktuaren mailan, baina sentituz, gure mistikoena? Zer ote zen San Joan Gurutzekoaren mistika, sentimenduaren jainko-erako zalduntza ibiltaria besterik?²¹” Zeri deritzo Unamunok filosofia kixotetarra? Ba al dago horretaz seriozki mintzatzerik, eta, gainera, berori espainiar filosofia berezi gisa kalifikatzerik? Nolako adieran? Espainiar mundu-ikuskeraz mintza al daiteke? Eta guztiarekin ere, zer ulertzen da “pentsaera poetikoa” esatean?

Kixotismoaz mintzo zenean Unamunok gogoan benetako filosofia bat, eta soilik metafora bat zuela ikusteko, aski da haren obrei so egitea. Kixotismoa espainiar “betiereko” tradizioaren iturriari darion filosofiaren erdiko kontzeptua da, eta tradizio horretatik hasiriko eraldaketa eta hazkuntza gisa ulertu beharra dago bera. Kixotismotzat Unamunok On Kixote eta Santxo Pantzaren figuren interpretazio sortzailea, eta ez soilik ugaltzailea, ulertzen du. Ez da interpretazio historiko edo literatura-kritikazko bat, interpretazio berria baizik, eta batzuetan Cervantesen beraren aurka zuzendua da.

“*On Kixote* betiereko obratzat autore gabekotzat eta idatzi zen garaitik kanpokotzat hartzen dut²². Cervantesen testua oinarritzko ehuna besterik ez da, hortik aurrera Unamunok bere ideia propioak bilbatzeko²³. On Kixote eta Santxo Pantzaren baitan bi figura garatzen ditu, biak elkarrekiko harremanetan, eta beren polaritatean Unamunoren kontzepzio literario-filosofikoa azaltzeko zeregin nagusia betetzen dute biek²⁴. Alabaina, Santxo ez da On Kixoteren kontrapolo hutsa, haren osagarria baizik. Santxorengan On Kixotek bere solaskide kualifikatua aurkitzen du: “Baina, egia esan, on da Santxok On Kixote laguntzea eta harengandik ez urruntzea. Santxo, bilau zital oihal-joleen makinan artean jaio eta hazia, gaua heldu eta horiek ikusi ez, baina horien hots beldurgarriak entzuten dituenean, merkurio-gaitzak jotako batek bezala izuz dardarka hasi eta On Kixoteren arrimuan jartzen da, [...] baina behin biharamunera heldu eta gero, zergatik burlatuko da bera bere larritasunean babestu zuenaz, eguargitzera ailegatzen utzi zionaz [...] eta horrela argi-ilun artean bizitzen ari gara eta On Kixote eta Santxo bat egiten diren unerantz abiatzen”. Unamunok, Cervantesek ez bezala, ezkutaria izenburuan bertan aipatzean, hark On Kixoteren eskubide berberak eskuratzen dituela erakusten du; elkarrekiko harremanaren eraginak dimentsio berria moldatzen du, Unamunok Santxoren “kixotekuntza” eta On Kixoteren “santxokuntza” gisa izendatzen duena. Santxo herstura, aurrerakada, eszeptizismoa eta errealitatea da; On Kixote adorea,

²¹ [Unamuno: Bizitzaren sentimendu tragikoa](#), UOC VII, 293.

²² [Múgicari eginiko eskutitza \(1904.eko ekainaren 28ko\)](#)

²³ [“Cervantes testua oinarritzko ehuntzat darabilt, bertan neure irudikapenak brodatzeko” \(Múgicari 1904.eko irailaren 15ean eginiko eskutitza\).](#)

²⁴ [Geroago \(1914ean\) berberak argituko zuen bederatzi urte lehenago idatzi zuen liburuaren asmoa: “Liburu hura cervantisten eta erudituen aurka Quixotea birpentsatzeko idatzi nuen, gehienentzat letra hila zen eta horrela izaten segitzen zuen hartatik bizitzarako obra egiteko. Zer ardura dit Cervantesek han ipini nahi zuenak? Bizirik dagoena nik hantxe aurkitzen dudana da, Cervantesek jarrai izan zein izan ez, nik han ipini, gainipini eta azpipintzen dudana, eta han guztiok ipintzen duguna. Han gure filosofiaren lorratzen bila aritu nahi nuen \[azpimarra gurea da\].” \(Bizitzaren sentimendu tragikoa, UOC VII, 290\).](#)

tradizioa, fedea eta idealtasuna. Biek elkarren beharra dute²⁵, osotasun bakarraren alde biek bezala.

8

Jarduera espirituak heroikoak bere energia sortzailea ateratzeko darabilen iturria “sentimendu tragikoa” da. Eta zertan datza berau? Unamunoren aburuz, giza bizitzaren azken egitura da, ezin murrizteko egitura bakoitza, irtenbiderik izateko ahalmenik gabea. Egitura bitar hau itxuraketa ezberdinez jantz daiteke, eta horietako garrantzitsuenak, *Sentimendu tragikoa*-n, pentsamendua eta fedea dira. Biok, ordea, elkarren aurkako borrokan ari dira, eta batak eraikitzen duena besteak eraisten, eta alderantziz. Hargatik, bizitza kontzientea nahitaez tragikoa da, abenikoaren bakea erdiesterik behin ere izango ez duelako. Benetako bizitza, eta ez atal soil bat bizi nahi duen gizakiak erronka hori onartzea beste erremediorik ez dauka, “tragikoki” bizitzea hain zuzen. Horregatik Unamunok kontzientziari gaixotasun deritzo. Gizakia izaki gaixo bat da, eta badaki gaixotasun sendaezina duela. Bizitzaren zentzu bat aurkitzeko bide bakarra “heroikoki” jardutea dateke, gizakiari ez baitzaio tragediatik salbatzeko bat ere esperantzarik gelditzen.

Paradigma existentzial hau Unamunok On Kixoteri buruz eginiko interpretazioan garatuko zuen. Filosofia kixotetarra da, eta beraz, bizitza era heroikoan ulertzen den neurrian, horren zentzua, hain zuzen, zentzurik ez izatean, ekintzaren zentzurik ezean datza; ekintzari zentzurik ezaz harago beste zentzurik ezin aurkitzean. Zentzu honen zentzurik eza da zentzurik ez horren zentzua.

Azken giza egitura honetatik ihes egiterik ez dagoela ontzat ematea puntu erabakigarria da, filosofia bat benetakoa den ala, bestalde, filosofia murrizkorra besterik ote den jakiteko. Eta hemendik ikusiz gero, filosofia moderno guztia, Descartesengandik hasita, murrizkorra da. Teologia modernoari ere itsu baino ezin izan daitekeen fede “heroikoaren” bizitasuna kategoria logiko edo abstraktutara murriztea aurpegiratzen zaio. Biak, filosofia eta teologia, zientzia modernoaren botere inkisitorialaren erpeetan erori dira, eta horrek giza barrutitik kanporatzen du definizio enpiriko logiko eta kontraesanik gabekoetara ezin murriz daitekeen guztia, eta gauza ahantzien barrutira erbesteratzen. Baina ahantzirikoak gaeko indar atzerazaleei dei egiten die platondar haitzulotik irteten heroikoki saiatzen diren indar ilustratuen aurka. Oroitzapenak (Platonengandik hasi eta Hegel eta Nietzscherengana joanez) egunaren argiari atea irekitzen dio eta, horrela, haitzulo mehatxatzailetik, umontzirik kanpoko bizitza berria izateko ahalmena agertzen da, askatasunezko errealitatean.

Unamunok europar tradizio modernoari egiten dion kritika azken giza dimentsio horren ahantzurari zuzentzen zaio, zientzia modernoaren menera makurtzearen ondorio denari. Honetara murrizketa bat burutuko zen, eta Unamunok horren ondorio tragikoak bere garaiko gertakari politikoetan aurkitu uste zituen, bere adiskide Giovanni Papiniri idatziriko eskutitzean (1915/07/15) edo “A la “revista cristiana”” izenburuaz España aldizkarian argitaraturiko artikuluan ikus daitekeenez (161.7.29). Baina hau nabariegia da eta ez da zertan gehiago errepikatu behar.

Zer esangura du, Unamunoren ustez, “europar Kulturak” eta zertan funtsatzen da horri egiten dion kritika? Mendebaldeko “Kultura” desbideratua da. Horretara eraman zuten

²⁵ [UOC III, 109-110.](#)

bai Errenazimentuak, bai Erreformak eta bai Frantziar Iraultzak ere. Balio espiritualen lekuan aurrerapenaren, arrazoimenaren (ratio) eta zientziaren edo Kulturaren balio materialak ezarri dira. Unamunok horretan “arimaren hilezintasunean, unibertsoaren giza zertarakoan fedea galtzea”²⁶ dakusa. Nola ulertu behar da hau guztiau? Unamunoren filosofia guztiaren erdigunea, zalantzarik gabe, heriotzaren itauna, hilezintasunari buruz galdetzea da, eta ardatz horren inguruan biraka ari dira haren gainerako galdera guztiak. Horregatik Ortegak, arrazoiz, Unamunoren filosofia “meditatio mortis” gisa kalifikatu zuen²⁷.

Europar kulturaren zoritxarra, Unamunoren iritiz, katolikotasunaren ideala hustean datza, hau da, erlijio horren ideala galdua izatean. *Bizitzaren sentimendu tragikoa*-n katolikotasunaren esentziari eta beronek teologia eskolastikoaren eskuetan, bere era arrazionalistan, izandako degenerazioaren kritikari kapitulu oso bat (4.a) eskaintzen zaie; arrazionalismoa Inkisizioaren era berriko agerrera da, baina oraingoan barneratua –eta horregatik beste historiko hura baino arriskugarriagoa--. Tragedia moderno honek, azken buruan, arimaren hilezintasunean fedea galtzea dakar aldean. Tragedia honen adierazpen zehatzena Faust doktorearen figura da, Margarethe (herri xehea) galdu eta Helenaren (“Kulturaren”) eskuetan erori zena²⁸. Helena, era berean, hilezintasunaren sinboloa den Dultzinari kontrajartzen zaio. Zientziak eta “Kulturak”, horrela, “inkisizio berria” eraiki dute eta inkisizio horrek gaur egungo gizon landu eta europarraren barruan egin du habia. *Ratio*ak fedeari barre eta mesprezu egiten dio. Unamunok, On Kixote berriak, horrexegatik, europar “kultura” horri gerra irekia deklaritzen dio, horrek, bere aldetik, tradizioari deklaratu dio bezalaxe.

Abel Sánchez-en, Unamunoren nobela (edo nívola) garrantzitsuenetako batean, 1917an idatzian, hau da, *Bizitzaren sentimendu tragikoa* baino bost urte geroago, Helena, Joakinen emaztegaia, azkenean Abelez maitemindu eta honekin ezkontzen da. Horrek Joakinen bizitza infernu bihurtzen du, barrua erretzen dion inbidiagatik –pixkanaka gorroto bilakatu zena--. Joakinek azkenean honela aitortzen du: “Nigan arimarik ez dagoela aurkitzeak, ikasketetan, ez kontsolamendua baizik eta neurrigabeko nahikunde baterako laguntza bilatzera bultzatu ninduen. Zapaldu behar nuen, neure izenaren ospeaz, Abelen hasierako fama hura: ene zientzi aurkikuntzek, egiazko poesiako arte-lanak, haren koadroei itzal egin behar zieten. Egunen batez Helenak ulertu beharko zuen neuk, medikuak, antipatikoak, emango niola gloriako koroa, eta ez hark, pintatzaileak”.

9

Unamuno nartzisista zen, goitik beherako nartzisista, egozentriko jasanezina, eta besteari, bestetasunari, arnasa egiteko zirrikiturik txikiena ere ez zion uzten. Bere buruari, izaki eksklusibo eta errepikaezin gisa zion errotiko atxikimendu hau da, beharbada, haren *pathos*aren ezaugarri nabarmena. Nartzisista agertokiaren gainean bizi da, beti eszenan jarria. Norbaitek esana da Unamuno “nitasunaren hiperestesiak jorik zegoela, arrakasta goiztiarrak ekarririko intoxikazioaren ondorioz”²⁹. Pío Barojak bere erkideaz honela zioen: “Ene ustez Unamunok buruan patologiazko asko zeukan, eta,

²⁶ [UOC VII, 284.](#)

²⁷ [Ortega: “En la muerte de Unamuno”, in: OOC V, 264.](#)

²⁸ [“Izan ere, Helenak, bere musuekin, arima ateratzen digu. Eta nahi eta behar duguna arima da \[...\]” *Bizitzaren sentimendu tragikoa*. UOC VII, 285\).](#)

²⁹ [O. Saldaña, Miguel de Unamuno, Madrid, 1919, 6. or.](#)

batez ere, egotismo ikaragarria, eta horrek mundutik isolatzen zuen, berak bestela uste izan arren”³⁰.

Cómo se hace una novela liburuan, Parisen, erbesteko bakartasunean, bere bizitzako egunik tragikoenak bizi izan zituen lekuan idatzirik, Unamunok bere “barne-esperientziarik tragikoenari” aurre egin zion, hots, berak “nortasunaren problema” deitu zionari: Garenak al gara ala irudiz garenak? Geure nortasunaren itxurakeria egiten ari gara ala ez? Nolako harremana dute elkarren artean barneko ni barnehistorikoak eta kanpoko ni historikoak? Sánchez Barbudo Unamuno ospea besterik nahi ez zuen hipokrita eta fartsante bat zelako tesiaren alde agertu da, eta horretarako ez zuela poserik bat ere baztertzeko³¹. Hilezintasun-antsia, hortaz, ez litzateke haren nartzisismoaren ondorio bat besterik. Nartzisistak besteen aditasunaren erdigune izateaz gainera, hori betiko izan nahi du; ezin jasan dezake inoiz hori izaten utzi beharra eta beste batek bere tokia hartzea, haren ordeztarritara. Gutariko bakoitza bakarra eta ordeztarritara delako. Haren hilezintasun-irrika, gainera, ez da “haraindiko” “beste” bizitza bat ortodoxiaz onartu eta horixe nahi izatea; aitzitik, berak bizitza honen luzapena nahi zuen, eta orain den bezalakoxea, hau da, inolako konpromisorik gabe. Honetan Unamuno erabat heterodoxoa agertzen zaigu: Unamunok ez du hil nahi izaterik ere nahi, “bere” nitasunari zion atxikimenduaren azken muturreko adierazpen berau. Hilezintasun ere hau ezinezkoa balitz, hortxe dago –baina beti ere ordeztar edo ordain gisa-- ospean hilezin gelditzeko irrika. “Eta arimaren hilezintasunean sinesten ez dugunez gero, izen bat uzteaz, gu mintzakizun izateaz, besteren oroitzapenetan bizitzeaz egiten dugu amets” (Maitasuna eta pedagogia OC II 384). Unibertsalaren eta indibidualaren, oro izatearen eta ni izatearen arteko dialektika benetan zaila. Unamuno oro ni izaten saiatzen da; bestea, nitaz kanpoko, berezko autonomiaduna eta hi den aldetik, birrintzen eta ezereztan ahalegintzen da. Jainkoa bera ere –blasfemia gorenarekin nitasunean irentsirik geldituko litzateke, nire ilusioa, eta ene sorkaria izango litzateke, eta ez ni harena. Unamunori ez zaio interesatzen, ezin interesa dakioke Jainkoa; Unamunori bere nitasunak besterik ez dio axola, eta soilki horren iraupena Jainkoak garantizatzen dion neurrian, orduantxe egiten dio ongi etorria. Nitasuna ez den guztia ukatzeko errotiko joera honek ondorio praktikoa erabat larriak dakartza, funtsezkoena bestetasunaren ukapena izanik, hots, bestea ni ez bezalako beste bat-tzat onartzeko ahalmenik eza.

10

Kultura beti ere erlazioa da, zuzena eta zeharkakoa, hartu eta emaneko, nork bere denborarekin, nork bere garaiarekin pultsu-lehiaketa egitea. Hegelen definizioaz, filosofia norbere denboraren adierazpena da, kontzeptuan azaldua. Kultura izatea nork bere denbora bizitzea da, sufritu edo/eta gozatzea. Norbere denboraren zurrumbiloan aurkitzea alegia. Ikuspegi honetatik, esku artean darabilgun liburu hau, zalantzarik gabe, kulturalki bizirik dagoen liburua da, garai bateko kezka-arduren adierazpen bizia, hain zuzen.

Izan ere, Unamuno, arrazoimenaren aurka, irrazionaltasunaren alde jartzea da, Margaritaren alde eta Helenaren aurka, sentimenduaren alde, endelguaren kontra eginez, puru ez den poesiari hobe deritza puruari (Góngora-ri) baino, atzerapena nahiago aurrerapena baino. Erromantizismoak Descartesen, Kanten, edo Hegelen

³⁰ [Pío Baroja, *Memorias*, III lib. Madrid, 1945. 148.or.](#)

³¹ [Cfr. *Estudios sobre Unamuno y Machado*.](#)

arrazoimenaren aurkako erreakzioa zekarren. Eta, zalantzarik gabe, Unamunoren temperamentu grinatsua ere erromantikoa da (bizitza bilakaturiko desarrazoiaren filosofoa: sentimendu tragikoarena), Ortega ilustratuaren aurrean. Ortega Unamunoren kontrafigura da, Mesonero Larrarena zen bezala. Unamuno arteza, erromantikoa, irrazionala, kezkarria, antieuroparra, larrekia; Ortega zeharkakoa, ilustratua arrazionala, harmonikoa, europarra, kaletarra. Unamuno, mistikoa; Ortega, teologoa. Biak elkarren ispilu izan ziren, batak besteari eginiko laudorioen eta, batez ere, destainen historiak ongi erakusten duenez. Unamunok idealak zituen, Ortegak ideiak. Idealak dituen heroiko eta fanatikoa izaten da, ideiaduna, aldiz, urrun, egoskor eta eszeptiko mantentzen da. Azken buruan Unamuno segur aski gaurkoago gertatzen da (postmodernoen ondokotzat hartzen duenik ere bada!), historizismoa gaintitu, bera egiaren gainean ezarri eta berau dialektikoki artikulatzen baitu, heroikoki, zauriak irekiz, eta ez itxiz, eszeptiko mantentzen da. Azken buruan Unamuno segur aski gaurkoago gertatzen da (postmodernoen ondokotzat hartzen duenik ere bada!), historizismoa gaintitu, bera egiaren gainean ezarri eta berau dialektikoki artikulatzen baitu, heroikoki, zauriak irekiz, eta ez itxiz.

Unamuno berak uste baino hegeliarragoa zen; gutxienez, Espirituaren Fenomenologiaren adieran, Espirituaren gatazken borroka-lekuan, eta hil arteko borrokan, eta ez Unamunok eta Hegelek hainbeste gaitzesten zuten borrokan teorikoan, batak, (Unamunok) teoriko zeritzolako eta besteak (Hegelek) abstraktua iruditzen zitzaiolako. Unamunoren eszeptizismoa ez da erabatekoa, irtenbide bat, esperantza bat baitu, ez ordea logikoa, “kixotetarra” baizik; sintesi bat hain zuzen.

11

Beste puntu bat ere ukitu nahi nuke, laburki bederen. Unamunoren obran euskarak izandako lekua, gai eztabaidagarri bezain korapilatsua berau. Arazo hau bere fase positibistari erabat loturik dago. Unamunok doktorego-tesia positibista baten, Antonio Sánchez Moguelen zuzendaritzapean egin zuen. Haren tesian bi eskema eboluzionista tartekatzen dira. Bata soziologikoa, Spencerrena; eta bestea linguistikoa, Schleicherrena. Lehenaren arabera, gizarte guztiak hiru fasetatik iragaten da: horda, gizarte militar eta industri gizartetik alegia. Bigarrenaren arauz, hizkuntzek ere hiru fase gaintitu behar dituzte: silabikoa, eranskaria eta flexiboa. Unamunok eskema biak elkarren gain jarri zituen, eta gizarte mota bakoitzari hizkuntza fase bana esleitzen zion, iragaten ari den mailaren arabera. Euskara baina, bigarren fase horretakoa omen zen, eta eskema horrekin ez luke balioko hirugarrenerako, euskal gizarte jadanik erdiesten ari zenerako. Eta horrexegatik desagertzen zen, Unamunoren ustez.

Luis S. Granjelek (in *Retrato de Unamuno*) Unamunoren eboluzioa honela interpretatu du: naturaren egoera paradisuartetik (itsasotik eta amagandik), bere “Euskal Herritik”, “neure mundutik, neure egiazko mundutik, neure enbrioizko espirituaren umetokitik” irten, orduan bere “matria”, hizkuntza utzi eta ukatuz, paisaia eta naturarik gabeko Gaztela aurkitzera joateko. Haustura honek Unamuno bere burua birdefinitzera eta egoera berriari lihoakiokeen ni egokia sortzera behartu zuen. Hortik jaioko zen Unamunoren nortasun bikoitza: alde batetik Unamuno publikoa, historikoa, gaztelaua; barrukoaren, barnehistorikoaren, euskaldunaren aurka jarria. Unamunoren fase positibista bigarren “ni” hori, lehenbizikoaren fabore, itotzeko ahaleginari oso loturik dago³². Erbestealdiaz geroztik Unamunoren nortasun-gatazka hori are larriago egin zen:

³² [Unamunok bere gaztaroan euskara ikasten ihardun eta idatzi ere zerbait egin zuen hizkuntza honetan, Euskal-Erria aldizkarian 1888.ean argitaraturiko “Agur arbola bedeinkatube” \(299-230. orr.\). Hor,](#)

Hirurogeiak ukitzear, ene beste halabeharra
neure jaioterria uztean utzia,
ametsaren barrenetik jalgi eta distira
egiten du ene bidean etorkizun berriak.

Izan zitekeena berriro dator, patuak
Gaztelako katedra hartan itoa;
itsasotik heltzen zait bazter honetaraino
goru berria dakarrela, berria ere lihoa

Azkenik, ametsetako hura nadin bilaka, poeta,
buruzagi sendoaren neure irrika bizi
zorte iheskorrak atxiki eta lotua;

lehenagokoetara itzul, zoria dezadan menera
eta egite-bizitzan, kanpotik urduri,
heriotzaren izua urtzera.

(Fuerteventuratik Parisera, LVI)

Fuerteventura itsasoa berriro aurkitzeak astinaldi sendoaz eragin zuen Unamuno, *Fuerteventuratik Parisera* horretan ageri denez. Blanco Aguinagak (*El Unamuno contemplativo*, 223) honela azpimarratzen du. “Unamunoren heldutasun-urteetan [itsasoak] ia bere balio objektibo-deskriptibo osoa galdu eta, amaren ideiarekin batera, betiereko gelditasunaren eta bake inkontzientearen irrika sinbolizatzerantz heltzen da”. Ondoren Parisen haren gabezia sentituko zuen: “Hemen, Parisen, gehienik faltan dudana itsasoa ikustea da” Hortxe, Parisen, hain zuzen, Hendaia itzuli baino lehen, bakartasun-krisi izugarria sufrituko zuen *Cómo se hace una novela*-n islatua. Nortasun-krisiak, beherago ezinean, hor toton egin zuen. Obraren protagonistak bere arimaren dualtasunari aurre egin behar dio: alde batetik eleberriko pertsonaia da, ideala, historikoa, baina bestetik hezur eta mamizko gizona ere bai, erreala, barnehistorikoa. Paradoxa horren irtenbidea hauxe izan zen: bere jaioterrira itzuliko zen, bere umezarokora, hor betiereko haurtzaroa aurkitzeko, oraindik irakurtzen ez zekien urrezko aroa, hots, eleberriko pertsonaia ez zen eta oraino Historiaren pean ez zegoen zen garaia.

Xabier Kintanak kontatzen duenez³³, behin Jose Mari Uzelaik eta Fernando Regoyosek Unamunori, Hendaian zegoenean, bisita bat egin zioten, eta Bidasoa bazterretik osteratxo bat egin ondoren geldialdi bat egin zuten Biriaturako bidean : “zutik zegoen bada, Unamuno, Bidasoa ondoan, [...]. Bilbotarrak eskua Gipuzkoarantz luzaturik zuen eta honela mintzo:

“Han dira Aiako haitzak, eta haien oinean Oiartzun. Eta Oiartzunen plaza dago. Eta plazan taberna bat. Ez dakizue asko nola gustatuko litzaidakeen gaur Oiartzunen,

[derradan bidenabar, bere izendeiturak euskaraz jarri zituen liburu honetan agertzen diren eran: *Migel Unamunokoa, hain zuzen,*](#)

³³ [Cfr. *Nazioarteko ipuinak*, Donostia, 1980, 84-85 orr.](#)

bertako plazan egon ahal izatea, Isabelitarekin³⁴ bazkaltzeko, berarekin mintzatzeko... euskaraz. Eta ezin dut!!

[...] Gero, hasperen baten ondoan, boz etsiaz, segitu zuen:

“Salamancako harri urreztatuek, askok bestela uste badute ere, oso ilusio txikia egiten didate, adiskideok, Euskal Herriko zelai berdeak, baserriak, horiexek dira nik egiaz maite ditudanak”.

Kasualitateak hala nahi izanik, hitzurre honen egileak euskara Marijose deritzon eta Oiartzungoa den irakasle batekin ikasi du. Eta orain Oiartzunen aurkitzen gara, uste dugunez, Unamunok pentsatzen zuen plaza eta taberna berean, eta euskaraz mintzaten gara. Eta ahal dugu!!

Kintanak honela bukatzen du: “Badirudi Unamunoren ahotik bihotzaren barneko beste bihotza ordura arte hertsatuaren hitzak irten zirela, izar liluragarri baina, bere erdaltasunean, urrunegi baten dirdiraganako amodio etsi eta isilaraziaren boza, urte batzuk lehenago eta toki bertsuan Iparragirreri ere jartoa. Gizonak une gutxi izaten ditu holakorik, arrazoiaren gainetik bihotzari nagusi izaten uztekoak. Minervar mozoloaren itxura ofizialaz beste aldean, kontzientziaz gainera, bizkaitar zozo inkontziente bat ere bazen, segur aski, Beharbada ez ohikoena, baina beste hura ere bera zen; agian gure Unamuno”.

1936.eko urriaren 12ko sesio sonatu hartan, Salamancako Unibertsitatearen paraninfoan Unamunok honela esan zuen: “Menderatzea ez da konbentzitzea, eta konbentzitu egin behar da... Katalanez eta euskaldunez hitz egin da, horiei anti-Espainia deiturik: ederki, arrazoi berberarekin esan dezakete haiek beste horrenbeste...”.

Egun batzuk geroago honela idatzi zuen tonu profetikoaz: “Alde bietatik terrorearen erregimena da. [...] Gure gazteriaren buru-defizientzia ikaragarria da [...] Eta oraindik hemen *Ducerik* bat ere izan gabe. Baina etorriko zaigu, bai, guztioi pentsatzeko nekea kentzeko [...] Gerra zibil basa hau amaitzean, hona talde-ergeltasun orokorreko eta errakuntza zorabiatueneko erregimena etorriko da [...] beldur naiz diktadura militar honek ez ote duen espainiar gazteria dagoeneko aski gutxitu eta ahuldua buru-objekzioan murgilduko, errusiar, italiar eta aleman gazterien parte handi bat honez gero murgildurik dagoen bezala”. Eta zoritxarrez arrazoa izan zuen.

Hil artean, Unamunoren obra autobiografi segida etsia izan zen, baina besteengandik eta bere buruagandik bereizten duen bakartasunean (erromantikoengan gertatzen zen bezala, Larrarengan adibidez) amaitzen ez dena; aitzitik, bere burua eszeptizismo eta melankoliaren abandonuan ez uzteko etengabeko ahalegina izan zen, bere burua gainditu eta horrela denbora eta fatalismoa hitzaren bitartez garaitzeko eginahala. Hitza betierekoa baita, ere gelditzen zaigun bakararra. Horri fidelki eutsi zion Unamunok azkenera arte; “Heriotza!” oihukatzen zuten fusil nazionalistei berak “Bizitza!” hitza kontrajarri zien (eta ez zitzaion gertatu germaniar lainoek atzeko ekaitza ezkutarazi zioten beste hari bezala). Hauxe da, azken buruan, Unamunoren irakaspen nagusia.

³⁴ [Oiartzungo maistra hau Unamunok Salamancan ezagutu zuen: dirudienez, adiskide handiak omen ziren.](#)

Bere garaiko seme zintzo bezala, Unamuno jai, bizi eta hil, urraturik egin zen, bere buruarekiko borrokan, ni egiazkoaren eta bestearen, izaten saiatzen zenaren, artean zatikatua. Bizi behar izan zuen garaiaren antzera. Liburuen, eleberrien, publikoaren Unamuno hark, Direktorioaren aurkako borrokan zebilelako atzerriratua izan zenak, betikotasunerako gelditzeko, berberak asmatuak, beste ni-aren aurrean iharduki beharra zeukan, politikan eta kontu publikoetan sinesten ez zuen eta hori guztiori fartsatzat jotzen zuen ni eszeptikoarekin. Bi ni haiek elkarrizketan aritu ziren, On Kixote eta Santxo bezala, bata Santxotuz eta bestea On Kixotetuz joanez, arrazoimena eta sentimendua bezala. Unamunok ez zuen lotura erraz eta lasterrik egin nahi, zauria ireki eta haren barrenera begiratu baizik, zauria, sendatzeko ahalbidetzat harturik, zauria jadanik sendabidea baita, osasuna heriotza delarik. Horrexegatik dugu hain gaurrengua.

Haren poeta-lana gizabanakoen eta herrien ahots hori entzunarazi eta plazaratzea izan zen. Thomas Mannek honela zioen Schillerren heriotzaren 150. urteurrenean: “Ohne Gehör für seine [Schillerrena] Aufruf zum stillen Bau besserer Begriffe, reinerer Grundsätze, edelerer Sitten, “von dem zuletzt alle Verbesserung des menschlichen Zustands abhängt” (Schiller: “Ankündigung der Horen”), taumelt eine von Verdummung trunkene, verwahrloste Menschheit unterm Ausschreien technischer und sportlicher Sensationsrekorde ihrem schon gar nicht mehr ungewollten Untergang entgegen”.

Unamunoren obra haren bizitzaren kronika da, hau da, haren egiazko ni-aren bilaketa; haren garaiaren kronika izaten amaitzen –edo hasten-- dena, hura trinkotasun osoaz bizi eta beste inork bezala islatzen duena: erlijioso, marxista, ateista, intelektuala, politikaria, poeta, ernegatua, europazalea, espainola edo euskalduna: baina bete Unamuno.

Xabier INSAUSTI

Bibliografia

1. Obra Orokorrak

Unamuno, Miguel de: *Obras completas*, IX vol., ed. por Manuel García Blanco y otros, Escilicer, Madrid 1966.

Fernández Larrain, Sergio (Recopilador): *Cartas inéditas de Miguel de Unamuno*, Santiago de Chile, 1965.

Unamuno, Miguel de, Zulueta Luis de: *Cartas 1903-1933*, Madrid, 1972.

2. 98eko belaunaldiaz

Abellán, José Luis: *Visión de España en la generación del 98*, Ed. Magisterio Español, Madrid, 1968.

Ibid: *Historia crítica del pensamiento español, : La crisis contemporánea (1875-1936)*, Madrid, 1989.

Cacho Viu, V.: *La Institución Libre de Enseñanza. I: Orígenes y etapa universitaria*, Madrid 1956.

Díaz, Elías: *La filosofía social del krausismo español*, Madrid, 1973.

Gil Cremades, J.J.: *El reformismo español: krausismo, escuela histórica, neotomismo*, Barcelona, 1969.

Ibid: *Krausista y Liberales*, Madrid 1975.

Gómez Bolleda, María Dolores: *Los reformadores de la España contemporánea*, Madrid 1966.

Granjel, Luis S.: *Panorama de la generación del 98*, Madrid, 1959.

Ibid: *Visión de España en la generación del 98*, Madrid, 1959.

Jobit, P.: *Les éducateurs de l'Espagne contemporaine, 2 vol.*, París/Bordeaux, 1936.

Kodalle, Klaus-María: *K. Chr. F. Krause (1871-1832). Studien zu seiner Philosophie und zum Krausismo*, Hamburg, 1985.

Laín Entralgo, Pedro: *La generación del 98*, Madrid, 1945.

López Morillas, Juan: *El krausismo español (perfil de una aventura intelectual)*, México, 1956.

Ibid: *Racionalismo pragmático. El pensamiento de Francisco Giner de los Ríos*, Madrid, 1988.

Núñez, D.: *La mentalidad positiva en España. Desarrollo y crisis*, Madrid 1978.

3. Unamunori buruz

Abellán, José Luis: *Miguel de Unamuno a la luz de la psicología*, Tecnos, Madrid, 1964.

Benítez, H.: *El drama religioso de Unamuno*, Buenos Aires 1949.

Blanco Aguinaga, Carlos: *El Unamuno contemplativo*, El Colegio de México, México, 1959.

Ibid: *Juventud del 98*, Madrid, 1970.

Cerezo Galán, Pedro: “*Die Philosophie des Willens bei Unamuno*”, in: *El Arcaduz* (1989), Munchen, 121-142.

Clavería, Carlos: *Temas de Unamuno*, Madrid, 1953.

Díaz, Elías: *Revisión de Unamuno. Análisis crítico de su pensamiento político*, Madrid, 1968.

Díaz Elías (Ed.): *M. de Unamuno. Pensamiento político*, (Edición y prólogo: “El pensamiento político de Unamuno”, de E. Díaz), Madrid, 1965.

Ferrater Mora, José: *Unamuno. Bosquejo de una filosofía*, Buenos Aires, 1944.

García Blanco, M. “*La cultura alemana en la obra de M. de Unamuno*” en: *Romanistisches Jahrbuch* 8 (1957), 321-340.

Ibid: *Juventud del 98, Siglo XXI*, Madrid 1970.

González Caminero, N.: *Unamuno. Trayectoria de su filosofía y de su crisis filosófica*, Comillas, 1948.

González Egido, L.: *Salamanca, la gran metáfora de Unamuno*, Salamanca, 1983.

Granjel, Luis S.: *Retrato de Unamuno, Madrid, 1957*. (Interpretación junguiana de Unamuno)

Lafuente, A.C.: *Antropología filosófica de M. de Unamuno*, Sevilla, 1983.

Laín Entralgo, P.: *La generación del 98*, Madrid, 1947.

Ibid.: *España como problema*, Madrid, 1962.

Marías, Julián: *Miguel de Unamuno*, Madrid, 1943.

Marichal, Juan: “*Unamuno y la recuperación liberal (1900-1914)*”, en: Ibid: *El nuevo pensamiento político español*, Mexico, 1966.

Meyer, François: *L'ontologie de M. de Unamuno*, Paris, 1955.

Möller, Joseph: “*Unamuno und die Postmoderne*”: *El Arcaduz* (1989), München, 1-14

Morón Arroyo, Ciriaco: “*Unamuno y Hegel*”, *Miguel de Unamuno* (ed. Sánchez Barbudo), Madrid, 1974, 151-179.

Orringer, N.R.: *Unamuno y los Protestantes liberales*, Madrid, 1985.

París, Carlos: *Unamuno. Estructura de su mundo intelectual*, Barcelona, 1968.

Pérez de la Dehesa, Rafael: *Política y sociedad en el primer Unamuno*, Madrid, 1966.

Pizán, Manuel: *El joven Unamuno*, Madrid, 1970.

Salcedo, Emilio: *Vida de don Miguel*, Salamanca, 1964.

Sánchez Barbudo, A.: *Estudios sobre Galdós, Unamuno y Machado*, Madrid, 1969.

Ibid: *Estudios sobre Unamuno y Machado*, Madrid, 1959.

Ibid (ed): *Miguel de Unamuno*, Taurus, Madrid, 1974.

Savater, Fernando: “*Prólogo*” *Del sentimiento trágico...*, Alianza, Madrid, 1986.

Sell, M.J.: *Das Drama Unamunos*, Ellemann 1965.

Serrano Poncela,S.: *El pensamiento de Unamuno*, México, 1953. (Ver especialmente “*El quijotismo como filosofía de la vida*”).

Sobejano, Gonzalo: *Nietzsche en España*, Madrid, Gredos, 1967; sobre Unamuno: 276-318.

Tomasso, V de: *Il pensiero e l’opera di M. de Unamuno*, Bologna, 1967.

Valverde, J.M.: “*Notas sobre la poesía de Unamuno*”, *Acta Salmanticensia*, X, 2, 1956, 229-239.

Zubizarreta, Armando: *Tras las huellas de Unamuno*, Madrid, 1960.

Ibid.: *Unamuno en su nívola*, Taurus, Madrid, 1960.

I

HEZUR ETA MAMIZKO GIZONA

Homo sum; nihil humani a me alienum puto, esan zuen latindar komikoak. Eta nik, ordea, honela esango nuke: *Nullum hominem a me alienum puto*. "Gizona naiz, ez deritzot arrotz beste ezein gizoni". Izan ere, *humanus* adjektiboa *humanitas*, gizateria, haren substantibo abstraktua bezain susmagarria dut. Ez gizatiarra ez gizateria, ez adjektibo sinplea ez adjektibo substantiboa, substantibo konkretua baizik: gizona. Hezur eta mamizko gizona, jai, sufritu eta hiltzen dena -batez ere hil egiten dena-, jan eta edan eta jolastu eta lo egin eta pentsatu eta nahi izaten duena, ikusten eta entzuten den gizona, anaia, egiazko anaia.

Izan ere, besterik ere bada, gizona ere deitzen dutena, zientzi itxura handiago edo txikiagoko gogo-itzulunguru anitzen subjektua izaten dena. Legendako hankabiko lumagabea da, Aristotelesen ζῶον πολιτικόν, Rousseau-ren gizarte-kontratatzaileria, manchestertarren *homo æconomicus*, Linné-ren *homo sapiens* hura edo, nahi izanez gero, zutikako ugaztuna. Hemengoa edo hangoa ez den gizona, garai honetakoa ez hartakoa, ez sexurik ez sorterririk duena, ideia bat, azken buruan. Hau da, gizon ez den bat.

Gurea bestea da, hezur eta mamizkoa; ni, hi, irakurle neurea; haragoko beste hura, lurraren gainean oinak ditugun guztiok.

Eta gizon konkretu hau berau da, hezur eta mamizkoa, filosofia ororen subjektua eta, aldi berean, objektu gorena, beren buruei filosofo deritzeten batzuek hala nahi zein nahi ez.

Ezagutzen ditudan filosofiaren historia gehienetan, sistemak batzuk besteetatik sortzen ari balira bezala aurkezten zaizkigu, eta haien autoreak, filosofoak, ia-ia aitzakia huts gisa azaltzen dira. Filosofoen barne-bizitzak, filosofatu zuten gizonenak, bigarren mailako tokia dauka. Eta halere, berori da, barne-biografia hori, gauza gehien azaltzen diguna.

Esan beharra dugu, aurrenik, filosofia makurtuago dagoela poesiarantz zientziarantz baino. Banakako zientzia berezien azken ondorioen egokitzapen gorena balira bezala mamitu diren filosofi sistema guztiek, edozein garaitan, askoz ere funts txikiagoa eta bizitza laburragoa izan dute autorearen izpirituaren erabateko irrika erakusten zuten gainerakoek baino.

Izan ere, zientziak, horrenbeste doazkigun eta gure bizitzarako eta pentsaerako ezinbestekoak diren arren, nolabait, filosofia baino arrotzagoak ditugu. Xede objektiboagoa betetzen dute, hau da, gugandik kanpokoagoa. Sakonean, ekonomi arazoak dira. Zientzi aurkikuntza berri bat, teoriko deitzen ditugunetakoa, aurkikuntza mekaniko bat bezalakoa da; lurrun-makina, telefonoa, fonografoa, aireplanoa, zerbaiterako balio duen gauza bat. Horrela, telefonoaz emakume maitearekin urrundik komunikatzeko balia gaitzke. Baina emakumeak zertarako balio digu? Norberak opera entzuteko tranbe elektrikoa hartzen duenean, galdera hau egin dezake: "Oraingo honetan zein da baliagarriagoa, tranbea ala opera?"

Filosofiak guk munduaz eta bizitzaz kontzepzio baterakor eta osoa eratzeko eta, kontzepzio horren ondorioz, barne-jarrera bat, eta ekintza bat ere, sorteraz dezakeen sentimendua eratzeko dugun premiari erantzuten dio. Baina, izan ere, sentimendu hori, kontzepzio haren ondorioa izan beharrean, beraren kausa da. Gure filosofia, hau da, mundua eta bizitza ulertzeko edo ez ulertzeko dugun modua, bizitzari berari buruz dugun sentimendutik sortzen da. Eta horrek, atxekimenduzko den ororen antzera, kontzientziapiko sustraiak ditu, inkontzienteak agian.

Baikor edo ezkor ez gaituzte geure ideiek egiten; aitzitik, gure baikortasunak edo ezkortasunak, bata zein bestea beharbada fisiologi edo patologi jatorrikoak izanik, egiten ditu gure ideiak.

Gizona, diotenez, animalia arrazoiduna da. Ez dakit zergatik ez den esan atxekimenduzko edo sentimenduzko animalia dela. Eta agian gainerako animalietarik sentimendua bereizten du bera gehiago, arrazoimenak baino. Maizago ikusi dut katua arrazoiketari, barrez edo negarrez baino. Baliteke barrutik barrez edo negarrez ari izatea, baina litekeena da, halaber, karramarroak berak ere bigarren mailako ekuazioak ebazten jakitea.

Eta, beraz, filosofo bati doakionez gehienik arduratu behar gaituena gizona bera da.

Har ezazue bada Kant, Immanuel Kant gizona, Königsberg-en XVIII. mendearen bukaeran jaio eta bizi izan zena, XIX.aren atarian oina jarri arte. Bada Kant gizon honen filosofian, bihozduen eta burudun gizona, hots, gizona, jauzi adierazkor bat, Kierkegaardek, beste gizon batek -eta nolako gizona, gero!- esan zezakeenez, *Arrazoimen Hutsaren Kritika-tik Arrazoimen Praktikoaren Kritika*-rako jauzia. Honetan berreraiki zuen, gizona ez dakusatenean diotena diotela, hartan eraitsi zuena. Bere analisisekin Jainkoaren existentziaren froga tradizionalak, Jainko aristotelikoarenak, ζῶον πολιτικόν-ari dagokion Jainkoarenak arakatu eta birrindu eta gero, hots, Jainko abstraktuarenak, lehenbiziko motore mugigabearenak, ondoren atzera Jainkoa berreraikitzen dator, baina kontzientziaren Jainkoa, ordena moralaren egilea, Jainko luthertarra azken buruan. Kanten jauzi hori, ernemuin gisa, jadanik Luthertar fedearen nozioan zetzan.

Jainko horietako bata, arrazoimenaren Jainkoa, definizioz gizon denaren kanpoaldearen infiniturako projekzioa da, hau da, gizon abstraktuarena, gizona ez den gizonarena, eta beste Jainkoa, sentimenduen eta borondatearen Jainkoa, bizitzaz gizon denaren barrualdearen infiniturako projekzioa da, gizon konkretuarena, hezur eta mamizkoarena. Kantek bihotzaz berreraiki zuen buruaz eraitsia zuena. Eta jakin badakigu, hura ezagutu zutenen aitortzen eta beraren aitortzen ere bai, beraren gutun eta adierazpen pribatuetan, Kant gizona, berekoia zela-ez-zelako mutilzahar hura, Entziklopediaren eta

Arrazoimen jainkoaren mendearen bukaeran Königsbergen filosofia irakasten aritu zena, problemaz oso kezkatuik zegoen gizona zela. Bizitzaren egiazko problema bakarraz esan nahi dut, errai-erraietaraino heltzen zaigunaz, geure banakako patu pertsonalaz, arimaren hilezintasunaz. Kant gizonak ez zuen guztiz hiltzea onesten. Eta guztiz hiltzea onesten ez zuenez gero, jauzi hura egin zuen, jauzi hilezina, kritika batetik besterakoa.

Arrazoimen Praktikoaren Kritika arretaz eta begi-estalkirik gabe irakur dezanak badakuske han, hertsiki, Jainkoaren existentzia arimaren hilezintasunetik ateratzen dela, eta ez hau hartatik. Inperatibo kategorikoak postulatu moralera garamatza; horrek, bere aldetik, maila teologikoan edo, hobesanez, eskatologikoan, arimaren hilezintasuna eskatzen du eta, hilezintasun horri eusteko, Jainkoa agertzen da. Gainerako guztia filosofiaren profesionari baten ezkutaketa hutsa da.

Kant gizonak morala eskatologiaren oinarriztat sentitu zuen, baina filosofi irakasleak dermioak alderantziz jarri zituen.

Ez dakit nik non, beste irakasle batek, William James irakasle eta gizonak, esana zuen Jainkoa, gizon gehienentzat, hilezintasunaren ekoizlea dela. Bai, gizon gehienentzat, hor Kant gizona, James gizona eta heu, irakurle, irakurtzen ari haizen lerro hauek idatzi dituen gizona ere sarturik.

Egun batez, nekazari batekin hizketan niharduela, hipotesi hau proposatu nion: alegia, badatekeela Jainko bat, zeru-lurrak gobernatzen dituen, Unibertsoaren Kontzientzia, baina halere, gizon bakoitzaren arima adiera tradizional eta konkretuan, horregatik hilezin izan gabe. Eta honela erantzun zidan: "Orduan, Jainkoa zertarako?". Eta horrelaxe erantzuten zieten beren buruei beren kontzientziaren eremu ezkutuan Kant gizonak eta James gizonak ere. Baina irakasle moduan zihardutenean, hain arrazionaltasun gutxiko jarrera hori arrazionalki justifikatu behar zuten. Halere, horrek ez du esan nahi, jakina, bera absurdua denik.

Hegelek ospetsu egin zuen bere aforismo hau: arrazional den guztia erreala dela eta erreal den guztia arrazionala; baina asko gara, Hegelek komentzituak izan gabe, erreala, bene-benetako erreala, irrazionala dela sinesten segitzen dugunok; arrazoimenak irrazionaltasunen gainean eraikitzen duela. Hegelek, definitzaile haundia bera, Unibertsoa definizioz eraiki nahi izan zuen, Artileriako sargentu hark kainoiak nola egiten diren azaltzen zuen antzera: zulo bat hartu eta burdinaz inguratu.

Beste gizon batek, Joseph Butler-ek, anglikar apezpikuak, XVIII. mendearen hasieran bizi izan zenak, zeinez Newman kardinale katolikoak anglikar Elizako gizonik handiena dela baitio, erlijioaren analogiaz (*The Analogy of Religion*) egindako obra haundiaren lehen kapituluaren azkenean, geroko bizitzaz ari dena, hitz mamitsu hauek idatzi zituen: "Hemen hainbesteko ekinez aipatu den geroko bizitzan sineste honek, gure jakingura nolabait asebetez gero behintzat, badirudi erlijioaren xede guztiei erantzuten diela, froga demostragarri bati bezainbeste. Egia esan, geroko bizitzaren froga bat, demostragarria izanik ere, ez litzateke erlijio-froga izango. Izan ere, heriotzaz gero dukegun bizitza gu orain bizirik egotea bezain ongi moldatzen da ateismoarekin, eta beronek ederki har dezake kontutan; beraz, ezer ezin daiteke absurduagoa izan ateismotik geroko egoerarik ezin dagokeela argudiatzea baino".

Butler gizonak, -eta honen obrak agian Kant gizonak ezagutu zituen-, arimaren hilezintasunaren fedea salbatu nahi zuen eta, horretarako, hura Jainkoaren baitako fedetik kanpora atera zuen. Haren *Analogia*-ren lehen kapitulua, diotsuedanez, geroko bizitzari buruz ari da eta, bigarrena, Jainkoak sariz eta gaztiguz darabilen gobernuaz. Izan ere, anglikar apezpiku on hark, funtsean, Jainkoaren existentzia arimaren hilezintasunetik ateratzen zuen. Eta anglikar apezpiku onak, hemendik abiatu zenez gero, ez zuen egin behar izan, luthertar filosofo onak, haren mende berberaren bukaeran,

egin behar izan zuen jauzia. Gizona zen Butler apezpikua, eta gizona zen, era berean, Kant irakaslea ere.

Eta gizona izatea zerbait konkretua, baterakor eta substantiboa izatea da; gauza, *res*, izatea da. Eta badakigu beste gizon batek, Baruch Spinoza gizonak, Holandan XVII. mendearen erdialdean jaio eta bizi zen judu portugaldar hark, gauza oroz idatzi zuela. Haren *Etika*-ren III. zatiaren seigarren esakuneak honela dio: *Unaquaeque res, quantum in se est, in suo esse perseverare conatur*; hau da: "Gauza bakoitza, berez den bezainbatean, bere izatean irauten ahalegintzen da". Gauza bakoitza berez den bezainbatean, hau da, substantzia den neurrian, filosofoaren arauetz, substantzia *id quod in se est et per se concipitur* baita; berez dena eta berez ulertzen dena. Eta hurrengo esakunean, zati bereko zazpigarrenean, haxe eransten du: *Conatus, quo unaquaeque res in suo esse perseverare conatur, nihil est praeter ipsius rei actualem essentiam*; hau da: "gauza bakoitzak bere izatean irauteko duen ahalegina, ez da gauza horrexen egiteko esentzia besterik". Esan nahi da, hire esentzia, irakurle, nirea, Spinoza gizonarena, Butler gizonarena, Kant gizonarena eta gizona den gizon bakoitzarena, gizona izaten irauteko ahalegina baino ez dela, hila ez izateko eginahala. Eta beste esakuneak, bi hauei darraienak, zortzigarrenak, honela dio: *Conatus, quo unaquaeque res in suo esse perseverare conatur, nullum tempus finitum, sed indefinitum involvit*, hots, "Gauza bakoitzak bere izatean irauteko egiten dituen ahaleginak ez duela aldean denbora mugaturik, mugagabea baizik". Hau da, hik, nik eta Spinozak, ez dugula inola ere hil nahi, eta inola ere ez hiltzeko irrika hori berori da gure oraingo esentzia. Eta, halere, portugaldar judu gizaixo hori, holandar lainoetan deserriraturia, ez zen inoiz heldu bere hilezintasun pertsonalean sinestera, eta haren filosofia osoa kontsolamendua besterik ez zen izan, bere fedegabetasun horretarako berak mamitu zuena. Beste batzuek eskuko edo hankako edo bihotzeko edo buruko mina izaten duten bezala, Spinozak Jainko-mina zuen. Gizon gaixoa! Eta gizon gaixook, gainerako guztiok.

Eta gizona, gauza hau, gauza ote da, ba? Galdera honek oso absurdu badirudi ere, izan dira berau egin dutenak. Denbora asko ez dela munduan zehar halako doktrina ibili zen, positibismo deitzen genuena, on asko eta txar asko ere egin zuena. Egin zituen beste txarren artean, analisi-modu bat ekarri zigun, egintzak egintza-hauts bihurtuz birrindu egiten zituena. Positibismoak egintzak deitzen zituen gehienak, egintza-atalak besterik ez ziren. Psikologian haren ekintza hilgarria izan zen. Izan ziren literaturgintzan sarturiko eskolastikoak ere -eta ez diot filosofoak, poeta eta filosofoa anaia bizkiak baitira, edo gauza bera, agian- elaberrira eta dramara psikologi analisi positibista eramanez zutenak, hots, gizon konkretuak zutik ipini behar diren lekura; eta kontzientzi egoeraren indarraz, kontzientziak desagertu egin ziren. Gertatu zituzten, maiz osatu kimiko organiko korapilatsu eta bizi batzuk aztertu eta entseiatzean gertatzen omen dena, hots, erreaktiboez, aztertu nahi den gorputza bera suntsitzen dutela, eta hortik erdiesten ditugunak ez direla haren osagaiak besterik.

Gure kontzientziatik bata bestearekin kontraesanean dauden egoerak desfilatzen ari dira eta egintza honetatik irtenda, batzuk kontzientzia, ni-a, argi ez ikusteraino heldu ziren. Norbaiti bere ni-az galdetzea, bere gorputzaz galdetzea bezalakoa da. Eta kontutuan izan, ni-az mintzatzean, ni konkretu eta pertsonalaz mintzo naizela, ez Fichte-ren ni-az, Fichte berberaz, Fichte gizonaz baizik.

Eta gizona mugatzen duena, gizon *bat* izatea egiten duena, bat eta ez beste bat izatea, izatez dena eta ez ez dena, batasun-printzipioa da, eta iraupen-printzipioa. Batasun-printzipioa, lehenik, gorputzari esker, espazioan eta, geroago, ekintzan eta xedean. Ibiltzen garenean, ez da oin bata aurrera eta bestea atzera joaten; begiratzen dugunean ere, ez du begi bata Iparrera eta besteak Hegora begiratzen, osasunean bagara, behintzat. Geure bizitzako une bakoitzean halako xedea izaten dugu, eta gure egintzen

sinergiak hartarako dihardu azpilanean. Hurrengo unean geure xedea aldatu arren. Eta nolabaiteko adieran, gizona gizonago da, bere ekintza baterakorrakoa den heinean. Badira beren bizitza osoan helburu bat baino erdietsi nahi ez dutenak, edozein dela ere. Eta denborazko iraupen-printzipioa. Duela hogeitun urte izan nintzena ba ote naizen ala ez eztabaidatzen hasi gabe -alferreko eztabaida berau-, zalantzarik gabea da, iruditzen zaidanez, gaur naizena, kontzientzi egoera etengabeen segidaz, nire gorputzean orain dela hogeitun urte izan zenaren ondorioa dela. Oroimena gizabanakoaren nortasunaren oinarria da, tradizioa herri baten talde-nortasunarena den bezalaxe. Bizi, oroitzapenean eta oroitzapenagatik bizi gara eta, gure izpiritu-bizitza, funtsean, gure oroitzapenaren irauteko ahalegina besterik ez da, esperantza bihurtzekoa, etorkizun bilakatzeko gure iraganak egiten duen ahalegina.

Hau guztiau permandokeria huts eta nabaria da, ongisko dakit; baina kontua da, munduan zehar ibiliz, norberak beren burua, dirudienez, sentitzen ez duten halako gizon batzuk aurkitzen dituela. Nire adiskide onenatariko batek, urte oso eta askotan zehar egunero enekin egurasten ibiliak, norbere nortasunaren sentimendu honez mintzatzen nintzaion bakoitzean, honela esaten zidan: "Ba, nik ez dut neure burua sentitzen; hori zer den ez dakit".

Behinola, aipatu dudana adiskide horrek honela esan zidan: "Urlia izan nahi nuke" (hemen halako izen bat). eta esan nion: "Horixe da nik inoiz guztiz ulertu ez dudana, norbaitek beste norbait izan nahi izatea. Beste bat izan nahi izatea, norbera dena izateari utzi nahi izatea da. Ulertzen dut norbaitek bestek daukana, haren aberastasuna edo ezaguera eduki nahi izatea; baina beste bat izatea ezin uler dezaket". Behin baino gehiagotan esan da gizon zoritxarreko orok nahiago duela bera dena izan, bere zoritxar eta guzti, horiek gabe, beste bat izan baino. Eta, egia esan, gizon zoritxarrekoek, beren zoritxarrean osasuna gordetzen dutenean, hau da, beren izatean irauten ahalegintzen direnean, zoritxarra dute nahiago, ez existitzea baino. Nitaz esan dezaket, mutila nintzenean eta, baita umezaroan ere, ez nindutela inoiz askorik hunkitu infernuaz egiten zitzaizkidan pintura lazgarriek, orduan ere ezer ez baineritzon ikaragarriago, ezerezari berari baino. Izateko gose amorratua zen hura, jainkotasun-gutizia, gure asketiko hark esan bezala".

Norbaitengana beste bat izan dadila, beste bat bilakatzeko mandatuaz joatea, aurrerantzean berbera izateari uzteko mandatuaz joatea da. Bakoitzak bere nortasunaren alde egiten du, eta ez du bere pentsatzeko edo sentitzeko moduan aldaketarik onartzen, aldaketa hori haren izpirituaren batasunean sartu eta haren iraupenean txerta daitekeen neurrian izan ezik; aldaketa hori haren izateko, pentsatzeko eta sentitzeko moduaren gainerako guztiarekin harmoniza eta batera etor daitekeen heinean ezik, aldi berean, haren oroitzapenekin lot daitekeelarik. Ez gizon bati ez herri bati -nolabaiteko adieran gizon ere denari- ezin eska dakioke bere pertsonaren batasuna eta iraupena hauts dezala. Gauza asko aldaraz dakizkioke, oso-osorik ia; baina bere irautearen barruan.

Egia da inoiz gizabanako batzuegan nortasun-aldaketa deitzen den hori gertatzen dela; baina hori patologi kasua da, eta halakotzat aztertzen dute alienistek. Nortasun-aldaketaren kasu horietan, oroitzapena, kontzientziaren oinarri dena, erabat hondatzen da, eta eri gaixoari ez zaio organismo fisikoa besterik geratzen, gizabanakoaren -ezen ez pertsonaren- iraupen-substratu gisa. Eritasun hori, berori pairatzen duen subjektuarentzat heriotzaren parekoa da; ez da heriotzaren parekoa, noski, haren herentzia jaso behar dutenentzat, hark ondasunik baldin badu. Eta eritasun hori ez da iraultza bat besterik, egiazko iraultza, gainera.

Eritasun bat, nolabait, disoziazio organikoa da; gorputz bizian jazarri, bizitzeko sinergia hautsi eta berarekin koordinaturik dauden gainerako elementuek helburu duten xedea ez bezalako baten alde azpilanean diharduen organo edo elementu bat da. Berorren

helburua, bere baitan harturik, hau da, abstraktutan, are goragoa izan daiteke, nobleagoa, are... nahi den guztia, baina bestelako zerbait da. Baliteke hegaz aritzea eta airean arnasa egitea hobe izatea igeri egin eta uretan arnasa egitea baino; baina arrainaren hegalek hego bihurtu nahi balute, arraina, arrain gisa, hil egingo litzateke. Eta ez du balio azkenean hegazti bilakatuko litzatekeela esateak; horretan iraupen-ihardupide bat egon gabe, behintzat. Jakin ez dakit, baina daitekeena da arrain batek hegazti bat sorteraztea, edo, agian, hegaztiagandik bera baino hurbilago dagokeen beste arrain bat; baina arraina, arrain hau, ezin daiteke bera izan, eta bere bizitzan, hegazti bihurtu.

Nire bizitzaren batasuna eta iraupena hausteko nigan azpilanean diharduen edozerk, ni birrintzeko azpilanean dihardu eta, beraz, bere burua birrintzen. Herri batean, herri horren batasuna eta izpirituzko iraupena hausten azpilanean diharduen gizabanako oro, hura birrintzen eta, herri horren partaide bezala, bere burua ere birrintzen ari da azpilanean. Beste herri hori hobe dela? Bego; hobe edo txarrago izate hori zertan den guk ongi ulertu ez arren. Aberatsagoa dela? Demagun, bai. Are ikasiagoa dela? Demagun hori ere. Zoriontsuago bizi dela? Hau, egia esan...; baina halere, tira, hala biz! Garaile omen delako hori dela, gu, ordea, garaituak garelarik? Bejondeiola! Hori guztiori ongi dago, baina beste bat da. Eta kito. Izan ere, nire eritziz, nire bizitzaren batasuna eta iraupena hautsita, beste inor bihurtzea, naizena izateari uko egitea da, hots, behingoz esan, aurrerantzean ez izatea. Eta hori, ez; edozer, hori baino lehen!

Nik betetzen dudan zeregina beste norbaitek bete dezakeela nik bezain ongi edo hobeki? Beste batek konplutuko lukeela nire gizarte-funtzioa? Bai, baina ez nik.

"Neu, neu, neu, beti neu! -esango du irakurleren batek-; eta nor haiz hi?" Hemen Obermann-ekin erantzun niezaioke, Obermann gizon itzel handiarekin: "Unibertsoarentzat ezer ez; niretzat, guztia". Baina ez, nahigo dut hari Kant gizonaren doktrinatarik bat gogoratu, gure hurkoak, gainerako gizonak, bitarteko gisa ez baina helburu moduan kontsideratu behar ditugula dioena. Izan ere, kontua ez dagokit, soilki, niri: hiri ere badoakik, horrela marmarka ari haizen irakurleorri; besteri ere badoakio, guztion eta bakoitzaren kontua da. Judizio singularrek unibertsalen balioa dute, logikariek diotenez. Singularra ez da partikularra, unibertsala da.

Gizona helburua da, eta ez bitartekoa. Zibilizazio osoa gizonagana zuzendua da, gizon bakoitzagana, ni bakoitzagana. Bestela, zer da idolo hori, Gizateria edo nahi den bezala deitua, gizon guztiek eta bakoitzak burua sakrifikatu behar diotena? Zeren ni neure hurkoengatik, neure aberkideengatik, neure seme-alabengatik sakrifikatzen bainaiz, eta horiek berorienengatik, eta haiek berenengatik, eta horrela amaigabeko belaunaldien segidan. Eta zeinek eskuratzen du sakrifizio horren etekina?

Fantasiako sakrifizio horretaz, helbururik gabeko ardura horretaz, mintzo direnek berek bizitzeko eskubideaz ere hitz egiten digute. Eta zer da bizitzeko eskubidea? Esaten didatenez, ez dakit zer nolako gizarte-helburua betetzera etorria omen naiz; baina nik sentitzen dut ni, neure neba-arreba bakoitzaren antzera, neu izatera, bizitzera etorri naizela.

Bai, bai, badakusat; gizarte-iharduera itzela, zibilizazio boteretsua, zientzia handia, arte handia, industria handia, moral handia, eta gero, mundua industri mirariez, fabrika handiz, errepidez, museoz, bibliotekaz bete dezagunean, guzti horren oinetan ahiturik amilduko gara, eta norentzat geratuko da guztia? Gizona zientziarentzat egin al zen, ala zientzia gizonarentzat?

"Tira! -hots egingo du berriro ere lehenagoko irakurleak-, katekismoak esandakora itzultzen gara: Galdera: Norentzat egin zuen Jainkoak mundua? Erantzuna: Gizonarentzat". Ondo ba, bai, horrelaxe erantzun behar du gizon den gizonak. Inurriak, horretaz konturatuz gero eta bere buruaz kontziente balitz, inurriarentzat egin zuela

erantzungo luke, eta ongi erantzun ere. Mundua kontzientziarako egiten baita, kontzientzia bakoitzerako.

Giza arima batek Unibertso osoak beste balio du, esan du ez dakit nork, baina ezin hobeki esana da. Giza arima batek, gero! Ez bizitza batek. Bizitza honek ez. Ordea, gertatzen da, zenbat eta ariman, hau da, haren hilezintasun kontziente, pertsonal eta konkretuan gutxiago sinetsi, are gehiago handietsiko dela bizitza iragankor gaixoaren balioa. Hemendik jalgitzen dira gerraren aurkako sentiberakeria emezko guztiak. Bai, norberak ez du hiltzerik nahi izan behar, baina beste heriotza horretatik. "Bere bizia salbatu nahi duenak, galdu egingo du", dio Ebangelioak; baina ez dio bere arima, bere arima hilezina, salbatu nahi duenak. Edo eta hilezina dela sinesten dugun edo hala izatea nahi dugun arima, behintzat.

Eta objektibismoaren definitzaile guztiak ez dira ohartzen, edo, hobeki esan, ez dute ohartu nahi, gizon batek bere ni-a, bere kontzientzia pertsonala baieztatzean, gizona, gizon konkretu eta benetakoa baieztatzen duela, egiazko humanismoa -gizonaren gauzera ez, baizik gizonarena- baieztatzen duela eta, gizona baieztatzean, kontzientzia baieztatzen duela. Izan ere, guk dakigula, kontzientziaz konturatzen den kontzientzia bakarra gizonarena da eta.

Mundua kontzientziarako da. Edo, hobeki esan, *rako* hau, zertarakotasunezko nozio hau eta, nozio sentimendua baino hobeto, sentimendu teleologiko hau, ez da sortzen kontzientzia den lekuan baizik. Kontzientzia eta zertarakotasuna sakonean gauza bera dira.

Eguzkiak kontzientziarik balu, munduak argitzeko bizi dela pentsatuko luke, zalantzarik ez; baina, era berean eta, batez ere, pentsatuko luke munduak berak argitzeko existitzen direla, haiek argitzeaz bera pozteko eta, horrela, bizitzeko. Eta ongi pentsatuko luke.

Eta gizonak bere burua salbatzeko darabilen borroka tragiko hau guztiau, Kant gizonari, lehenago niotsuenez, jauzi hilezin hura eginerazi zion hilezintasun irrika hilezin hau kontzientziaren aldeko borroka baino ez da. Gizatiar ez den pentsalari batek esan duen bezala, kontzientzia ilunbezko bi betikotasunen arteko oinaztargi bat besterik ez bada, orduan ez dagoke ezer arbuigarriagorik existentzia baino.

Esaten ari naizen guzti honetan norbaitek halako kontraesanezko hondoa ikus dezake, batzuetan amaigabeko bizitza irrikaturik, eta beste batzuetan bizitza honek ez duela ematen zaion balioa esanik. Kontraesana? Bai horixe! Nire bihotzarena, baietz baitio, eta nire buruarena, ezetz dio eta! Kontraesana, jakina. Nork ez ditu gogoan Ebangelioko hitz haiek: "Sinesten dut, Jauna; hel zakizkio ene sineste eskasari"? Kontraesana, jakina. Izan ere, kontraesanetatik, eta horiengatik baino ez gara bizi; bizitza tragedia baita, eta tragedia etengabeko borroka, garaipenik eta horrexen esperantzarik gabea; kontraesan hutsa.

Dakusazuenez, atxekimenduzko balioa da, eta atxekimenduzko balioen aurka arrazoiek baliorik ez. Arrazoiak arrazoiak besterik ez direlako; hau da, egiak ere ez dira. Definitzaile horietariko batzuek, izaeraz eta graziaz pedante direnek, semea adinik ederrenean bat-batean hil zaion aitagana joan eta honela diotson gizona gogorarazten didate: "Pazientzia, adiskide, guztiok hil behar dugu eta!" Harrituko egingo al zinateke aita hori, horrelako inpertinentziagatik haserratu balitzaio? Hori inpertinentzia baino ez delako. Axioma ere inoiz inpertinentzia izatera hel daiteke. Zenbat aldiz ez ote litzateke esan behar harako hura:

*Hik bezala pentsatzeko,
adimena behar, besterik ez!*

Izan ere, badirudi pertsona batzuek, burmuinaz edo pentsatzeko izan daitekeen beste edozein organo bereziz besterik ez dutela pentsatzen; beste batzuek, ordea, gorputz osoaz eta arima osoaz pentsatzen dute, odolaz, hezurren hunaz, bihotzaz, birikez,

sabelaz, bizitzaz. Eta burmuinaz besterik pentsatzen ez duten jendeak azken buruan definitzaile bilakatzen dira; pentsamenduaren profesionalak egiten dira. Eta ba al dakizue profesionala zer den? Ba al dakizue lan-bereizketaren ondorio bat zerik den?

Hona hemen boxearen profesionala. Ukabilkadak hain ekonomia handiz ematen ikasi duenez gero, azkenean bere indar guztiak ukabilkadan biltzen ditu, eta bere ekintzaren berehalako helburu zehatza lortzeko, behar dituen giharreak baino ez ditu jokoan jartzen: aurkaria lurreratzeko alegia. Litekeena da profesionala ez den batek emandako kolpeak berehalakoan hainbesteko efikazia ez izatea; baina bizitasuna dakarkio hura ematen duenari, bere gorputz osoa jokoan jarreraziz. Bata boxealari-ukabilkada da, bestea, gizon-ukabilkada. Eta gauza jakina da zirkuko hercules horiek, azokako atletak, ez direla osasuntsuak izaten. Beren kontrakoak lurreratzen dituzte, pisu itzelak altxatzen dituzte, baina birikeriaz edo dispepsiaz hil ohi dira.

Filosofoa gizona ez bada, edozer izan daiteke, filosofoa izan ezik; izan, ororen gaintetik, pedantea da; hau da, gizordekoa. Edozein zientziaren lanketa, hots, kimika, fisika, geometria, filologia, banakako berezilarien lana izan daiteke eta, izanik ere, era oso murriztean eta muga oso hertsien barruan; baina filosofia, poesia bezala, integrazio-lana da, elkartze-lana, edo bestela ez da filosofokeria, hots, erudizio sasifilosofikoa besterik.

Ezagutza orok bere helburua du. Jakitearren jakitea ez da, nahi dena esanik ere, printzipio-eskaera ilun bat besterik. Zerbait ikasten denean, berehalako helburu praktikoa baterako edo geure gainerako ezaguera osatzeko egiten da. Teoriko-teorikoa irudi dakigukeen doktrinak berak ere, hau da, bizitzako premia ez intelektualei berehalakoan aplikatzeko desegokienak, beharizan intelektual bati -berau ere halakoxea baita-erantzuten dio, pentsatzeko ekonomi arrazoi bati, kontzientziaren batasun- eta iraupen-printzipioari. Baina ezagutza zientifiko batek bere helburua gainerako ezagutzetan duen bezala, norberak onartu behar duen filosofiak bestelako kanpo-helburua du, eta gure patu osoari doakio, bizitzaz eta unibertsoaz dugun jarrerari. Eta filosofiaren problemarik tragikoena adimenaren premiak atxekimenduzko eta gurazko premiekin bat etortzea da. Hortxe egiten du porrot, betiko kontraesan tragikoa, gure existentziaren oinarria, desegin nahi duen edozein filosofiak. Baina, lagun guztiek aurre egiten al diote kontraesan honi?

Gutxi espero daiteke, adibidez, agintari batengandik, inoiz, era ilunaz bada ere, gauza guztien eta, batez ere gizonen, lehen printzipioaz eta azken helburuaz, arduratu ez bada, haien lehen zergatiaz eta haien azken zertarakoaz.

Eta kezka goren hau ezin izan daiteke, soilki, arrazoizkoa, atxekimenduzkoa ere izan behar du. Pentsatzea ez da nahikoa, gure patua ere sentitu beharra dago. Eta, bere kideak gidatzeko asmoaz, teiltatuaz gaineko arazoek ez diotela axolarik ematen esan eta aldarrikatzen duenak ez du haiek gidatzea merezi. Honek ez du esan nahi, noski! halako irtenbide zehatza eskatu behar zaionik. Irtenbidea! Ba al dago baina?

Neroni dagokidanez, behin ere ez diot, gogo onez eta neure konfidantza emanaz, neure burua ezein herri-gidariri eskainiko, barru-barrutik ez badakusa herri bat gidatzean, gizonak dituela gidatzen, hezur eta mamizko gizonak, jaio, sufritu eta, hil nahi ez badute ere, hil egiten diren gizonak; beren baitan helburu, eta ez bitarteko soil, diren gizonak; direnak, eta ez beste batzuk, izan behar duten gizonak; azken buruan, zoriona deitzen dugun horren bila ari diren gizonak. Ez da gizatiarra, adibidez, giza belaunaldi bat hurrengo belaunaldiari sakrifikatzea, sakrifikatuen patuaz sentimendurik ez denean. Ez haien oroitzaz, ez eta haien izenez ere, beraiez baizik.

Norbera bere seme-alabengan, edo bere obretan, edo unibertsoan, biziko delako hori guztiori gogokeria lainotsuak dira, atxekimenduzko ergeltasuna pairatzen dutenek beren burua asebetetzeko darabiltzatenak, beroriek, gainerakoaz den bezainbatean, burmuin jasoko pertsonak izan daitezkeen arren. Izan ere, norbaitek talentu handia izan dezake,

talentu handia deitzen duguna, eta memeloa izan, eta ergel morala ere bai. Holako kasuak ere izan dira.

Atxekimendu falta duten ergel talentudun horiek esaten dutenez, ez omen du balio jakin ezin den horretan sakondu nahi izateak, ez eta akuiluaren aurka ostikoka aritzeak ere. Hanka moztu behar izan dioten bati hartan pentsatzeak ez diola ezertarako balio esango balitzaio bezala. Eta guztiok dugu zerbaiten falta; kontua da, batzuek sentitzen dutela eta beste batzuek ez. Edo sentituko ez balute bezala egiten dute, eta orduan hipokritak dira.

Solon bere semearen heriotzagatik negarrez ikusi zuen pedante batek honela esan zion: "Zertarako egiten duzu negar horrela, horrek ezertarako balio ez badu?". Eta jakintsuak erantzun zion: "Horrexegatik, hain zuzen, balio ez duelako". Bistan da negar egiteak baduela zerbaiterako balio, norbere barrua asaskatzeko besterik ez bada ere; baina ongi ageri da Solonek sarkin hari erantzun zionaren adiera sakona. Eta gauza asko konponduko genituzkeelakoan nago, guztiok kalera irten eta geure penak argitan jarrita, eta agian guztiok pena komun bakarra osatuko lukete, haiengatik, elkar harturik negarrez jarriko bagina, eta zeruari oihuz hasi, eta Jainkoari deika. Entzungo ez bagintu ere, entzun entzungo gintuzke eta. Tenplu batek duen gauzarik sainduena, hara elkar harturik negar egitera joaten den lekua izatea da. *Miserere* batek, Patuak astinduriko giza aldra batek elkar harturik kantatuak, filosofia batek beste balio du. Ez da aski izurria sendatzea, hargatik negar egiten ere jakin behar da. Bai, negar egiten ere jakin behar da! Eta agian hauxe dateke jakituria gorena. Zertarako? Galde egiozue Soloni.

Bada zerbait, beste izenik ezean, bizitzaren sentimendu tragikoa deituko duguna, aldean bizitzaren beraren eta unibertsoaren kontzepzio osoa daramana, nola edo hala formulaturiko filosofia, neurri batean edo bestean kontzientea. Eta sentimendu hori bana-banako gizonak ez eze, herri osoek ere izan dezakete, eta badute. Eta sentimendu horrek, ideietatik sortu baino areago, zehaztu egiten ditu horiek, ondoren, jakina, ideia horiek, hura berretsiz, hari eragiten diotelarik. Batzuetan, etorririko gaixotasun batetik hel daitezke, dispepsia batetik adibidez, baina beste batzuetan izaeratik sortua da. Eta, ikusiko dugunez, ez digu balio gizon osasuntsu eta osasungabeez berba egiteak. Osasunaren nozio arauzkorik ez egoteaz landa ere, ez du inork frogatu gizonak naturaz alaia izan behar duenik. Are gehiago: gizona, gizon denez gero, kontzientzia edukitzeagatik, asto edo karramarro baten aldean, animalia eria da jada. Kontzientzia eritasun bat da.

Hezur eta mamizko gizonen artean, bizitzaren sentimendu tragikoa duten horien eredu jatorrak izan dira. Orain hauexek ditut gogoan, Marco Aurelio, Done Augustin, Pascal, Rousseau, *Réne*, Obermann, Thomson, Leopardi, Vigny, Lenau, Kleist, Amiel, Quental, Kierkegaard, zientziaz baino gehiago, jakituriar hornituriko gizonak.

Baten batek pentsa dezake gizon horietako edozeinek bere jarrera hartu zuela - horrelako jarrerak, itxurazko plantak egiten diren bezala hartzea balego bezala - interesa erakartzeko edo, agian, boteretsuen begi ona eskuratzeko, beren ugazabena agian, ezer ez baita eskasagorik inoren asmoak igartzen diharduen gizona bera baino; baina *honni soit qui mal y pense*. Eta hori orain eta hemen beste esaera bat, espainola bera, askoz ere gogorragoa, baina agian zakarkeri mugan dagokeena, molditzetan ez jartzearen.

Eta badira, nik uste, bizitzaren sentimendu tragikoa duten herriak ere.

Horixe da orain ikusi behar duguna, osasun- eta gaixotasun-kontu horrekin hasita.

II ABIAPUNTUA

Baliteke egiten ari naizen gogoetak norbaiti nolabaiteko eri-kutsukoak iruditzea. Eri-kutsukoak? Eta zer da gaixotasuna delako hori, ordea? Eta zer osasuna?

Eta, beharbada, gaixotasuna bera da aurrerapena deitzen dugun horren funtsezko baldintza, eta aurrerapena bera gaixotasun.

Nork ez du Paradisuko tragedia mitikoaren berri? Han gure lehen gurasoak erabateko osasun eta erabateko errugabetasunezko egoeran bizi ziren, eta Yahveh-k bizitzako zuhaitzetik jaten uzten zien, eta haientzat sortua zuen guztia; baina ongiaren eta gaizkiaren jakitateko zuhaitzeko fruitutik dastatzea galerazi zien. Baina haiek, sugeak zirikatuta, Kristok zuhurtziaren eredutzat zuenak zirikatuta, ongiaren eta gaizkiaren jakitateko zuhaitzeko fruitutik dastatu zuten, eta gaixotasun guztien eta horien koroa eta bukaera denaren menpean geratu ziren, hots, heriotzapean, lanaren eta aurrerapenaren menpean. Zeren aurrerapena, legenda honen arauera, jatorrizko bekatutik hasi baitzen. Eta honela, emakumearen jakingurak, Evarenak, premia organiko eta iraun beharrekoekin lotuagorik zegoenarenak, erorkera ekarri zigun eta, erorkerarekin, berrerospena, Jainkoaren bidean jarri gintuena, Harenganatzeko, eta Harengan izateko.

Nahi al duzue gure jatorriaz beste azalpenik? Hala biz. Horren arauetz, gizona, zehazki mintzatuz, gorila, orangutan, txinpantze hidrocefalo edo horrelako espezie bat besterik ez da, edo antzeko zerbait. Tximino antropoide batek behin kume eri bat egin zuen, animalia edo zoologi ikuspuntu hertsitik eria, egiazki eria, eta eritasun hori, ahulezia izateaz gainera, iraupenaren aldeko burrukan abantaila ere gertatu zen. Azkenean, ugaztun tente bakarra zuzenki jarri zen: gizona, alegia. Zutikako jarrerak eskuak libratu zizkion, ibiltzean haien gainean oinarritu beharrik ez izateko; erpurua gainerako lau erhien aurka jarri ahal izan zuen, eta gauzak hartu eta lanabesak moldatu, eta eskuak dira, jakina denez, adimenaren moldatzaile nagusiak. Eta jarrera berberorrek ezarri zizkion birrikak, trakea, laringea eta ahoa mintzaira artikulatzeko eran, eta hitza adimena da. Eta jarrera horrek, gainera, burua enborraren gainean goitik behera ezartzean, haren pisu eta garapen handiagoak bideratu zituen, hor pentsaera kokatzen delarik. Baina horretarako, gorputzaren lau adarren gainean buru-enborrak sostengatzen dituzten espezieek baino hezur sendoago eta gotorrangoak behar zituen pelbisean eta, hortaz, emakumeak, *Genesiak* erorkeraren autoretzat salatu zuenak, haurgintzan, ume buru-handi goa hezur gogorrango horien artetik atera behar izan zuen. Eta, bekatu egin zuelako, Yahveh-k umeak oinazez erditzera kondenatu zuen.

Gorilak, txinpantzeak, orangutanak eta generokideek animalia eri gaixotzat hartu behar dute gizona, bere hilak metatzeraino ere heltzen baita. Eta zertarako?

Eta lehen eritasun hori eta berorri darraizkion gainerako guztiak ez al dira, ba, aurrerapenaren osagairik garrantzizkoenak? Artritisak, kasurako, odola kutsatzen du, hartan errautsak sartzen ditu, errekontza organiko ezosoaren kondarrak; baina zikinkeria horrek berak, ez al du, agian, odol hori kitzikagarriago egingo? Odol zikindu horrek, holakoxea delako hain zuzen, ez al du areagotuko burmuinaren zorrotasuna? Ur kimikoki hutsa edanezina da. Eta odol fisiologikoki hutsa bera ez ote da, era berean, ezgai izango zutikako ugaztunaren burmuinerako, pentsaeratik bizi behar duenarentzat? Medikuntzaren historiak irakasten digunez, bestalde, aurrerapena ez dator hainbat gaixotasunen hasikinak edo, hobeki esan, eritasunak berak, gugandik ateratzetik, baizik eta haiek gure organismora egokitzeetik eta gure odolean beratzen egotetik, horrela, beharbada, gure gorputza aberastuz. Zer besterik esan gura dute txertaketak eta gazur guztiek, eta zer besterik denbora iragan ahala lorturiko immunizazioak?

Osasuna delako hori kategoria abstraktua ez balitz, hertsiki gertatzen ez den zerbait, esan genezake gizon erabat osasuntsua ez litzatekeela jadanik gizon izango, animalia irrazionala baizik. Irrazionala arrazoimena piztuko liokeen gaixotasunik bat ere ez lukeelako. Eta egiazko gaixotasuna da, eta tragikoa, ezagutzeko gutizia, ezagutzaren beraren gustuagatik sorterazten diguna, ongiaren eta gaizkiaren jakitateko zuhaitzeko fruitutik dastatzeko atseginagatik.

"Gizon guztiak, izaeraz, ezagutzen saiatzen dira". Honela hasten du Aristotelek bere Metafisika, eta harez gero mila aldiz errepikatu izan da, jakingura edo ezagutzeko gogoia, *Genesiak* dioenez, gure lehenbiziko ama bekatura eraman zuena, zientziaren jatorria dela.

Baina beharrezkoa da hemen bereizketak egitea, alde batetik, itxuraz eta lehen begiradaz, hots, ezaguera beraren maitasunagatik, ezagutzeko gogo edo gutziaren, jakitateko zuhaitzeko fruitua dastatzeko antsiaren eta, bestetik, bizitzeko ezagutu behararen artean. Berau, zuzeneko eta berehalako ezaguera ematen diguna eta, nolabaiteko adieran, paradoxazkoa ez balirudi, ezaguera inkontzientea dei litekeena, amankomuna dute bai gizonak eta bai animaliek, beroriengandik bereizten gaituena, aldiz, gogoetazko ezaguera delarik, ezagutzearen ezaguera bera.

Eztabaida asko egin dute gizonak eta, mundua haien eztabaidei emana izan zenez gero, oraindik eztabaida asko egingo dute, ezagueraren jatorriaz; baina existentziaren errai sakonetan hartaz dagoena oraingo geroxeagorako utzirik, gauza jakina eta egiazkoa da, gauzen itxurazko ordenan, nola edo halako ezaguera edo oharmen lainotsuren batez hornituriko izakiengan, edo beren egintzengatik halakoaz horniturik daudela ematen dutenengan, ezaguera, bizitzeko eta hori lortzeko janaria eskuratzeko beharri loturik agertzen zaigula. Izakiaren esentziaren beraren ondorioetako bat da, Spinozaren arauera, bere izatean mugagabeki irauteko duen ahaleginean funtsatzen dena. Zehazki esanik, agian trauskileria ukitzen duten hitzak erabiliz, burmuina, bere funtzioari doakionez, urdailaren menpean dela esan daiteke. Bizidunen mailarik beherenean ageri diren izakiengan, borondatezko izaera erakusten duten egintzak, alegia nola edo halako kontzientzia argiari loturik azaltzen direnak, beroriek betetzen dituen izakiarentzat bizigaiak eskuratzera zuzenduriko egintzak dira.

Hauxe da ezagueraren jatorri historikoa dei dezakeguna, beste arloren batean izan zezakeen jatorria edozein izanik ere. Oharmenez hornituriko izakiak bizi ahal izateko ohartzen dira, eta bizitzeko hori behar dutenean besterik ez. Baina, beharbada, hasieran erabilgarri baina geroago jada hala ez ziren ezaguera hauek altxor gisa metatu eta gero, azkenean halako aberastasuna osatu dute, bizitzarako behar dena luzaz gaundituz.

Hortaz, bizitzeko, lehenik ezagutu beharra dago, eta hortik garatzen da beste hori, luxuzko edo gehiegizko ezaguera dei genezakeena, hots, beharrian berria izateraino hel daitekeena. Jakingura, ezagutzeko sortzetiko nahi hori, behin bizitzeko ezagutu beharra asebate eta gero baizik ez da sortzen eta arian iharduten; eta gure leinuaren oraingo egoeran inoiz edo behin horrela gertatuko ez balitz ere, jakingura premiaren gainean eta zientzia gizonaren gainean jarriz, jakingura bizitzeko ezagutu beharretik jalgi zela funtsezko egintza da, eta hauxe da zientziak bere baitan daraman pisu hila eta materia trauskila; eta ezagutzearen ezagutzea, egia egiagatik beragatik ezagutzera heldu nahirik ere, bizitzako premiek zientzia bortxatu eta behartu egiten dute beren zerbitzutan jar dadin, eta gizonak, egiaren bila hargatik beragatik ari direla uste dutelarik, bilatu, bizitza bilatzen dute egian. Zientziaren aldaketak giza premien aldaketen arauerakoak izaten dira, eta zientzi gizonak, nahita edo nahi gabe ere, dakitela edo ez dakitelarik, boteretsuen alde edo beren irriken berrespena eskatzen dien herriaren alde egiten dute lan.

Baina, hau al da benetan zientziaren pisu hila eta materia truskila, ala ez ote da, hobesanez, beraren berrerospenaren barne-iturria? Izatez, hori horrela da, eta dorpezia galanta litzateke bizitzaren beraren izaera den horren aurka jazarri nahi izatea.

Ezaguera bizitzeko beharrezanaren zerbitzuan dago eta, lehen-lehenik, norbera bizirik irauteko senaren zerbitzuan. Eta beharrezan eta sen hauek gizonarengan ezaguera-organoak sorterazi ditu, duten helmene emanaz. Gizonak bizirik irauteko ikusi, entzun, ukitu, dastatu eta usaindu behar dituenak ikusten, entzuten, ukitzen, dastatzen eta usaintzen ditu; zentzu horietarik edozein urritu edo galduz gero, haren bizitza inguratzen duten arriskuak gehitu egiten dira, eta bizi garen gizarte-egoeran horrenbestean gehitzen ez badira, batzuek besteen ordean ikusi, entzun, ukitu, dastatu edo usaintzen dutelako besterik ez da. Itsu batek, bakarrik, bidemutilik gabe, ez luke luzaro bizirik iraungo. Gizarteak beste zentzu bat osotzen du, egiazko zentzu komuna.

Gizonak, beraz, bere bakarkako banako-egoeran, ez du ikusten, entzuten, ukitzen, dastatzen eta usaintzen, bizitzeko eta bere burua kontserbatzeko behar duena besterik. Gorriaren azpitik eta morearen gainetik kolorerik ez du somatzen, burua kontserbatzeko, agian, gainerakoak aski dituelako. Eta zentzuak berak, izan, errazte-organoak dira, errealitate objektibotik, bizirik irautea helburu, gauzak erabili ahal izateko ezagutu behar ez dugun guztia baztertzen dutenak. Erabateko iluntasunean, hiltzen ez den animalia azkenean itsu bihurtzen da. Bizkarroiek, beste animalia batzuen erraietan haiek prestaturiko elikatze-zukuetatik bizi direlarik, ikusi eta entzun ere behar ez dutenez, ez dakusate eta ez dantzute; aitzitik, zaku itxura harturik, bizimodua ateratzen dioten izakiari atxekirik diraute. Bizkarroi horientzat ez dagoke ez mundu ikusgarririk ez eta mundu entzungarririk ere. Nahikoa da beren erraietan haiek elikatzen dituztenek ikusi eta entzutea.

Ezaguera, hortaz, lehen-lehenik, bizirik irauteko senaren zerbitzuan dago, berau, Spinozarekin esan genuenez, haren esentzia bera izanez. Eta honela, esan daiteke bizirik irauteko senak egiten dizkigula somagarri munduko errealitatea eta egia, daitekeenaren arlo zundaezin eta mugagabearen alorretik, sen hori baita guretzat existitzen dena atera eta bereizten duena. Izan ere, gure existentziarako nola edo hala ezagutu behar dugun guztia existitzen da guretzat; existentzia objektiboa, gure ezagueran, gure existentzia pertsonalaren menpe dago. Eta inork ezin uka dezake ezin izan daitezkeela eta, agian, badirela, guk, gaur behintzat, errealitateari ezagutzen ez dizkiogun alderdiak, beharbada, ezagutezinak, geure oraingo existentzia kontserbatzeko ezertan ere behar ez ditugulako.

Baina gizona ez bakarrik bizi da ez banako isolatua da; aitzitik, gizartearen partaidea dugu, eta gizabanakoa, atomoa bezala, abstrakzioa dela dioen esaera hari egia nabaria dario. Bai, unibertsoetik kanpoko atomoa atomoetatik kanpoko unibertsoa bezalako abstrakzioa da. Eta gizabanakoa bizirik irauteko senaz mantentzen bada, gizarteak bere izatea eta mantentzea haren bizirauteko senari zor dizkio. Eta sen horretatik, edo hobesanez, gizartetik, arrazoimena sortzen da.

Arrazoimena, hala deitzen duguna, ezaguera berezko eta gogoetatsu hori, gizona bereizten duena, gizarte-ekoizpena da.

Bere jatorria, agian, mintzairan du. Pentsatu, artikulaketaz, hau da, gogoetaz egiten dugu, mintzaira artikulatuari esker, eta mintzaira hau geure hurkoei geure pentsamendua adierazteko beharretik irten zen. Pentsatzea norbere buruarekin hitz egitea da, eta elkarrekin hitz egin beharri esker egiten dio nork bere buruari berba, eta eguneroko bizitzan maiz gertatzen da norberak bila zebilen ideia bat lortzea, hura itxuratzea heltzea, hau da, irudikatzen dituen somatze ilunen nebulosatik atera ondoren bera erdiestea, hura besteei aurkezteko egiten diren ahaleginei esker. Pentsaera barne-mintzaira da, eta barne-mintzaira hori kanpotik sortzen da. Hortik segitzen da

arrazoimena soziala eta komuna izatea. Ondorioez ondo beteriko egintza berau, geroago dakuskegunez.

Eta, ezaguna den aldetik, errealitate bat baldin badago, norbera bizirik irauteko senaren eta beronen zerbitzuko zentzuen obra dena, ez al da egon beharko beste errealitate bat ere, hura bezain erreala, ezaguna den aldetik, espeziea betikotzeko senaren obra izan eta beronen zerbitzuan dagoena? Bizirik irauteko sena, gosea, gizabanakoaren oinarria da; betikotzeko sena, maitasuna, bere erarik arruntenean eta fisiologikoenean gizartearen oinarria da. Eta gizonak irauteko jakin behar duena dakien bezala, era berean, gizarteak edo gizonak, izaki soziala den aldetik, badaki gizartean betikotzeko behar duena ere.

Bada mundu bat, mundu sentigarria, gosearen ume dena, eta bada beste mundu bat, ideala, maitasunaren ume. Eta mundu sentigarriaren ezagueraren zerbitzurako zentzuak diren bezala, badira, halaber, gaur gehienbat lo, gizarte-kontzientzia oraindik arturratu besterik egiten ez delako, mundu idealaren ezagueraren zerbitzurakoak ere. Eta zergatik ukatu behar diegu errealitate objektiboa maitasunaren sortzapenei, betikotzeko senaren sortzapenei, gosearenei edo bizirik irauteko senarenei aitortzen diegunean? Izan ere, beste sortzapen hauez gure irudimenarenak besterik ez direla esaten baldin bada, hau da, balio objektiborik gabeak, ez al dago, era berean, haiez esaterik gure zentzuen sortzapen hutsak direla? Nork diosku ezin dagokeela mundu ikustezin eta ukiezina ere, betikotzeko senaren zerbitzuan bizi den barne-zentzuak somatua?

Gizarteak, gizartea den aldetik, baditu zentzu batzuk, gizabanakoak, harengatik ez balitz, faltako lituzkeenak; gizabanako horrek, gizonak, bere gisaz nolabaiteko gizartea ere denak, era berean, bera osatzen duten zelulek faltan dituzten beste zentzu batzuk dituen bezala. Entzumenaren zelula itsuek, beren kontzientzia ilunean, ez dukete mundu ikusgarriaren berri eta, hartaz mintzatuko balitzaie, beharbada, ikusmenaren zelula gorren sortzapen arbitrariotzat joko lukete hura, eta berauek haiek sortzen duten mundu entzungarriari, halaber, ilusio leritzokete.

Lehentxoago bizkarroiak aipatu ditugu, goi mailako animalien erraietan eta haiek prestaturiko elikatze-zuketatik bizi izanik, ikusi eta entzun beharrik ez dutenak eta, horientzat, beraz, mundu ikusgarri eta entzungarririk ez dago. Eta nolabaiteko kontzientziarik balute, eta beraiek bizi direneko izakiak beste mundu batean sinesten duela konturatuko balira, agian hori irudimenaren zorabiotzat hartuko lukete. Eta honela, mister Balfour-ek¹ oso ongi oharterazten duenez, badira gizarte-bizkarroiak ere, eta bizi diren gizartetik beren jokabide moralaren zioak eskuratzen dituztenez gero, jokabide ona eta bizitza jasangarria oinarritzeko, Jainkoagan eta beste bizitzan sinestea beharrezkoa dela ukatzen dute, berek bizitzeko behar dituzten zuku izpiritualak jadanik gizarteak prestatu dizkielako. Norbanako solte batek bizitza jasan dezake eta hura ongi bizi ere bai, bai eta heroikoki ere, arimaren hilezintasunean ez Jainkoagan inondik ere sinetsi gabe, baina bizkarroi izpiritualaren bizitza bizi duelako. Ohorearen sentimendua deitzen duguna, kristau ez direnengan ere, ekoizkin kristaua da. Eta are gehiago diot: izan ere, gizon batek Jainkoagan fedea garbitasun eta goratasun moraleko bizitzari loturik baldin badauka, kontua ez da Jainkoagan sinesteak bera on bihurtzen duen ala ez, bera ona izateak, Jainkoari esker, Harengan sinesterazten diola baizik. Ontasuna argikusmen izpiritualaren iturrik onena da.

Argi dakusat, halaber, esan dakidakeela gizonak mundu sentigarria sortzen duela eta maitasunak, aldiz, ideala, kontu hau guztiau entzumenaren zelula itsuen eta ikusmenaren zelula gorrena, bizkarroi izpiritualena etabar, metaforak direla. Horrela da, eta ez dut besterik nahi, metaforen bidez gogoeta egitea baino. Izan ere, gizarte-zentzu hori, maitasunaren ume, mintzairaren eta arrazoimenaren aita, eta beragandik sortzen den mundu idealarena, funtsean ez da fantasia edo irudimena deitzen duguna besterik. Fantasiatik arrazoimena jalgitzen da. Eta hura bere apetaren arauera imajinak mamitzen

dituen ahalmentzat jotzen baldin bada, orduan galdetuko dut ea apeta zer den eta, edozein kasutan ere, zentzuak eta arrazoimena ere oker egoten direla esango.

Eta ikusi behar dugu barne-ahalmen sozial hori dela, dena pertsonalizatzen duen irudimen hori, betikotzeko senaren zerbitzuan jarrita, arimaren hilezintasuna eta Jainkoa erakusten dizkiguna, Jainkoa, horrela, gizarte-ekoizkina izanik.

Baina bego hori geroko.

Eta, hortaz: zertarako filosofatzen da? Hau da, zertarako ikertzen dira gauzen lehen printzipioak eta azken helburuak? Zertarako bilatzen da egia desinteresatua? Ongi dago, egon ere, gizon guztiek izaeraz ezagutzeko joera dutela esatea; baina, zertarako?

Filosofoa, beren giza lanerako, filosofatzeko, abiapuntu teoriko edo idealaren bila dabilta; baina arduragabeagoak izaten dira abiapuntu praktikoa eta erreala, xedea alegia, bilatzean. Zein da filosofiagintzaren xedea, bera pentsatu eta gero hurkoei azaltzean? Zer bilatzen du hartan eta horrekin filosofoa? Egia egiagatik beragatik? Egia, berari gure jokabidea lotu eta horrexen arauera bizitza eta unibertsoarekiko geure izpiritu-jarrera moldatzeko?

Filosofia filosofo bakoitzaren giza ekoizkina da, eta filosofo bakoitza hezur eta mamizko gizona da, bera bezala, hezur eta mamizko beste gizon batzuei mintzo zaiena. Eta nahi duena eginik ere, filosofatu, arrazoimenaz ez eze, borondateaz, sentimenduaz, hezurraz eta mamiaz egiten du, arima osoaz eta gorputz osoaz. Filosofatu, gizonak egiten du.

Eta ez dut hemen ni-a erabili nahi, filosofatzean neuk filosofatzen dudala eta ez gizonak esanez, ni konkretu hau, zehaztua, hezur eta mamizkoa, hagineta minaz sufritzen duena eta heriotzea kontzientzia pertsonalaren ezereztea baldin bada, bizitza jasanezintzat jotzen duena, azpipetik sarturiko beste ni horrekin nahas ez dadin, letra nagusizko Ni horrekin, filosofian Fichtek sartu zuen Ni teorikoarekin, ez eta Max Stirner-en Bakarrarekin, teorikoa hau ere. Hobe da gu esatea. Baina gu, barrutietan zehaztuok.

Jakitearren jakitea! Egia egiagatik! Hori ez da gizatiarra. Eta filosofia teorikoa praktika-erantz zuzentzen dela baldin badiogu, eta egia ongirantz, zientzia moralerantz, hauxe esango dut: eta ongia, zertarako? Bere baitan helburua al da, ba? Ona, kontzientzia kontserbatzen, betirauten eta aberasten laguntzen duena besterik ez da. Ongia, aldiz, gizonaganantz zuzentzen da, gizartea mantendu eta hobatzeko, berau ere gizonaz osatua baita. Eta hori, zertarako? "Joka ezazu, zure egina gizon guztientzat arau izan dadin eran", diosku Kantek. Oso ederki, eta zertarako? Zertarako bat bilatu behar da.

Filosofia guztien abiapuntuan, egiazko abiapuntuan, praktikoa, ez teorikoa, zertarako bat dago. Filosofoak filosofatzearen baino zerbait gehiagorako filosofatzen du. *Primum vivere, deinde philosophari*, dio latinezko esaera zaharrak, eta filosofoak, filosofoa baino lehenago, gizona denez gero, filosofatu ahal izateko bizi behar du, eta, izan ere, filosofatu, bizitzeko egiten du. Eta filosofatu ohi du, bizitza etsipenez onartzeko, edo horri xederen bat aurkitzeko, edo ongi pasa eta penak ahanzteko edo, bestela, kirol edo jolas gisa. Azkenik, esanikoaren adibide bikaina Athenasko ironista ikaragarri hura izan zen, Sokrates alegia. Hark, Xenofontek bere *Oroitzapenetan* kontatzen digunez, Theodota gortelariari bere etxera amoranteak erakartzeko erabili beharko zituzkeen arterioak hain era egokiz azaldu zizkionez gero, andre hark filosofoari bere ehizakidea izan zedin eskatu zion, ? ? ? ? ? ? ? ? v? ? bere maitakerien arartekoa, hitz gutxitan. Eta, egia esan, filosofia maiz maitakerien arartekotasunaren arte bihurtzen da, izpirituala bada ere. Eta beste batzuetan penak loartzeko opio ere bai.

Metafisika-liburu bat hartu dut zoriz, eskuharrenik dudana. *Time and Space. A Metaphysical essay*, Shadworth H. Hodgson-ena; ireki eta, lehen atalaren lehen

kapituluairen bostgarren pasartean hauxe irakurtzen dut: "Metafisika, zehazki mintzatuz, ez da zientzia bat, filosofia bat baizik; hau da, helburua bere baitan, hura lantzen duten izpirituak saritzean eta heztean eta ez kanpoko xederen batean, adibidez, bizitza ongi izateko arte bat fundatzean, duen zientzia bat". Azter dezagun hau. Eta lehen-lehenik metafisika, zehazki mintzatuz *-properly speaking-*, ez dela zientzia bat ikusiko dugu, "hau da", *that is*, zientzia bat dela, zeinen helburua, etab. Eta zientzia honek, zehazki zientzia ez denak, helburua bere baitan du, hura lantzen duten izpirituak saritzean eta heztean. Zertan gaude bada? Ba al du bere baitan helbururik, ala helburua hura lantzen duten izpirituei saria ematean eta haien hezkuntzan ote du ba? Bata ala bestea! Gero, Hodgsonek gaineratzen duenez, metafisikaren helburua ez omen datza kanpoko xederen batean, bizitza ongi izateko arte bat fundatzean adibidez". Baina filosofia lantzen duenaren izpiritua saritzea, ez al da ba haren bizitza ongi izatearen atala? Beha biezaio irakurleak ingeles metafisikariaren pasarte horri eta esan biezat hori kontraesaneko ehuna ez ote den.

Eta hori ezinbestekoa da helburua bere baitan duen zientzia edo ezaguera bat, edo ezagutzeagatik beragatik ezagutzea, edo egiagatik beragatik egiara heltzea delako hori, *gizatiarki* mugatu nahi baldin bada. Zientziarik ez da kontzientzia pertsonalean eta horrexerri esker besterik; astronomiak, matematikak, ez du beste errealitaterik hura ikasten eta lantzen dutenen buruetan duenaz landa. Eta egunen batez lurraren gaineko kontzientzia pertsonal osoa galtzekoa bada, egunen batez ezerezero, hau da, giza izpiritua sortu zen erabateko inkontzientzia hartara itzultzekoa bada, eta guk metaturiko zientzia osoaz baliatzeko izpiriturik izango ez bada, zertarako hura? Ez baita bistatik baztertu behar arimaren hilezintasun pertsonalaren problemak giza espezie osoaren etorkizuna inplikatzeko duela.

Helburua bere baitan duen zientzia hori azaldu nahi digun ingelesaren kontraesan-katea hori erraz uler daiteke, ororen aitzin, gizona den ingeles batez ari garela konturatuz gero. Beharbada aleman berezilari batek, filosofia bere berezitasuna bihurtu duen filosofo batek, eta hor, bere gizatasuna, alde aurretik hilez, ehortzi duenak, hobeki azal lezake helburua bere baitan duen zientziaren kontua, eta ezagutzearen ezagutzea delakoa ere bai.

Har ezazue Spizona gizona, Holandan erbesteraturiko judu portugaldar hura; irakur ezazue haren *Etika*, den bezala, eresi poema desesperatu gisa, eta esadazue ez ote den han entzuten, *more geometrico* gisa azalduko esakune biluzi eta itxuraz lasaien azpitik, profeten psalmoen oihartzun iluna. Hura ez da etsipenaren filosofia, desesperantzaena baizik. Eta idazten zuenean, gizon burujabeak, heriotzaz izan ezik edozertaz pentsatzen duelako hura eta haren jakituria gogoeta dela, ez heriotzari buruzkoa giza bizitzazkoa baizik, *-homo liber de nulla re minus quam de morte cogitat et eius sapientiam non mortis, sed vitae meditatio est (Ethice, pars IV, prop. LXVII)-* esklabu sentitzen zen, guztiok sentitzen garen bezalaxe, eta heriotzaz pentsatzen zuen, eta pentsamendu horretatik askatzeko, alferrik baina, idazten zuen hori. V. ataleko XLII. esakunea idaztean ere, hots, "zoriona ez da bertutearen saria, bertutea bera baizik", ez zuen sentitzen, segurki, idazten zuena. Gizonek horrexetarako filosofatu ohi baitute, beren burua konbentzitzeko, lortu gabe ordea. Eta nork bere burua konbentzitu nahi hori, hau da, giza izaera bera bortxatu nahi izatea, filosofia askotxoren egiazko abiapuntua izaten da.

Nondik nator ni eta nondik dator mundua, ni bizi naizenekoa eta zeinetatik bizi naizen? Nora noa eta nora doa inguratzen nauen guztia? Zer esan nahi du honek? Horiexek dira gizonaren galderak, materialki elikatzeko basakeriazko premiatik bere burua askatu bezain laster. Eta ongi begiraturuz gero, ikusiko dugu galdera horietan nabariagoa dela azpian zergatia jakiteko gogoia zertarako jakiteko gogoia baino; ez kausarena

helburuarena baizik. Jakina da Cicerok filosofiaz egiten zuen definizioa, hari "jainkozkoaren eta gizatiarrezkoaren zientzia, eta haietan edukitzen diren kausena", *rerum divinarum et humanarum, causarumque quibus hae res continentur*; baina, funtsean, kausa horiek guretzat helburuak dira. Eta Kausa Gorena, Jainkoa, zer da Helburu Gorena besterik? Zergatia zertarakoaren ikuspegitik baino ez zaigu interesatzen; nondik gatozen jakin nahi dugu, soilki, nora goazen hobeki antzeman ahal izateko.

Ciceroren definizio hori, estoikoena, Klemente Alexandriakoa izan zen intelektualista apart eta Eliza katolikoak saildu egindako harengan ere aurkitzen da, bere *Stromata* deritzenetako lehenbizikoaren V. kapituluaren hura azaltzen duelarik. Baina filosofo kristau honek berak -kristaua ote?- bere laugarren *stroma*-ren XXII. kapituluaren dioskunez, gnostikoak, hau da, intelektualak ezagutza, gnosia, aski izan behar du, eta ondokoa gaineratzen du: "Eta hauxe esatera ausartuko nintzateke, bere burua salbatu nahi ez izatearren aukeratuko duela ezaguera honi jainkozko zientziagatik beragatik jarraikiko zaionak; ezaguerak, ariketaren bidez, beti ezagutzera jotzen du; baina beti ezagutzea, etengabeko nahasteaz ezagutzailearen esentzia eginez eta betiereko behakuntza eginez, substantzia bizi geratzen da; eta norbaitek bere jarreragatik intelektualari proposa baliezaio ea zer lukeen nahiago, Jainkoaren ezaguera ala betiereko salbazioa, eta gauza bi horiek, izatez bat eta bakarra izanik ere, bereiz gerta balitez, Jainkoaren ezaguera aukeratuko luke zalantzarik gabe". Hark, Jainkoak berak, betiereko gozatu eta betiko eduki nahi dugunak, libra gaitzala klementiar gnostizismo edo intelektualismo horretatik!

Zergatik nahi dut jakin nondik natorren, eta nora noan, eta inguratzen nauena nondik datorren eta nora doan, eta horrek guztiorrek zer esan nahi duen? Zergatik ez dut behin betiko hil nahi, eta jakin nahi dut behin betiko hil behar dudan ala ez? Eta hil ez banadi, zer izango da nitaz?; eta hil banadi, jadanik ezerk ez duke zentzurik. Eta hiru irtenbide dira: a) badakit guztiz hiltzen naizela, eta orduan desesperantza erremediorik gabea, edo b) badakit ez naizela guztiz hiltzen, eta orduan etsipena, edo c) ezin jakin dezaket ez bata ez bestea, eta orduan etsipena desesperantzan, edo hau hartan, etsipen desperatua, edo desesperantza etsia, eta burruka.

"Onena hauxe da -esan dezake irakurleren batek-, ezin jakin daitekeena alde batera uztea". Baina hori egiterik ba al da? "Antzinako jakintsua" (*The ancient sage*) poema eder-ederrean, Tennysonen honela zioen: "Ezin froga dezakek izendaezina (*the Nameless*), oi seme neurea! Eta ezin froga dezakek mugitzen haizeneko mundua; ezin froga dezakek gorputz hutsa haizela, ezin froga dezakek izpiritu hutsa haizela, ez eta biak bakarrean haizela ere; ezin froga dezakek hilezina haizela, eta hilgarria haizela ere ez; bai, seme neurea, ezin froga dezakek ni, hirekin mintzatzen naizenau, ez haizela heu, heure buruarekin mintzatzen haizena, frogatzea merezi duen ezer ezin froga ez desfroga baitaiteke; beraz, izan hadi zuhur, hatxekio beti dudaren alderik eguzkitsuenari eta igon Fedean gora Fedearen formez bestaldetik". Bai, jakintsuak dioen bezala, beharbada, frogatzea merezi duen ezer ezin froga ez desfroga daiteke:

*for nothing worthy proving can be proved,
nor yet disproved;*

baina, geldieraz al dezakegu sen hori, gizona ezagutu nahi izatera daraman eta, batez ere, bizitzera, eta beti bizitzera gidatzen duen hori ezagutu nahi izatera daramana? Beti bizitzera, eta ez beti ezagutzera, alexandriar gnostikoak zioen bezala. Izan ere, bizitzea gauza bat baita, eta ezagutzea beste bat eta, dakuskegunez, agian beren arteko aurkaritza hain da handia, non esan baitezakegu bizioinarrri den guztia antirrazionala dela, ez soilki irrazionala; eta arrazional den guztia, bizioinarrriaren aurkakoa. Eta hauxe dugu bizitzaren sentimendu tragikoaren harroina.

Descartes metodoaren diskurtsoak duen txarrena ez da aurretiko duda metodikoa; kontua ez da hark hasieratik guztiaz duda egin nahi izatea, hori arterio hutsa besterik ez baita; kontua da bere burua, hots, Descartes, gizon erreala, hezur eta mamizkoa, hil nahi ez duena, bazter utzirik hasi nahi izan zuela, horrela pentsalari besterik ez izateko, hau da, abstrakzio hutsa. Baina gizon erreala itzuli eta filosofian sartu zitzaion.

"*Le bon sens est la chose du monde la mieux partagée*". Honela hasten da *Metodoaren diskurtsoa*, eta zentzu on horrek salbatu zuen bera. Eta bere buruaz mintzatzen segitzen du, Descartes gizonaz, beste gauza batzuen artean, hizlari ona izatea biziki estimatzen zuela eta poesiaz maitemindurik zegoela esanez; ororen gain, matematikan hartzen zuela atsegin, haren arrazoiaren segurtasun eta ebidentziatik, eta gure teologia gurtzen zuela, eta gura zuela, beste edozeinek bezainbat, zerua irabazi, *et prétendais autant qu'aucun autre à gagner le ciel*. Eta gurari honexek, ene ustez oso txalogarria eta, batez ere, oso naturala zenak, eragotzi zion duda metodikotik ondorio guztiak ateratzea. Descartes gizonak, beste edozeinek bezainbat, zerua irabaztea zuen gogoan; baina jakin zuelarik "harako bidea ez dagoela itxiagorik ezjakinenentzat ikasienentzat baino, eta hartara daramaten egia goi-agertuak gure adimenaren gaintetik daudela gauza erabat segurutzat izanda, ez nintzatekeen ausartuko haiek nire arrazoiketen ahuleziapean ezartzen, eta pentsatu nuen haiek aztertzen hasteko eta halaxe lortzeko, beharrezkoa zatekeela Zerutik ohi ez bezalako laguntzaren bat eskuratzea, eta gizon baino zerbait gehiago izatea". Eta hementxe da gizona. Hementxe da, Jainkoari esker, zientzia bere fortunaren onerako lanbidea *-métier-* egitera behartzen zuen egoeran sentitzen ez zen gizona, eta gloria, ziniko gisa, mespreziatzeko lanbidea egiten ez zuena. Eta gero kontatzen digu Alemanian gelditu behar izan zuela, eta, berogailu, *poêle*, baten barruan sarturik, bere metodoa filosofatzen hasi zela. Alemanian, baina berogailu baten barruan sarturik! Eta horretara, berogailuko diskurtso bat da, eta aleman berogailukoa, hartan sarturiko filosofoa, zerua irabaztea gogo zuen frantsesa izan arren.

Eta *cogito ergo sum* hori heltzen da, jadanik Done Augustinek preludiatua; baina *ego cogito ergo ego sum* entimema honetako *ego* inplizitua, *ego* bat da, ni irreal bat, hau da, ideala, eta haren *sum*, haren existentzia, halaber, zerbait irreal, "Pentsatu egiten dut; beraz, banaiz" horrek ezin esan nahi dezake "pentsatu egiten dut; beraz, pentsatzailea naiz" besterik; *naiz* horren izatea, *pentsatzen dut*-etik datorrena, ez da ezagutze bat besterik; izate hori ezaguera da, baina ez bizia. Lehenbizikoa ez da nik pentsatzea, ni bizi izatea baizik, pentsatzen ez dutenak ere bizi egiten dira eta. Bizitze hori egiazko bizitzea izan ez arren. Zenbat kontraesan, Jainko neurea, bizitza eta arrazoimena uztartu nahi ditugunean!

Sum, ergo cogito da egia; banaiz, beraz pentsatzen dut, den guztiak pentsatzen ez badu ere. Pentsatzeko kontzientzia, ez ote da izango, oroz lehen, izateko kontzientzia? Egon ote daiteke pentsamendu hutsik, norbere kontzientziarik izan gabe, nortasunik gabea? Ba ote dago ezaguera hutsik, sentimendurik gabea, sentimenduak eskaintzen dion materialtasun moduko hori gabe? Ez ote da, ba, pentsamendua sentitzen, eta norbere burua sentitzen, ezagutzen eta gura izaten den aldi berean? Ezin esan zezakeen berogailuko gizonak: "Sentitu egiten dut; beraz, ba naiz"; edo "Gura egiten dut; beraz, banaiz"? Eta nork bere burua sentitzea, ez ote da amaiezin sentitzea? Nork bere buruari gura izatea, ez ote da geure buruari betiereko gura izatea; hau da, hil gura ez izatea? Amsterdameko judu tristeak gauzaren esentzia deitzen zuena, gauza bakoitzak bere izatean mugagabeki irauteko darabilen ahalegina, buruaganako maitasuna, hilezintasun-antsia, ez ote da izango gogoetazko edo gizatiar ezaguera ororen lehenbiziko eta funtsezko baldintza? Eta ez ote da izango, beraz, filosofia ororen egiazko oinarria, benetako abiapuntua, filosofoek, intelektualismoz okerbideraturik, horrela aitortu ez arren?

Eta, gainera, *cogito* hori izan zen, bereizkuntza hau sartu zuena, egietan oparo izanik ere nahastetan ere halakoxea izan zena, hots, objektuaren, *cogito*, eta subjektuaren, *sum*, arteko bereizkuntza. Eta ia ez da bereizkuntzarik aurkitzen nahasteko ere balio ez duenik. Baina honetara geroago itzuliko gara.

Gauden oraingoz honetan, ez hiltzeko antsia hau, hilezintasun pertsonalaren gosea, geure izatean mugagabeki irautera jotzen duguneko ahalegina eta, judu tragikoaren araez, gure esentzia dena, gizonak gizonentzat mamituriko ezaguera ororen atxekimenduzko oinarria eta giza filosofia ororen barru-barruko abiapuntu pertsonala delako susmo oldartsuan. Eta ikusiko dugu, barru-barruko atxekimenduzko problema horren irtenbideak, bera ebazteko uko desesperatua izan daitekeen irtenbideak, filosofiaren gainerako guztia tindatzen duela. Ezagueraren problema deitzen denaren azpian ere ez datza gizaki horren atxekimendua besterik, kausaren zergatiaren bilaketaren azpian zertarakoaren, helburuaren eskea besterik ez dagoen bezalaxe. Gainerako guztia nork bere burua engainatzea edo besteak engainatu nahi izatea da. Eta, norbere burua engainatzeko, besteak engainatu nahi izatea.

Eta filosofia ororen eta erlijio ororen abiapuntu pertsonal eta atxekimenduzko hori bizitzaren sentimendu tragikoa da. Horixe ikustera goaz.

III HILEZINTASUN-GOSEA

Gauden geldirik hilezintasun-irrika hilezin delako honetan, beroni darraiona gnostikoez edo intelektualek, filosofia barik, erretorika dela esan dezaketen arren. Platon jainkozkoak berak ere, bere *Fedon*-en arimaren hilezintasunaz aritzean, hartaz legendak egitea, $\mu\upsilon\theta\omicron\lambda\omicron\gamma\epsilon\iota\nu$, komeni dela esan zuen.

Gogora dezagun, ororen aitzin, berriz ere, eta ez azken aldiz, Spinozak esandako hura, izaki bakoitza bere baitan mugagabeki irauteko ahalegintzen dela, eta ahalegin hori haren egitezko esentzia dela eta aldean denbora mugagabea duela, eta gogo, azken buruan, bai bere ideia bereizi eta argietan, eta bai nahasietan ere, bere izatean segitzen ahalegintzen dela iraute mugagabeaz, ahalegin horrez jabeturik (*Ethice*, pars III, VI-IX. esakuneak).

Ezinezkoa zaigu, izan ere, geure burua existentziarik gabe ulertzea, eta ezein ahalegin ez da aski, kontzientzia inkontzientzia absolutuaz, hau da, bere ezerezteaz, kontura dadin. Saia hadi, irakurle, irudikatzen ongi itzarri hagoela, heure arimaren egoera lo zorroan zein izan daitekeen; ahaleginak egin heure kontzientzia kontzientziarik ezaren irudikapenez betetzen, eta ikusiko duk. Hori aditzen saiatzeak hersturazko zorabioa sorterazten du. Ezin uler dezakegu geure burua existentziarik gabe.

Unibertso ikuskorra, bizirik irauteko senaren ume dena, estua dut, txikia dudan kaiolaren antzekoa zait, nire arimak bere hegaladetan haren barroteen aurka jotzen duelarik; arnasa egiteko airea falta dut hor. Gehiago, gehiago eta gero eta gehiago; neu izan nahi dut eta, hori izateari utzi gabe, gainera besteak izan, gauza ikuskor eta ikustezin guztien barruan sartu, espazioaren mugagabetasunera hedatu eta denboraren amaiezintasunean luzatu. Guztia eta betiko izan ezean, ez banintz bezala izatea da eta, gutxienez, neu oso-osoan izan eta beti eta sekulako izan. Eta neu izatea gainerako guztiak izatea da. Guztia edo ezer ez!

Guztia edo ezer ez! Eta zer besterik adieraz dezake "izan edo ez izan" hark? Shakespeareren *To be or not to be* hark, Marcius-ez bere *Coriolanus*-ean (V, 4) jainkoa izateko betierekotasuna besterik ez zuela behar esanerazi zuen poeta berberarenak: *He wants nothing of a god but eternity?* Betierekotasuna, betierekotasuna! Horixe da irrika; betierekotasunaren egarria maitasuna deitzen da gizonen artean; eta beste bat maite duenak harengan bere burua betierekotu nahi du. Betierekoa ez dena erreala ere ez da.

Arimaren erraietatik oihuak aterarazi dizkie garai guztietako poetei bizitzaren uhinen jarioaren ikuskizun ikaragarri honek, Pindaroren $\nu\epsilon\upsilon\tau\epsilon\tau\epsilon\tau\epsilon$ "itzalaren amets"etik, Calderón-en "bizitza ametsa da", eta Shakespeareren "ametsen zurez eginak gara" hartaraino, gaztelauarena baino tragikoagoa izanik esakune hau, zeren hartan, amets, gure bizitzari besterik erizten ez zaion artean, baina ez guri, haren ameslarioi, ingelesak gu ere amets bihurtzen baikaitu, amets egiten duen ametsa.

Munduaren hutsalkeria, eta hura nola pasatzen den, eta maitasuna, hauexek dira egiazko poesiaren sustraizko eta barru-barruko nota biak. Eta bi nota hauetarik bata ezin jo dezake besteak ere durundi egin gabe. Mundu iragankorraren hutsalkeriaren sentimenduak maitasunean sartzen gaitu, berau baita hutsala eta iragankorra gainditzen dituen bakarra, bizitza bete eta betikotzen duen bakarra. Irudiz bederen, zeren errealitatean... Eta maitasunak, Patuaren aurka dihardukanean batez ere, itxurazko mundu honen hutsalkeriaren sentimenduan amiltzen baikaitu, beste mundu bat erdizka ikusteko atea irekiz, hor Patua azpiratuta, askatasuna lege delarik.

Guztia iragaten da! Horixe da bizitzaren iturritik edan dutenen errepika, ahoa txorrorean, ongiaren eta gaizkiaren jakitateko zuhaitzeko fruitutik dastatu dutenena.

Izan, beti izan, amairik gabe izan! Izateko egarri, gehiago izateko egarri! Jainkoaren gose! Maitasun betikogarri eta betierekoaren egarri! Beti izan! Jainkoa izan!

"Jainkoak bezalakoak izango zarete", esan omen zion, *Genesiaren* arauera (III, 5), sugeak lehenbiziko maiteminduen bikoteari. "Baldin Kristoren baitan bizitza honetan besterik espero ez badugu, gizon guztietarik urrikgarrienak gara", idazten zuen Apostoluak (Kor. I, XV, 19), eta erlijio guztiak historian hildakoak gurtzetik abiatzen dira; hau da, hilezintasuna gurtzetik.

Amsterdameko portugaldar judu tragikoak hau idazten zuen, alegia gizon burujabeak edozertaz pentsatzen duela heriotzaz izan ezik; baina gizon burujabe hori gizon hila da, bizitzaren eragingailutik askatua, maitasunik gabea, bere askatasunaren jopua. Hil behar dudalako pentsamendu hori eta ondoren izango denaren enigma nire kontzientziaren taupada bera da. Landa berde lasaiari so eginez, edo begi argi batzuei, nirearen kide den arima bat agertzen dutenei begiratuz, kontzientzia puztu egiten zait, arimaren diastolea sentitzen dut eta ingurugiro-bizitzatan blaitzen naiz, eta neure etorkizunean sinesten; baina une berean misterioaren ahotsak honela xuxurlatzen dit: "Izateari utziko diok". Herioaren Aingeruak bere hegoaz ukitzen nau eta arimaren sistoleak izpirituaren erraiak itotzen dizkit jainkotasunezko odoletan.

Pascalen antzera, ez dut ulertzen arazo honek batere axolarik ez dion laguna, eta abandonu horrek "beren buruei, beren betikotasunari, beren guztiari doakien arazo honetan, tristatu baino gehiago sumindu, harritu eta espantatu egiten nau", eta horrela sentitzen duena "niretzat", Pascalentzat bezala, seinalaturiko hitzak harenak baitira, "munstroa da".

Mila aldiz eta mila tonutan esana da asaba hilen gurkera dela, eskuarki, lehenbiziko erlijioei hasiera ematen diena, eta, zehazki, esan daiteke gizona gainerako animalietatik gehien nabarmentzen duena, horixe dela, bere hildakoak nola edo hala gordetzen arduratzea, haiek lur-ama oroerditzailearen axolagabekeria utzi gabe; animalia hiltzaina dela, alegia. Eta zertarako gordetzen ditu horrela? Zertatik babestu nahi ditu, gaixoak? Kontzientzia gaixoa bere deuseztapenetik ihesi doa, eta munduaren umontzitik irteten ari den animali izpirituak bere burua haren aurrean ikusi eta harena ez bezala dazagunean, bestelako bizitza izan nahi du, eta ez munduarena berarena. Eta horrela lurak hilerrri zabal bihurtzeko arriskua luke, hildakoak berak bir-hil baino lehen.

Bizientzat lurrezko aterpeak edo lastozko etxolak besterik egiten ez zirenean, eguratsak jadanik deseginak, defuntuentzako hilarriak eraikitzen ziren, eta harria lehenago erabili zen hobietarako, bizilekuetarako baino. Beren sendotasunaz, hildakoen etxeek mendeak garaitu dituzte, ez ordea, bizienek; ez iragaitzako egoitzek, gelditzekoek baizik.

Gurkera honek, ez heriotzaganakoak, hilezintasunagakoak baizik, erlijioak hasten eta kontserbatzen ditu. Suntsiketaren eldarnioan, Robespierrek Konbentzioari Izaki Gorenaren existentzia aldarrikarazi zion, eta "arimaren hilezintasunaren kontsolamendu-printzipioa" eta, izan ere, Ustelezina izutu egiten zen egunen batez usteldu beharko zelako ideia aurrean.

Gaixotasuna? Litekeena da, baina gaixotasunaz kontu egiten ez duena, osasunaz arduragabetzen da, eta gizona esentziaz eta substantziaz animalia eria da. Gaixotasuna? Baliteke berari datxekion bizitza bezala, hala izatea, izan dezakeen osasun bakarria heriotza delarik; baina gaixotasun hori osasun boteretsu ororen iturburua da. Larritasun horren sakonetik, gure hilkortasunaren sentimenduaren leizetik, norbera beste zeru baten argitara irteten da, infernuaren sakonetik, izarrak berrikusteko, Dante irten zen bezalaxe.

e quindi uscimmo a riveder le stelle

Inf. XXXIV, 139

Geure hilkortasunaren meditazio hau bat-batean larria bazaigu ere, azken finean berreslea da. Bil hadi, irakurle, heure baitan, eta irudika ezak heure burua geldiro desegiten ari dela, argia itzali egiten zaiala, gauzak mututzen zaizkiala eta ez diatela inolako hotsik ematen, ixiltasunean inguratzen hautelarik; objektu atxekigarriak esku artetik urtzen zaizkiala, oinpean zorua itzur bekik, konorte gabe bezala oroitzapenak aiena bekizkik, guztia ezerezean lainotuz doakiala, heu ere lainotuz hoala, eta ezerezen kontzientzia bera ere, ez zaiala itzal baten irudimenezko oralekutzat, geratzen.

Kontatzen entzun dut, behin ospitaleko ohean hil zen segalari gizaixo batez, apezak azken oleazioaz eskuak igurzterakoan, ez zuela inondik ere nahi eskuina ireki, ukabilean zeuzkan txanpon zikin batzuei gogorki eutsiz, handik laster ez eskua ez eta bere burua ere ez zituela jadanik bereak izango konturatu gabe. Eta honela ixten eta ukabilpetzen ditugu, ez eskua, bihotza bera baizik, horretan mundua eskuperatu nahirik.

Behiala, adiskide batek aitortzen zidan, osasun fisikoaren sendotasun osoan zegoelarik indarkeriazko heriotzaren hurbiltasuna aurrikusiz, bere bizitza trinkoki biltzea pentsatu zuela, ustez hemen gelditzen zitzaizkion egun urrietan liburu bat idazteko bizitzeko gogoaz. Hutsalakerien hutsalakeria!

Mantentzen nauen gorputza, neure burutik, hots, neu naizenetik bereizteko, nik neurea deitzen dudana, hil dakidanean, orduan nire kontzientzia, behiala sortu zen inkontzientzia absolutura bihur badadi, eta nireari bezala, gizateriako ene neba-arreba guztiei hala gertatzen baldin bazaie, orduan gure giza leinu jorratua ez dateke ezerezetik ezerezera doazen mamuen halabeharrezko segizio bat besterik, eta humanitarismoa, ezagutzen den gauzarik ezgizatiarrena.

Eta erremedioa ez da honela dioen koplarena:

*Cada vez que considero
que me tengo que morir,
tiendo la capa en el suelo
y no me harto de dormir*².

Ez! Erremedioa arazo hori aurrez aurre kontsideratzea da, soa Esfingearen egoitzari adi, horrela ezerezten baita haren begizkoaren sorginkeria.

Guztiok guztiz hiltzen bagara, zertarako guztia? Zertarako? Esfingearen zertarakoa da hori, arimaren muina karraskatzen digun zertarakoa, esperantzaren maitasuna ematen digun larriduraren aita.

Badira, Cowper gizaixoaren kexu poetikoen artean, erdarnioaren pisupean idatziriko lerro batzuk, eta horietan, bera jainkozko mendekuaren xedea delakoan, infernuak bere miseriei aterpe eskain diezaiekeela adierazten du.

Hell might afford my miseries a shelter.

Hauxe da sentimendu puritanoa, bekatuaren eta predestinazioagatiko kezka, alegia; baina irakur itzazue Sénancour-en beste hitz hauek, askoz ere ikaragarriagoak, desespero katolikoaren adierazle, ez protestantearena, bere Obermann-i (XC. gutuna) hau esanerazten dionean: *L'homme est périssable. Il se peut; mais périssons en résistant, et, si le néant nous est réservé, ne faisons pas que ce soit une justice*³. Eta aitortu behar dut, aitorten hau oso mingarria bada ere, neure gaztaroko fede errugabearen egunetan, ez zidatela sekula ikararik eragin infernuko oinazeek, ziren lazgarriak izanik ere, eta beti ere hura baino askoz ere beldurgarriagozat sentitu nuela ezereza. Sufritzen duena bizi da, eta sufritzen bizi denak maite eta espero du, bere etxauntzaren atean "Utzazue esperantza guztia!" jartzen badiote ere, eta hobe da oinazez bizi, izateari bakean uztea baino. Sakonean, kontua hauxe zen, ezin nuela sinetsi infernuko izugarrikeria horretan, saminezko amaigabetasuna, eta ez nuela infernu egiazkoagorik ikusten ezereza eta beronen perspektiba baino. Eta uste horretan

segitzen dut, hots, guztiok ezerezetiko gure salbazioan sinetsiko bagenu, guztiok hobeak ginatekeela.

Zer da bizipoza, orain esaten diguten *la joie de vivre* delakoa? Jainko-goseak, betierekotasun-egarriak, gainbizitzekoak, beti ere zapuztuko digu, geldi ezinik iragaten den bizitzaren poztasun urri hori. Bizitzeko amorio porrokatua, hura amaiezin nahi lukeenaren amorioa izaten da hiltzeko antsiara gehien bultzatu ohi duena. "Behin ni ahituz gero, osorik hiltzen baldin banaiz -diotsogu geure buruari-, mundua amaitu zait, amaiturik dago, eta zergatik ez da lehenbailehen amaituko, kontzientzia berriak existentzia iragankor eta itxurazkoaren engainu nahigabetsua pairatzera etor ez daitezten? Bizitzeko ilusioa behin galdu eta gero, bizitzearren bizitzeak edo eta berdin hil behar duten beste batzuegatik bizitzeak arima betetzen ez badigu, orduan zertarako bizi? Heriotza dugu erremedio". Eta, haren beldurrez, honela deritzo, eresiz, amaigabeko atsedinari, eta herioari askatzailea deitzen.

Oinazearen, suntsipenaren poeta hark, Leopardik, azken engainua galdua, alegia, betierekoa izateko ustea,

*Peri l'inganno estremo
ch'eterno io mi credei,*

bere bihotzari *l'infinita vanità del tutto* -z mintzo zitzaionak, maitasunaren eta heriotzaren arteko anaitasun estua ikusi zuen jadanik, eta "bihotz sakonean maitasunezko atxekimendua" sortzen denean, "horrekin batera, ahul eta nekaturik, bularrean hiltzeko gogoia sentitzen dela ere bai". Beren buruei heriotza ematen dieten gehienei, maitasunak mugierazten die besoa, bizitzeko antsia gorenak, bizitza gehiago izateko, bizitza luzatu eta betikotzeko antsiak daramatza heriotzara, beren antsia horren hutsalakeriaz konturatu ondoren.

Tragikoa da problema, eta betikoa, eta zenbat eta hartatik ihes egiteko gogo handiago dugun, are gehiago iristen gara hartara. Orain jadanik hogeita lau mende, Platon lasaiak -lasaia ote?-, arimaren hilezintasunaz egin zuen elkarrizketan, hilezinak izateko gure ametsaz eta hori alferrik ez ote deneko *arriskuaz* mintzatuz, bere arimatik esaldi sakon hura utzi zuen irteten: "Ederra benetan arriskua!", ederra da gure arima agian inoiz hilko ez zaigula eta, izan dezakegun zorrea, esakune honetan, ernamuinez, Pascalen apostuaren argudio famatua datzalarik.

Arrisku honen aurrean, eta bera ezabatzeko, arrazoiketak ematen dizkidate, honela arimaren hilezintasuna sinestea zein absurdua den frogatzeko; baina arrazoiketa horiek ez didate ukiturik ere egiten, arrazoiak baitira, arrazoiak besterik ez, eta bihotza ez da horiez bazkatzen. Ez, ez dut hil nahi; ez ez dut nahi, eta nahi izatea ere ez dut nahi; beti, beti, beti bizi nahi dut, eta neu bizi, orain eta hemen naizen, izaten sentitzen naizen nerau gaixo hau, eta horrexegatik nauka larriminez neure arimaren iraunkortasunak, neure arima honexen, honexen betiraun-beharrak.

Neu naiz neure Unibertsoaren erdigunea, Unibertsoaren erdigunea, eta neure goren hersturetan oihu egiten dut, Michelet-ekin batera: "Neure ni-a, neure nia ebasten ari zaizkit!" Zer probetxu du gizonak baldin mundu guztia irabaz badeza, bere arima galduz gero? (*Mat. XVI, 26*). Berekoikeria diozue? Ez dago banakoarena baino ezer unibertsalagorik, bakoitzarena dena guztiena baita. Gizon bakoitzak gizateria osoak baino gehiago balio du, eta ez dago bakoitza guztiei sakrifikatzerik, guztiak bakoitzari sakrifikatzen zaizkion neurrian ez bada. Berekoitasuna deitzen duzuen hori grabitate psikikoaren printzipioa da, beharrezko postulatu. "Maita ezak heure lagun hurkoa heure burua bezala!" esan zitzaigun, aurretik bakoitzak bere burua maite duela uste izanik; eta ez zitzaigun esan "maita ezak heure burua!". Eta, halere, ez dakigu geure burua maitatzen.

Ken ezazue irautea bera eta egizue gogoeta diotsuetenaz. Sakrifika hadi heure seme-alabengatik! Eta haiengatik sakrifikatzen haiz, hireak direlako, hire zati eta luzapena, eta haiek, beren aldetik, berenengatik sakrifikatuko dira, eta horiek beraiengatik, eta horrela joango da sakrifizio antzu hori, inori onik ekarri gabe. Mundura neure nia egitera etorri nintzen, eta zer izango da gure ni guztiez? Bizi hadi Egiarako, Ongirako, Edertasunerako! Oraino ikusteko dugu jarrera hipokrita honen hutsalkeria goren eta beraren goren mailako zintzotasunik eza.

"Hori heu haiz!", esaten didate, Upanishadekin batera. Eta nik honela diotset: "Bai, hori neu naiz, hori ni denean, oro nirea eta gauza guztien osotasuna nirea denean. Eta nirea bezala maite dut, eta hurkoari gura diot, nigan eta nire kontzientziaren zatitzat bizi delako, ni bezalakoa delako, nirea delako".

O, nork luza lezake une gozo hau, hor lo gelditu, hortxe betierekotezko! Orain eta hemen, argi apal eta zirriborrozkopean, gelditasunezko urlo honetan, bihotzaren ekaitza ematurik dagoenean, munduko oihartzunak heltzen ez zaizkidanean! Lo datza ase ezinezko nahia eta ez du, halere, ametsik egiten; ohikuntza, ohikuntza saindua da ene betikotasunaren errege; hilak dira, oroitzapenekin, desengainuak, eta esperantzekin, ikarak.

Eta engainatu guran datozkigu, engainuen engainuaz, eta, dioskutenez, ez da ezer galtzen, oro itxuraldatu, mutatu eta ganbiatzen omen, eta materiaren txatalik txikiena ere ez da anikilatzen, ez indar-kolpetxorik txikiena guztiz ahitzen, eta bada horrekin kontsolamendua eman nahi digunik! Kontsolamendu eskasa! Ez neure materiaz arduratzen naiz, ez neure indarraz, ez baititut neureak, nihaur neurea ez naizen bitartean; hau da, betierekoa. Ez, nik irrikatzen dudana ez da Osotasun haundian, Materia edo Indar infinitu eta betierekoetan edo Jainkoagan murgiltzea; ez da Jainkoak ni edukitzea, nik hura edukitzea baizik, ni, orain mintzo natzaizuen ni hau izateari utzi gabe, Jainko bihurtzea. Guretzat monismoaren gezurkeriek baliorik ez; hilezintasun ukigarria nahi dugu, eta ez haren itzala.

Materialismoa? Materialismoa diozue? Dudarik ez; baina, izan ere, gure izpiritu bera ere nolabaiteko materia da, ezer izatekotan. Dardarka nago neure haragitik urraturik aldendu behar dudalako ideia-aren aurrean; are dardara handiagoak sorterazten dizkit sentikor eta material den guztitik, substantzia guztitik urratuta alde egin behar dudalako ideiak. Materialismo izena agian honexek merezi du, eta Jainkoari neure ahalmen eta zentzu guztiekin horrexetarako natxekio, hark bere besoetan heriotzaz bestaldera eramanez, bere zeruarekin begietara so egin diezadan, behakoa betiko itzaltzera joan dakidakeenean. Neure burua engainatzen dudala? Ez niri engainuaz mintza, eta uztazue bizitzen!

Honi harrokeria ere esaten diote. "Harrokeria kiratsa" eritzi zion Leopardik, eta galde egiten digute ea gu nor garen, lurreko zizare ezdeusok, hilezintasuna erdietsi nahi izateko; zeren graziaz? Zertarako? Nolako eskubideaz? Zeren graziaz -galdetzen duzue-, eta zeren graziaz bizi gara? Zertarako? Eta zertarako gara? Nolako eskubideaz? Eta nolako eskubideaz gara? Izatea bezain dohainekoa da betiko iraupena. Ez gaitezen graziaz mintza, ez eskubideaz, ez eta bere baitan helburua duen gure irrikaz ere, absurduen zurrumbilo horretan arrazoimena galduko dugu eta. Ez dut eskubide ez eta merezimendurik bat ere eskatzen; beharizana besterik ez da, bizitzeko behar dut.

"Eta nor haiz hi?" galdetzen didak. Eta Obermann-ekin erantzuten diat: "Unibertsoarentzat, ezer ez; niretzat, oro!". Harrokeria? Hilezina izan nahi izatea harrokeria ote? Gizon gaixoak! Patu tragikoa, zalantzarik gabe, hilezintasun-nahiaren harri mugikor eta arbuigarrian haren baiezpene oinarritu beharra; baina dorpezia handia da irrika kondenatzea, bera ezin erdiets daitekeela, frogaturik dagoelakoan, egiaz frogatu gabe. Ametsetan nabilela?... Uztazue amets egiten; eta amets hori ene bizitza

baldin bada, ez nazazue horretatik iratzar. Hilezintasun-irrika horren jatorri hilezinean sinesten dut, ene arimaren substantzia bera da eta. Baina, egiaz sinesten ote dut horretan?... "Eta zertarako izan nahi duk hilezin?", galdetzen didak. Zertarako? Ez dut galdera ulertzen, argiro esanik, hori arrazoiaren arrazoa galdetzea delako, azkenaren azkena, hasieraren hasiera.

Baina gauza hauetaz ezin mintza daiteke.

Apostoluen Eginen liburuak kontatzen duenez, Paulo noranahi zihoalarik, juduek elkar hartzen zuten haren aurka egiteko. Ikonion eta Listran, Lykaoniako hirietan, harrikatu egin zuten, azken horretan egin zituen mirariak eginik ere; Makedoniako Filippos herrian zigor ukaldiz jo zuten eta bere arrazakideek Thessalonikan eta Berean jazarka eraso zioten. Baina Athenasera heldu zen, intelektualen hiri noblera. Hiri hark goi-jagolen arima gorena zuen, hilezina izateko arriskuaren edertasuna aipatu zuena, eta hantxe egin zuen Paulok eztabaida epikurotar eta estoikoekin, hari buruz haxe esanik: "Zer esan nahi du hitzontzi honek?", edo beste hau "Badirudi jainko berrien predikatzaila dela!" *Apost. Eginak*, XVII,19) Eta bera hartuta, Areopagora eraman zuten, ziotelarik: "Jakín ahal dezakegu zerik den hitaz erraiten den doktrina berri hori? Ezen gauza arrotz batzuk ekartzen dituk gure belarrietara, eta jakín nahi diagu horiek zer erran nahi duten" (19-20. bertsetak), eta liburuak ezaupide zoragarri hau gehitzen du jaitzapen-aroko athenastar haietaz, jakingarri gozozale eta gurati haietaz, "ezen orduan athenastar guztiek eta han egoten ziren arrotzek ez zuten ezein ere beste lanik egiten, zerbait berri erraiten edo entzuten aritzea baizik" (21. bertseta). Aipamen zoragarria benetan! Odyssean jainkoek, ondorengoek zerbait kontatzeko izan dezaten, hilgarriok suntsitzea asmatu eta horixe beterazten omen dutela ikasi zutenak noraino eroriak ziren isladatzen digu horrek!

Hor dugu, beraz, Paulo, athenastar landu haien aurrean, *graeculus* haien aitzinean, doktrina guztiak onartzen dituzten gizon ikasi eta jasankorren aurrean, guztiak aztertu eta hauek edo besteak onesteagatik inor harrikatzen ez zigortzen ez dutenen aitzinean; hantxe da, kontzientzi askatasuna errespetatzen den eta eritziak oro entzun eta aditzen diren lekuan. Eta han boza altxatzen du, Areopagoaren erdian, eta Athenasko hiritar ikasiei zegokienez mintzo zaie, eta guztiek, azken berriaren antsiaz, entzun egiten dute bera; baina hildakoen birbizteaz mintzatzen hasten denean, pazientzia eta jasankortasuna agortzen zaie, eta batzuk burlatu egiten dira berataz, eta beste batzuek honela diotsote: "Hurrengorako utziko dugu hori entzutea!" bera gehiago ez entzuteko asmoz. Eta antzeko zerbait gertatu zitzaion Caesarean Felix pretore erromatarrarekin ere, gizon halaber jasankor eta ikasia bera, presondegiko pisuaz arindu ondoren, eta bera entzun nahirik, zuzenbideaz eta kontinentziaz mintzatzen aditu ziona; baina etorkizuneko judiziora heltzean, ikaraz esan zion "Oraingoaz habil, eta aizinarik dudanean deituko haut!" (*Apost. Eginak*, XXIV, 22-25) eta Agrippa erregearen aurrean mintzo zenean, Festosek, gobernadoreak, hildakoen biztueraz esaten entzun zuenean, hots egin zuen: "zoratu haiz, Paulo; letretako jakituria handiak zoratu egin hau". (*Apost. Eginak*, XXVI, 24)

Paulok Aeropagoan egindako hitzaldiaren egiazkotasuna nola edo halakoa izanik ere, eta hura izan ez balitz ere, egia da kontakizun miresgarri horretan argi ageri dela Attikakoen jasankortasuna noraino heltzen den eta intelektualen pazientzia non amaitzen den. Guztiek lasai entzuten zaituztete, irribarretsu, eta batzuetan adorezko hitzak esaten dizkizute, esanik: "Kurioso da!", edo "Ongi asmatua da!" edo "Iradokiorra da!" edo "Hori bai edertasuna!" edo "Tamala da hainbesteko edertasuna egia ez izatea!" edo "Horrek zer pentsa ematen du!". Baina biztueraz eta heriotzaz bestaldeko bizitzaz mintzo zatzaizkieten bezain laster, haien pazientzia agortu, eta hitza mozten dizute, esanez: "Utzak, hurrengo batez mintzatuko haiz horretaz!". Eta,

hemen, neure athenastar gaixook, jasamen txarreko intelektual neureok, horrexetaz mintzatu nahi natzaizue hemen.

Eta sineskera hori absurdua balitz ere, zergatik zaie jasanezinagoa hori aurkeztea, beste absurduago batzuk baino? Zergatik sineskera horren aurkako etsaitasun nabari hori? Beldurra ote da? Harekin bat ezin etortzearen damua ote?

Eta horra non datozen zentzudunak, engainatuak izateko prest ez daudenak, eta horiek belarriak birrintzen dizkigute erokeriaren eskuetan gelditzeak eta akuiluaren aurka ostikoka aritzeak balio ez duelako errepikaz, ezin daitekeena ezinezkoa baita. "Gizonki jokatzeko -diote- zoria haintzat hartu beharra dago, eta hilezinak ez garenez gero, ez dezagun halako izan nahi; noraezekoaren aholkuei kasu egiteke, makur gaitzen arrazoiaren menpera, bizitza iluntzen eta tristatzen ibili gabe. Obsesio hori -gainerazten dute- eritasun bat da". Eritasuna, eromena, arrazoia... Betiko leloa! Ederki, baina ez! Ez naiz arrazoiaren menpera makurtzen, eta haren aurka jazartzen naiz, eta fede-indarrak neure Jainko hilezintzailea sortzera jotzen dut, eta neure borondateaz astroen ibilbidea okertzera, zeren ziape-bihi bat bezainbat fede bagenu, mendi horri honela esango baikenioke: "Iragan hadi hemendik hara" eta iragan egingo litzateke, eta ezer ez genuke ezinezkoa izango (*Mat.*, XVII, 20).

Horra hor energien lapur hori⁵, berak Kristori dorpeki deitzen zionez, nihilismoa eta existentziaren aldeko borroka uztartu nahi zituena; nor eta bera adoreaz mintzo zaizue. Bihotzak betiereko orotasuna eskatzen zion, buruak ezereza erakusten zion artean, eta bere buruarengandik defendatzeko desesperaturik eta ero, maiteen zuena madarikatu zuen. Kristo ezin izan zitekeelarik, Kristoz blasfematu zuen. Bere buruaz hanturik, amaigabe izan nahi zuen eta betiereko itzulera amestu zuen, hilezintasunaren ordeko mizkina, eta bere buruarenganako gupidaz beterik, gupida oro gaitzetsi zuen. Eta badira harena gizon sendoen filosofia dela diotenak! Ez; ez da. Neure osasunak eta sendotasunak irauneraztera bultzatzen naute. Sendo izan nahi duten erkinen doktrina da hori; baina ez benetan sendo direnena! Ahulek ez bestek onesten dute azken heriotza, eta hilezintasun pertsonalaren irrika beste batez ordezkutzen. Sendoengan iraunkizun-antsiak hori lortzeko zalantza gaintzen du, eta haien bizitasunezko gaineztadura heriotzaz bestaldera isurtzen da.

Hilkortasunaren misterio ikaragarri honen aurrean, Esfingearekin aurrez aurre, gizonak jarrera ezberdinak izaten ditu eta jaio izateagatik kontsolatzeko era batzuk bilatzen. Eta batzuetan, jolastzat hartuta, Renan-ekin batera, Unibertso hau Jainkoak bere buruari eskaintzen dion ikuskizuna dela esaten du, eta Korego⁶ nagusiaren intentzioak zerbitzatu behar ditugula, ikuskizuna ahal den distiratsuen eta ahalik eta ñabarrena izan dadin saiaturaz. Eta artea erlijio eta gaitz metafisikoaren aurkako erremedio egin dute, artea arteagatik delako erretolika asmatuak.

Baina ez dute aski. Bere buruaren pozerako, idazten, pintatzen, eskultura-lana egiten edo kantatzen duela diotsuenak, egiten duena publikoari ematen badio, gezurra dio; gezurra dio bere idazkia, pintura eskultura edo kantua sinatzen badu. Gutxienez, bere izpirituaren itzal bat utzi nahi du, ondotik biziko zaion zerbait. *Kristoren imitazioa* izengabea baldin bada, hola da berorren autoreari, arimaren betikotasunaren bila zebilenez gero, izenarenak ardura gutxi ziolako. Gloria mespreziatzen duela diotsuen idazleari aho betean gezurra dario. Dantek, munduko gloriaren hutsalkeriaz hogeita hamahiru lerro ezin kementsuago haien idazleak (*Garbit.*, XI, 85-117), Boccacciok dioenez, ohoreez eta ospez gozatu omen zuen, eta agian haren bertute gorenari zegokion baino neurri handiagoan. Haren kondenatuen nahirik gartsuena hemen lurtean gogoratuak izatea zen, beraietaz mintzatzea, eta horrexek argitzen zizkien gehienik beren infernuko ilunbeak. Eta berberak azaldu zuen Monarkiaren kontzeptua, besteren mesede hutserako ez baina gloriaren palma eskuratzeko (I. lib., I. kap.). Gehiagorik zer?

Gizon saindu hartaz ere, lurtar hutsalkerietatik, dirudienez, urrunduenaz, Asisko Pobretoaz, Hiru Sozioek kontatzen dute honetara esan zuela: *Adhuc adorabor per totum mundum!* "Ikusiko duzue oraindik mundu guztiak nola adoratu nauen!" (*Celano*, 1, I). Eta Jainkoak berak, teologoek diotenez, mundua bere gloria nabarmentzeko sortu omen zuen.

Zalantzek erasotzen digutenean eta arimaren hilezintasunaren gaineko fedea lainotzen, izena eta ospea betikotzeko antsiak adore berria eta bultzada mingarria hartzen ditu, hilezintasun-itzalen bat bederen erdiesteko. Eta hortixek dator norbera aparta izateko borroka itzel hori, besteen eta etortzekoen oroitzapenean nolabait bizirauteko, bizitzaren aldekoa baino borroka mila aldiz ikaragarriagoa, gure gizarte honi tonua, kolorea eta izaera ematen diona, hor Erdi Aroko fedearen arauera arima hilezina delako sinestea ezerezten ari da eta. Nork bere burua iraunkor egin nahi du, itxuraz behinik behin.

Behin gosea ase eta gero, eta berau behingoan ase daiteke, hantustea eta bestean gainean gelditu eta horienengan bizirik irauteko premia -horixe baita- sortzen da. Gizonak bizitza poltsagatik eman ohi du, baina poltsa hantusteagatik ematen du. Hoberik ezean, bere ahuleriez eta miseriez ere harrotzen da, eta, bere burua nabarmentzearen, erhia bendaturik daraman haurraren antzekoa da. Eta hantustea, zer da ba ondotik bizitzeko antsia besterik?

Hantustetsuari zikoitzari bezalaxe gertatzen zaio, bideak helburutzat hartzen ditu, eta hauetaz ahantzirik, haiei atxekitzen zaie eta haietan gelditzen. Antza denez, zerbaitek, izateko itxura duenean, azkenean gure helburua eratzen du. Besteek gu haiek baino gehiago garela pentsatzea behar dugu, guk geure burua haintzat hartzeko, eta horrexetan norbere biziraupenaren fedea oinarritzeko, ospearena bederen. Kausa bat defendatzen dugunean, inork hor darabilgun talentua goraiatzea eskertzenago dugu kausaren egia edo ontasuna aitortzea baino. Izpirituen aro berriko mundu honetan original izateko nahikeria amorratua dabil, eta bakoitzak gauza banatan ezartzen du. Agudeziaz oker aritzea nahiago, belaxkakeriaz asmatzea baino. Rousseauk esana zuen jada hori bere *Emilio* -n: "Baldin eta filofosoek egia aurkitzeko erarik balute ere, haietarik zein arduratuko litzateke hartaz? Bakoitzak badaki bere sistema ez dagoela besteak baino hobeki oinarriturik, baina horri eusten dio, berea duelako. Ez dago bat bera ere, egiazkoa eta gezurrezkoa ezagutzera helduz gero, berak bilaturiko gezurra, bestek aurkituriko egia baino nahiago ez duenik. Non da filosofoa, gogo onez, bere buruaren gloriagatik, giza generoa engainatuko ez lukeena? Non da, bere bihotzaren ezkutuan, bere burua nabarmentzea ez bezalako xederik duena? Jende arruntaren gainetik bere burua goratzea, bere lehiakideen distira ezabatzea baino, zer besterik eskatzen du? Funtsezkoena besteek ez bezala pentsatzea da. Fededunen artean ateista da; ateisten artean fededun izango litzateke". Zenbateko egia ez ote datza zintzotasun mingarriko gizon haren aitorten triste hauen sakonean!

Izenaren biziraupenaren alde jo eta ke darabilgun borroka hori iraganari doakio, baina badu, halaber, etorkizuna konkistatzeko asmorik ere; hilekin liskarrean ari gara, horiek baitira, izan, bizioi itzal egiten digutenak. Lehenagoko jeinuez jelsokorrak gara, horien izenak, Historiaren mugarri, aroek salbatzen dituztelako. Ospearen zerua ez da oso handia, eta hor zenbat eta gehiago sartu, are gutxiago dagokioke haietako bakoitzari. Iraganeko izen haundiek toki bat ohosten digute han; haiek jendeen oroitzapenean betetzen dutena, betetzeko gogoia dugunoi horixe kenduko digute. Eta horrela, haien aurka jazartzen gara, eta hortixek dator letretan goraiamenaren bila ari direnek jadanik hura eskuratu zutenak eta hartaz gozatzen dutenak maiseatzeko darabilten garraztasuna. Literatura asko aberasten bada, gero galbahe-eguna etorri eta bakoitza zetabearen mailetan gelditzeko beldur da. Maisuerekiko errespetu gutxi erakusten duen gazteak, haiei erasotzean, bere burua defendatzen du; ikonoklasta edo imajina-hauslea, bere

burua imajinatzat, *ikono*-tzat jartzen duen estilista da. "Gonbaraketa guztiak gorrotagarria dira", dio esaera esangarri batek eta, izan ere, bakarrik izan nahi dugu. Ez esan Fernandezi talentu handiena duten gazte espainoletariko bat denik, eskerrak emateko itxura egiten duen artean, laudorio horrek min ematen diolako; talentu handiena duen espainola dela badiotsozue... Tira! ..., baina hori ere ez du aski; munduko gorenetakoa bat, eskergarriagoa duke, baina bera asebetetzen duen bakarra leku guztietatik eta mende orotatik lehena dela sinestea da. Zenbat eta bakarrago, are hurbilago itxurazko hilezintasunetik, izenarenetik, izenek elkar urritzen dute eta.

Zer esan nahi du sumindura horrek, perpaus bat, edo pentsamendu bat, edo irudi bat ohosten digutenean, gurea zela uste genuena plagiitzen digutenean? Ohostu? Gurea ote da baina, behin jendeari eman eta gero? Guretzat besterik ez dugu nahi, eta gure moldea gordetzen duen moneta faltsuari oneritziz lotuagorik bizi gara, gure begitarrea eta gure irakurgaia ezabaturik dituen urre garbizko txanponari baino. Oso maiz, idazle baten izena jadanik esaten ez denean, orduantxe izaten du bere herriagan eraginik handiena, haren izpiritua bera irakurri zutenen izpiritueta barreiatu eta barneraturik; baina hura aipatzen zenean, aldiz, haren esanak eta pentsamenduak, izenaren bermetasuna behar zuten ohizkoen aurka zihoazelako. Harena jadanik guztiena da eta hura guztiengan bizi da. Baina bere baitan triste eta zimelik bizi da, eta porrot eginik dagoela uste du. Ez dantzuzki jada txaloak, ez eta irakurtzen segitzen diotenen bihotzen taupada ixilak ere. Galde egiozue edozein artista zintzori ea zer duen nahiago, bere lana hondatzea baina bere oroitzapena bizirik irautea, ala hau hondatuta, hark irautea, eta ikusiko duzue, benetan zintzoa baldin bada, zer esango dizuen. Gizonak bizitzeko, eta tiraka joateko, lan egiten ez duenean, gainbizitzeko egiten du lan. Obragatik beragatik obratzea jolasa da eta ez lana. Eta jolasa? Horretaz ere mintzatuko gara.

Grina itzela horixe, gure oroitzapena besteen ahazturaren gainetik ahal bada gainbizitzekoa. Hortxe du abiapuntua bekaizkeriak, azalpen biblikoaren arauera, giza historia ireki zuen krimena zor zaiona: Kainek bere anaia Abel hiltzea. Ez zen hura ogiagatik borroka, Jainkoagan, jainkozko oroitzapenean bizirik irauteko borroka baizik. Bekaizkeria mila aldiz ikaragarriagoa da gosea baino, gose izpirituala delako. Bizitzeko problema, ogiarena, behin konpondu eta gero, Lurra infernu bilaka liteke, biziraupenaren aldeko borroka are indar handiagoaz sortuko litzatekeelako.

Izenari ez zaio, soilki, bizitza sakrifikatzen, zoriona ere bai. Bizitza, inolako zalantzarik gabe. "*Muera yo; viva mi fama!*" oihu egiten zuen *Cid-en gaztaroa*-n⁷ Rodrigo Ariasek, Diego Ordoñez de Larak bera hiltzeko zauritu zuenean. Nor bere izenaren zordun da. "Adore izan, Hieronimo, hitaz luzaro gogoratuko dituk eta; heriotza mingotsa duk, baina ospea, betierekoa!" hots egin zuen Hieronimo Olgiati-k, Cola Montanoren ikasleak, eta, Lampugnani eta Visconti-rekin bat eginda, Galeazzo Sforza Milanoko tiranoaren hiltzaileak. Bada, ospea lortzarren, urkamendia ere irrikatzen duena, berori fama txarra bada ere: *Avidus malae famae*, Tacitok esana jada.

Eta erostratismo hau, funtsean zer da, hilezintasunaren antsia besterik, substantzia eta gorputzarena ezean, izenaren eta itzalarena bederen?

Eta horretan ere graduak dira. Egungo jendetzen txaloe gaitzesten duena belaunalditan zehar gutxiengo beti berrizatuengan bizirik irautearen bila ari da. "Ondorengotasuna gutxiengoak elkarren gainean metatzea da" zioen Gounod-ek. Denboran luzatzea nahiago du espazioan baino. Jendetzen idoloak jendetzak berak amilerazten ditu berehala, eta haien estatua idulkiaren oinean ezerezten da, inork kasurik ere egin gabe, baina bitartean hautatuen bihotza eskuratzen dutenek gurkera beroa izango dute, kapera bildu eta txiki batean bederen, baina horrek ahazturaren oldeetatik salbatuko ditu. Artistak bere ospearen hedadura, horren luzapenaren truke sakrifikatzen du; gurago du txokotxo batean betiko irautea, unibertso orotan segundu batez dirdira egitea baino;

nahiago du atomo betierekoa eta bere buruaz kontzientea izan, unibertso osoaren une bateko kontzientzia baino; mugagabetasuna betierekotasunaren alde sakrifikatzen du.

Eta, berriz ere harrokeria!, harrokeria kiratsa! delako errepikaz datozkigu belarriak birrintzera. Harrokeria ote, izen ezabaezina utzi nahi izatea? Harrokeria? Aberastasunen gosea ulertuko balitz bezala, atseginen gosez mintzatzean bezala. Ez, gizon behartuok diru-bila herrestan garabiltzana ez da horrenbeste atseginak lortzeko antsia, pobreziaren ikarak baino, Erdi Aroan gizonak komentuko kalostrera, honen garratzasunaz, narras zeramatzana gloria-nahia ez zen bezala, infernuaren izua baizik. Hori ere ez da harrokeria, ezerezaren beldurra baizik. Oro izatera jotzen dugu, hortxe baitakusagu ezerez bihurturik ez gelditzeko erremedio bakarra. Geure oroitzapena salbatu nahi dugu, geure oroitzapena behinik behin. Zenbat iraungo du? Gehienez ere, giza leinuak dirauen bitartean. Eta geure oroitzapena Jainkoagan salbatuko bagenu?

Aitortzen dudan hau guztiau, ongi dakit, miseriak dira; baina miseria horietatik bizi berria sortzen da, eta izpirituzko oinazearen ahetzak agortzea dugu bizitzaren kopako kondarren eztia dastatzeko era bakarra. Larridurak kontsolamendura garamatza.

Betiereko bizitzaren egarri hori, anitzek, xumeek batez ere, erlijio-fedearen iturrian asetzen dute; baina guztiek ez dute hortik edaterik. Bada erakunde bat helburu nagusitzat arimaren hilezintasun pertsonalaren fede hori babestea duena, katolikotasuna alegia; baina katolikotasunak fede hori arrazoitu nahi izan du, eta erlijioa teologia bilakatu, bizitzazko sineskerari oinarritzat XIII. mendeko filosofia bat eskaini nahirik. Hori ikustera goaz, eta horrexen ondorioak ere ikusiko ditugu.

Salamancan, 1911.eko Azaroan.

IV

KATOLIKOTASUNAREN ESENTZIA

Gatozen orain geure bizitzazko barru-barruko problemaren irtenbide kristau katolikora, paulotar edo athanasiarrera, hilezintasunaren gosera alegia.

Kristautasuna korronte izpiritual handi bi bateratzean jalgi zen, judutarra bata, helenikoa bestea, lehenagotik ere elkarri eragindakoak, eta Erromak horri zigilu praktikoa eta gizarte-iraunkortasuna eman zizkion.

Hasierako kristautasunaz esan da, agian arinegi, aneskatologikoa izan zela, ez zela hartan argi agertzen heriotzaz geroko beste bizitzan federik, munduaren berehalako amaieran eta Jainkoaren ezarreran baizik, *khiliasmo* izenekoan. Eta, izan ere, funtsean ez al ziren gauza bera? Arimaren hilezintasunaren fedea, eta horren izaera, beharbada, ez ziren asko zehazten, eta hori guztiori Ebangelio osoan nolabait, esan gabeko ustekizun gisa, *azpiulerturik* doala susma daiteke, eta gaur hura irakurtzen duten askoren izpirituaren egoerak berak, Ebangelioa beren artean sortzen ikusi zuten beste kristau haien egoeraren aurkakoa denak, ez die uzten horiek ikusten. Zalantzarik gabe, Kristoren bigarren etorrerako hura, ahalmen handiz, handitasunez inguratua eta hodei artean, hilak eta biziak epaitzeko, batzuei zeruetako erresuma ireki eta besteei gehenara jaurtikitzeko, negarra eta hortz-garraskotsa izango denera, era khiliastikoan uler daiteke, eta, oraindik Ebangelioan Kristoren ahoz esaten da (*Marko*, IX, 1) bazirela harekin zenbaitzu, Jainkoaren erresumaren etorrera ikusi gabe, heriotza dastatuko ez zutenak; hau da, hori haien belaunaldian zetorkeela; eta kapitulu berean, 10. bertsetean, Jakueren, Petriren eta Joanesen ahotik, Jesusekin Eraldaketaren mendira igon eta hilen artetik birbiztuko zela esaten entzun zutenen bidez, hauxe esaten zaigu, "Eta esandakoa berekin gorde zuten, batzuek besteekin hilen artetik birbiztea delako hori zer ote zatekeen eztabaidatuz". Edozein kasutan, sineste hori, kristautasunaren oinarria eta izateko arrazoia, mamitzen ari zenean eratu zen Ebangelioa (Ikus Mateu-engan, XXII, 29-32; Marko-engan, XII, 24-27; Luka-engan, XVI, 22-31; XX, 34-37; Joanesengan, V, 24-29; VI, 40, 54, 58; VIII, 51; XI, 25, 56; XIV, 2, 19). Eta batez ere, Kristo birbiztean (Mateu, XXVII, 52) "lo zeutzan gorputz saildu asko birbiztu egin zirela" delakoa.

Eta hori ez zen biztuera naturala, ez. Kristau fedea Jesusek ez zuela hilik iraun eta Jainkoak birbiztu zuela eta biztuera hori benetakoa zelako fedetik sortu zen; baina horrek ez zekarren aldean, era filosofikoan, arimaren besterik gabeko hilezintasuna (Ikus Harnack, *Dogmengeschichte.*, Prolegomena, 5, 4). Elizako lehenbiziko Aitentzat berentzat ere, arimaren hilezintasuna ez zen zerbait naturala; hori frogatzeko aski zen, Nemesiok dioenez, Jainkozko Eskrituren irakaspena, eta Laktantioren arauera, hura dohaina zen -dohainekoa, beraz-, Jainkoak emana. Baina hori geroko.

Genioenez, kristautasuna ihardupide izpiritual nagusi bi, judaikoa eta helenikoa, bateratzean jalgi zen, horietako bakoitza, zein bere kontutik, definizio zehatzera ez bazen ere, beste bizitza baten beharrezko irrikara heldua zelarik. Beste bizitzaren baitako fedea ez zegoen juduen artean argi ez eta hedaturik ere; baina Jainko pertsonal eta bizi batengan sinesteak haietara eraman zituen, eta haren eraketa haien historia izpiritual osoa izan zen.

Yahveh, juduen Jainkoa hasieran beste jainko askoren arteko bat zen, Israelgo herriaren Jainkoa, ekaitz-hots artean Sinai mendian goitik agertua. Baina hain zelatia zenez gero, gurkera Berari bakarrik egitea eskatzen zuen eta, horrelaxe, monokultismoaren bidez, heldu ziren juduak monoteismora. Indar bizitzat adoratua zen, ez izaki metafisikotzat, eta borrokaldien jainkoa zen. Baina Jainko hori, gizarte- eta gerra-jatorrikoa, eta horren sorreraz berriro itzuli behar dugu, profetengan barnekoiago eta pertsonalago egin zen eta, barnekoiago eta pertsonalago bihurtzean, are indibidualago eta, beraz, unibertsalago

ere bai. Yahveh-k Israel maite du, ez bere umea duelako, aitzitik, maite zuelako hartu du umetzat (Osea, XI, 1). Eta Jainko pertsonalaren baitako fedea, gizonen Aitarengan, gizon indibidualaren betierekotasunaren fedea zekarren aldean, fariseismoaren garaian, Kristo baino lehenago ere, nabaritzen hasi zena.

Heleniar kulturak, bestalde, azkenean heriotza aurkitu zuen, eta heriotza aurkitzea hilezintasun-gosea aurkitzea da. Ez da irrika hau homerotar poemetan agertzen, ez baitira hasierako zer bait, azkenekoa baizik; ez abiapuntua, zibilizazio baten amaiera baizik. Horiek Naturaren erlijio zaharretik, Zeusenetik, Apolloren erlijio izpiritualagora, berrerospenarenerako urratsa markatzen dute. Baina sakonean, beti ere eleusiar misterioen herri-erlijio barnekoi hark zirauen, arimak eta asabak gurtzen zituenak. "Delfos-ko teologiaz mintza daitekeen heinean, beronen elementu garrantzitsuenen artean, kontutan izan behar dira, arimen hil ondoko bizitzaren fedea, bere herri-formetan, eta defuntuen arimen kultuarena" idazten du Rohde-k⁸. Bazen titanikoa, eta dionisiakoa ere bai, eta gizonak, doktrika orfikoaren arauera, gorputzaren loturetatik askatu behar zuen, hor arima, gartzelako gatibu gisa, preso zegoen eta (Ikus Rohde, *Psyche*, "Die Orphiker", 4). Nietzscheren betiereko itzuleraren nozioa ideia orfikoa da. Baina arimaren hilezintasunaren ideia ez zen filosofi printzipio bat izan. Empedoklesek sistema hилоzoistikoa izpiritualismoarekin elkartzeko egin zuen saioak hau frogatu zuen, hots, natur zientzia filosofikoak, berez, ezin eraman dezakeela arima indibidualaren betiekotasunaren axioma berrestera; teologi espekulazio batek ez bestek ezin eskain zezakeen oinarri hori. Lehenbiziko filosofo grekoek hilezintasuna kontraesanen bidez baitetsi zuten, filosofia naturaletik irten eta teologian sarturik, dogma dionisiakoa eta orfikoa ezarrita, eta ez apolotarra. Baina "giza arimaren bere-berezko hilezintasuna, bere izaeraren eta egoeraren berezko eraginez, gorputz hilkorrean datzan jainkozko indar hilezkor gisakoa ez zen behin ere heleniar herriaren fedearen helburu izan". (Rohde, *aipaturiko lana*).

Gogoan izan Platonen *Fedon* hura eta lukubrazio neoplatondarrak. Han hilezintasun pertsonalaren antsia ageri da jadanik, arrazoimenak hura erabat ezin ase eta heleniar ezkortasuna ekarri zuena. Izan ere, Pfliderer-ek oso ongi oharerazten duenez (*Religionsphilosophie auf geschichtliche Grundlage*, 3, Berlin, 1896): "Herri bat bera ere ez zen inoiz Lurrera heldu, greziarra bezain lasai eta eguzkitsu, bere histori existentziaren gatzaroan..., baina ez zen halako beste herririk izan bizitzaren balioaz zuen nozioa hain erabat aldatu zuenik ere. Neopitagorismoaren eta neoplatonismoaren espekulazio erlijiosoetan amaitzen den grekotasunak, behiala hain alai ta argitsu iruditzen zitzaion mundu honi ilunbe eta errakuntzen egoitza zeritzon, eta lurtar existentziari inoiz ere arinegi iragaten ez zen frogaldia". Nirvana, heleniar nozioa da.

Horrela, zeinek bere aldetik, juduak eta grekoak heriotzaren egiazko aurkikuntzara heldu ziren, gizonak bezala, herriak ere izpirituzko nerabazarora sarrerazten dituenara, bizitzaren sentimendu tragikoarenara, eta hor Gizateriak Jainko bizia sorterazten du. Heriotzaren aurkikuntzak Jainkoa agertzen digu, eta gizon hobezinaren heriotza, Kristorena, heriotzaren agerpen gorena izan zen, hil behar ez zuen eta hil egin zen gizonarena.

Aurkikuntza hori, hilezintasunarena, judutar eta heleniar erlijio-bilakabideek prestatua, izan zen, bereziki, kristau-ezaugarria. Eta hori, batez ere, Paulo Tarsokoak burutu zuen, judu farisau heleniartu hark. Paulok ez zuen Jesus pertsonalki ezagutu eta, horregatik, Kristo moduan aurkitu zuen.

"Apostoluaren teologia, oro har, lehenbiziko teologia kristaua dela esan daiteke. Harentzat hura premiazkoa zen; nolabait, Jesus pertsonalki ezagutzerik eza ordezkatzeko zuen" dio Weizsäcker (*Das apostolische Zeitalter der christlichen Kirche*, Freiburg, i, B, 1892). Ez zuen Jesus ezagutu, baina bere baitan hura birjaiotzen sentitu zuen, eta

honako hau esan ahal izan zuen "Ez naiz nigan bizi, Kristoren baitan baizik". Eta gurutzera predikatu zuen, juduentzat eskandalu eta grekoentzat zorakeria zena (Kor. I, I, 23), eta Apostolu konbertituarentzat dogma ardatza Kristoren biztuera zen; harentzat garrantzizkoa Kristo gizon egin eta hil eta birbiztu izatea zen, eta ez, bizi zenean, hark eginikoa; ez haren lan moral eta pedagogikoa, haren lan erlijioso eta betierekotzailea baizik. Eta halako hitz hilezinok idatzi zituen: "Kristo hilen artetik birbiztu zela predikatzen bada, nola esaten dute zuen arteko batzuek ez dela hildakoen biztuerarik? Izan ere, baldin hildakoen biztuerarik ez bada, hutsa da gure predikazioa, eta zuen fedea ere alferrekoa... Orduan Kristorengan loakarturik daudenak galduak dira. Baldin Kristoren baitan bizitza honetan besterik espero ez badugu, gizon guztietarik urriak garrienak gara"(Kor. I, XV,12-19).

Eta hemendik abiatuta, Kristoren haragizko biztuera horretan sinesten ez duena, Kristozale izan daiteke, baina ez kristaua bereziki. Egia da Justino martiriak hau esan zezakeela "arrazoimenaren arauera bizi diren guztiak kristauak dira, ateistatzat hartuak izan arren, grekoen artean Sokrates eta Heraklito, eta halako beste batzuk bezala"; baina martiri hori, martiria al da, hau da, kristatutasunaren lekukoa? Ez.

Eta fededun bakoitzaren biztuera eta hilezintasunaren bermea den Kristoren biztuera eta hilezintasunaren paulotar esperientzia barnekoiaren dogmaren inguruan, kristologia osoa mamitu zen. Jainko gizona, Berba haragitua, hala izan zen, honen kariatz, gizona, bere erara, Jainko egin zedin; hau da, hilezin. Eta Jainko kristaua, Kristoren Aita, Jainko nahitaez gizaiturakoa, eskolan buruz ikasterazi ziguten doktrina kristauaren Katekismoak dioenez, mundua gizonarentzat, gizon bakoitzarentzat egin duena da. Eta berrerosketaren helburua, itxurak gora-behera, dogma bereziki erlijiosoaren desbideratze etikoagatik, heriotzatik salbatzea izan zen, bekatutik baino gehiago, edo honetatik, beronek heriotza inplikatzen duen neurrian. Eta Kristo hil, edo hobeki esan, birbiztu egin zen *nigatik*, gutariko bakoitzagatik. Eta Jainkoaren eta haren sorkariaren artean nolabaiteko elkartasuna ezarri zen. Malebranche-k zioenez, lehenbiziko gizona erori zen Kristok gu *berreros gintzan*, hots, ez gintuen berrerosi, hura erori *zelako*.

Pauloren ondoren, urteak eta kristau belaunaldiak biraka aritu ziren, dogma ardatz haren eta beraren ondorioen inguruan, banakoaren arimaren hilezintasunaren fedea segurtatzeko, eta Nikeakoa⁹ etorri zen eta, hartan, Athanasio harrigarri hura, haren izena jadanik enblema delarik, herri-fedean mamitua. Athanasio letra gutxiko gizona zen, baina fede handikoa eta, batez ere, herri fedekoa, hilezintasun-goseaz ase. Eta arrianismoaren aurka jarri zen, honek, protestantismo bateratzaile eta sozinoarrak bezala, jakin eta nahi izan gabe ere, fede horren oinarria mehatxatzen zuen eta. Arriotarrentzat, Kristo, ororen aitzin maisu bat zen, moral-maisua, gizon bikain hobezina eta, beraz, gainerakook ere ezin goragoko hobetasunera ere hel gaitzkeelako bermea; baina Kristok, Bera aurretik Jainko egiten ez bada, ezin jainko egin gaitzakeela sentitzen zuen Athanasiok; eta haren jainkotasuna partaidetasunezkoa izan balitz, ezin utz ziezagukeela hura partaidetzan. "Ez zen, bada -zioen- gizon izanda, Jainko egin, aitzitik, Jainko izanda, ondoren gizon egin zen, horrela hobeki jainko gintzan" (Orat. I, 30). Athanasiok¹⁰ ezagutu eta adoratzeko zuena ez zen filosofoen Logosa, Logos kosmologikoa,. Eta horrela natura eta goiargipena banarazi zituen. Kristo athanasiarra edo Nikeakoa, alegia, Kristo katolikoa, ez da kosmologikoa, ez eta, hertsiki, etikoa ere: betierekotzailea da, jainkotzailea, erlijioso. Harnack-ek Kristo honetaz, kristologia nikiar edo katolikoaren Kristoaz, sakonean doketikoa, hau da, itxurazkoa dela dio, Kristorengan gizonaren jainkotzea interes eskatologikoagatik egin zelako. Baina zein da Kristo benetakoa? Exegesi arrazionalistaren Kristo historiko hori ote, mito batean edo atomo sozial batean urtzen zaiguna?

Harnack-ek berak, arrazionalista protestantea izanik, arrianismoa edo bateratasuna kristautasunaren heriotza izango zela diosku, hura kosmologia eta moral izatera murriztuko baitzuen, eta ez zuela zubi-balioa besterik izan, jakitunak katolizismora eramateko; hau da, arrazoimenetik federa. Dogmen historialari jakintsuaren irudiko, Athanasio gizonak, kristautasuna Jainkoarekiko lotura biziaren erlijio gisa salbatu zuenak, Jesus Nazaretekoa, historikoa, hau da, ez Paulok ez Athanasiok pertsonalki ezagutu ez zutena eta, Harnackek berak ere ezagutu ez duena, ezabaturik edukitzea orduko gauzen egoera gaiztoaren erakusgarri iruditzen zaio. Protestanteen artean, Jesus historiko honek kritikaren eskalpelupean sufritzen du, Kristo katolikoak, aldiz, egiazki historikoa denak, mendeetan hilezintasunaren fedea eta salbazio pertsonala bermatzen bizi denak bizirik dirauen bitartean.

Eta Athanasiok fedearen balio gorena izan zuen, bata bestearekin kontraesanean diren gauzak esanik; ομouσιοζ-ean datzan erabateko kontraesan honek bere atzetik kontraesanen armada osoa ekarri zuen eta, zenbat eta pentsamendua aurrerago, are gehiago" dio Harnackek. Bai, hala izan zen, eta halaxe izan behar zuen. "Dogmatikak pentsamendu argiari eta kontzeptu sostengagarriei agur egin zien betiko, eta arrazoimenaz kontrakoetara ohitu zen", gehitzen du. Hain zuzen ere, arrazoimenaz kontrakoa eta pentsamendu argiaren arerioa den bizitzaren aldera jarri zelako. Izan ere, balio-mugaketak, arrazionalizagarriak inoiz ez izateaz gainera, antirrazionalak izaten dira eta.

Nikean, beraz, geroago Vatikanon bezala, idiotak atera ziren garaile -hitz hori bere jatorrizko adiera zuzen eta etimologikoan harturik-, inozoak, apezpiku arrunt eta burugorrrak, hots, arrazoimenak dioena dioela, hil nahi ez eta bere nahirako ahalik eta garantiarik materialena bilatzen zuen giza eta herritar izpiritu jatorraren ordezkariak.

Quid ad aeternitatem? Hona hemen galdera nagusia. Eta Kredoan *resurrectionem mortuorum et vitam venturi saeculi* delakoaz amaitzen da, hildakoen biztuera eta etorkizuneko bizitzaz. Ene jaioterrian, Bilbon, Mallonako hilerrian, gaur amortizatuan, bertso laurkunen bat marraturik dago, honela dioena:

*Aunque estamos en polvo convertidos,
en tí, Señor, nuestra esperanza fía,
que tornaremos a vivir vestidos
con la carne y la piel que nos cubría*¹¹.

edo Katekismoak dioenez: "Lehen izan zituzten gorputz eta arima berberekin". Halako punturaino, non doktrina katoliko ortodoxoak baitio zorionekoen poza ez dela guztiz erabatekoa beren gorputza berreskuratu arte. Zeruan geratzen dira eta "kexa hura sortzen zaie -dio gure frai Pedro Malón de Etxaidek, Done Augustinen ordenakoak, espainol eta euskaldunak¹²- zeruan osorik ez daudelako, han arima besterik ez baita, eta Jainkoa dakusatenez gero, penarik ezin ukan dezaketen arren, zeinengan ezin esanezko eraz atsegin hartzen duten, halere badirudi ez daudela erabat pozik. Baina halaxe egonen dira beren gorputz propioez jantziko direnean".

Eta Kristoren baitango eta Kristorengatik biztueraren dogma ardatz hau ardatza ere den sakramentuari dagokio, herriko pietate katolikoaren erdigunea den Eukaristiaren sakramentuari. Horretan Kristoren gorputza administratzen da, hilezintasunaren ogia dena.

Sakramentu egiazki errealista da berau, *dinglich*, alemanez esango litzatekeenez, eta bortxa handirik gabe "material" hitzaz itzul litekeena; sakramentu *ex opere operato* jatorrena, protestanteen artean honen ordezkari hitzaren sakramentu idealista jarria izanik. Sakonean, eta ahal den errespetu guztiaz diot, baina halere esaldiaren adierazkortasuna sakrifikatu nahi izan gabe, Jainkoa, Betierekotzailea, jan eta edatea da, eta Hartaz elikatzea. Zer du harrigarririk, bada, Dona Teresak esateak, *La Encarnación* zeritzon

komentuan zenean prioregoa zuen bigarren urtean, Done Martinen zortziurrenean jaunhartzen ari zelarik, aita frai Juan de la Cruz-ek beste ahizpa batentzat Forma hautsi zuenean, pentsatu zuela hori ez zuela egiten Forma gehiagorik ez zuelako, baina bera hildumatu nahi zuelako baizik "esana niolako atsegin handia nuela Formak handiak izaten zirenean, eta ez, hau ulertzen ez nuelako, alegia, Jauna osorik egoteko, ez zuela ardura zatitxo oso txikia izateak"? Hemen arrazoimena alde batetik doa, eta sentimendua bestetik. Eta zer ardura dute, sentimendu honetarako, sakramentu horren misterioan arrazionalki gogoeta egitean sortzen diren mila eta bat zailtasunek? Zer da jainkozko gorputza? Gorputza, Kristoren gorputza zen aldetik, jainkozkoa al zen? Zer da gorputz hilezin eta hilezintzailea? Zer da akzidenteetatik banaturiko substantzia? Zer da gorputzaren substantzia? Gaur egun, materialtasunaren eta substantziatasunaren kontu honetan, xeheki iruten dugu; baina baziren Elizaren Aita batzu, Jainkoaren beraren materiagabetasuna guk bezain era mugatu eta argiaz ez zekusatenak. Eta Eukaristiaren sakramentu hau guztietarik hilezintzaile bikainena da eta, beraz, herriko pietate katolikoaren ardatza. Eta esatea bada, berezikienik erlijiosoena.

Izan ere, erlijio katolikoaren berezitasuna ezin hiltzea da, eta ez justifikazioa, protestanteen erara. Hori, gehiago, etikoa da. Eta protestantismoak, horko ortodoxoek hori gogoko izan ez arren, bere azkenaurreko ondorioak Kantengan atera zituen: hor erlijioa moralaren menean dago, eta ez hau haren menean, katolikotasunean bezala.

Bekatuagatiko ardura ez da inoiz katolikoaren artean hain herstua edo, ez du, gutxienez, horrenbesteko herstura-itxurarik izan. Aitortzako sakramentuak hartara laguntzen du. Eta beharbada, kontua da haien artean baino hemen gehiago dirauela bekatuaren hasierako kontzepzio judutar eta paganoak, zerbait material, kutsakor eta heredagarritzat, bataioaz eta absolbazioz sendatzen dena. Adamengan, haren ondorengo askazi guztiak egin zuen bekatu, ia materialki, eta haren bekatua besterenganatu izan da gaixotasun material bat besterenganatzen den bezala. Arrazoia zuen, bada, Renan-ek, hezkuntza katolikoduna bera, Amiel protestantearen aurka jotzean, horrek bekatuari behar den besteko garrantzia ez ematea aurpegiratu zionean. Eta, protestantismoak, aldiz, justifikazioaren arazoari adi-adi, berau beste edonola baino gehiago zentzu etikoan harturik, erlijio-itxurak izan arren, azkenean arlo eskatologikoa neutraldu eta ia-ia ezabatu egiten du eta, Nikeako sinbolika alde batera utzirik, anarkia konfesionalean erortzen da, erlijio-individualismo hutsean eta zirriborrozko erlijiosotasun estetiko, etiko edo kulturean. "Bestaldekotasuna", *Einseitigkeit*, dei genezakeena, pixkanaka *Diesseitigkeit* edo "hemengotasun"aren atzean ezabatzen da. Eta hau guztiau Kant berbera gora-behera, hura salbatu nahi baitzuen, hondatuz baina. Bokazio lurtarrak eta Jainkoagan izandako konfidantza pasiboak ematen diote lutheranismoari, Argien Aroan, *Aufklärung*-ean, ia-ia urperatzeko egon zenari bere arruntkeria erlijioso, eta pietismoak berak ere, horri nolabaiteko sapa erlijioso katolikoa sartuta, pittin bat galbanizatu besterik ez zuen egin. Eta, horregatik, oso zehatza da Oliveira Martins-ek bere *Historia da civilização ibérica* bikainean zioena (IV. lib., III. kap.); eta, izan ere, "katolikotasunak heroiak eman zituen, eta protestantismoak gizarte zentzudunak, zoriontsuak, aberatsak eta askeak, erakundeei eta kanpo-ekonomiari dagokienean, baina bat ere egintza handiosorik egiteko gai ez zirenak, erlijioa gizonaren bihotzean, ausartak izan eta sakrifizio nobleak egiteko kurria ematen diona zatikatzen hasia zelako".

Har ezazue dogmatika bat, protestanteen azken disoluzioak sorterazi dituenetarik edozein, Kaftan ritschldarrarena, adibidez, eta ikusazue han eskatologia zertan murrizturik geratzen den. Eta haren maisuak berak, Albrecht Ritschl-ek, honela diosku: "Justifikazioaren edo bekatuen barkamenaren beharraren problema ezin etor daiteke betiereko bizitzaren kontzeptutik jainkozko ekintza haren helburuzko harreman zuzen gisa ez bada. Baina kontzeptu hori hilobiz bestaldeko bizitzari besterik ezin aplikatu

badakio, haren edukina esperientzia guztietatik landa geratzen da, eta ezin oinarri dezake izaera zientifikorik duen ezaguerarik bat ere. Segurtasun subjektibo sendoenaren esperantzak eta irrikak ez dira, beraz, argiagoak eta ez daukate, beren baitan, espero eta irrikatzen denaren osotasunaz garantiarik bat ere. Irudikapen idealaren argitasuna eta osotasuna, ordea, ulermenerako, hau da, gauzak bere baitan eta berari buruz aurrez emandako suposatuekin duen lotura beharrezkoa ezagutzeko baldintzak dira. Horretara, ebangelioak aitortu bezala, oinarrizko fedearen bidezko justifikazioak aldean betiereko bizitzaren segurtasuna dakarrela, teologikoki aplikaezina da, presenteko esperientzian helburuzko harreman hori frogatzen ez den artean". (*Rechtfertigung und Versöhnung*, III, VII. kap, 52) Hori guztiori oso arrazionala da baina...

Melanchthon-en *Loci communes*-en lehen argitarapenean, 1521.ekoan, lehenbiziko teologi obra luthertarra izandakoan, haren autoreak ez ditu hirutasunaren eta kristologiaren espekulazioak jartzen, hau da, eskatologiaren oinarri dogmatikoa. Eta Hermann doktoreak, Marburg-eko irakasle, kristauak Jainkoarekin darabilen tratua liburuaren egileak (*Der Verkehr des Christen mit Gott*), bere lehenbiziko kapituluaren mistika eta erlijio kristauaren arteko aurkaritzaz ari den liburua, eta Harnacken aburuz, luthertar eskulibururik hoberena dena, beste alde batean¹³ dioskunez, espekulazio kristologikoaz -edo athanasiaz- ari delarik, "fedearen bizi-iturri dena, Jainkoa eta Kristo benetan ezagutzea, erabat ezberdina da. Kristau doktrinan ez du gizonari bere bekatuak aitortzera, Jainkoren grazia erdiestera eta hura egiaz zerbitzatzera ezin lagun diezaiokeenik ezerk egon behar. Ordurarte (hau da, Luther arte) Elizan *doctrina sacra*-tzat gizonari bihotz askea eta kontzientzia lasaia emateko ezertxo ere ezin dagiketen gauza asko sarturik zegoen". Neure aldetik, pentsa ezinak ditut beren hil ondoko iraunkortasunaz seguru ez dauden bihotzaren askatasuna eta kontzientziaren lasaitasuna. "Arima salbatzeko gogoak -segitzen du Hermann-ek- gizonak azkenean salbazioaren benetako doktrina ezagutu eta ulertzera eraman behar zituzkeen". Eta luthertasun-doktore nabari honek, kristauak Jainkoarekin darabilten tratua egindako liburuan, guztia Jainkoagan fidatzea, kontzientzi bakea eta salbatzeko segurtasuna izatea besterik ez dela diosku, baina hau, zehazki eta hertsiro, ez da bizitza iraunkorraren segurtasuna, bekatuaren barkamenarena baizik.

Eta teologo protestante bati, Ernest Troeltsch-i, protestantismoak kontzeptu-mailan sortu duen gauzarik gorena musika-artearen dela irakurri diot, hor Bach-ek bere adierazpen artistiko boteretsuena eman diolarik. Horretan urtzen da protestantismoa, musika zerutarrean! Eta, esan dezakegu, aldiz, adierazpen artistiko katoliko gorena, espainiarra bederen, arte materialago, ukigarriago eta iraunkorragoan mamitzen dela -hotsak aireak baitaramatza- eskulturan eta pinturan alegia, Velázquez-en Kristoa delakoan, beti ere hiltzen ari den Kristo horrengan, baina inoiz erabat hil gabe, guri bizitza ematearren!

Eta kontua ez da katolikotasunak alde etikoa bazterrean utzi izatea, ez! Era berriko erlijio batek ere ezin utz dezake hori alde batera. Baina gure hau, sakonean eta neurri handiz, haren doktoreek horren aurka protesta badagite ere, eskatologiaren eta moralearen arteko konpromezua da, hura beronen zerbitzuan jarriz. Ezperez, zer besterik da infernuko betiereko penen izugarrikeria hori, paulotar apokatastasiari hain gaizki doakiona? Gogoan ukan dezagun *Theologia deutsch* hark, Luther-ek irakurtzen zuen mistika-eskuliburuak, Jainkoaren ahoan hauxe jartzen zuena: "Hire gaiztakeria saritu behar badut, ongi egin behar diat, ongia besterik ez bainaiz eta ez baitut" Eta Kristok esan zuen: "Aita, barka itzazu, ez baitakite zer egiten duten". Eta, izan ere, ez da gizonik zer egiten duen dakienik. Baina, gizarte-ordenuaren mesedetan, beharrezkoa izan da erlijioa polizia bihurtzea, eta Infernua hortixek dator. Ekialdeko edo greziar kristautasuna, batez ere, eskatologikoa da; protestantismoa, aldiz, ia guztiz etikoa, eta

katolikotasuna bien arteko konpromezua, lehenbizikotik gehiago izan arren. Moral katolikorik jatorrena, asketika monastikoa, arima indibidualaren salbaziora daraman eskatologi morala da gehiago, gizartea mantentzekoa baino. Eta birjintasunaren gurkeran, ez ote dagoke halako ideia ilunen bat, norberak beste batzuegan burua iraunerazteak norbere iraunkortasunari oztopo egiten diolako susmoa? Moral asketikoa ezezko morala da. Eta hertsiki, garrantzizkoena ez hiltzea da, bekatu egin zein egin ez. Eta ez da letraz letra hartu behar gure soneto famatua, isurtze liriko, edo hobesanez, erretoriko gisa baizik:

*No me mueve, mi Dios, para quererte
el cielo que me tienes prometido¹⁴,
eta darraiona ere ez.*

Egiazko bekatua, agian Izpiritu Sainduaren aurkako bekatua, barkamenik ez duena, heresiako bekatua da, norbere kontutik pentsatzeko bekatua. Entzun izan da hemen, gure Espainia honetan, liberala izatea, hau da, heresea, okerragoa dela erhaile, lapur edo adulteroa izatea baino. Bekaturik larriena Elizari ez obeditzea da, horren hutsezintasunak arrazoimenetik babesten gaitu eta.

Eta zergatik eskandalizatu behar du gizon baten hutsezintasunak, Aita Sainduarenak? Zer ardura du liburu bat, Biblia, hutsezina izateak; edo gizonen elkarte bat: Eliza, edo gizon bakar bat izateak? Aldatzen ote da horregatik funtsezko zailtasun arrazionala? Eta liburu baten edo elkarte baten hutsezintasuna hizon bakar batena baino arrazionalagoa ez denez gero, arrazionalismoaren begietarako eskandalu goren hau ezarri beharra zegoen.

Bizikortasuna da baieztatzen dena eta, baieztatzeko, arrazionaltasunaz, bere etsaiaz baliatuz eraikuntza dogmatiko osoa sortzen du, eta Elizak hori arrazionalismoaren, protestantismoaren eta modernismoaren kontra defendatzen du. Bizitza defendatzen du. Galileoren aurka jarri zen, eta ongi egin zuen, haren aurkikuntzak, hasieran, eta giza ezagutzen ekonomiarik egokitu arte, unibertsoa gizonarentzat sortua delako sineskera antropozentrikoa haustera jotzen zuelako; Darwinen aurka jarri zen, eta ongi egin zuen, darwinismoak gizona salbuespenezko animalia eta betierekotua izateko berariaz sortua delako genuen sineskera arrakalatzera jotzen duelako. Eta azkenik, Pio IX.ak, hutsezin gisa aldarrikatua zen lehen aita sainduak, zibilizazio modernoa deritzonarekin bat ezin etor zitekeela adierazi zuen. Eta ongi egin zuen.

Loisy-k, abate katoliko ohiak, honela esan zuen: "Nik sinpleki hauxe diot: Elizak eta teologiak ez diote mugimendu zientifikoari lagundu, aitzitik, haiei zegokien heinean, une erabakior batzuetan, oztopatu egin dute; eta, batez ere, diot irakaskuntza katolikoa ez dela mugimendu horrekin elkartu, ez eta egokitu ere. Teologia aritu da, eta oraino aritzen, bere baitan Naturaren zientzia eta Historiaren zientzia baleuzka bezala, horien ezaguera zientifikotik jalgitzen diren gauza horien filosofia orokorrakin batera. Esan liteke teologiaren eremuak eta zientziarenak, oinarriz, eta Vatikanoko kontzilioaren definizioz ere, ezberdinak izan arren, ez dutela praktikan hala izan behar. Guztia izaten da, gutxi gora-behera, teologiak zientzia modernotik, naturaletik edo historikotik, ezer ikasi behar ez balu bezala, eta giza izpirituaren lan osoaren gainean bere kontura ikuskaritza zuzeneko eta absolutua erabiltzeko egoeran eta eskubidean balego bezala". (*Autour d'un petit livre*, 211-212. orr.)

Eta horrela izan behar du, eta horrelaxe da doktore eta buruzagi Loisy izan zuen modernismoaren aurkan darabilen borrokan.

Modernismo kantiar eta fedezalearen aurkako oraintsuko borroka hau biziaren aldeko borroka da. Jasan al dezake bizitzak, betiraupenaren segurantzaren bila dabilen bizitzak alegia, Loisy batek, apez katolikoak, Salbatzailearen biztuera ez dela histori mailako egintza esatea, hots, ez dela Historiaren lekukotasun soilaz frogagarri eta frogatua?

Irakur ezazue, bestalde, E. Le Roy-ren *Dogme et Critique* obra bikainean, dogmaren ardatzaz, Jesusen biztueraz egiten duen azalpena, eta esadazue ea ezer sendorik gelditzen ote den gure esperantza oinarritzeko. Ez ote dakusate, Kristoren bizitza hilezina barik, beharbada kristauen talde-kontzientziaren baitako bizitzan bildua, hor gure biztuera pertsonalaren bermetasuna, arima eta gorputzekoa jokatzeko dela? Apologetika psikologiko berri horrek mirakulu moralera jotzen du, eta guk, juduen antzera, seinaleak nahi ditugu, arimaren ahalmen guztiekin eta gorputzaren zentzu guztiekin atxeki dakiokkeen zerbait. Eta eskuekin, eta oinekin eta ahoarekin, ahal izanez gero.

Baina, ai! ez dugu horrelakorik lortzen; arrazoimenak eraso egiten du, eta fedea, hura gabe segur sentitzen ez denez gero, harekiko tratua egin behar du. Eta hortixek datoz kontraesan tragikoak eta kontzientzi urradurak. Segurantzaz behar dugu, ziurtasuna, seinaleak, eta *motiva credibilitatis* deritzelakoetara jotzen da, sinesteko motiboetara, *rationale obsequium*-a oinarritzeko eta, Done Augustinen arauera, fedea arrazoimenaren aurretik doan arren, *fides praecedat rationem*, doktore eta apezpiku berberonek fedearen bidez adimenera joan nahi zuen, *per fidem ad intellectum*, eta, ulertzeko, sinetsi, *credo ut intelligam*. Zein urrun Tertulianoren adierazpen zoragarri hartatik: *Et sepultus resurrexit, certum est quia impossibile est!* "Eta ehortzia birbiztu zen; egia da, ezinezkoa delako". Eta haren *Credo quia absurdum!* goretetik, arrazionalisten eskandalua. Zein urrun Pascalen *il faut s'abêtir* hartatik, eta gure Donoso Cortés-ek seguraski Joseph de Maistre-ri ikasia zion "Giza arrazoimenak absurdua maite du" delakotik.

Eta, lehen zimentarritzat, tradizioaren autoritatea eta Jainkoaren hitzaren goiargia bilatu zen eta, horretara, ororen onspena delakora heldu zen. *Quod apud multos unum invenitur non est erratum, sed traditum*, esan zuen Tertulianok, eta Lamennais-ek, mende batzuk geroago, hauxe gaineratu zuen: "Ziurtasuna, bizitzaren eta adimenaren oinarria..., honela adieraztea zilegi bazait, giza produktua da"¹⁵. Baina hemen, beste hainbeste gauzatan bezala, formula gorena katolikotasun herritar eta bizikorraren katoliko haundi hark eman zuen, Joseph de Maistre kondeak, hau idatzi zuenean: "Ez dut uste erakuts daitekeela eritzi unibertsa baliagarri bat bera ere egiazkoa ez denik"¹⁶. Hauxe da mugarri katolikoa; printzipio baten egia, beraren ontasun edo baliagarritasun goretetik ateratzea. Eta zer da baliagarriagorik, goren mailako baliagarritasunaz, guri arima inoiz ez hiltzea baino? "Guztia zalantzazkoa baldin bada, guztiei sinetsi behar zaie, edo inori ere ez", zioen Lactantiok; baina ezohizko mistiko eta asketa izan zen Enrique Suso dohatsuak, dominikarrak, betiereko Jakituriari maitasuna zer zen hitz batez esateko eskatu zion, eta honela erantzutean: "Sorkari guztiek aitortzen dute naizena", Susok, zerbitzariak, hau ihardetsi zion: "Ai, Jauna, hori ez du aski arima irrikatsuak!". Fedea ez da segur sentitzen ez besteen onspenaz, ez tradizioaz, eta agintaritzapean ere ez. Bere etsaiaren laguntzaren bila ari da, arrazoimenaren.

Eta honela mamitu zen teologia eskolastikoa, eta horri zeriola, berorren neskamea, hots, *ancilla theologiae*, filosofia eskolastikoa ere, eta neskame hori erantzunkor irten zitzaien. Eskolastikak, menderen mendetan mekanika arkitektonikoaren problema guztiak konpondurik zituen katedrale bikain horrek, lurrezko pezuz egindako katedralea baina, pixkanaka teologia naturala deitzen duten horretara, hots, kristautasun ahalmengabetua besterik ez denera eraman zuen. Ahal zen neurriraino dogmak arrazionalki oinarritu nahi izan ziren; eta, gutxienez, erakutsi, arrazoimenaz gaindikoak izan arren, ez zirela haatik arrazoimenaz kontrakoak, eta oinarritzat XIII. mendeko filosofia aristoteliko-neoplatoniko-estoikoa ezarri zaie; eta tomismoa horixe da, Leon XIII.ak gomendatua. Eta jadanik kontua ez da dogma onarteraztea, Erdi Aroko haren

interpretazio filosofiko eta tomista baizik. Ez da aski Hostia konsakratua hartzean Jesukristo gure jaunaren gorputz eta odola hartzen dela sinestea; transubstantiazioa eta akzidenteetatik aldenduriko substantzia direlako horietatik guztietatik ere pasatu baharra dago, honela substantzialtasunari buruzko kontzepzio arrazional moderno osoarekin hautsiz.

Baina horrexetarako dago fede inplizitua, ikazkinaren fedea, Dona Teresa bezala (*Bizitza*, XXV. kap., 2), teologiaz baliatu nahi ez dutenena. "Hori ez niri galdetu, ezjakina naiz eta; doktoreak ditu Eliza Ama Sainduak erantzuten jakingo dizuetenak". Katekismoan ikasterazten zitzaigun bezala. Izan ere, horrexetarako, beste gauza batzuen artean, jarri zen apezgoa, Eliza irakaslea teologi sekretuen gordailu, ibai baino gehiago biltegi izan zedin, *reservoir instead of river*, Brooks-ek esan zuenez. "Nikeakoaren lana -dio Harnackek (*Dogmengeschichte*, II, 1, VII. kap., 3)- apezgoak kristau herriaren fedearen gainean izandako garaipena zen. Logos-en doktrina jadanik ulertezin bihurtua zen teologo ez zirenentzat. Nikea-kapadoziar formula hura Elizaren oinarritzko aitorten gisa eraikitzean, lego katolikoei guztiz ezinezko bihurtu zitzairen, eliz doktrinaren arauera, kristau fedea barnetik ezagutzea. Eta kristautasuna ulertezinaren agerraldia zelako ideia gero eta gehiago errotu zen". Eta, izan, horrelaxe da.

Eta zergatik gertatu zen hori? Fedea, hau da, bizitza, bere buruaz jadanik seguru sentitzen ez zelako. Ez zuen nahikoa ez tradizionalismoa ez eta Duns Scotoren positibismo teologikoa ere; bere burua arrazionaldu nahi zuen. Eta bere oinarria jartzen ahalegindu zen, ez jadanik arrazoimenaren aurka, dagoen lekuan hain zuzen, arrazoimenaren gainean baizik, hau da, arrazoimenean bertan. Scotoren jarrera nominalistak edo positibistak edo boluntaristak, legea eta egia, esentziaren menean baino gehiago, Jainkoaren borondate aske eta aztertezinaren esku daudelako usteak, erlijioaren irrazionaltasun gorena azpimarratu eta hura arriskutan jartzen zuen, ikazkinak izan barik, arrazoimen nagusia zuten fededun gehienek artean. Hemendixek dator teologi arrazionalismo tomistaren garaipena. Eta jadanik ez da nahikoa Jainkoaren existentzian sinestea; aitzitik, anatema erortzen zaio horretan sinetsi arren, haren existentzia hori arrazoi bidez frogagarria dela, edo gaur arte arrazoi horiekin hori inork errefusaezinik frogatu duela, sinesten ez duenari. Nahiz eta hemen, beharbada, Pohle-rena esan litekeen: "Betiereko salbazioa axioma matematikoen bidez azaltzerik balego, giza sofisteria gorrotagarriena jadanik haren baliagarritasun unibertsalaren aurka jarriko legoke, orain Jainkoaren, arimaren eta Kristoren aurka bihurtzen den indar berberaz"¹⁷.

Eta, izan ere, katolikotasuna zabuka ari da, alde batetik mistikaren, Kristorengan Jainko biziaren barne esperientzia dena, esperientzia inorengean ezina, horren arriskua, bestalde, Jainkoagan nor bere nortasuna xurgatzea delarik, horrek gure bizitzeko irrika ez baitu salbatzen, eta bestetik aurka erasotzen duen arrazionalismoaren artean (ikus Weizsäcker, aipaturiko lana); zientzia erlijioztatuaren eta erlijio zientziaztatuaren artean. Entusiasmo apokaliptikoa, pittinka, mistikotasun neoplatoniko bilakatuz joan zen, horri teologiak atzera eraginik. Fantasiaren gehiegikeriak beldur izatekoak ziren, fedea ordezkatzuz pitxikeria gnostikoak sorten zituen eta. Baina gnostikismoarekin nolabaiteko ituna sinatu behar izan zen, eta arrazionalismoarekin beste bat; ez fantasiak ez arrazoimenak uzten zuten guztiz beren buruak garaitzen. Eta horrela dogmatika katolikoa ongi edo gaizki bateraturiko kontraesanen sistema egin zen. Hirutasuna monoteismoaren eta politeismoaren arteko nola edo halako ituna izan zen, eta Kristoren baitako gizatasuna eta jainkotasuna itundu zuten, natura eta grazia, berau eta askatasunezko erabakimena, eta berau jainkozko aurrejakintzarekin, etab. Eta, beharbada, Hermann-ek dioen bezala (*loco citato*): "Pentsamendu erlijioso bat bere ondorio logikoetan garatu bezain laster, era berean erlijioaren bizitzakoak diren beste

batzuekin hasten da gatazkan". Eta horrek ematen dio katolikotasunari bere dialektika bizikor sakona. Baina zeren kontura?

Esan beharra dago, jakina, nagusi moduan arrazoimena erabiltzeko adina duten fededunen buru-premiak zapaltzeren kontura. Guztia edo ezer ez sinesteko eskatzen zaie, dogmatika bere osoan onar dezatela, edo horren txatalik ttikiena gaitzetsiz gero, merezimendu guztia gal dezatela. Eta honela Channing predikari unitaristak zioena¹⁸ gertatzen da, hots, badirela Frantzia eta Espainian papismoa ukatsetik ateismo absolutura iragan diren jendetzak, izan ere "kontua da doktrina faltsu eta absurduak, azalduak direnean, horiek, gogoetarik egin gabe hartzen dituztenengan, eszeptikotasuna sortzeko berezko joera dute, eta ez dago inor gutxiegi sinesteko gertuago dagoenik, hasieran gehiegi sinetsi zuena baino (*believing too much*)". Hona hemen, hain zuzen, arrisku ikaragarria: gehiegi sinestea. Baina ez! Arrisku ikaragarria beste nonbait datza, arrazoimenaz, eta ez bizitzaz, sinestean.

Gure problemaren soluzio katolikoak, gure problema bizikor bakarrarenak, banakoaren arimaren hilezintasunaren eta betiereko salbazioarenak borondatea asebetetzen du, eta beraz, bizitza ere bai; baina hura teologia dogmatikoarekin arrazionaldu nahi izatean ez du arrazoimena asebetetzen. Eta horrek ere bere eskariak ditu, bizitzarenak bezain beharrezkoak. Ez du balio argi eta garbi arrazoimenaz kontrakotzat agertzen zaiguna arrazoimenaz gaindikotzat ezaguteraztera behartzeak, eta burua ikazkin bihurtu nahi izateak ez dio balio halakoa ez denari. Hutsezintasuna, heleniar jatorriko nozioa da, eta funtsean kategoria arrazionalista.

Dakusagun orain gure problemaren soluzioa, edo hobeki esan, disoluzio arrazionalista edo zientifikoa

V

DISOLUZIO

ARRAZIONALA

Fenomenalismo arrazionalistaren maisu nagusiak, David Hume-k, hitz mugarri hauekin hasten du *Arimaren hilezintasunaz* deritzon bere saioa: "Zaila dirudi arrazoimenaren argi soilaz arimaren hilezintasuna frogatzeak. Horren aldeko argudioak komunzki topiko metafisiko, moral edo fisikoetatik eratorriak dira. Baina egia esan, Ebangelioa izan da, eta Ebangelioa besterik ez, bizitza eta hilezintasuna argitara ekarri duena". Eta horrek gutariko bakoitzaren arima hilezina dela uste izatea ez dela arrazionala esatea bezainbat balio du.

Kant, bere kritika egiteko, Hume-rengandik abiatu zena, irrika horren arrazionaltasuna, eta horrek aldamenean dakarren sineskerarena finkatzen ahalegindu zen, eta horixe da haren arrazoimen praktikoaren kritikaren, haren inperatibo kategorikoaren eta haren Jainkoaren egiazko sorburua, barru-barruko sorburua. Baina, hala eta guztiz ere, Hume-ren baieztapen eskeptikoak zutik dirau, eta ez dago erarik bat ere arimaren hilezintasuna arrazionalki frogatzeko. Badira, ordea, haren hilkortasuna arrazionalki frogatzeko moduak.

Alferretsia ez eze, irrigarria ere izango litzateke giza banakoaren kontzientzia gorputzaren antolakuntzaren menean noraino dagoen hemen azaltzen luzatuko bagina, nola, burmuinak kanpotiko eraginak hartzen dituen arian, hura apurka-apurka sortuz joaten den, nola lotaldian, zorabioan eta beste istripualdietan denbora zati batez eteten den, eta nola guztiok heriotzak berekin kontzientziaren galera dakarrela arrazionalki susmatzera garamatzen. Eta jaio aurretik izan ez ginenez gero eta orduko oroipen pertsonalik bat ere ez dugun bezala, horrela ere hil ondoan ez gara izango. Arrazionala horixe da.

Arima deitzen duguna hitz bat besterik ez da, norbere kontzientzia bere osotasunean eta bere iraupenean izendatzeko; eta hura aldatu egiten dela, eta integratzen den moduan desintegratu ere egiten dela, begien bistakoa da. Aristotelesen ustez, arima gorputzaren forma substantziala zen, entelekia, baina ez substantzia bat. Eta moderno batek baino gehiagok epifenomenoa deitu du; berba absurdua, aski baita fenomeno deitzea.

Arrazionalismoa, eta izen honekin arrazoimenari, egia objektiboari besterik ez darraion doktrina uletzen dut, materialista da nahitaez. Eta ez bekizkit idealista eskandaliza.

Guztia argi jarri beharra dago, eta egia esan, materialismoa deitzen dugun horrek guretzat hau besterik ez du esan nahi, arima indibidualaren hilezintasuna, heriotzaz gero kontzientzia pertsonalaren iraupena, ukatzen duen doktrina.

Beste adiera batez, materiari buruz, zerik den, izpirituari buruz baino gehiago ez dakigunez gero, eta guretzat materia delako hori guretzat ideia bat besterik ez delarik, esan daiteke materialismoa idealismoa dela. Izatez, eta gure problemarako - garrantzizkoena, egiazki garrantzizkoa den bakarra- berdin da esatea dena materia dela, zein dena ideia, edo indarra edo nahi dena dela. Sistema monistiko oro beti ere materialista agertuko zaigu. Arimaren hilezintasuna sistema dualistek ez bestek salbatzen dute, hau da, giza kontzientzia, gainerako agerrera fenomenologikoetatik erabat ezberdina eta bestelakoa dela irakasten dutenek. Eta arrazoimena, berez, monista da. Arrazoimenaren zeregina unibertsoa ulertu eta azaltzea delako, eta hura ulertu eta azaltzeko, ez da arima ezertarako behar, substantzia hilezkor gisa. Arimaren bizitza guri azaltzeko eta bera ulertzeko, psikologiak arimaren hipotesia ez du behar. Garai batez, filosofia enpirikoa zeritzonaren aurka, psikologia arrazionala deitzen zuten hura, psikologia barik, metafisika da, eta oso uherra, eta ez arrazionala, sakonki irrazionala baizik edo, bestela esan, arrazoimenaz kontrakoa.

Arimaren substantzialtasunaren eta beraren izpiritualtasunaren doktrina, arrazional agertu gurakoa, aldamenean duen aparatu guztiarekin, ez zen honegatik besterik jaino, gizonek beren noraezeko hilezintasun-irrika eta horri darraion sineskera arrazoietan oinarritzeko premia sentitzen zutelako. Arima substantzia bakuna eta ustelezina dela frogatzera jotzen duten sofisteria guztiak etorki horretatik sortu dira. Are gehiago: substantziaren kontzeptua bera ere, eskolastikak ezarri eta mugaturik utzi zuenez, kritikaren eraso ezin jasan dezakeen kontzeptu hori, kontzeptu teologikoa da, arimaren hilezintasunaren fedeari atxekitzeko zuzendua.

W. James-ek, Bostongo *Lowel Institute* -an 1906.eko Abenduan eta 1907.eko Urtarrilean pragmatismoari eskainiriko hirugarren hitzaldian¹⁹, iparramerikar pentsalari handiaren obra osotik ahulena bera -ahulegia-, honela dio: "Eskolastikismoak substantziaren nozioa zentzu komunetik hartu du, hura zerbait teknikoa eta artikulatua bihurtuz. Irudiz, gauza gutxi izan beharko lukete guretzat ondorio pragmatiko gutxiago substantziek baino, haiekiko harreman guztietatik gabeturik gaudenez gero. Baina bada kasu bat eskolastikismoak substantzia-ideiaren garrantzia frogatu duena, hau pragmatikoki erabiliz. Eukaristiaren misterioari doazkion eztabaida batzuei buruz ari naiz. Substantzia hor balio pragmatiko handiaz agertuko litzateke. Kontsakrazioan Hostiaren akzidenteak aldatu ez arren, halere, hura Kristoren gorputz bihurtu denetik, aldaketa ezin izan daiteke substantziarena besterik. Ogiaren substantziak alde egin beharko zukeen, haren lekua, ordean, jainkozko substantziak mirakuluz hartuz, propietate sentikor hurbilak aldatzeke. Baina horiek aldatzen ez badira ere, izugarritzko bestelakatzea gertatu da; halako punturaino, ezen gu, sakramentua hartzen dugunok, orain jainkotasunaren substantziaz elikatzen baikara. Substantziaren nozioa, beraz, bizitzan eragin ikaragarriaz sartzen da, baldin eta substantziak beren akzidenteetatik bana daitezkeela eta horiek alda ditzaketela onartzen baduzue. Hauxe da, nik dakidala, substantziaren ideien aplikazio pragmatiko bakarra, eta bistan da *egiazko presentzian* bestelako oinarriengatik sinesten dutenek ez bestek trata dezaketela hura seriozki".

Baina tira: teologia onean, eta ez diot arrazoimen onean, hau guztiau hartatik kanpoan gelditzen baita, Kristoren gorputzaren -gorputzaren, ez arimaren- substantzia, jainkotasunaren substantzia berarekin, hau da, Jainkoarekin berarekin, nahas ote daitekeen delako galdera alde batera utzirik ere, sinestezina dirudi arimaren hilezintasunaren hain irrikazale suharra, W. James moduko gizona, bere filosofia guztiaz sineskera hori arrazionalki ezartzera besterik jotzen ez duena, honetaz ez konturatzeak, hots, substantziaren kontzeptuaz Eukaristiaren transubstantziazioaren doktrinari eginiko aplikazio pragmatikoa, ez dela arimaren hilezintasunaren doktrinari aurretik eginiko aplikazioaren ondorio bat besterik. Aurreko kapituluan azaldu dudanez, Eukaristiaren sakramentua hilezintasunaren sineskeraren islada besterik ez da; fededunarentzat, arima hilezina delako froga experimental eta mistikoa da, eta Jainkoaz betiko gozatuko duelakoa. Eta substantziaren kontzeptua, orenen aurretik eta orenen gain, arimaren substantzialtasunaren kontzeptutik jaino zen, eta hau baieztatu egin zen, haren iraupenaren fedeari eusteko, behin gorputzetik aldendu eta gero. Horixe da haren lehenbiziko aplikazio pragmatikoa, eta hortxe du iturburua. Eta kontzeptu hori geroago kanpoko gauzetara aldatu dugu. Substantzia sentitzen naizelako, hau da, neure aldaketen artean iraunkor, nigandik kanpoko agenteei ere substantzialtasuna esleitzen diet, beren aldaketen artean, iraun dirautenei. Indarraren kontzeptua, mugimendutik ez bezalakoa den aldetik, zerbait mugieraztean, nire ahalegin pertsonalaren sentsazioetik jaiotzen den modu berean.

Irakur bitez arretaz Done Tomas Aquinokoaren *Summa theologica*-ren lehen partean, LXXV. arazoaren lehen sei artikulak, giza arima gorputz ote den, azpirauten duen zerbait ba ote den, abereen arima ere horrelakoa ote den, gizona arima ote den, berau

materiaz eta formaz osatua den eta ustelezina ote den tratatzen duena, eta esan bedi, ondoren, ea hura guztia ez ote den sotilki zuzendurik substantziantasun ustelezin horrek Jainkoagandik hilezintasuna eskura dezakeela uste duen sineskerari eusteko; izan ere, argi baitago Hark gorputzaren barruan sartzean hura sortu zuen bezala, Done Tomasen arauera, gorputzetik banatzean ere ezerez zezakeela. Eta froga horien kritika ehun aldiz egin denez gero, ez da bera hemen zertan errepikatu behar.

Zein arrazoimen oharkabek konkludi dezake egintza honetatik gure arima substantzia dela, hots, gure identitatearen kontzientziak gure gorputzaren aldaketetan zehar -eta berau muga oso hertsia eta aldakorren barruan- iraun diraelako? Berdin balioko luke portutik irteten den untiaren arima substantzialaz mintzatzeak, gaur ohol bat galduta, haren ordeztu forma eta neurri bereko beste bat jartzen zaiolako; eta gero beste zati bat galtzen du, eta horrela, banan-banan, guztiak, eta azkenean itsasuntzia bera itzultzen da, itxura berberaz, nabigatzeko egoera berean, eta guztiek haintzat ezagutzen dute. Zein arrazoimen oharkabek konkludi dezake arimaren sinpletasuna, guk juzkatu eta pentsamenduak bateratu behar ditugulako egintzatik? Pentsamendua ez da bat, anitza baizik, eta arima ere ez da arrazoimenerako, elkarrekin koordinaturiko kontzientzi egoeren segida baino besterik.

Psikologia izpiritualistako liburuetan, substantzia bakuna eta gorputzetik banagarria den arimaren existentzia ukitzean, komunzki, era honetako formula ezarri ohi da: "Nigan badago pentsatu, nahi eta sentitu egiten duen printzipioa..." Eta horrek printzipio-eskaera bat inpliketzen du. Izan ere, ez baita hurbil-hurbileko egia, ez eta gutxiagorik ere, nigan horrelako printzipioa denik; hurbil-hurbileko egia hauxe da, neuk pentsatu, nahi eta sentitzen dudala. Eta ni, pentsatu, nahi eta sentitzen dudan ni hori, hurbil-hurbilean nire gorputz bizia da, pairatzen dituen kontzientzi egoerekin. Pentsatu, nahi eta sentitu nire gorputz biziak egiten du. Nola? Nolanahi ere den.

Eta, ondoren, arimaren substantziantasuna finkatu nahi dute, kontzientzi egoerak hipostasiaturik, eta hasten dira esaten substantzia horrek bakun izan behar duela, hau da, kartesiar dualismoaren antzera, pentsaera hedaturaren aurka jartzen. Eta arimaren bakuntasunaren argudioa era zehatzen eta argienean itxuratu duten izpiritualistetako bat gure Balmes izan denez gero, hori beragandik hartuko dut, bere *Curso de Filosofía Elemental*²⁰ liburuko Psikologiaren II. kapituluaren adierazten duen bezalaxe: "Giza arima bakuna da -dio berak, eta hau gehitzen du-: bakuna atalik ez duena da, eta arimak ez du halakorik. Demagun, hartan A, B, C atalak direla. Eta galde egiten dut: Non dago pentsaera? A-n besterik ez baldin badago, B eta C soberan dira; eta, beraz, A subjektu bakuna arima izanen da. Pentsaera A-n, B-n eta C-n baldin badago, pentsaera ataletan zatikaturik ageri da, eta hori absurdua da. Zer dirateke oharpen bat, gonbaraketa bat, erizpen bat edo arrazoiketa bat hiru subjektutan banaturik?". Ezin dagoke printzipio-eskaera nabariagorik. Hasteko, bistakotzat jotzen da, orok, oro den aldetik, ez duela eritzi ematerik. Balmesek honela dirau: "Kontzientzi batasuna arimaren zatiketaren aurka jartzen da; pentsatzen dugunean, subjektu bat dago, pentsatzen duen guztia dakiena, eta hau ezinezkoa da berari atalak onartuz gero. A-n dagoen pentsamenduaz ez dakikete deus B-k ez C-k, eta horrela elkarren alderantziz; beraz, ez dagoke pentsaera osoaren kontzientzia *bakarra*; atal bakoitzak bere kontzientzia berezia duke, eta gure barruan atalak bezainbat izaki pentsatzaile dirateke". printzipio-eskaerak iraun dirau; uste da, besterik gabe, inolako frogarik emateke, orok, oro den aldetik, ezin dezakeela baterakorki hauteman. Eta gero Balmesek A, B, C atal horiek bakunak ala osatuak ote diren galdetzen du, eta argudioa errepikatzen du, azkenean subjektu pentsatzaileak, oro ez den atal bat izan behar duela esatera heldu arte, hau da, bakuna. Argudioa, ageri denez, antzemate- eta erizte-batasunean oinarritzen da. Eta ondoren atalen arteko elkarrekiko komunikaziora jotzeko ustea errefusatzen saiatzen da.

Balmesek, eta berarekin batera arimaren hilezintasunaren baitako fedea arrazionaltzen saiatzen diren *a priori*-zko izpiritualistek ere, alde batera uzten dute azalpen arrazional bakarra: antzematea eta eriztea ondorio bat direla, antzemateak edo ideia osagarriak berak elkarrekin bat datozelako azalpena. Hasteko, uste dute kontzientzi egoeretatik kanpoko zerbait dela, horiek ez bezalakoa, horiexei eusten dien gorputz bizia ez dena, ni ez naizen zerbait, baizik eta nigan dena.

Arima bakuna da, diote beste batzuek, bere buruaren baitara oso-osorik itzultzen delako. Ez, A kontzientzi egoera, zeinetan neure aurreko B kontzientzi egoeraz pentsatzen baitut, ez da haxe berau. Edo neure arimaz pentsatzen baldin badut, hartaz pentsatzen dudana egintza ez bezalako ideiaz pentsatzen dut. Pentsatzen dela pentsatzea, eta ez besterik, ez da pentsatzea.

Arima bizitzaren printzipioa omen da. Bai; mugimenduaren printzipiotzat indarraren edo energiaren kategoria ere asmatu da. Baina horiek kontzeptuak dira, ez dira fenomenoak, ez dira kanpoko errealitateak. Mugimenduaren printzipioa, mugitzen al da? Eta kanpoko errealitatea mugitzen denak du soilik. Bizitzaren printzipioa bizirik al dago? Arrazoiak idazten zuen Humek: "Inoiz ez dut nitaz honelako ideiarik izan, neure burua, nahi izaten, edo egiten edo zerbait sentitzen besterik ez dut somatzen". Zerbait indibiduala izateko ideia, aurrean dudana tintontzi horrena, etxeko ate ondoko zaldi horrena, bi horiena eta ez beren klaseko beste edonolako banako batzuen, horixe da egintza, fenomeno bera. Neure buruaren ideia neu naiz.

Kontzientzia, hedaduratik independente eginik, substantibatze ahalegin guztiak, -gogoan izan Descartesek pentsaera hedadurari kontrajartzen ziola- ez dira trikimailu sofistikoak besterik, horiekin arima hilezina delako fedearren arrazionaltasuna oinarritzeko. Errealitate objektiboaren balioa eman nahi zaio horrelakorik ez duenari, hots, errealitatea pentsaeran besterik ez duenari. Eta guk gura dugun hilezintasuna hilezintasun fenomenikoa da, bizitza honen segida alegia.

Kontzientziaren batasuna ez da psikologia zientifikorako -arrazionala den bakarra- batasun fenomenikoa besterik. Inork ezin esan dezake substantziatzeko batasuna denik. Are gehiago: inork ezin esan dezake substantzia denik ere. Substantziaren nozioa fenomenikoa ez den kategoria delako. Zenbakia da, eta, hertsiki, ezagutezinean sartzen zaigu. Hau da, aplikatzen zaionaren arauera. Baina bere aplikazio transzendentean, egiatzki, ezin jakinezko zerbait da eta, hertsiki, irrazionala. Substantziaren kontzeptua bera da arrazoimen oharkabeak Jamesek aipatzen zuen haren aplikazio pragmatiko hartatik oso urrun dagoen erabilerara murrizten duena.

Eta bera idealistikoki, hots, izatea hautemana izatea dela dioen berkeleytar printzipioaren arauera, hau da, *esse est percipi* gisa hartzeak ez du aplikazio hau salbatzen. Oro ideia dela esatea, edo oro izpiritua dela esatea, oro materia dela edo oro indarra dela esatea bezalakoa da, zeren, oro ideia edo oro izpiritu baldin bada, diamante hau ideia edo izpiritu baita, ene kontzientzia bezalaxe, eta hori dela eta ez da garbi ageri zergatik ez duen diamanteak betiereko iraungo, ene kontzientziak, ideia edo izpiritu delako, beti dirauenez gero.

George Berkeley-k, Cloyne-ko apezpiku anglikarrak, izpirituz Joseph Butler beste apezpiku anglikarraren anaia zenak, honek bezala, arimaren hilezintasunaren baitako fedea salbatu nahi zuen. Bere *A Treatise concerning the Principles of human Knowledge* "Giza ezagutzaren printzipioei buruzko Tratatuaren Hitzaurreko lehen hitzetatik hasita, tratatu hau eskeptizismoak ukituentzat edo Jainkoaren existentzia eta materiagabetasunaren eta arimaren berezko hilezintasunaren froga behar dutenentzat baliagarria iruditzen zaiola diosku. CXL. kapituluaren, beste izpirituak geureen bidez ezagutzuz, izpirituaren ideia edo, hobesanez, nozioa dugula ezartzen du, hurrengo pasartean hortik arimaren berezko hilezintasuna segitzen dela biribilean esanik. Eta

hemen halako ondorio-segidan sartzen da, nozio barbari ematen dion anbiguotasunean oinarri harturik. Eta arimaren hilezintasuna ia *per saltum* ezarri ondoren, hau ez baita pasiboa, gorputzak bezala, CXLVII. kapituluan Jainkoaren existentzia gizonarena baino nabariagoa dela esatera iragaten da. Eta, hori gora-behera, hartaz dudatzen duenik badela esatea ere!

Arazoa are korapilatsuagoa zen, kontzientzia arimaren propietate egiten baitzen, hura baino zerbait gehiago, hau da gorputzaren substantziazko forma, haren funtzio organiko guztien sortzaile izanik. Arimak ez du soilki pentsatzen, sentitzen eta gura izaten; gorputza mugierazi eta honen bizi-funtzioak sortu ere egiten ditu; giza ariman landare-, animala eta arrazoimen-arloko funtzioak elkartzen dira. Holakoa da doktrina hori. Baina behin gorputzetik aldendu eta gero, arimak ezin dezake jada landare- eta animala arloko funtziorik izan.

Arrazoimenerako, azken buruan, benetako nahaste-multzoa.

Ernazimendutik aurrera, eta pentsaera arrazional hutsa, teologia orotatik askatua, behin berreskuratu eta gero, arimaren hilezintasunaren doktrina Alexandro Afrodisiense, Pietro Pomponazzi eta beste batzuei esker berrezarri zen. Eta, egiaz, deus gutxi edo ezer ere ezin gehi dakiokete Pomponazzik bere *Tractatus de immortalitate animae* hartan idatzirik utzi zuen guztiari. Arrazoia horixe da, eta alferrik da hor luzarago ihardutea.

Badira, ordea, fedea enpirikoki arimaren hilezintasunaren baitan oinarritzen saiatu direnak ere, eta hor dago Frederic W. H. Myers-en lana, giza nortasunaz eta beronen gorputzezko heriotzaz geroko gainbizitzaz: *Human Personality and its Survival of Bodily Death*. Inor ez da ni baino antsia handiagoz hurreratu obra horren bi liburu lodietara, *Society for Psychical Research*, hots, Ikerkuntza Psikikoetarako Elkartearen arima zenak hor era guztietako bihozkaidez, hildakoen agerrerez, amets, telepati, hipnotismo, zentzuen automatismo, ekstasi fenomenoek eta izpiritisten armategia osatzen duen guztiaz datu-multzo itzela bildu zuten horietara. Hori irakurtzera sartu nintzenez, zientzi gizonak horrelako ikerketek aurretik ohi dieten errezelurik ez izateaz gainera, horren aldeko joeraz abiatu nintzen, bere barru-barruko irriken berrespenaren bila doanaren antzera; baina honexegatik etsipena are handiagoa izan nuen. Kritikazko aparatua gora-behera, hori guztiori Erdi Aroko mirakulukeria haiek bezalakoxea da. Funtsean metodo-errakuntza dago, logikazkoa.

Eta zientziak arimaren hilezintasunaren frogaketa enpiriko arrazionalik lortzerik izan ez duen bezala, panteismoak ere ez du gogabetetzen. Dena Jainkoa dela eta hiltzean Jainkoarengana itzultzen garela, edo hobeki esan, Harengan diraugula esateak ez du gure irrikarako deus balio; izan ere, horrela baldin bada, jaio aurretik Jainkoarengan geunden, eta hiltzean jaio aurretik geunden lekura itzultzen bagara, giza arima, banakoaren kontzientzia, hilkorra da. Eta Jainkoa, kristau monoteismoaren Jainko pertsonal eta kontziente, gure hilezintasunaren sortzaile eta, batez ere, bermatzailea dela dakigunez, horrexegatik esaten da, eta oso ondo esan ere, panteismoa ez dela halako ateismo mozorrotua besterik. Eta ene ustez mozorrotu gabea ere bai. Eta arrazoia zuten Spinozari ateista esan ziotenek, berorren panteismoa logikoena eta arrazionalena baita. Eta ez du hilezintasun-irrika salbatzen, hura disolbatzen eta hondatzen baizik, agnostizismoak edo ezagutezinaren doktrinak ere, erlijio-sentimenduak salborik utzi nahi izan dituenen, beti ere hipokrisiarik finenaz ihardun du eta. Spencer-en *Lehen printzipioak* liburuaren lehenengo parte osoa, eta batez ere V. kapitulua, "Abenikoa" izenburukoa -arrazoien eta fedearen, edo erlijioa eta zientziaren arteko abenikoa dela ulertu behar da- filosofi azalkearen eta erlijio-zintzotasunik ezaren eredia da, eta, aldi berean, britainiar *cant* finenarena ere bai. Ezagutezina, gaur arte soilki ezagutzen ez dena bainoagoa baldin bada, kontzeptu erabat ezkorra besterik ez da, muga-kontzeptu bat. Eta horren gainean ez da sentimendurik bat ere eraikitzen.

Erljioaren zientzia, bestalde, erlijio-baieztapenen balio objektibo eta transzendentean sartu barik, erlijioa banakoaren fenomeno psikiko eta sozial gisa harturik, arima gorputzetik kanpoan bizi daitekeen zerbait delako fedearen etorkia azaltzean, sineskera honen arrazionaltasuna suntsitu duen zientzia da. Gizon erlijiosoak, Schleiermacher-ekin batera, behin eta berriro "Zientziak ezin diezaake ezer irakats; berak hiregandik ikasten dik" errepikatu arren, barrutik beste zerbait geratzen zaio.

Arazoari edozein aldetik begiratuta ere, kontua da arrazoimena beti gure hilezintasun pertsonalaren irrika horren aurka jartzen dela, eta horrexen kontra esaten digula. Eta izan, egiatan, arrazoimena bizitzaren etsaia da.

Adimena gauza ikaragarria da. Heriotzarantz jotzen du, oroimenak egonkortasunerantz bezala. Bizirik dagoena, erabat ezegonkorra, erabat banakoa dena, egiatan, ulertezina da. Logikak guztia berdintasun eta generotan murriztera darama, irudikapen bakoitzak, burura dakigukeen edozein leku, denbora eta erlaziotan edukin bat eta bera besterik izan ez dezan. Eta ez dago ezer bere izatearen elkarren ondoko bi unetan berdina denik. Jainkoaz dudak ideia, berau bururatzen dudak bakoitzean ezberdina da. Berdintasuna, heriotza dena, endeleguaren xedea da. Gure burua hilik dagoenaren bila ari da, bizirik dagoena itzuri egiten zaio eta; korrante iheskorra izozturik gatzatu nahi du, hura finkatu nahi du. Gorputz bat analizatzeko, bera urritu edo birrindu beharra dago. Zerbait ulertzeko, bera hil beharra dago, bera buruan gogortu behar da. Zientzia ideia hilen kanposantua da, horietatik bizitza irten arren. Harrak ere gorpuez elikatzen dira. Nire pentsamenduak berak ere, nire buruaren barrunbeetan oldatsu eta eraginak, behin beren sustrai bihozkorretik erauzita, paper honetara isuri eta berton forma aldaezin gisa finkatu ondoren, jadanik pentsamenduen gorpuk dira. Nola irekiko da, hortaz, arrazoimena bizitzaren agerraldiaren aurrean? Borroka tragikoa da, tragediaren barrena da, bizitzak arrazoimenaren aurka darabilen borroka. Eta egia? Bizi ala ulertu egiten al da?

Platonen *Parmenides* ikaragarria irakurri eta haren ondorio tragiko honetara heltzea besterik ez dago: "Bata bada eta ez da, eta hura eta beste oro badira eta ez dira, agertzen dira eta ez dira agertzen beren buruekiko eta batzuk besteekiko". Bizikorra den guztia irrazionala da, eta arrazional den guztia bizitzaren aurkakoa, arrazoimena funtsean eskeptikoa delako.

Arrazionaltasuna, izan ere, ez da erlaziozkoa besterik; arrazoimena elementu irrazionalak erlaziozkerara mugatzen da. Zientzia hobeekin bakarra Matematika da, batuketak, kenketak, biderketak eta zatiketak zenbakiekin, baina ez gauza egiatzeko eta ukigarriekin, egiten dituelako; zientzietatik formalena da eta. Nor da gai lizar honen erro kubikoa ateratzeko?

Eta, halere, pentsamenduak eta hautemateak besterengantzeko, logikaz baliatu behar dugu, ahalmen ikaragarri honetaz, eta pentsatu eta somatzeko ere bai, pentsatu hitzekin egiten baitugu, eta somatu, formekin. Pentsatzea nor bere buruarekin mintzatzea da eta, hizketa, soziala da, eta sozialak dira, halaber, pentsamendua eta logika ere. Baina, ez al dute edukin bat, gai indibidual, besterenganaezina eta ezin itzulizkoa? Eta ez al dute hortxe, bada, beren indarra?

Kontua da, gizonak, logikapean preso, hori gabe pentsatzen ez dakienak, hura beti ere bere irriken zerbitzuan jarri nahi izan duela, eta batez ere irrikarik funtsezkoenaren zerbitzuan. Logika, beti ere, eta Erdi Aroan areago, teologiaren eta jurisprudentziaren zerbitzuan jarri nahi izan zen, horiek biok aginteak ezarririkotik abiatzen ziren eta. Logikak ez zion bere buruari ezagutzaren problema oso berandurarte proposatu, hau da, bere buruaren baliagarritasunarena, oinarri metalogikoen azterketa, alegia.

"Mendebaldeko teologia -idazten zuen Stanley-k- bere forman funtsean logikoa da eta legean du oinarri; ekialdekoa, aldiz, bere forman erretorikoa da eta filosofian oinarritzen

da. Latindar teologoa erromatar abokatuari zerraion; ekialdeko teologoa, aldiz, greziar sofistari²¹.

Eta gure hilezintasun-gosearen alde darabiltzagun elukubrazio arrazional edo logiko izan gurako horiek guztiok, ez dira abokatutza eta sofistakeria besterik.

Abokatutzari bereziki dagokion ezaugarria, hain zuzen, logika, defendatu behar den tesi baten zerbitzuan jartzea da; metodo hertsiki zientifikoa, aldiz, azkenean ondoriora heltzeko edo ez heltzeko, egintza batzuetatik, errealitateak eskaintzen dizkigun datuetatik abiatzen den bitartean. Garrantzizkoa problema ongi planteatzea da, eta horregatik aurrerapena, ez gutxitan, egindakoa desegitean datza. Abokatutzak beti ere printzipio-eskaera du aurrenik, eta haren argudioak oro *ad probandum* izaten dira. Eta ustezko teologia arrazionala ere ez da abokatutza besterik.

Teologia dogmatik irteten da, eta dogmak, ? ? v? ? ? , bere adiera jator eta zuzenenean, "dekretua" esan nahi du, latinezko *placitum*-en antzera, agintaritzako legegileen eritziz, lege izan behar duena. Kontzeptu juridiko honexetatik abiatzen da teologia. Teologoaren ustez, abokatuaren aburuz bezala, dogma, legea, zerbait emana da, bere aplikazioan eta adierarik zuzenenean ez bada, eztabaidatu ere egiten ez den abiapuntua. Eta hortixek datorkio teologi edo abokatutza-izpirituari bere oinarrian dogmatikoa izatea, izpiritu hertsiki zientifikoa, aldiz, arrazional hutsa, eskeptikoa, ? ? ? ? ? ? ? v? , hau da, ikertzailea den bitartean. Eta bere oinarrian gehitu dut, eskeptizismo berbaren beste adiera, gaur arruntago duena, hots, zalantza, errezelu eta segurtasunik ezaren sistema izatekoa, arrazoimena era teologiko edo abokatutarraz erabiltzetik sortua delako, dogmatismoaren abusutik. Agintaritza-legea, *placitum*-a, dogma, premia praktikoa ezberdin eta batzuetan kontrajarri aplikatu nahiak sorterazi du dudazko eskeptizismoa. Abokatutza, edo gauza bera dena, teologia da arrazoimenaz mesfidatzen irakasten duena, eta ez egiazko zientzia, ikerkuntza-zientzia, berba honen jatorrizko eta zuzeneko adieran eskeptikoa, aldeztatik ikusiriko irtenbiderantz zuzendurik ez doana, hipotesi baten entseia egiten besterik ari ez dena.

Har ezazue *Summa theologica*, Done Tomas-ena, teologia -hau da, abokatutza-katolikoaren monumentu klasikoa, eta ireki ezazue edonondik. Lehenik, tesia: *ultrum...*, halako gauza honela edo bestela baldin bada; berehala eragozpenak: *ad primum sic proceditur*; geroago eragozpenei egindako erantzunak: *sed contra est...*, edo *respondeo dicendum...* Abokatu-lan hutsa. Eta haren argudioen zati handi baten barrenean, beharbada gehienean, falazia logiko bat aurkituko duzue, *more scholastico*, silogismo honekin adieraz daitekeena: Nik ez dut egintza hau ulertzen azalpen honekin izan ezik; honelaxe ulertu behar dut; beraz, haren azalpena honexek izan behar du. Edo, bestela, ulertu gabe geratuko naiz. Egiazko zientziak, oren aurretik, dudatzen eta ezjakina izaten irakasten du. Abokatutzak ez dudatzen du, ez uste du ez dakiela. Irtenbideren bat behar du.

Kontzientzia handiago edo txikiagoaz, irtenbide bat jakin behar dugula uste deneko gogo-egoera honi, ondorio kaltegarrien segizioa delako hark laguntzen dio. Har ezazue edozein liburu apologetiko, hau da, teologia abokatutarrarena, eta ikusiko duzue maiz honela dioten idazpuruak aurkituko dituzuela: "Doktrina honen ondorio kaltegarriak". Eta doktrinaren ondorio kaltegarriek frogatu egingo dute, gehienez ere, doktrina hori kaltegarria dela, baina ez faltsua denik, ez baita oraindik frogatu egiazkoa komenigarriena zaigunik. Egia eta ongia elkarren pare jartzea ez da borondate oneko nahi hutsa besterik. A. Vinet-ek, bere *Etudes sur Blaise Pascal*-ean, honela dio: "Giza izaeran jo eta ke lanean ari diren beharrian bietatik, zoriona orokorrenik sentitua eta etengabekiago espermentatua ez eze, premiazoena ere bada. Eta beharrian hau ez da, soilki, zentzuena; endeleguarena da. *Arimak* ez eze, *izpirituak*²² ere zorionaren beharriana du. Zoriona egiaren osagarria da". Azken esaera hau: *le bonheur fait partie*

de la vérité esaera sakonki abokatutarra da, baina ez zientifikoa ez eta arrazoimen hutsekoa. Hobe litzateke, tertulianotar adieran, egia zorionaren osagarria dela esatea, hau da, *credo quia absurdum* gisara, horrek funtsean haxe esan nahi baitu: *Credo quia consolans*, sinesten dut horrek kontsolatzen nauelako.

Ez; egia, arrazoimenerako, badela, existitzen dela froga daitekeena da, horrek kontsolatzen bagaitu edo ez bagaitu. Eta arrazoimena ez da, prezeski, ahalmen kontsolagarria. Lucretio latindar poeta ikaragarri hark, bere itxurazko lasaitasun eta epikurear ataraxiapean hain desesperantza handia eta nabaria zuenak, zioenez, pietatea orori arima lasai behatu ahal izatea zen, *pacata posse mente omnia tueri*. Eta Lucretio hark berak idatzi zuen erlijioak hainbat gaitzetara eramanez gaitzakeela: *tantum religio potuit suadere malorum*. Eta, izan ere, erlijioa, eta batez ere kristaua, geroago, Apostoluak dioenez, juduentzat eskandalua izan zen eta intelektualentzat erokeria (I. Kor. I, 23). Tacitok kristau erlijioari, arimaren hilezintasunarenari, sineskeria hondagarria zeritzon, *exitialis superstitio*, barruan gizateriarenganako gorrotoa, *odium generis humani*, zeukala esanik.

Gizon horien garaiaz mintzo zelarik, egiazkienik arrazionalista izandako garaiaz, Flaubert-ek madame Roger des Genettes-i hitz mamitsu hauek idatzi zizkion: "Arrazoa duzu; Lucretioz errespetuz mintzatu beharra dago; ez dakusat haren parean Byron besterik, eta Byronek ez du haren pisurik ez eta haren tristuraren zintzotasunik ere. Antzinateko malenkonia sakonagoa iruditzen zait aro berrikoena baino, hauek guztiok, gehiago edo gutxiago, *zulo beltzaz* bestaldeko hilezintasuna gainesten dutelako. Baina antzinakoentzat zulo beltz hau infinitua bera zen; haien ametsak ebanozko barren aldaezinaren gainean marrazten eta iragaten ziren. Jainkoak jada ez zirelarik, eta Kristo oraindik ez zenez gero, Cicero-rengandik Marco Aurelio-rengana, une bakana izan zen, gizona bakarrik egon zena. Inongo lekutan ez dut handitasun hau aurkitzen; baina Lucretio jasanezin bihurtzen duena haren fisika da, berak positibotzat ematen duena. Ahula izan bazen, nahikorik dudatzen ez zuelako izan zen: azaldu nahi baitzuen, hau da, ondorioa atera!"²³.

Bai, Lucretiok ondorioa atera, irtenbidea aurkitu nahi izan zuen, eta are okerrago, arrazoimenean kontsolamendua aurkitu nahi izan zuen. Eta izan, bada abokatutza anti-teologikorik, eta *odium anti-theologicum*-ik ere bai.

Askok, anitz zientzigizonek, beren buruei arrazionalista esaten dieten gehienek pairatzen dute hori.

Arrazionalista arrazionalki ari da, hau da, arazoimenak gure bizitzaren hilezintasun-gosea asetzen duela eta ez besterik ukatzen duen artean bere lekuan da; baina, bat-batean, ezin sinesteko amorruek harturik, *odium anti-theologicum*-aren narritaduran amiltzen da, eta honela dio, farisauekin: "Legea ez dakiten arrunt hauek madarikatuak dira". Egia handia Soloviev-en hitz haietan datzana: "Aurretik susmatzen ari naiz kristauek katakunbetan berriz ere elkartu beharko duten denborak hurbiltzen direla, haien fedea jazartzen delako, beharbada ez Neronen garaian bezain modu basatiaz, baina bai hura bezain gogorgo finduaz, gezurraz, isekaz eta hipokrisia guztiez".

Beste bizitzaren baitako fedearen aurkako gorroto anti-teologikoa, amorru zientifista -ez diot zientifikoa- ageri-agerian da. Har itzazue, ez zientzi ikertzaile lasaienak, dudatzen dakitenak, baizik eta arrazionalismoaren fanatikoak, eta ikusazue nolako basakeria trauskilaz mintzo diren fedez. Vogt-ek uste zuen gerta zitekeela Apostoluen burezurren egituraren tximino-izaera nabariak agertzea; Haeckel-en, ez-ulerkor nagusi horren arrunkeiez ez mintzatzeari hobe; ez eta Büchner-enez ere. Virchow bera ere ez da haiez libratzen. Eta beste batzuek sotilkiago egiten dute. Badirudi jende batzuek ez dutela nahikoa beste bizitarik dela ez sinesteaz edo, hobeki esan, hura ez dela sinesteaz, aitzitik, amorru eta min ematen die beste batzuek hartaz sinesteak, edo beste bizitza hori

izan dadila haiek nahi izateak. Jarrera hau mespreziagarria da, hura behar duelako, badela sinesten ahalegindu arren, ezin sinets dezakeenaren jarrera errespetagarria den bezala. Baina gogo-egoera ezin nobleago, ezin sakonago, ezin gizatiarrago eta ezin emankorrago honetaz, desesperoarenaz, geroago mintzatuko gara.

Eta amorru anti-teologikoan amiltzen ez diren arrazionalistak gizona bizitzeko eta jaio izateko motiborik badela sinesterazten saiatzen dira ekinean, noizbait, hamarka, ehundaka edo milioika menderen buruan, giza kontzientzia guztia suntsiturik egongo den denbora heldu arren. Eta bizitzeko eta aritzeko motibo horiek, zenbaitzuk humanismoa deitzen duten hori, arrazionalismoaren atxekimenduzko eta emoziozko hutsunearen eredu harrigarriak dira, bai eta zintzotasuna egiazkotasunari sakrifikatzeke ekinean eta arrazoimena ahalmen deskontsolatzaile eta ezereztaillea dela aitortu nahi ezean ahaleginduriko hipokrisia bikainarenak ere.

Berriro ere errepikatu beharko al dut, ba, jadanik esandakoa, hots, kultura mamitzeaz, aurrerapenaz, ongia, egia eta edertasuna egiteaz, mundura justizia ekartzeaz, gure ondorengoentzat bizitza hobea bihurtzeaz, ez dakit nik zer etorkizun zerbitzatzeaz, gutariko bakoitzaren azken finaz arduratu gabe, aipatua? Berriz ere hitz egin beharko al dizuet kulturaren, zientziaren, artearen, ongiaren, egiaren, edertasunaren, justiziaren hustasun gorenaz... kontzepzio eder hauez guztioz, azken buruan, hemendik lau egun barru, edo lau milioi mende barru -konturako berdin da- kultura, zientzia, artea, ongia, egia, edertasuna, justizia eta honelako beste guztia somatuko duen giza kontzientziarik ez da egongo eta?

Epikurear eta estoikoen garaietatik asko eta askotarikoak izan dira asmaketa idealistak -aski edo gutxi arrazionalak- egia arrazionalen kontsolakizuna bilatu eta gizonak komentzitzeko, horretan saiatu zirenak, giza kontzientzia egunen batez desagertzekoa izanda ere, aritzeko motiborik eta bizitzeko ziorik badela beren baitan sinetsi ez arren.

Epikurear jarrera, bere azken muturreko itxura traketsena "dezagun jan eta edan, bihar hilko gara eta" horretan ageri duena edo Horatioren *carpe diem*, "hatxekio egunari" moduan itzul litekeena, ez da ezberdina, funtsean, "bete ezak kontzientzia moralak agintzen diana, eta gero gerokoak" delako jarrera estoikotik. Jarrera bi hauek oinarri amankomuna dute, eta gauza berbera da atsegina atseginagatik beragatik, zein betebeharra betebeharragatik beragatik egitea.

Ateistetarik logikoenak eta kontsekuenteenak, gizabanakoaren kontzientziaren iraupena etorkizuneko denbora mugagabearen ukatzen dutenen artetik, esan nahi dut, eta aldi berean haietarik debotuenak, Spinozak alegia, askatasunera daraman bidea argitu eta zorionaren kontzeptua finkatzeko moldatu zuen bere *Etika*-ren bosgarren eta azken partean. Kontzeptua! Kontzeptua, eta ez sentimendua! Spinozaren ustez, intelektualista izugarria bera, zoriona, *beatitudo* delakoa, kontzeptua da, eta Jainkoaganako maitasuna, maitasun intelektuala. Bosgarren parte honetako 21. proposamenean "gogamenak gauza iraganez ezin du ezer irudikatu, ez eta gogoratu ere, gorputzak diraeino ez bada" jarri eta gero, arimaren hilezintasuna ukatzearen parekoa dena, bera bizi izandako gorputzetik bereiztu eta gero bere iraganaz jadanik oroitzen ez den arima, ez baita hilezina, ez eta arima ere, ondoren, 23. proposamenean hauxe diosku "giza gogamena inola ere ezin suntsi daitekeela gorputzarekin, harenik zerbait geratzen baita, *betierekoa* dena", gogamenaren betikotasun hau pentsatzeko halako era bat izanik. Baina ez utzi engaina zaitzaten; ez dago banako gogamenaren halako betikotasunik. Guztia *sub aeternitatis specie* da, hau da, engainu hutsa. Ez dago ezer tristeagorik, ezer ez da etsigarriagorik, ezer ez bizitzaren aurkakoagorik, zorion, *beatitudo*, spinozar hori baino, Jainkoaganako maitasun intelektualean datzana, Jainkoaren maitasuna bera besterik ez dena, Jainkoak bere burua maitatzeko duen maitasuna (36. prop.). Gure zoriona, hau da, gure askatasuna, Jainkoak gizonengana duen maitasun etengabe eta betierekoan datza.

Honela dio 36. proposamen honen eskolioak. Eta dena, *Etika* guztiaren azken proposamenean, haren koroaketa, honako ondorio hau ateratzeko, hots, zoriona ez dela bertutearen saria, bertutea bera baizik. Guztien leloa! Edo argi eta garbi esanik: Jainkoagandik irten eta Jainkoagana bihurtzen garela; eta horrek, mintzaira bizikor, sentimenduzko eta konkretura itzulita, hau esan nahi du, ene kontzientzia pertsonala ezerezetik sortu zela, ene inkontzientziatik, eta ezerezera bihurtuko dela.

Eta Spinozaren boz ezin tristeago eta etsigarri hori arrazoimenaren boza bera da. Eta mintzo zaiguneko askatasuna askatasun ikaragarria da. Eta Spinozaren eta beraren zorionaren doktrinaren aurka ez dago argudio erantzunezin bat besterik: *ad hominem* argudioa. Zorionsua izan al zen bera, Barukh Spinoza, bere barru-barruko zorigabetasuna ixiltzeko, zorionaz iharduten zuen artean? Libre izan al zen bera?

Bere *Etika*-ren tragedia itzel horren azken parte honetan, tragikoenean, 41. proposamenaren eskolioan, Amsterdameko judu gaixo desesperatua jende arruntak betiereko bizitzaz ohi duen usteaz mintzo zaigu. Dantzugun bera: "Badirudi sinesten dutela pietatea eta erlijioa, eta gogamenaren sendotasunari dagokion guztia, heriotzaz gero alde batera utzi beharreko kargak direla, eta, hortaz, morrontzaren saria jasotzea espero dute, ez pietatearena eta erlijioarena. Eta ez, soilki, esperantza honegatik, baizik eta, eta batez ere, heriotzaren ondoan tormentu izugarriekin gaztigatuak izateko beldurreratik, mugitzen dira Jainkoaren legeak agindu bezala bizitzera, beren ahuleziak eta gogo ahalgabeak hartara daramatzen neurrian; eta esperantza eta beldur hauengatik ez balitz eta, aitzitik, sinetsiko balute arimak gorputzekin hiltzen direla, eta luzaroago bizitzerik ez luketela *pietatearen* pisupean miserable gisa baizik, beren lehen adiurrera itzuliko lirerateke, guztia beren gustura moldatu eta fortunari emanak izatea nahiago izanik, beren buruen arduraz aritzea baino. Horrek guztiorrek badirudi, bere gorputza janari onekin ezin elika dezakeelakoan, pozo hilgarriez betiko asebetetzea nahiago lukeena bezain absurdua dela, edo, arima betierekoa eta hilezina ez dela dakusalako, arimagabe (*amens*) izatea eta arrazoimenik gabe bizitzea nahiago lukeena bezala; eta hori guztiori hain absurdua denez gero, ia-ia ez du aurka egiterik merezi (*quae adeo absurda sunt, ut vix recenserentur*)".

Zerbaitek aurka egiterik ere ez duela merezi esaten denean, segurtzat edukazue hori memelokeria nabariren bat dela, eta kasu horretan horixe ere ez zaio esan behar, edo bestela zerbait bikaina dela, problemaren gakoa hain zuzen. Eta honelaxe da kasu honetan. Izan ere, bai, Holandako portugaldar judu gaixo erbesteratu haizen hori, bai, inolako duda izpirik gabe, salbatzeko zalantza-zirrikiturik txikienik gabe, bere arima ez dela hilezina komentziturik dagoenak, arimagabea, *amens*, edo irrazionala, edo idiota izatea edo ez jaiotzea nahiago izateak ez dik absurdurik ezer, inondik inora ere ez, gainera. Bera, maitasun intelektualaren eta zorionaren definitzaile izandako judu intelektualista gaixoa, zorionsua izan al zen? Funtsean problema hauxe baita, eta ez besterik. "Zertarako balio dik garbaia definitzeak bera sentitzen ez baduk?" dio Kempisak. Eta zertarako balio dik zoriona definitzen iharduteak horrekin norberak zorionsu izatea lortzen ez badu? Hemen ongi sartzen da Diderot-en kontu ikaragarri hura, xikiratuarena, bere jabearen, sultanaren haremerako andre esklabuak hobeki hautatzeko, marseillar batengandik estetika-eskolak hartu nahi izan zituenarena. Lehenbiziko eskolaldian, fisiologikoa, basaki eta haragi fisiologikoa, xikiratuak, etsirik, hots egin zuen: "Bistan da nik ezingo dudala inoiz estetikarik ikasi". Eta horrela da; ez xikiratuek jakingo dute inoiz emakume ederren aukerari aplikaturiko estetikarik, ez arrazionalista hutsak inoiz etikarik jakingo, ez eta inoiz zoriona definitzera helduko, berau bizi eta sentitzen den zerbait baita, eta ez arrazoitzen eta definitzen dena.

Eta hortxe dugu beste arrazionalista bat; hau, ordea, ez da, Spinoza bezala, etsi eta tristea, bihurria baizik, eta hipokritakiro alai-itxura egiten du, bestea bezain

desesperatua zen arren; hortxe duzue Nietzsche, arimaren hilezintasunaren ordari hura *matematikoki* (!!!) asmatu zuena, betiereko itzulera deritzona, izan, tragikomedia edo komitragedia handiena dena. Atomo edo lehen elementu murrizgaitzen kopurua mugatua delarik, Unibertso betiraunkorrean noizbait oraingoa bezalako konbinaketa gertatu beharko da berriro eta, beraz, orain gertatzen dena amaigabeko aldiz errepikatu beharko da. Eta, jakina, bizitzen ari naizen bizitza hau berriro biziko dudan bezala, jadanik infinitu aldiz bizi izan dut, iraganeranzko betikotasun bat dagoelako, *a parte ante*, etorkizunean ere, *a parte post*, izango den bezala. Baina gertatzen den kasu hori triste da, ni neu ez bainaiz neure aurreko existentzietarik batez ere gogoratzen, haiez oroitzetik baldin badago behintzat, bi gauza absolutuki eta erabat berdinak bat bakarra besterik ez dira eta. Lehen elementu osagarri murrizgaitzak dituen Unibertso mugatuan bizi garela uste izan ordez, uste izan ezazue espazioan mugarik ez duen Unibertso infinituan bizi garela, -beronen mugagabetasun konkretua denborazko betierekotasun konkretua bezain bururagaitza izanik-, eta orduan hauxe gertatuko da, gure sistema hau, Esne-Bidearena, espazioaren infinitutasunean infinitu aldiz errepikatzen ari dela, eta ni orain bizitza infinituak bizitzen ari naizela, guztiak zehazkiro berdinak. Txantxa bat, dakusazuenez, baina Nietzschereana, barreka ari den lehoiarena bezain komikoa, hau da, hura bezain tragikoa. Eta zeri egiten dio barre lehoiak? Nik amorruaz uste dut, lehenago ere lehoi berbera izana dela eta berriro halaxe izango delako horrek ez baitu erabat kontsolatzen .

Baina kontua da, bai Spinoza eta bai Nietzsche ere arrazionalistak zirela, bai, haietako bakoitza bere erara; baina ez ziren izpirituz xikiratuak; bihotza zeukaten, sentimendua eta, batez ere, gosea, betierekotasun-gosea, hilezintasun-gosea. Gorputzez xikiratuak ez du sentitzen haragiz, gorputzez, bere burua birsortzeko premiarik, eta izpirituz xikiratuak ere ez du bere burua betierekotezko premiarik.

Egia da badirela arrazoimena aski dutela diotenak, eta halakoek sarrezinean sartzen ez ahalegintzeko aholkua ematen digute. Baina horiez, bizitzeko ziorik eta ekiteko mugigarriarik aurkitzeko betiereko bizitza pertsonalaren federik ez dutela behar diotenez, ez dakit zer pentsa. Jaiotzetikoitsuak ere segurta diezaguke ez duela gogo handirik ikusmenaren munduaz gozatzeko, ez eta herstura handirik ere haren gozorik dastatu ez duelako, eta sinetsi beharra dago, erabat ezezagunaz ez baita irrikatzerik, *nihil volitur quin praecognitum* delakoagatik: "Ez dago ezer nahi izaterik aurretik ezaguna ez bada"; baina bere bizitzan noizbait edo bere gaztaroan arimaren hilezintasunaren fedea eduki duenak ezin sinesteraz diezadake hura gabe lasai egon daitekeenik. Eta honi buruz gure artean ez dago ia jaiotzetiko itsutasunik, halako aberrazio pitxiak ez bada. Aberrazio hutsa baita, eta ez besterik, gizon soilki eta erabat arrazionala.

Are zintzoagoak dira, askoz ere zintzoagoak, honela diotenak: "Horretaz ez da hitzik egin behar, denbora alferrik galdu eta borondatea bere senetik ateratzea besterik ez da egiten eta; bete dezagun hemen geure eginbeharra eta gero gerokoak"; baina zintzotasun honek zintzotasun gabezia are sakonagoa ezkututzen du. "Horretaz ez da hitzik egin behar" esanez gero, norberak horretaz ez pentsatzea lortzen al da ba? Borondatea bere senetik ateratzen dela?... Eta zer? Giza ekintzarako ezindu egiten gaituela?... Eta zer? Bizitza laburrera kondentatzen duen gaixotasun hilgarria duela dakienari horretaz ez dezala pentsa esatea oso erraza da.

*Meglio oprando obliar, senza indagarlo,
questo enorme mister de l'universo!*

"Hobe, lanean ahanzte, hartan sakondu gabe, unibertsoaren misterio neurrigabe hau" idatzi zuen Carduccik bere *Idilio maremmano*-n, *Mario mendiaren gainean* izeneko bere odan, lurrak, arima iheslariaren amak, eguzkiaren inguruan gloria eta oinazea eramanez behar dituela esan zigun Carduccik berak,

... Ekuatorepean, iheska doan
beroaren deiek errendaturik,
ondorengo zimelik besterik ez duen
emakume batek, eta gizon batek,
mendi zatien artean, zutik
oihan hiletan, zurbil, beirazko
begiekin, hi, izotz mugagabeetan,
o eguzki, sartzan ikusi arte!²⁴

Baina, ba al dago zerbait serio eta iraunkorrean lan egiterik, unibertsoaren misterio neurgaitza ahantzirik eta hartaz galde egiteke? Ba al dago arima lasaiaz orori behatzerik, lucretiar pietatearen arauz, egunen batez hori guztiori ez dela ezein giza kontzientzian isladatuko pentsaturik?

"Zoriontsuak al zarete?" galdetzen dio Kainek byrondar poeman Luziferri, intelektualen printzeari, eta honek erantzun: "Boteretsuak gara"; eta Kainek berritauntzen dio: "Zoriontsuak al zarete?" eta orduan Intelektual nagusiak diotso: "Ez. Eta hi ba al haiz?". Eta aurreratxoago, Luzbel berberonek Adah-ri, Kainen arreba eta emazteari honela diotso: "Hauta ezan Maitasuna eta Zientziaren artean, ez baita beste aukerarik". Eta poema bikain berberonetan, Kainek ongiaren eta gaizkiaren jakitateko zuhaitza zuhaitz gezurtia zela esatean, "ezer ez baitakigu, eta hark prometatutako zientzia heriotzaren prezioan izan zen", Luzbelek honela erantzuten dio: "Baliteke herioak ezagutzarik gorenera eramatea". Hau da, ezerezera.

Zientzia itzuli dudan pasarte guztiotan lord Byronek *Knowledge* dio, hots, ezagutza; frantsesak *science* eta alemanak *Wissenschaft*, horri anitzek *wisdom* hitza -*sagesse* frantsesa eta *Weisheit* alemana- kontrajartzen diotena, jakituria alegia. "Zientzia badator, baina jakituria berandutzen da, eta golko kargatua dakar, esperientzia tristezaz bete, bere atsedenen gelditasunerantz ibiliz".

*Knowledge comes, but wisdom lingers, and he bears a laden, breast,
Full of sad experience, moving toward the stillness of his rest,*

dio beste lord batek, Tennyson-ek, bere *Locksley Hall*-en. Eta zer da jakituria hori, horren bila, batez ere, poetengana joan behar duguna, zientzia utzita? Ongi da, Matthew Arnold-ekin -Wordsworth-en poemei egin zien hitzaurrean-, poesia errealitate eta filosofia ilusio dela esatea; arrazoimena beti ere arrazoimen da, eta errealitatea errealitate, gugandik kanpoan badela frogatzen daitekeena, horrek kontsolatzen edo desesperarazten bagaitu ere.

Ez dakit zergatik hainbeste jende eskandalizatu zen, edo eskandalizatzen zelako itxura egiten zuen, Brunetièrek zientziaren bankaporraketa berriz ere aldarrikatu zuenean. Zientziak, erlijioaren ordezkotza gisa, eta arrazoimenak, fedearen ordezkotza gisa, beti porrot egin dutelako. Zientziak asebetetze ditzake, eta, izatez, gero eta gehiago asebetetze ditu, gure beharrezko logiko edo gogoetazkoak, jakiteko eta egia ezagutzeko dugun irrika; baina zientziak ez ditu gure maitasuneko eta guruzko beharrezkoak asetzen, ez eta gure hilezintasun-gosea ere, eta inondik ere ez asetzeaz gainera, kontra egiten dio. Egia arrazionala eta bizitza elkarren aurka jarri daude. Eta ba ote da beste egiazko egia arrazionala ez denik?

Finkaturik gelditu behar da, beraz, arrazoimenak, giza arrazoimenak, bere mugen barruan, arima hilezina dela eta giza kontzientziak etorkizuneko denboren segidetan suntsiezina izan behar duela ez frogatzeaz gainera, bere mugen barruan, berriz diot, norbanakoaren kontzientziak ezin iraun dezakeela, bera loturik daukan gorputz organismoaren heriotzaz gero. Eta muga horiek, diodanez, horien barruan giza arrazoimenak hauxe frogatzen baitu, arrazionaltasunaren mugak dira, frogatuki ezagutzen dugunarenak. Horietatik kanpoan irrazionaltasuna dago, eta berdin da horri

gain-arrazionala edo azpi-arrazionala zein kontrarrazionala deitzea; horietatik kanpoan Tertulianoaren absurdua dago, *certum est, quia impossibile est* delakoaren ezina. Eta absurdu hori ezin oinarri daiteke segurgabetasunik absolutuenean ez bada.

Disoluzio arrazionala, azken buruan, arrazoimena bera disolbatzen amaitzen da, eszeptizismorik absolutuenean, Humeren fenomenalismoan edo positibistetarik kontsekuenteena eta logikoena izandako Stuart Mill-en kontingentzialismo absolutuan. Arrazoimenaren garaipen gorena, ahalmen analitikoa izanik, hau da, birrintzailea eta disolbatzailea, bere baliagarritasuna bera zalantzan jartzea da. Urdailak, zauri bat daukanean, azkenean bere burua digeritzen du. Eta arrazoimenak, azkenean, egia kontzeptuaren eta premia kontzeptuaren balio hurbil eta absolutua birrintzen du. Kontzeptu bi hauek erlatiboak dira; ez dago egia ez premia absoluturik. Kontzeptu bati egiazkoa deritzogu gure kontzeptu guztien sistema orokorrarekin bat datorrenean, eta hautemate bati egiazkoa deitzen diogu gure hautemateen sistemari kontra esaten ez dionean; egia koherentzia da. Eta sistema osoaz, multzoaz den bezainbatean, hartatik kanpo guk ezagutzen dugun ezer ez dagoenez gero, ezin esan daiteke egiazkoa den ala ez. Irudigarria da, unibertsoa, berez, gugandik kanpoan, guri iruditzen zaiguna ez bezalakoa izatea guztiz, hau adiera arrazionalik bat ere duen ustea izan arren. Eta premiari doakionez, ba al dago hor ere premia absoluturik? Premiazkorik premiazkoa dena eta den neurrian besterik ez dago, zeren, beste adiera transzentalagoan, zer premia absolutu eta logiko dago, unibertsoa existitzen delako egintzatik landa, unibertsoa edo beste ezer, izan, izateko?

Erlatibismo absolutua, izendatze honen adiera berrienean, eszeptizismoa besterik ez dena, arrazoimen arrazoitzailearen garaipen gorena dugu.

Ez sentimenduak lortzen du kontsolamendua egia bihurtzea, ez arrazoimenak lortzen du egia kontsolamendu bihurtzerik; baina bigarren honek, arrazoimenak, egiaren beraren gainean ihardunez, errealitatearen kontzeptuaren beraren gainean, sentimenduen desespoarekin bere burua eszeptizismo arrazional sakonean hondatzea lortzen du, eta elkargune honexetatik irteten da kontsolamendurako oinarri bat -eta oinarri izugarria!-. Horixe ikustera goaz.

VI
AMILDEGIAREN
SAKONEAN

Parce unicae spei totius orbis.

TERTULIANO, *Adversus Marcionem*, 5.

Hortaz, ez giza hilezintasun-irrika bizikorak lortzen du berrespen arrazionalik, ez arrazoimenak ematen digu bizitzeko zio eta kontsolamendurik, ez eta beroni egiazko zertarakotasunik ere. Baina hona hemen, amildegiaren sakonean, sentimentuen eta nahien desesperoa eta eskeptizismo arrazionala aurrez aurre aurkituak eta, neba-arreben antzera, elkar besarkatzen dute. Besarkada hau besarkada tragikoa izango da, hots, barru-barrutik maitakorra, eta hortik bizitza-iturria sortuko da, bizitza serio eta ikaragarriarena. Eskeptizismoa, segurtasunik eza, arrazoimena, bere buruaz, bere baliagarritasunaz, azterketa eginez, heltzen deneko azken jarrera hori, bizi-sentimenduaren desesperoa gainean bere esperantza ezartzeko oinarria da.

Deslai utzi behar izan genuen, etsirik, kontsolamendutik egia arrazional eta logikoa nahi dutenen jarrera, haren arrazionaltasuna, edo haren irrazionaltasunik eza bederen frogatu nahirik, eta deslai utzi behar izan genuen, halaber, egia arrazional eta logikotik kontsolamendu eta bizitzeko motibo egin nahi zutenen jarrera. Jarrera biotarik batek berak ere ez gintuen gogabetetzen. Batak gure arrazoimenari erriertan egiten dio; besteak gure sentimenduari. Ahalmen bion artean ezin bakerik egin, eta beren gerratik bizi behar da. Eta horixe, gerra bera, gure bizitza izpiritualaren baldintza egin behar.

Ez da hemen sartzten politikariek, aski edo gutxi, parlamentari direnek, asmatu duten expediente nazkagarri eta trauskil hori, garaitzailerik eta garaiturik izan ez dadin, haiek abeniko-formula deritzotena. Hemen sasiatonketarako lekurik ez. Litekeena da halako arrazoimen endakatu eta koldarrak horrelako konpontze-formularik proposatzeraino heldu nahi izatea, arrazoimena, hertsiki, formuletatik bizi baita; baina bizitzak, formulazina izanik, bizitzak, bizi den eta beti bizi nahi duenak, ez du formularik onartzen. Haren formula bakarra hauxe da: oro edo ezer ez. Sentimenduak ez die erdiko bideei amore ematen.

Initium sapientiae timor Domini, esan zen, beharbada *timor mortis*, edo, agian *timor vitae* esan nahirik. Azkenean, beti agertzen da jakituriaren hasiera beldurra dela.

Eta orain mintzatzerako noakizuen eskeptizismo salbatzaile hau zalantza dela esan al daiteke? Zalantza da, bai, baina zalantza baino askoz ere gehiago ere bai. Zalantza, maiz, gauza erabat hotza izaten da, bizikortasunik bat ere ez duena eta, batez ere, gauza artifizioso samarra, Descartesek metodo-zereginera beheratu zuenetik. Arrazoimenaren eta bizitzaren arteko gatazka zalantza bat baino zerbait gehiago da. Zalantza elementu komikoa izatera erraz mugatzen delako.

Descartesen zalantza metodikoa zalantza komikoa da, duda teoriko hutsa, behinbehinekkoa; hau da, duda egin gabe, duda egiten duelako itxura egiten duenaren duda. Eta berotegiko duda zelako, pentsatzen zuenez gero, bera bazela konkluditu zuen gizonak ez zituen onartzen "humore zirimolatsu (*brouillonnes*) eta urduri horiek, ez beren jaiotzaz ez eta beren fortunaz ere arazo publikoak erabiltzera deituak ez direnak, horregatik beti ere ideiaz bederen nolabaiteko aldaketa egin nahi dutenak", eta bere idatzian ere honelako zerbait egon ahal izateak min ematen zion. Ez; berak, Descartesek, "bere pentsamenduak aldatu eta bere oinarri propioaren gainean zerbait eraiki" besterik ez zuen egin nahi. Eta, hortaz, egiazkotzat ebidentziaz haintzat ezagutzen ez zuen ezer ez hartzea erabaki zuen, eta besterengandik jasoriko aurreritzi eta ideia guztiak suntsitu, bere endelegu-egoitza berriro eraikitzeko. Baina "norbera bizi den etxea eraberritzen hasi aurretik, bera eraitsi, materialeak eta arkitektoak bildu, edo norberak ere arkitekturan ihardutea nahikoa ez den bezala..., aitzitik, lanean ari den

bitartean norbera eroso egon ahal izateko beste etxe bat eskuratu behar duenez gero" behin-behineko morala *-une morale de provision-* eratu zuen, horren lehen legea haren herriko ohiturei obeditzea eta Jainkoaren graziaz bere haurtzarotik irakatsia izan zen erlijioari etengabeki eustea izanik, beti ere bere burua eritzi moderatuenen araura gobernatuz. Tira, behin-behineko erlijioa, eta behin-behineko Jainko bat ere bai. Eta eritzi moderatuenak hautatzen zituen, "praktikarako erosoan" direlako. Baina aurrera ez segitzea hobe.

Kartesian duda hau, metodiko edo teorikoa, berotegiko duda filosofiko hau, ez da ni hemen mintzatzen natzaizueneko duda, eszeptizismoa edo segurtasunik eza, ez! Beste zalantza hau grinazko zalantza da, arrazoimenaren eta sentimenduaren arteko betiko gatazka da, zientziaren eta bizitzaren, logikaren eta biotikaren artekoa. Zeren zientziak nortasunaren kontzeptua suntsitzen baitu, berau mementuzko jario etengabea ari den multzo bihurturik, hau da, izpirituaren bizitzaren oinarria bera suntsitzen du, errendatu gabe arrazoimenaren aurka oldartzen dena.

Eta zalantza hau ezin balia daiteke inolako behin-behineko moralez; aitzitik, ikusiko dugunez, bere morala gatazkaren gainean eratu behar du, borrokako morala alegia, eta erlijioa bere buruaren gainean eratu behar du. Eta atergabe erortzen ari den eta atergabe eraiki behar den etxean bizi da. Borondateak, inoiz ez hiltzeko borondatea esan nahi dut, heriotzarekiko etsipenik ezak, bizitzaren egoitza mamitzen du atergabe, eta arrazoimenak, atergabeki, haize-erauntsiz eta zaparradez, hura eraisten dihardu.

Gehiago ere bada; izan ere, guri doakigun bizi-problema konkretu honetan, arrazoimenak ez du inolako jarrerarik hartzen. Zehazki, arimaren hilezintasuna ukatzea baino zerbait okerragorik ere egiten dihardu, hori irtenbide bat bailitzateke, eta problema, bizi-nahiak aurkezten digun eran, ezezaguna du. Problema berbaren adiera arrazional eta logikoan holako problemarik ez da. Arimaren hilezintasunaren kontu hori, norbanakoaren kontzientziaren iraupena delako hori, ez da arrazionala, eta arrazoimenetik kanpoan gelditzen da. Problematzat harturik, eman dakioken irtenbideaz landa ere, irrazionala dugu. Arrazionalki planteatzeak berak ere ez du zentzurik. Arimaren hilezintasuna bezain bururaezina da, zehazki arituz, haren hilkortasun absolutua ere. Mundua eta existentzia azaltzeko -eta horixe da arrazoimenaren lana- gure arima hilkor edo hilezkor dela uste behar izaterik ere ez dugu. Beraz, ustezko problema hori planteatzea bera ere irrazionaltasuna da.

Dantzugun Kierkegaard anaia, honela dioskuna: "Abstrakzioak duen arriskua existentziaren problemaz aritzean nabari da, horren zailtasuna, konpontzeko, saihestu egiten baitu, ondoren guztia azaldua duelako harrokeria agerturik. Hilezintasuna orokorrean azaltzen du, eta bikainkiro egiten du, hura betierekotasunaz identifikatuz; betierekotasunaz, pentsamenduaren helbidea denaz. Baina bana-banako gizaki existente bakoitza hilezin izateaz, egiazko eragozpenaz hain zuzen ere, horretaz ez da abstrakzioa arduratzen, ez zaio interesatzen; baina existentziaren zailtasuna existentzaren interesa da: existitzen denari existitzea infinituki interesatzen zaio. Pentsaera abstraktuak ez dio nire hilezintasunari balio, bakarkako banako existente gisa ni hiltzeko ez bada, horrela ni hilezin egiteko, gutxi gora-behera Holberg-en doktore haren antzera, bere medizinaz eritari bizia kentzen ziona, baina batera sukarra ere bai. Bere pentsaera abstraktuaren eta bera existentea delako egintzaren artean dagoen harremana argitu eta aitortu nahi ez duen pentsalari abstraktu bat kontsideratzen denean, den bikain eta aipagarriena izanik ere, horrek inpresio komikoa sorterazten digu, gizona gehiago ez izateko arriskua duelako. Benetako gizonak, mugagabetasunaz eta mugatasunaz osatuak, bere benekotasuna, hain zuzen, bi horiek elkarrekin mantentzean daukan eta mugagabeki existitzeaz ardura hartzen duen bitartean, bestelako pentsalari abstraktu hori, aldiz, izaki bikoitza da, abstrakzioaren izate soilean bizi den fantasiako izakia, eta batzuetan

esentzia abstraktu hura alde batera uzten duen irakasle baten figura tristea, eskumakila utziko balu bezala. Horrelako pentsalariaren bizitza irakurtzen denean -eta eskribu bikainak izan ditzake-, norberak dardar egiten du gizona izatea zer den ideiarenean. Eta bere eskribuetan pentsatzea eta izatea gauza bera dela irakurtzean, norberak pentsatu egiten du, haren bizitzan pentsaturik, pentsatzea bezalakoxea den izate hori, ez dela prezeski, gizona izatea" (*Afsluttende uvidenskabelig Efterskrift*, III. kap.).

Zer nolako grina, hau da, zer nolako egia daukan gorderik ziri-solasaldi mingots honek Hegelen aurka, arrazionalistaren prototipoa bera, sukarra kentzeko txutxuaz bizitza kentzen diguna, eta hilezintasun konkretuaren ordez, hilezintasun abstraktua prometatzen diguna, horren gosea, gu ahitzen gaituena, abstraktua, eta ez konkretua, balitz bezala!

Esan daiteke, bai, behin txakurra hilez gero, arrabiarik ez dela, eta ni hil eta gero ez nauela jadanik ez hiltzeko gose honek tormentatuko, eta heriotzaren, edo hobeki esan, ezerezaren beldurra beldur irrazionala dela, baina... Bai, baina... *E pur si muove!* Eta mugitzen segituko du. Horixe baita, izan, mugimendu ororen iturria!

Baina ez dut uste Kierkegaard anaia erabat zuzen dagoenik, pentsalari abstraktu edo abstrakzio-pentsalariak berak pentsatu, *izateko*, egiten duelako, izateari ez uzteko, edo, beharbada, izateari utzi beharko diola ahanzteko. Holakoxea da pentsamendu abstraktuaren grinazko hondoa. Eta baliteke Hegel bere existentzia berezi, konkretu eta bakarraz Kierkegaard bezain infinituki interesaturik egotea, Estatuaren filosofoaren lanbidezko itxura dotoreari eustearren, hori ezkututzen bazuen ere. Karguaren eskakizunak.

Hilezintasunaren baitako fedea irrazionala da. Eta, halere, fedeak, bizitzak eta arrazoimenak elkarren beharra dute. Bizi-irrika hori ez da, berez, problema, ezin har dezake egoera logikorik, ezin formula daiteke proposamen arrazionalki eztabaidagarritan, baina planteatu egiten zaigu, gosea planteatzen den bezala. Bere ehiziaren gainera irensteko, edo otsemearen gainera ernaltzeko, jauzi egiten duen otsoak berak ere ezin planteatu dezake bere oldarra arrazionalki eta problema logikotzat. Arrazoimena eta fedea bata bestea gabe ezin egon daitezkeen etsai bi dira. Irrazionalak arrazionaldua izatea eskatzen du, eta arrazoimenak irrazionalaren gainean baino ezin ihardun dezake. Batak besteari eutsi behar dio, eta elkartu. Baina elkartu, borrokan egin behar, borroka elkarte modu bat baita.

Bizidunen munduan, bizitzaren aldeko borroka, *the struggle for life* delakoak, elkarte bat, eta ezin hertsia goa, ezartzen du, eta ez soilki beste baten aurka borrokatzeko batzen direnen artean, elkarren aurka borrokatzen dutenen artean baizik. Eta, ba ote da elkarte sakonagorik, beste animalia bat jaten duenaren eta horrek jandakoaren artean, irenslaren eta irentsiaren artean trabatzen dena baino? Eta hau banakoen arteko borrokan argi ageri baldin bada, are argiago ageri da herrien artekoan. Gerra aurrerapen-faktore osoena izan da, merkatalgoa bera ere baino handiagoa. Gerrari esker ikasten dute elkar ezagutzen eta, horren ondorioz, elkar maitatzen, garaitzaileek eta garaituek.

Kristautasuna, gurutzaren eromena, Kristo gu birpizteko birpiztu zelako fede irrazionala, heleniar kultura arrazionalistak salbatu zuen, eta hau kristautasunak. Hau gabe, kristautasunik gabe, Ernazimendua ezinezkoa izango zatekeen; Ebangelioa gabe, Done Paulorik gabe, Erdi Aroa zeharkatu zuten herriek ez zuketzen ez Platon ez Aristoteles ulertuko. Tradizio arrazionalista hutsa tradizio erlijioso hutsa bezain ezinezkoa da. Eztabaida egin ohi da Erreforma sortu ote zen Ernazimendutik edo horren aurkako protestatik, eta gauza biak gertatu zirela esan daiteke, semea beti ere aitaren aurkako protestan jaiotzen delako. Era berean, esan ohi da klasiko greko birbizituek itzulerazi zituztela Erasmo bezalako gizonak Done Paulorengana eta hasierako kristautasunera, irrazionalenera; baina, alderantziz, kontraipa daiteke Done Paulo izan

zela, hots, haren teologia katolikoa sustatzen zuen irrazionaltasuna, haiek klasikoengana itzulerazi zituena. "Kristautasuna gaur izatera heldu dena antzinatearekiko aliantzari esker heldu -omen- da, kopto eta etiopiarren artean bufonada hutsa besterik ez den artean. Islama persiar eta greziar kulturaren eraginpean garatu zen, eta turkiarren pean inkultura birrintzaile bilakatu da"²⁵.

Erdi Arotik eta haren fede suhar bezain sakonean desesperatutik irten eta, segurgabetasun sakon eta barrukoak iraganez, arrazionalismoaren garaian sartzen gara, honen segurgabetasun eta guzti. Arrazoimenaren baitako fedea beste edozein federen sostengagaiztasun arrazional beraren menpean dago. Eta, Robert Browning-ekin batera, honela esan daiteke: "Geure fedegabetasunaz irabazi dugun guztia fedez anizturiko dudazko bizitza izan da, dudaz anizturiko fedezko bizitzaren ordezt".

All we have gained then by our unbelief

Is a life of doubt diversified by faith,

For one of faith diversified by doubt.

(Bishop Blougram's Apology)

Eta, izan ere, diodanez, fedea, bizitza, ezin sostenga badaiteke, bera besterenganagarri - eta batez ere norberaganagarri, hau da, erreflexu eta kontziente- bihur dezakeen arrazoimenaren gainean ez bada, eta arrazoimena, bere aldetik, ezin sostenga badaiteke fedearen gainean eta bizitzaren gainean ez bada, arrazoimenaren baitako fedean bederen, berori ezagutzeko baino zerbait gehiagorako balio duen, bizitzeko balio duen fedean. Eta halere, ez fedea da besterenganagarri edo arrazionala, ez arrazoimena da bizikorra.

Borondateak eta adimenak elkarren beharra dute, eta *Nihil volitum quin praecognitum* "ez da ezer nahi izaten aurretik ezagutzen ez denik" delako aforismo zahar hura alderantziz jartzea ez da lehen begi-kolpez dirudien bezain paradoxikoa, honela esanez: *Nihil cognitum quin praevolitum*, "ez da ezer ezagutzen aurretik gura izan ez denik". "Izpirituaren ezagutzak berak, hura haintzat harturik -idazten du Vinet-ek, Cousin-ek Pascalen *Pensamenduei* buruzko liburuaz egindako azterketan- bihotzaren beharra dauka. Ikusteko gurarik gabe, ez da ikusten; bizitzaren eta pentsaeraren materializazio handiz, ez da izpirituko gauzetan sinesten". Ikusiko dugunez, sinetsi, hasteko, sinetsi nahi izatea da.

Borondateak eta adimenak elkarren aurkako gauzak bilatu nahi dituzte: hark mundua guran xurgatzea, guretzeta, eta honek munduak gu xurgatzea. Aurkakoak? Ez al dira, funtsean, gauza bera? Ez, ez dira, horrela badirudi ere. Adimena monista edo panteista da, borondatea monoteista edo egotista da. Borondateak materia behar duen artean, adimenak, aldiz, ez du bere baitarik kanpo ezer behar iharduteko; ideietan beraietan urtzen da. Zerbait ezagutzea, ezagutzen dudana hori neure buru bihurtzea da; baina hartaz baliatzeko, menperatzeko, nigandik ezberdin egon behar du.

Filosofia eta erlijioa elkarren etsai dira, eta etsai direlako bata bestearen beharra dauka. Ez dago erlijiorik filosofiarik, ez eta filosofiarik ere erlijio-sustraiarekin ez duenik; bakoitza aurkakotik bizi da. Filosofiaren historia, hertsiki, erlijioaren historia da. Eta erlijioari ikuspegi ustez zientifiko edo filosofikotik zuzentzen zaizkion erasoak, ez dira aurkako beste ikuspegi erlijiosotik egindako erasoak besterik. "Zientzia naturalaren eta erlijio kristauaren artean gertatzen den elkarjotze hori ez da, egiaz, erlijio naturalaren instintuak, natur behapen zientifikoan urtuak, eta Unibertsoaren kristau kontzepzioaren balioak, izpirituari mundu natural guztian lehentasuna bermatzen dionak, elkarren artean darabiltena besterik" dio Ritschl-ek (*Rechtfertigung und Versöhnung*, III, IV. kapitulua, 28. §). Baina instintu hori, izan, arrazionaltasun-instintua bera da. Eta Kanten idealismo kritikoa erlijio-jatorria du, eta erlijioa salbatzeko gaintitu zituen Kantek arrazoimenaren mugak, hori eszeptizismoan nolabait

urtu ondoan. Hegelek bere idealismoa eraiki zueneko antitesi, kontraesan eta antinomien sistemak bere sustrai eta ernamuina Kantengan dauka, eta sustrai hori sustrai irrazionala da.

Geroago, fedea aztertzean, ikusiko dugu, hau, funtsean, borondate-arazoa besterik ez dela, eta ez arrazoimenarena, eta sinestea sinetsi nahi izatea dela, eta Jainkoarengan sinestea, ororen aurretik eta gaineratik, arima hilezina izatea nahi izatea, baina hain indar handiz nahi izatea dela! Eta honela, arimaren hilezintasunean sinestea, arima hilezina izatea nahi izatea da, baina hain indar handiz nahi izatea non nahikunde hori, arrazoimena zapalduz, haren gaindik iragaten baita. Ez, ordea, errepresaliarik gabe.

Ezagutzeko instintua eta bizitzekoa, edo hobeki esan, gainbizitzekoa, borrokan hasten dira. E. Mach doktoreak, bere "Sentsazioen analisisa eta fisikoak psikikoarekin duen harremana" bere obran (*Die Analyse der Empfindungen und das Verhältniss des Physischen zum Psychischem*), ohar batez (I, L, 12. §) dioskunez ikertzailea, jakintsua (*der Forscher*) bera ere, existentziaren aldeko batailan borrokan ari da, zientziaren bideek ere ahora daramate, eta gure egungo gizarte-egoeretan ezagutzeko instintu hutsa, *der reine Erkenntnisstrieb*, ez da ideal bat besterik. Eta beti honela izango da. *Primum vivere, deinde philosophari* edo, agian hobe, *Primum supervivere* edo *superesse*.

Arrazoimenaren eta bizitzaren, filosofiaren eta erlijioaren arteko akordio- eta harmoni jarrera iraunkor oro ezinezko bihurtzen da. Eta giza pentsaeraren historia tragikoa ez da besterik arrazoimenaren eta bizitzaren arteko borroka baino, hura jo eta ke berau arrazionaltzeko ahaleginetan, hau ekidinezinera, hilkortasunera, etsierazten; eta bere aldetik, bizitza, arrazoimena bizikortzen ahaleginduz, berarekin bere bizi-irriken euskarriztat baliatzeko. Eta hauxe da filosofiaren historia, erlijioaren historiatik ezin bana daitekeena.

Munduaren sentimendua, errealitate objektiboarena, nahitaez subjektiboa da, gizatiarra, antropomorfikoa. Eta arrazionalismoaren aurka bizikortasuna altxatuko da beti ere, arrazoimenaren aurka borondateak beti burua goratuko. Hortixek dator filosofiaren historiaren erritmoa, eta bizitza, forma izpiritualistak sorturik, gailen agertzen deneko garaien segida eta arrazoimena, forma materialistak sorteraziz, gailen azaltzen deneko beste garai batzuen, sinesteko era bata eta bestea bestelako izen batzuekin mozorrotu arren. Ez du arrazoimenak behin ere esten, ez eta bizitzak berak ere. Baina horretara hurrengo kapituluan itzuliko gara.

Arrazionalismoaren ondorio bizikorra suizidioa litzateke. Kierkegaardek oso ongi dio: "Suizidioa pentsaera hutsaren existentzi ondorioa da²⁶... Ez dugu suizidioa goraiatzeko, baina grina, ordea, bai. Pentsalaria, aitzitik, animalia pitxia da, eguneko zenbait alditan oso adimentsua; baina, gainerakoaz den bezainbatean, ez du gizonarekin zerikusirik bat ere". (*Afsluttende uvidenskabelig Efterskrift*, III. kap.1. §)

Pentsalariak, hala eta guztiz ere, gizona izaten segitzen duenez, arrazoimena bizitzaren zerbitzuan ipintzen du, jakinik edo jakin gabe. Bizitzak arrazoimena engainatzen du; eta beronek hura. Filosofia eskolastiko-aristotelikoak, bizitzaren zerbitzuan, metafisikaren sistema teleologiko eboluzionista mamitu zuen, itxuraz arrazionala, gure bizitza-irrikarako eustazpi baliagarria izan zedin. Filosofia hori, kristau ortodoxiaren naturaz gaindikotasun katoliko zein protestantearen oinarria, ez zen, funtsean, bizitzaren amarru bat besterik, horrela arrazoimena oinarritzera behartzeko. Baina honek hainbeste oinarritu zuenez gero, azkenean birrindu egin zuen.

Hyacinthe Loyson karmeldar ohiak Jainkoarengana lasai aurkez zitekeela zioen, bere kontzientziarekin eta bere arrazoimenarekin bakean omen zegoen eta. Zein kontzientziarekin baina? Erlijiosoarekin? Orduan ez dut ulertzen. Izan ere, ez dago bi ugazaba zerbitzatzetik, eta are gutxiago bi jaun horiek meniak, eta armistizioak, eta konponketak, sinatu arren, etsaiak direnean, elkarren aurkako interesak dituztelako.

Ez da faltako honi guztioni bizitzak arrazoimenaren pean makurtu behar duela dioenik, baina horri hauxe erantzuten diogu, inork ez duela ezin duena egin behar, eta bizitza ezin daitekeela arrazoimenaren peko izan. "Egin behar du; beraz, egin dezake", ihardetsiko du kantiarren batek. Eta guk kontra ihardetsiko diogu: "Ezin egin dezake; beraz, ez du egin behar". Eta ezin dezake, bizitzaren helburua bizitzea delako, eta ez ulertzea.

Ez da falta izan, halaber, hilkortasunera etsitzeko betebeharrak erlijiosoak mintzatu denik ere. Hau aberrazioaren eta zintzotasunik ezaren goren gailurra da jadanik. Eta zintzotasunaren kontu honetaz baten bat etorriko zaigu egiazkotasuna kontra jartzen. Hala biz, baina gauza biak oso ongi batera daitezke. Egiazkotasunak, arrazionala dela uste dudanarengako errespetuak, logikaz egia deitzen dugunak, kasu honetan gauza bat baieztatzen narama: gizabanakoaren arimaren hilezintasuna logikaz zentzuz kontrakoa da, irrazionala ez eze, kontrarrazionala ere bai; baina zintzotasunak, halaber, hau baieztatzen narama, ez dudala beste baieztapen horretan etsitzen, eta horren baliagarritasunaren aurka protesta egiten dut. Sentitzen dudana egia bat da, dakusadana, ukitzen dudana, dantzudana eta frogatzen zaidana bezainbateko egia gutxienez -nire ustez, egia handiagoa gainera-, eta zintzotasunak neure sentimenduak ez ezkutatzera behartzen nau.

Eta bizitzak, bere burua defendatzen duenak, arrazoimenaren ahulunea bilatu eta hori eskeptizismoan aurkitzen du, eta horrexerik atxekiz eta euskarri horri loturik burua salbatzen jartzen du ahalegina. Bere arerioaren ahuleria behar du.

Deus ez da segur; airean da guztia. Eta Lamennaisek, (*Essai sur l'indifférence en matière de religion*, III. zatia, 67. kap.) grinaz puzturik, honela hots egiten du: "Eta zer! Behin esperantza guztia galdurik eta begiak itxita, joango ote gara eskeptizismo unibertsalaren sakontasun mutuetan murgiltzera? Duda egingo al dugu pentsatzen eta sentitzen ote dugun, eta ba ote garen ere? Ez digu Naturak uzten; sinestera behartzen gaitu gure arrazoimena komentziturik ez dagoenean ere. Segurtasun absolutua eta zalantza absolutua era berean debeku ditugu. Mutur biren bitarte lainotsuan ari gara, izatea eta ezerezaren artean bezala, eskeptizismo osoak adimenaren ahitzea eta gizonaren erabateko heriotza lekarkeelako. Baina iraungitzea ez doakio; badu bere baitan suntsiketari meneragaizki jarkitzen zaion zerbait, ez dakit nik bizitzarekiko zer nolako fedea, haren borondateak berak ezin azpira dezakeena. Nahi zein nahi ez, sinetsi beharra du, obratu behar duelako, bere burua kontserbatu behar duelako. Haren arrazoimenak, bere burua besterik ez balentzu, guztiaz eta bere buruaz duda egiten irakatsiz, erabateko ekintzarik ezeko egoerara lerramake; bere buruari bera badela frogatu ahal izan baino lehenago ere hil egingo litzateke eta".

Arrazoimenak ez garamatza, hertsiki mintzatuz, eskeptizismo absolutura, ez! Arrazoimenak ez narama eta ezin naramake ba ote naizen dudatzera; arrazoimenak eskeptizismo bizikorrera narama; are hobeki, ezezko bizikortasunera; ez jada dudatzera, ene kontzientzia ene heriotzaz gero gainbiziko dela ukatzera baizik. Eskeptizismo bizikorra arrazoimenak eta nahiak elkar jotzetik dator. Eta elkar-jotze horretatik, desesperantza eta eskeptizismoaren arteko besarkadatik, segurgabetasun saindu, gozo eta salbatzailea sortzen da, gure kontsolamendu gorena.

Heriotza kontzientziaren erabateko, behinbetiko eta atzerazineko iraungiketa delako segurtasun absolutu eta osoak, triangelu baten hiru angeluek bi angelu zuzen balio dutela segur gauden moduko segurtasunak, edo gure kontzientzia pertsonala honelako edo halako egoeretan heriotzaz gero luzatzen delako segurtasun absolutu eta osoak, batez ere, betiereko sari edo gaztiguaren eranskin pitxi eta eratxekia sarreraziz, segurtasun biok, halaber, bizitzea ezinezko egingo ligukete. Halako gordeleku batean, izpirituak duen ezkutuenean, heriotzarekin bere kontzientzia pertsonala, bere oroimena,

betiko amaitzen dela komentaturik egon uste duenak berak ere agian jakin gabe, gordeleku hartan itzal bat, zirriborroko itzal bat, segurgabetasunaren itzalaren itzala gelditzen zaio, eta bere buruari honela mintzo zaion artean "Ea, bizi dezagun bizitza pasakor hau, besterik ez baita!", gordeleku haren ixiltasunak honela dio: "Batek jakin!..." Agian, ez dantzuelakoan dago, baina, entzun, badantzu. Eta geroko bizitzaz federik handiena gordetzen duen sineslearen arimaren tximur batean ere, ahots estali bat ere bada, segurgabetasunena, izpirituaren belarrira honela xuxurlatzen diona: "Batek jakin!...". Ahots hauek agian eltxoaren burrunbadatxo bezalakoak dira, haize-erauntsia oihaneko zuhaitzen artean abarrotsez dabilenean; ez gara burrunbadatxo horretaz konturatzen eta, halere, ekaitzaren zaratarekin batean, belarrira heltzen zaigu. Nola bizi gintezke, ezperez, segurgabetasun hau izan ezean?

"Eta baldin badago?", "eta baldin ez badago?" horiek geure barru-barruko bizitzaren oinarriak ditugu. Baliteke arimaren hilkortasunaz duen segurtasunaz behin ere duda egin ez duen arrazionalistaren bat egotea, eta hilezintasunaz duen fedean zalantzarik izan gabeko bitalistarik ere; baina horrek, gehienez ere, hau esan nahiko du: munstroak izaten diren bezala, badirela halaber, duketen adimen guztia gora-behera, atxekimenduzko edo sentimenduzko ergelak ere, eta adimenezko ergelak ere bai, haien bertutea oso handia izan arren. Baina normalean, ezin sinets diezaieket behin ere, begi-hertsirik laburren, ez eta bakartasun eta zoritxar handieneko orduetan ere, segurgabetasun horren zurrumurrua ez zaiela kontzientziaratu segurutzen didatenei. Ez ditut ulertzen heriotzaz bestaldeko perspektibak ez dituela inoiz tormentatu diostaten gizonak, ez eta beren buruen sunsiketatik kezkatzen ez direnak; eta neure aldetik ez dut neure bihotzaren eta neure buruaren artean, neure fedearen eta neure arazoimenaren artean, bakerik jarri nahi; nahiago dut beren artean borroka dagiten.

Ebangelioaren IX. kapituluaren Markoren arauz, gizon batek Jesus bere semea ikustera eraman zuela kontatzen zaigu, seme hura izpiritu batek preso baitzeukan, harrapatzen zuen edozein lekutan zatikatzen zuelarik, ahotik habuina jariaraziz, hortz-garraskotsa eraginez eta iharteraziz, eta horregatik aurkeztu nahi zion, senda zezan. Eta Maisuak, mirakuluak eta seinaleak besterik nahi ez zuten gizon haiez nekaturik, hots egin zuen: "O gizaldi sinesgabea! Noiz artean izanen naiz zuekin? Noiz arte jasan beharko zaituztet? Ekarzue hura enegana! (19. bertseta); eta ekarri zioten; Maisuak lurtean ihalozkatzen ikusi zuen, aitari hura noizdanik egiten zuen galdetu zion, honek semea haurra zenetik erantzun, eta Jesusek esan zion: "Baldin hori sinets ahal badezak, gauza guztiak dituk posible sinesten duenarentzat" (23. berts.). Eta orduan epileptiko edo deabruak hartuaren aitak hitz ernaldu eta betiereko hauekin erantzun zuen: "Sinesten diat, Jauna; lagun iezaioke nire fedegabetasunari!"(24. berts.).

"Sinesten diat, Jauna, hel hakio nire fedegabetasunari!" Honek kontraesan irudi luke, zeren, sinesten baldin badu, fidatzen bada, nola eskatzen dio jaunari bere federik ezaren alde etor dakion? Eta, halere, kontraesan horrexek ematen dio bere giza balio sakonen eta osoena deabruak hartuaren aitaren barru-barruko oiheri horri. Haren fedea segurgabetasunean oinarrituriko fedea da. Sinesten duelako, hau da, sinetsi nahi duelako, semea senda dakion behar duelako, eskatzen dio Jaunari datorrela bere fedegabetasunaren alde, halako sendaketa egin daitekeela duen zalantzaren fabore. Horrelakoa da giza fedea; horrelakoa izan zen Sancho Panzak bere ugazaba Don Quixote Manchako Zaldunaren baitan izan zuena, neure *Don Quixote eta Sanchoen bizitza*-n²⁷ erakutsi uste dudanez; segurgabetasunez, dudaz, eraturiko fedea. Eta, izan ere, Sancho Panza gizona zen, gizon osoa eta egiazkoa, eta ez zen ergela, holakoa izan balitz bere ugazabaren erokeriak, zalantza izpirik gabe, sinetsiko zituzkeen eta. Eta ugazabak ere, bere aldetik, ez zituen halakoak horrela sinesten, ez baitzen, eroa izan arren, ergela. Sakonean, desesperatua zen, goian aipaturiko nire obra horretan erakutsi

uste dudanez. Eta heroiko desesperatua zelako, desesperantza barnekor eta etsiaren heroia, horrexegatik dugu bera arima arrazoimenaren eta hilezintasun-nahiaren arteko borrokaleku bilakatua duen gizon guztien eredu betikorra. Don Quixote Jaun Gurea bere fedea segurgabetasunean oinarritzen duen pertsona bizikorraren adibidea da, eta Sancho bere arrazoimenaz duda egiten duen arrazionalistarena.

Duda torturagarrien oinazepean August Hermann Francke-k Jainkoari dei egitea erabaki zuen, jadanik sinesten ez zuen Jainkoari, edo, hobesanik, sinesten zuela uste ez zuenari, existitzen baldin bazen, Francke pietista gizaixoaz urriki izan zedin²⁸. Eta horren antzeko gogo-egoerak iradoki zidan "Ateistaren otoitza" izeneko sonettoa, nire *Soneto lirikoan Arrosarioa* -n ageri eta honela amaitzen dena:

...sufro yo a tu costa,

Dios no existente, pues si tú existieras,

*existiría yo también de veras.*²⁹

Bai, gure hilezintasun pertsonalaren Jainko bermatzailea balitz, orduan gu ere egiaz izango ginateke. Eta bestela ez!

Sekretu ikaragarri hura, Jainkoaren borondate ezkutu hura, predestinazioan mamitua, Luther-i bere *servum arbitrium*-a diktarazi zion ideia eta kalvinismoari bere zentzu tragikoa ematen diona, norbere salbazioari buruzko duda, funtsean ez da segurgabetasuna besterik, desesperantzarekin bat eginik fedearen oinarria eratzen duena. Fedea -batzuek diotenez- hartaz ez pentsatzea da; norbere burua Jainkoaren besoetara fidatuki eramatea, haren aurikusmenaren sekretuak ezin ikertuzkoak dira eta. Bai, baina fedegabetasuna ere hartan ez pentsatzea da. Fede absurdu hori, segurgabetasun izpiririk gabeko fede hori, ikazkin ergelen fede hori fedegabetasun absurduarekin batzen da, egitezko ergeltasunak jotako intelektualen fedegabetasunarekin, hartaz ez pentsatzeko.

Eta zer besterik zen amildegia, Pascal ikaratzen zuen *gouffre* ikaragari hura, segurgabetasuna, zalantza, arrazoimenaren ahotsa baizik? Eta horrexek formularazi zion esapide izugarri hura: *il faut s'abêtir*, lerdotu beharra dago!

Jansenismo osoak, kalvinismoaren egokitzapen katolikoak, zigilu hori darama. Euskaldun bati, Saint-Cyran abateari, -euskalduna, Eneko Loiolakoa eta lerro hauek idazten ditudan hau bezala- zor zitzaion Port Royal hark³⁰ bere barruan erlijio-desesperantzaren hondoa zeukan, arrazoimenaren suizidioarena. Enekok ere obedientzian hil zuen hura.

Desesperantzagatik baietz, desesperantzagatik ezetz esaten da, eta hargatik baieztu eta ezezteaz abstenitzen da norbera. Beha iezaiezue gure ateista gehienei, eta ikusiko duzue amorrugatik direla holakoak, Jainkorik badela ezin sinets dezaketelako amorrugatik. Jainkoaren etsai pertsonalak dira. Ezereza substantibatu eta pertsonaldu dute, eta haien Jainko-eza Anti-Jainkoa da.

Eta ez dugu ezer esan behar "Jainkorik ez balitz asmatu beharko litzateke" delako esaldi gaitzesgarri eta zitalaz. Hau kontserbadoreen eskeptizismo zatarraren adierazpena da, erlijioa gobernu-eragingailu bat dela uste dutenena, hemen beren interes mundutarren aurka jartzen direnentzat beste bizitzan infernua egoteko interesa dutenena. Saduzeu-esaldi nazkagarri hori, bera esan omen zuen boteretsuen zuritzaile fedegabe hari merezimenduz dagokio.

Ez, ez da hori zentzu bizikoi sakona. Kontua ez da polizia transzendente bat izatea, kontua ez da lurrean ordenua -eta nolako ordenua!- hil ondoko gaztigu-mehatxu eta betiereko sarien balakuekin zaintzea. Hori guztiori oso behean da, hau da, politika besterik ez da, edo etika, nahi bada. Eta kontua bizitzea da.

Eta segurgabetasunaren oinarri sendoena, gure bizi-nahiari gehienik kordokarazten diona, arrazoimenaren lan ezerezkorrari efikazia handiena demaiona, heriotzaz gero arimaren bizitza zerik izan litekeen kontsideratzean hasten zaigu. Izan ere, fede-ahalegin

boteretsua eginez, arima gorputz antolatuaren funtzioa dela dioskun arrazoimena garaituta ere, gero arimaren bizitza hilezin eta betierekoa zertsu izan daitekeen irudikatzea gelditzen zaigu. Irudikatze horretan kontraesanak eta absurduak ugaltu egiten dira eta, agian, Kierkegaarden ondoriora heltzen da, hots, arimaren hilkortasuna ikaragarria baldin bada, ez dela horregatik haren hilezintasuna lasaigarriagoa.

Baina lehen zailtasuna, egiazko bakarra, arrazoimenaren oztupoa, gauditua eta gero, heriotzaren ondoren gure kontzientzia pertsonalak iraungo duelako fedea berreskuraturik, hori den mingarriena eta segurgabetasunez inguratuena izanik ere, nolako zailtasuna, nolako oztupoa dago iraute horren irudia geure nahiaren neurrira egin dezagun? Bai, etengabeko gaztetze gisa irudika dezakegu, etengabeko handitze eta Jainkoaganatze gisa, Kontzientzia Unibertsaleranzko bide bezala, hara sekula ere heldu gabe; hura irudika dezakegu... Nork ezar diezaioke irudimenari trabarik, behin arrazoimenaren katea hautsi eta gero?

Jakin badakit astun egiten naizela, alhamenekoa, aspergarria beharbada; baina guztia behar da. Eta berriro ere errepikatu behar dut kontua ez dela polizia transzendentea, ez Jainkoa Epaile nagusi edo Goardia Zibil bihurtzea; hau da, arazoa ez da, gure moral mundutar urriari sostengu emateko, zerua eta infernua, ez eta zerbait berekoa eta pertsonala ere. Jokoa ari dena ez naiz ni, giza leinu osoa da; gure kultura guztiaren azken zertarako da. Ni bat naiz; baina guztiak ni-ak dira.

Gogoan al duzue "Basoilarren kantua", Leopardik, arrazoimenaren biktimak, sinestera heldu ez zenak, idatzia? "Denbora helduko da -dio- Unibertso hau eta Natura bera iraungiko direna. Eta giza erresuma eta enperadorego ezin handiagoetatik eta behiala ospe handikoak izan ziren ekintza miragarri haietatik gaur egun inolako seinale ez entzuterik geratzen ez den bezala, era berean mundu osotik eta sorturiko gauza guztien gorabehera eta zorigaitz infinituetatik ere ez da aztarnarik bat ere geldituko, eta halako ixiltasun biluziak eta gelditasun ezin sakonagoak beteko dute espazio neurgaitza. Honela, existentzia unibertsalaren arkano miresgarri eta izugarri hau, bere burua azaldu edo ulerterazi baino lehenago ere, ahitu eta galdu egingo da". Eta hori esateko, orain, berba zientifiko eta oso arrazionalista darabilte, *entropia*, alegia. Oso ederki, ez da? Spencer-ek hasierako lehen homogeneoa delako hura asmatu zuen, hartatik heterogeneotasunik nola sort zitekeen inork ez dakielarik. Ongi ba: entropiaren kontu hau ere nolabaiteko azken homogeneoa da, oreka hobezineko egoera. Bizi-antsia duen arimak ezerezari aurki diezaiokeen baliokide erabatekoena.

* * *

Ni irakurtzeko pazientzia izan duen irakurlea honaino ekarri dut, gogoeta mingarri batzuen bitartez, beti ere arrazoimenari bere parte eta sentimenduari ere berea ematen saiatuz. Ez dut ixildu nahi izan besteek ixiltzen dutena; biluzirik agerian utzi nahi izan dut, ez jada neure arima, giza arima baizik, hori dena delakoa delarik eta suntsitzekoa izan zein izan ez. Eta amildegia sakoneraino helduak gara, arrazoimenaren eta bizi-sentimenduaren adiskidezinezko gatazkara. Eta hona heltzean, gatazka hori haintzat hartu eta hortik bizi behar dela esan dizuet. Orain azaltzeko geratzen zait, nik sentitu eta pentsatu ere egiten dudanez, desesperantza hori bizitza kementsuaren oinarria nola izan daitekeen, ekintza efikazarena, etikarena, estetikarena, erlijioarena eta logikarena ere bai. Baina honi darraionak fantasiakorik bezainbat izango du arrazoiketazkorik; hau da, askoz ere gehiago.

Ez dut inor engainatu nahi, ez eta filosofiatzat eman, beharbada poesia edo fantasmagoria, mitologia edonola ere, besterik ez datekeena. Platon jainkozkoa, *Fedon* bere elkarrizketan arimaren hilezintasunaz eztabaida egin ondoren -hilezintasun idealaz, hau da, gezurrezkoaz- beste bizitzari buruzko mitoak azaltzen abiatu zen, mitogintzan ere aritu beharra dagoela esanez. Goazen, bada, mitogintzan aritzera.

Arrazoen bila dabilena, hertsiki hala deitzen ditugunak, hots, argudio zientifikoak, kontsidero teknikoki logikoak, halakoak hobe luke ez balerrait. Sentimendu tragikoari buruzko gogoeta hauez geratzen dena, irakurlearen arreta amu biluziaz arrantzatuko dut, beitarik gabe; pikan egin nahi duenak pikan egin dezala, baina nik ez dut inor engainatzen. Azkenean baino ez dut dena biltzeko asmorik, eta esaten nizuen desesperantza erlijioso hau, bizitzaren sentimendu tragikoa bera besterik ez dena, era aski edo gutxi estariaz, gaur egungo gizabanakoen eta herri landuen kontzientziaren hondoa bera delako eritziari eutsiko diot; hau da, ez ergeltasun intelektualik ez ergeltasun sentimentalik pairatzen ez duten gizabanakoena eta herriena.

Eta sentimendu horixe da egintza heroikoen iturria.

Jarraikoan apotegma arbitrarioak, iragaketa zakarrik, jarraitasunezko soluziorik, pentsamenduaren egiazko jauzi hilgarririk topatzen baduzue, ez esan engainaturik zenbiltzatela. Sartu egingo gara, lagundu nahi banauzue behintzat, sentimenduaren eta arrazoiketaren arteko kontraesan-arloan, eta bataz eta besteaz baliatu beharra izango dugu.

Honi darraiona ez zait arrazoimenetik jalgi, bizitzatik baizik, hori zuenganatzeko, nolabait, arrazionaldu behar izan badut ere. Horretatik gehiena ezin laburbil daiteke teoria edo sistema logikotan, baina Walt Whitman-ek, poeta *yankee* handigaitzak bezala, nitaz eskola edo teoriarik ez fundatzeko agintzen dizuet.

I charge that there be no theory or school founded out of me.

(Myself and Mine)

Eta ondoren etortzeko diren fantasiak ere, ez dira nireak, ez! Negar-haran honetan ene aurretik ibili diren eta beren bizitza kanpora atera eta adierazi duten beste gizon batzuen fantasiak ere badira, eta ez prezeski pentsalarienak. Haien bizitza, diot, eta ez haien pentsamendua, hori bizitza-pentsamendua zen neurrian izan ezik; oinarri irrazionalako pentsamendua.

Esan nahi al du honek ikusteko dugun guztia, irrazionaltasunak bere burua adierazteko ahalegina, erabat irrazionaltasunik gabea dela, ezein ere balio objektiborik ez duela? Ez; absolutuki eta ezinbestean irrazionala eta adieraztezina dena, besterenganaezina da. Baina kontrarrazionala, ez. Agian ez dago irrazionala irrazionaltzeko modurik; baina badago kontrarrazionala irrazionaltzekoa, bera azaltzen ahaleginduz. Adigarria, egiaz adigarria, irrazionala besterik ez denez gero, eta absurdua, zentzurik ez duelako, besterenganaezina izatera kondenaturik dagoenez, horrela ikusiko duzue irrazionala edo absurdua dirudien zerbait norberak adieraztea eta besteek ulertzea lortzen duenean, hura beti irrazionala den zerbaitetan gauzatzen dela, baieztatzen denaren ukoan izan arren.

Fantasiaren ametsik eroenek ere arrazoi-kondarren bat edukitzen dute, eta nori daki gizon batek irudika dezakeen oro ez ote den gertatu, gertatzen edo gertatuko holako edo halako munduren batean. Daitezkeen konbinaketak agian infinituak dira. Jakiteko gelditzen den bakarra hau da, ea irudikagarri den guztia daitekeena ere ote den.

Era berean, esan daiteke, eta justiziaz, azaltzeko dudarik asko lehenago ehun aldiz azaldu eta beste ehun aldiz gezurtaturiko ideiak errepikatzea dela; baina ideia bat berriro errepikatzen denean, hertsiki, ez zen aurretik egiaz gezurtatua izan. Ez ditut fantasia hauetako gehienak berritatzat agertu nahi, nirea baino lehenago, kexa berbera haizetara jaurtikiz, beste ahots batzuk ere ozenki aditu direla, ezkutatu nahi ez dudana bezala. Baina betiko kexa berbera, beste aho batetik jalgia, berriz itzultzeak oinazeak iraun dirauela besterik ez du esan nahi.

Eta komeni da berriz ere betiereko deitoreak errepikatzea, Job-en eta *Eklesiastesaren* garaian jadanik zahar zirenak, hitz berberekin errepikatuak izan arren, aurrerazaleek hori inoiz hiltzen ez den zerbait dela ikus dezaten. *Eklesiastesaren* hutsalckerien hutsalckeria edo Joben kexak bereganatuz, oraindik hitzez hitz errepikatzen dituenak,

besteri oharterazteko obra bat egiten du. *Memento mori* etengabeki errepikatzen aritu behar da.

Zertarako? Galdetuko duzue. Zenbaitzuk haserre daitezene besterik ez bada ere, eta hori ez dela hil, hori, gizonik dagoen bitartean, ezin hil daitekeela ikus dezaten; gaur, XX. mendean, iragan mende guztiek, eta guztiek bizirik, iraun dirautela argi ikus dezaten. Ustezko errakuntza bat bera ere atzera agertzen denean, hori, sinets ezazue, zatiz bederen, ez dela inoiz urrundu egia izatetik; lagun bat berragertzen denean bezala, guztiz hil ez zelako seinale.

Bai, badakit nik baino lehenago beste batzuek ere sentitu dutela neuk sentitzen eta adierazten dudana; eta beste anitzek ere sentitzen dutela gaur, ixiltzen badute ere. Zergatik ez dudan nik ere hori ixiltzen? Hori sentitzen duten gehienek ixiltzen dutelako; baina ixildu arren, ixilik erraietako ahots horri obeditzen diote. Eta ez dut ixiltzen, hori, askoren ustez, esan behar ez dena delako, hots, infandua *-infandum-* eta uste dut beharrezkoa dela behin eta berriro esan behar ez dena esatea. Horrek ez daramala inora? Aurrerazaleak, egia kontsolamendua dela uste dutenak, horiek haserrera besterik ez balerama ere, ez luke gutxitara eramango. Horiek haserrera eta hauxe esaneraztera: "Bai gizon penagarria! Adimendua hobeki balerabil...!" Eta horri norbaitek, beharbada, zer diodan ere ez dakidala erantsiko dio, eta nik erantzungo diot beharbada arrazoia izan dezakeela -eta hain da gutxi arrazoia izatea!-, baina diodana sentitzen dudala eta diodana badakidala, eta nahikoa dudala. Eta hobe dela norberari arrazoia faltan izatea, soberan izatea baino.

Eta ni irakurtzen segituko duenak ikusiko du, halaber, desesperantzazko amildegi honetatik esperantzarik ere jaulki daitekeela, eta kritika-jarrera hau ekintza eta lan gizatiarraren iturri izan daitekeela, sakonki gizatiarra, eta elkartasunarena, eta aurrerapenaren iturri ere bai. Ni irakurtzen segituko duenak haren justifikazio pragmatikoa ikusiko du. Eta ikusiko du, obratzeko, eta efikaziaz eta moralki obratzeko, elkarren aurkako segurtasun bi horietatik bat ere ez dela behar, ez fedearena ez arrazoimenarena, eta are gutxiago -hau da, inoiz ere ez- arimaren hilezintasunaren problematik saihestu edo bera idealistikoki, hau da, era hipokritaz desitxuratzea. Irakurleak ikusiko du nola segurgabetasun hori, eta horren samina eta hortik irteteko borroka alferra, ekintza-oinarri eta moral-zimendu izan daitekeen eta, izan ere, horrela den.

Eta segurgabetasunaren sentimendua eta arrazoimenaren eta fedearen arteko barne-borroka eta betiereko bizitzaren irrika ekintza-oinarri eta moral-zimendu izanik, pragmatista baten arauz, justifikaturik legoke horrelako sentimendua. Baina argi utzi behar da nik ez diodala bilatzen ondorio praktikoa hau bera justifikatzeko, barne-esperientziaz aurkitzen dudalako baizik. Ez diot inolako justifikaziorik bilatu nahi, ez eta behar ere, barneko borroka- eta segurgabetasun- eta irrika-egoera horri; egintza bat da, eta kito. Eta norbaitek hartan, amildegia sakonean dagoelarik, han ekintzarako eta bizitzeko motiborik eta pizgarriak aurkitzen ez badu eta, beraz, gorputzez edo izpirituz suizidatu egiten baldin bada, bere burua hilez edo giza elkartasuneko lan orori uko eginez, ez naiz ni izango hori gaitzetsiko diodana. Bestalde, doktrina baten ondorio txarrek, hau da, guk txarrak deitzen ditugunek, berriro diot, doktrina hori gure nahietarako txarra dela besterik ez dute frogatzen, baina ez, ordea, faltsua denik; ondorioak, doktrinaren arauera baino gehiago, horiek ateratzen dituenaren arauerakoak izaten dira. Printzipio berberak bati iharduteko balio dio eta beste bati ihardunean ez aritzeko; honi halako bidean iharduteko, eta hari aurkako bidean iharduteko. Eta, izan, gure doktrinak, ez dira gure portaeraren *a posteriori*-ko justifikazioa besterik izaten, edo hura geure buruari azaltzen ahalegintzen gareneko modua.

Gizona, izan ere, ez da abenitzen bere portaera propioaren mugigarriak jakin gabe egotera, eta pertsona batek, behin hipnotizatu eta gero, halako edo holako egintza iradoki ondoren, bere egintzaren egiazko kausa jakin gaberik, hura justifikatu eta bere eta besteen begietarako logiko bihurtzeko arrazoiak asmatzen dituen bezala, era berean, beste edozein gizonek ere, hipnotizatua bera ere, bizitza ametsa baita, bere portaerarako arrazoiak bilatzen ditu. Eta xake-jokoaren piezek kontzientziarik balute, errazki pentsa lezakete beren mugimenduen erabakimena dutela; hau da, horien helburuen arrazionaltasuna. Eta honela, ondorioz, teoria filosofiko orok etika bat, portaera-doktrina bat, azaldu eta justifikatzeko balio du, horiek, egiaz, beraren autorearen barne-sentimendu moraletik sortuak izan arren. Baina sentimendu horren benetako arrazoi edo kausaz, agian, ez du berori barruan daukanak ere kontzientzia argirik.

Honi jarraituz, uste dut hau suposatuta ahal dudala, hots, neure arrazoimenak, nolabait gizatasunezko ene neba-arreben arrazoimenaren parte ere denak, denboran eta espazioan, amaigabeko bizitzaren irrikaz halako eskeptizismo absolutua irakasten baldin badit, ene bizitzaren sentimenduak, aldiz, bizitzaren beraren esentzia denak, nire bizikortasunak, bizitzeko dudak gogo ezin geldituzkoa eta hiltzeko dudak higuinak berak, heriotzarako neure etsipenik ez honek arrazoimenaren obrari kontra egiten saiatzeko doktrinak iradokitzen dizkidala. Ba al dute doktrina hauek balio objektiborik? galdetuko dit norbaitek, eta nik erantzungo diot ez dudala ulertzen doktrina baten balio objektibo delako hori zer den. Ez dut esango bizierazten nautenak orain azaltzera noan doktrina aski edo gutxi poetiko edo ezfilosofikoak direnik, baina esatera ausartzen naiz, behintzat, doktrina horiek neure bizitzeko irrikak, eta betiko bizitzekoak iradokitzen dizkidala. Eta horiekin beste pertsona batengan irrika berberori, agian ahuldua, berretzea eta eustea lortzen baldin badut, giza lana egingo dut eta, batez ere, bizi egingo naiz. Hitz batez: arrazoiak, arrazoirik gabe edo horren aurka, ez dudala hiltzeko gogorik. Eta azkenean hil nadinean, guztiz baldin bada, ez naiz ni hilko, hau da, ez diot neure buruari hiltzen utziko; aitzitik giza patuak hilko nau. Burua galtzen ez badut, edo burua baino hobe, bihotza, nik ez dut bizitzatik dimititzen; hartatik destituituko naute.

Eta ez da ezer lortzen baikortasun eta ezkortasun hitz baliobikoak darda gainera ekartzearekin, horiek darabiltzanak esan nahi ziguna barik, maiz alderantzikoa esaten digute eta. Doktrina bati ezkor gaitzizena jartzea ez da haren balioa kondentatzea, eta baikor deituak ere ez dira horregatik ekintzan efikazagoak izaten. Aitzitik, uste dut, heroi handienetako asko, agian handienak, desesperatuak izan direla, eta desesperantzaz amaitu zituztela beren balentriak. Eta hortik aparte, duten baliobikotasuna eta guzti, baikortasun eta ezkortasun izendapenok onarturik ere, egon daiteke halako ezkortasun transzendentea ere, baikortasun denborazko eta lurtarraren sortzailea, tratatu honen ondoko orrialdeetan garatzen saiatuko naizena.

Oso bestelakoa da, ongisko dakit, gure aurrerazaleen jarrera, *gaurregungo europar pentsaera nagusiaren korrontekoena*; baina ezin molda naiteke subjektu horiek problema nagusiari borondatez begiak itxi eta, bizitzaren sentimendu tragikoa ito nahirik, gezur baten sakonean bizi direlako ideia horretara.

Eta kontsidero hauek eginda, tratatu honen lehen sei kapituluetan garaturiko kritikaren laburbilduma praktiko gisa, bizitzari uko egin nahi ez eta arrazoimena ere ukatu nahi ez duena, eta arima birrintzen diguten bi errotari horien artean bizi eta ihardun behar duena, halako kritikak nolako jarrera praktikora eraman dezakeen ongi ezarriarik uzteko modua direlarik, hemendik aurrera jarraikiko zaidan irakurleak badaki arrazoirik faltako ez duten arren, sentimendutan oinarrituriko fantasien arlora eramango dudala, arrazoirik gabe ez baitu ezerk irauten. Eta haien egiari doakionez, egiazko egiaz, gugandik erabat independente denaz, gure logikatik eta gure bihotz-arlotik landa dagoenez, horretaz, nork zer daki!?

VII
MAITASUNA, OINAZEA, ERRUKIA ETA
NORTASUNA
CAIN .

Let me or happy or unhappy, learn.

To anticipate my immortality.

LUCIFER. *Thou didst before I came upon thee.*

CAIN. *How?*

LUCIFER. *By suffering.*

LORD BYRON, *Cain*, Act II, scene 1.

Maitasuna da, irakurle eta neba-arreba neureok, munduan eta bizitzan denik tragikoena; maitasuna engainuaren ume eta desengainuaren aita da; maitasuna kontsolamendua eta deskontsolamendua da, heriotzaren aurkako medizina bakarra, izan, haren arreba denez gero.

Fratelli, a un tempo stesso, Amore e Morte

Ingenerò la sorte,

Leopardik kantatu zuen bezala.

Maitasuna, maitatuaren bitartez, horrengandik urrutiago den zerbaiten bila ari da furiaz, eta aurkitzen ez duenez gero, desesperatu egiten da.

Maitasunaz mintzo garen guztietan oroitzapenaren aurrean maitasun sexuala ohi dugu, giza leinua lurrean iraunerazteko, gizonaren eta emakumearen arteko maitasuna. Eta horrexek darama maitasuna, beraren alde sentimentala edo, nahi bada, zentzumenezkoa bazter utzirik, adimen hutsezkoa edo nahi hutsezkoa ezin laburbiltzera. Zeren, maitasuna, funtsean, ez baita ideia ez gura izatea; areago da nahia, sentimendua; izpirituan ere, haragizko zerbait da. Maitasunari esker izpirituak haragizkorik duen guztia sentitzen dugu.

Maitasun sexuala bestelako maitasun ororen eredu sortzailea da. Maitasunean eta horren bitartez irauneraztea bilatzen dut, eta lurraren gainean ez dugu geure burua iraunerazten, hiltzearen truke ez bada, beste bati geure bizitza eskainiz. Animalitxo apalenak, bizidun ñimiñoenak, ugaltzeko, zatitu egiten dira, beren burua apurtuz, lehen ziren bat hura izateari utziz.

Baina horrela, espezieetik zatikatuz, horrela ugaltzen den izakiaren bizitasuna azkenean agortu eta gero, noizik behinean bizitzaren iturria berriztatu beharra dauka bi banako jauskorren batuketaz, protozoengan uztardura deitzen denaren bidez. Batu egiten dira, ondoren berriz ere oldar handiagoz zatitzeko. Eta birsortzeko edozein egintza, lehen izaten zena, osorik edo zatiz, izateari uztea da, erdibitzea da, zatikako heriotza. Bizitzea norbere burua ematea da, irauneraztea, eta irauneraztea eta burua ematea hiltzea da. Agian sorteraztearen atsegin gorena heriotzaren dastatze aurretiarra besterik ez da, norbere bizi-esentziaren urraketa. Beste batekin batzen gara, baina gu zatitzeko besterik ez da; barren-barreneko besarkada hori ez da barren-barreneko urraketa handiagoa besterik. Bere funtsean, maitasunezko atsegin sexuala, iharrosaldi genesikoa, birbizteko sentazioa da, besterengan birbiztekoa, iraunerazteko, birbiztu besteengan baino ezin egin gaitzeko eta.

Sakonean maitasunak badu, dudarik ez, tragikoki birrintzaile den zerbait, bere jatorrizko animalia itxuran, arra eta emea beren erraiak furia estuan elkarbiltzera bultzatzen dituen gaindiezinezko instintuan, ageri zaigun bezala. Gorputzak elkarbiltzen dizkien horrek berak, aldentzen dizkie, nolabait, arimak; besarkatzean, elkar maite duten bezainbat gorroto diote elkarri, eta, batez ere, borroka, borroka egiten dute oraindik bizi gabea den hirugarren baten alde. Maitasuna borroka da, eta animalia espezie batzuetan arra

emearekin batzean hark bestea gaizki kolpatzen du, eta beste batzuetan emeak, behin ernaldu eta gero, arra jaten du.

Maitasuna elkarrekiko berekoitasuna omen da. Eta, izan ere, maitale batak bestea eduki nahi du, eta haren bidez, hori pentsatu eta helburu izan gabe, bere irauneraztearen bila dabilelarik, ondoren bere atsegina bilatzen du. Maitaleetako bakoitza berehalako atseginerako eta berehala iraunerazteko tresna da bestearantzat. Eta horrela tirano-esklabuak dira, haietako bakoitza, aldi berean, bestearen tiranoa eta esklabua delarik.

Ba al du, hortaz, deus arrarorik zentzu erlijioso sakonenak haragizko maitasuna kondenatua izatea, birjintasuna goraiatuz? Zikoizkeria bekatu ororen iturria da, zioen Apostoluak, zikoizkeriak aberastasuna, berez bidea dena, helburutzat hartzen duelako, eta bekatuaren erraia horixe da, bideak helburutzat hartzea, helburua ezezagutu edo gutxiatea. Eta haragizko maitasuna, irauneraztea hartu beharrean, berau helburua baita, atsegina, berez bide besterik ez dena, helburutzat hartzen duena, zer da zikoizkeria besterik? Eta daitekeena da bere burua hobeki iraunerazteko, birjintasuna gorde nahi duenik izatea. Eta haragia baino zerbait gizatiarragoa iraunerazteko.

Izan ere, lurraren gainean maitaleek iraunerazten dutena minaren haragia da, oinazea da, heriotza da. Maitasuna anaia, semea eta, aldi berean, aita da herioarena, hau haren arreba, haren ama eta haren alaba izanik³¹. Eta horrela, maitasunaren sakonean etengabeki desesperatzeko sakontasuna datza, eta hortixek sortzen dira esperantza eta kontsolamendua. Izan ere, mintzatzen ari naizeneko haragizko eta hasiera-hasierako maitasun honetatik, gizartearen animala jatorria izanik, gorputz osoak bere zentzu guztiekin duen maitasun honetatik, maitemintze honexetatik sortzen dira maitasun izpiritual eta mingarria.

Maitasunaren beste era hori, maitasun izpirituala, oinazetik jaiotzen da, haragizko maitasunaren heriotzatik sortzen da; eta jaio ohi da, halaber, gurasoek haur indargeen aurrean izaten dituzten babesteko sentimentu errukiorretatik. Maitaleak ez dira heltzen elkar maitatzera beren burua alde batera utzirik, beren arimak batean egiazki urtuz, eta beren gorputzez zer esanik ez, oinazearen mailu boteretsuak haien bihotzak birrindu eta penaren almaitz berean eho arte. Maitasun sensualak haien gorputzak elkarrekin nahasten zituen, baina haien arimak aldentzen; bata arrotz mantentzen zuen bestearekiko; baina maitasun horretatik haragizko fruitua izan zuten, ume bat. Eta heriotzatan sorturiko ume hori, beharbada gaixotu eta hil egin zen. Eta haragiz biltze eta izpirituzko aldentze edo elkarri arrotz erizte horren fruituaren gainean, haien gorputzak aldendurik eta oinazez hotzik, baina haien arimak saminean batean urturik, maitaleek, gurasoek, desesperantzako besarkada eman zioten elkarri, eta orduantxe jaio zen, haragizko semearen heriotzatik, egiazko maitasun izpirituala. Edo bestela, elkar biltzen zituen haragizko lotura behin hautsi eta gero, askapen-zizpuruaz arnasa egin zutelako. Izan ere, gizakiek ez dute elkar maitasun izpiritualaz maitatzen, oinaze berbera elkarrekin sufritu dutenean izan ezik, oinaze berean batera uztarturik zenbait denboraz lur harrizua goldatzen ibili ondoan ez bada. Orduan elkar ezagutu eta elkar sentitu zuten, eta beren miseria amankomunean sentikidetu ziren, elkarri erruki izaneta batak bestea maitatu zuen. Maitatzea, izan, errukitzea baita, eta gorputzak atseginak elkartzen baitu, arimak, aldiz, penapean uztartzen.

Hori guztiori are argiago eta bortizkiago sentitzen da Patuaren diamantezko legeen aurka borrokatu behar duten maitasun tragiko horietako bat, hots, desorduan edo sasoi txarrean jaiotzen diren maitasun horietako bat, mementua baino lehenago edo geroago edo munduak, ohiturak azken buruan, onar ziezaiekeen arauetik kanpoan mamitua erne, sustraitu eta hazten denean. Patuak eta munduak eta beren legeak zenbat eta maitaleen artean harresi gehiago jarri, hainbat indar handiagoz sentitzen dira elkarrengana bultzaturik, eta elkar maitatzeko poza mingosten zaie, eta agerian eta askatasunez elkar

ezin onerizteko oinazea dute handitzenago, eta bihotzaren erroetatik bata bestea errukitzen du, eta elkarrekiko erruki honek, haien miseria komuna eta zorion amankomuna denak, haien maitasunari sua eta jakia ematen die. Eta beren poza sufritzen dute, beren sufrikarioaz poztuz. Eta beren maitasuna mundutik kanpoan ipintzen dute, eta Patuaren uztarripeko maitasun sufrikor gaixo horren indarrak beste mundu bat intuierazten die, lege bakartzat maitasunaren askatasuna izango duena, beste mundu bat langarik gabea, han haragirik ez baita. Izan ere, ezerk ez zaituzte beste mundu baten esperantzan eta fedean gehiago blaitzen, haragizko eta itxurazko mundu honetan gure maitasuna egiaz fruitukor ezin bihurtzeak baino.

Eta amaren maitasuna, zer da ahulaz, indargeaz, amaren esnea eta altzoa behar duen haur babesgabeaz erruki izatea besterik? Eta emakumeagan maitasun oro amatasunezkoa da.

Izpirituz maitatzea errukitzea da, eta gehien errukitzen denak, horrexek maitatzen du gehien. Izan ere, beren lagun hurkoenganako maitasunean izekiriko gizon horiek beren miseria propioaren, beren agerkeriaren, beren ezteuskeriaren sakoneraino heldu dira, eta horrexegatik, beren begiak, horrela irekiak, beren antzekoengana itzuliz, horiek ere miserable, agerkeria huts, ezteusgarri ikusi dituzte, eta ulertu eta maitatu egin dituzte.

Gizonak maitatua izateko antsia du edo, berdin esan, errukitua izateko antsia du. Gizonak bere nahigabeak eta minak sentituak eta erdibanatuak izatea nahi du. Erremusina lortzeko trikimailu hutsa baino zerbait gehiago ere bada bide-bazterrean ibiltariari beren zauria, beso- edo hankondo zornetsua erakusten dioten eskeko horiengan. Erremusina, bizitzako lanak arintzeko sokorrua baino gehiago, errukia da. Ez dio eskekoak erremusina eskertzen bera ez ikusteko eta ondotik aldentzeko burua bestaldera biratzen duenari; aitzitik, eskertzenago du sokorru gabeko errukia, erruki gabeko sokorrua baino, bestaldetik hau nahigo badu ere. Ikusazue, ezpere, nolako pozaz kontatzen dizkion bere koaitak horiek entzunez hunkitzen denari. Errukitua izan nahi du, maitatua.

Nioenez, emakumearen maitasuna, batez ere, bere funtsean gupidatsua da, amatasunezkoa. Emakumea maitalearen aurrean errendatzen da nahiarekin sufritzen sentitzen duelako. Elisabete, Laurentiz errukitu zen; Julietta, Romeoz; Frantzeska, Paulo. Emakumeak honela dioela dirudi: "Hator, ene gaixoa, eta ez ezak horrenbeste sufri enegatik!" Eta horregatik haren maitasuna gizonarena baino amoltsuago eta garbiagoa da, adoretzuagoa, eta luzeagoa ere bai.

Errukia da, beraz, giza maitasun izpiritualaren esentzia, halaxe izateko kontzientzia duen maitasunarena, animaliar hutsa ez den maitasunarena, pertsona arrazionalaren maitasuna, azken buruan. Maitasunak gupidesten du, eta zenbat eta maiteago, gupidatsuago.

Nihil volitum quin praecognitum hura alderantziz jarrita, *nihil cognitum quin praevolitum* esan nizuen, hots, ez dela ezer ezagutzen nola edo hala aurretik gura izan ez denik, eta esan daiteke ezin ezagut daitekeela ezer, hura maitatzen eta errukitzen ez bada.

Maitasuna handitzean, harago eta barrurago nahi duen suzko antsia hori, dakusan guztira hedatuz doa, guztiaz errukituz doa. Heure baitan barnetzen haizen neurrian eta heure baitan sakonduz hoan ginoan, heure ezdeustasuna aurkituz hoa, ez haizela haizen guztia, ez haizela izan nahi hukeena, ez haizela, azken finean, ezdeuskeria besterik. Eta heure ezdeuskeria propioa ukitzean, heure hondo iraunkorra ez sentitzean, heure infinitutasun propiora eta, are gutxiago, heure betierekotasunera ezin heltzean, bihotz osoaz heure buruaz errukitzen haiz, eta heure buruarenganako maitasun mingarritan izekitzen haiz, eta hori ez duk hire buruaz plazer sentsual hartzea moduko bat besterik, heure arimaren haragia bere buruaz gozatzea gisako zerbait.

Norbere buruaganako maitasun izpiritualari, nork bere buruarekin duen errukiari, beharbada egotismo dei dakioko; baina hori egoismo arruntetik urrunen dagoena da. Izan ere, heure buruari dioan maitasun edo erruki horretatik, desesperantza trinko horretatik, jaio aurretik izan ez hintzenez, era berean hil eta gero ere izango ez haizelako, agerkerian dituan hurko eta neba-arreba guztiez errukitzera, hau da, beren ezerezetik beren ezerezero desfilatzen diren itzal miserable horiek, kontzientzi txinpartak betierekoaren ilunbe mugagabeetan une batez distira egiten dutenak maitatzera, pasatzen haiz. Eta gainerako gizonengandik, heure antzekoengandik hasita, antzekoenak, heure bizikide dituanetan zehar iraganez, bizi diren guztiez errukituko haiz, bai eta agian bizirik egon ez arren, existitu, existitzen denaz ere. Gauean han goian ñir-ñir ari den izar urrun hura egunen batez itzali eta hauts bihurtuko da, eta ez du gehiago distirarik egingo, ez eta existituko ere. Eta horren antzera, zeru izarratu guztia ere. Zeru gaixoa!

Eta egunen batez izateari utzi beharra mingarria baldin bada, agian mingarriagoa izan liteke oraino, beti norbera izan behar izatea, eta norbera besterik ez, aldi berean beste bat ere izan ezinik, batera gainerako guztia ere izan ezinik, guztia izan ezinik.

Unibertsoari begiratu ahal dioan hurbilen eta barrenenik so egiten badiok, heure baitan, hain zuzen; gauza guztiak heure kontzientzian, haiek guztiek beren oinatz mingarria utzi duten lekuan, behatu ez baina, sentitu egiten badituk, ez bizitzaren, zerbait gehiagoren, asperkizunaren barru-barruraino helduko haiz: existentziaren asperkizunera, hutsalkerien hutsalkeriaren putzura. Eta horrelaxe helduko haiz guztia ulertzer, maitasun unibertsalera.

Oro maitatzeko, oroz, gizatiarraz eta gizakiz kanpokoaz, bizidunaz eta bizigabeaz errukitzeko, oro heure barruan sentitu beharra daukak, oro pertsonaliza dezaan. Maitasunak maite duen guztia, errukitzen duen guztia pertsonalizatzen duelako. Errukitu, hau da, maitatu, antzekoa zaigun eta halaxe zaigun ginoan egiten gara, eta horrela gure errukia handituz doa, eta horrekin gauzei diegun maitasuna ere bai, horiek gurekin dituzten antzak aurkitzen dizkiegun neurrian. Edo, hobeki esan, berez hazteko joera duen maitasuna bera da antz horiek agerterazten dizkiguna. Egunen batez zerutik desagertuko den izar gaixo hori errukitu eta maitatzera heltzen banaiz, horrexegatik da, maitasunak, errukiak harengan kontzientzia argiago edo ilunago bat, izarra besterik ez izateagatik eta egunen batez horri utzi beharragatik sufrierazten diona sentierazten didalako. Kontzientzia den oro heriotza- eta oinaze-kontzientzia delako.

Kontzientzia, *conscientia*, ezaguera partaidetua da, sentikidetza da, eta senti-kidetzea paira-kide izatea da.

Maitasunak maite duen guztia pertsonalizatzen du. Ideia batez maitemintzeko era bakarra hura pertsonalizatzea da. Eta maitasuna hain handi eta bizia denean, eta hain indartsu eta gaidikorra denez gero guztia maitatzen duenean, orduan guztia pertsonalizatu eta aurkitzen du Oro osoa, Unibertsoa alegia, kontzientzia duen Pertsona dela, eta Kontzientzia horrek, bere aldetik, sufritu, errukitu eta maitatzen duela; hau da, kontzientzia dela. Eta Unibertsoaren Kontzientzia honi, maitasunak, maite duen guztia pertsonalizatuz, aurkitzen duenari, Jainkoa deitzen diogu. Eta horrela arimak Jainkoa errukitzen du eta Hark errukitua sentitzen da, Hura maitatzen du eta Hark maitatua sentitzen da, bere miseria betiereko miseria infinituaren baitan babestuz, hori zorion goren berbera betierekotu eta infinitutzea izanik.

Beraz, Jainkoa da Orogen pertsonalizazioa, Unibertsoaren Kontzientzia betierekoa eta infinitua, materiaren gatibua den Kontzientzia, harengandik askatzeko borrokan diharduena. Orea pertsonalizatzen dugu geure burua ezerezetik salbatzeko, eta misterio egiaz misteriotsu bakarria oinazearen misterioa da.

Oinazea kontzientziaren bidea da eta horri esker lortzen dute izaki bizidunek beren buruen kontzientzia. Izan ere, nork bere buruaren kontzientzia izatea, alegia, nortasuna izatea, norbera gainerako izakiak ez bezalako delako jakitea eta sentitzea da, eta ez bezalakotasun hau sentitzera ez da ailegatzen, elkarjotzeaz, oinaze handiago edo txikiagoaz, norbere mugaren sentazioaz besterik. Norbere kontzientzia norbere mugatasunaren kontzientzia baino ez da. Nik neu naizela sentitzen dut gainerakoak ez naizela sentitzen dudanean; noraino naizen jakin eta sentitzea, izaten non amaitzen naizen jakitea da, nondik ez naizen jakitea.

Eta nola jakin norbera existitzen dela, gutxi edo asko sufritu ezean? Nola bihur norbere baitara, nola kontzientzia erreflexua lor, oinazeari esker ez bada? Atseginean nor bere buruaz, existitzen denaz ere ahantzi ohi da; besterengana iragaten da, inorenera, inorenganatu egiten da. Eta bereganatu, bere baitara, berbera izatera itzuli, oinazetan besterik ez da egiten.

*Nessun maggior dolore
che ricordarsi del tempo felice
nella miseria,*

esanerazten dio Dantek Francesca de Rimini-ri (*Infernua*, V, 121-123); baina baldin zorigaitzean denbora zoriotsuez gogoratzea baino samin handiagorik ez badago, orduan ez da atsegirik, ordea, oparotasun-garaian zoritxarraz oroitzean.

"Gizonen arteko oinazerik lazgarriena asko erdietsi nahi eta ezer ezin lortzea da", Herodotoren arauera (IX. lib. 16. kap.) persiar batek thebatar bati oturuntza batean esan zionez. Eta horrela da. Ezagueraz eta gogoaz dena edo ia dena besarka dezakegu, ezer ez edo ia ezer ez borondatearekin. Eta ez da zoriona behatze soila, ez, behatze horrek ezintasuna esan nahi badu. Eta gure ezagutzearen eta gure ahalmenaren arteko jotzetik sortzen da errukia.

Geure antzekoaz errukitzen gara, eta gurekiko antz hori zenbat eta gehiago eta hobeto sentitu, hainbat gehiago errukitzen gara hartaz. Eta antz horrek gure errukia sorterazten duela esatea badugu, era berean hau mantentzeko, gure erruki-gordailuak, oren gainean isurtzeko gerturik, gauzek gurekin duten antza aurkierazten digula, haiekin oinazean elkartzen gaituen lotura komuna.

Kontzientzia propioa eskuratu, kontserbatu eta handiagotzeko geure borroka propioak gauzen sokatiretan eta mugimendu eta iraultzetan kontzientzia eskuratu, kontserbatu edo handiagotzeko borroka oso bat aurkierazten digu, orok horretarako joera izanez. Neure antzeko hurkoenen, gainerako gizonen, eginen azpitik, neure egin propioen azpitik neurea bezalako kontzientzi egoera bat sentitzen -edo hobesanez, sentikidetzen- dut. Neure anaiaren minezko oihua entzutean, ene min propioa itzartu eta oihu egiten du ene kontzientziaren sakonetik. Eta era berean, animalien oinazea eta abar bat erazten dioten zuhaitzarena sentitzen dut, batez ere, intuizioa, barrua ikusteko ahalmena den fantasia, bizirik daukadanean.

Geure baitatik, giza kontzientzia propiotik jautsiz, hau barrutik sentitzen dugun bakarra izanik, hor nork bera sentitzea nor bera izatearekin identifikatzen baita, bizidun guztiek nolabaiteko kontzientzia, ilunago edo argiagoa, dutela susmatzen dugu, eta arrokek berek ere bai, hauek ere bizi dira eta. Eta izaki organikoen eboluzioa oinazearen bitartez kontzientzi osotasunera heltzeko borroka besterik ez da, izatez direna izateari utzi gabe, besteak izateko, burua mugatuz beren mugak hausteko etengabeko goranahia.

Eta kanpoko, fenomeniko edo objektibo den guztia pertsonalizatzeko edo subjektibatzeko aribide honek filosofiaren aribide bizikoia bera eratzen du, bizitzak arrazoimenaren aurka eta beronek haren kontra darabilen borrokan. Jadanik hala adierazi genuen gure aurreko kapituluan, eta hemen berretsi behar dugu, gehiago garatuz.

Giambattista Vico-k, antzinatearen ariman zeukan sarkortasun estetiko sakonaz, argi ikusi zuen gizonaren berezko filosofia, *istinto d'animazione*-az gidaturik, unibertsoaren erregela bihurtzea zela. Mintzairak, nahitaez antropomorfitik, mitopeikoa delarik, pentsamendua sortertzatzen du. "Poesi jakituria, jentiliteriaren lehen jakituria izan zena - diosku bere *Scienza Nuova*-n- gaur pertsona doktrinatuena den metafisika arrazoitu eta abstraktutik barik, metafisika sentitu eta imajinatutik hasi bide zen, lehen gizonena zatekeen hura bezala... Horixe izan zen haien poesia berezia, zuten sortzetiko ahalmena, horrelako zentzuez eta halako fantasiez naturalki horniturik zeudelako, gauzen ezjakintzatik sortua, gauza guztietan haientzat mirarien ama izan zena, guztian ezjakinak zirenez gero, erabat miresten zuten eta. Poesia hori haiengan jainkozko hasi zen, gauzen kausak imajinatzen zituzten aldi berean, haiek jainkotzat sentitzen eta miresten zituztelako... Halako eraz, nazio jentiletako lehen gizonek, giza leinu sortu berriaren haurrek bezala, beren ideietatik gauzak sortzen zituzten... Giza gauzen izaera honetatik betiereko jabetza gelditu zen, Tacitok adierazpen nobleaz azaldua, gizon izutuek *fungunt simul creduntque* hutsaltasunik gabe esatean"³².

Eta ondoren Vico arrazoimenaren aroa erakustera pasatzen zaigu, ez jada fantasiarena, gure burua zentzuetatik, bai eta pertsona arruntengan ere, aski erretiraturik dagoen aroa, "hizkuntzak goraino beterik dauzkaten hainbesteko abstrakzioekin", eta "naturalki ukatua zaigu Natura sinpatetikoa deritzon dama horren irudi zabala eratu ahal izatea, ahoz horrela deitzen zaion bitartean, buruan horrelakorik bat ere ez baita, burua faltsuan, ezerezean, dagoelako". "Orain, jakina, -gehitzen du Vicok- lehen gizon haien irudimen zabal hartan sartzeko ukatu egiten zaigu". Baina, egia ote da hau gero? Ez ote dugu segitzen haien fantasiaren sorkuntzetan bizitzen, mintzairan betiko haragiturik, horrekin pentsatzen dugula edo, hobesanez, horrek gurekin pentsatzen duelarik?

Alferrik aldarrikatu zuen Comtek giza pentsaera jadanik teologi arotik irten zela eta metafisika-arotik irteten ari dela, positibismo-arogan sartzeko; hiru aroak elkarrekin ari dira eta, elkarren aurka bada ere, batzuek besteei eusten diete. Zorioneko positibismo hori metafisika besterik ez da, ukatzeari utzi eta zerbait baieztatzen hasten denean, egiazki positibo bihurtzen denean, eta metafisika beti ere, bere funtsean, teologia da, eta teologia, hilezina izan nahi duen bizitzaren zerbitzuan jarritako fantasiatik jaiotzen da.

Munduaren sentimendua, honen gainean haren ulerkera oinarriturik, nahitaez antropomorfitik eta mitopeikoa da. Tales Miletokoarekin arrazionalismoa egunargitu zenean, filosofo horrek Ozeanoa eta Thetis, jainko-jainkosak eta jainkoen guraso, bazterrean utzi zituen, ura gauzen hasieratzat jartzeko; baina ur hori jainko mozorrotu bat zen. Naturaren, φυσικῶς, eta munduaren, φυσιογενῶς, azpitik sorkari mitikoak ari ziren taupadaka, antropomorfitik. Hizkuntzak berak aldean zeraman hori. Sokratesek, Xenofonek kontatzen digunez (*Memorabilia*, i. I. 6-9), fenomenoaren artean giza ikerketaren helmenekoak eta jainkoek berentzat erreserbatuak bereizten zituen, eta Anaxagorasek dena arrazionalki azaldu nahi izatea gaitzesten zuen. Hippokratesek, haren garaikideak, eritasun guztiei jainkozko zeritzen, eta Platonek Eguzkia eta izarrak jainko animatuak zirela uste zuen, bakoitzak bere arimarekin (*Phileb.* c. 16, *Legeak*, X), eta astronomi ikerkuntza ez zuen onartzen jainko horien aurka blasfematzen ez zen neurrian izan ezik. Eta Aristotelesekin, bere Fisikan, Zeusek euri egiten duela diosku, ez garia haz dadin, premiaz baizik, εὐχόμενος Jainkoa mekanizatzen edo arrazionaltzen saiatu ziren, baina Jainkoa aurka jarkitzen zitzaizkien.

Eta Jainkoaren kontzeptua, beti ere birbiztua, gizonarengan betidanik dagoen Jainko sentimendutik jalgitzen baita, zer da bizitzak arrazoimenaren aurka darabilen betiko protesta besterik, pertsonalitzatzeko instintu inoiz ezin garaitua, alegia? Eta zer da substantziaren nozioa bera ere subjektiboaren objektibazioa ez bada, hots, borondate edo kontzientziarena? Izan ere, kontzientzia, arrazoimentzat ezagutua izan baino lehen

ere, sentitu, ukitu egiten da, izan, areago borondatetzat izaten gara, eta ez hiltzeko borondatetzat ere bai. Hortixek dator pentsaeraren historian mintzatzen gineneko erritmo hori. Positibismoak arrazionalismo-aro bat ekarri zigun, hau da, materialismo, mekanizismo edo hilkortasunarena; eta hona hemen bizikortasuna, izpiritualismoa, berriro non datorren. Zertzuk izan dira pragmatismoaren ahaleginak unibertsoaren zertarakotasunaren baitako fedea berrezartzeko eginahalak besterik? Zertzuk dira Bergson baten ahaleginak, adibidez, eboluzio sorkorraren gaineko bere obran batez ere, Jainko pertsonala eta betiereko kontzientzia berrezartzeko sokatirak besterik? Eta, kontua da, bizitza ez dela errendatzen.

Eta ez du deus balio ihardupide mitopeiko edo antropomorfitiko hori kendu eta gure pentsaera arrazionaldu nahi izateak, pentsatu pentsatzearen eta ezagutzeko, eta ez bizitzeko, besterik egingo ez balitz bezala. Hizkuntzak berak, pentsatzeko darabilgunak eragotzi egiten digu hori. Hizkuntza, pentsaeraren substantzia, metafora-sistema da, eta oinarri mitiko eta antropomorfitikoa dauka. Eta filosofia arrazional huts-hutsa egiteko, aljebra-formulez egin beharko litzateke, edo hartarako hizkuntza bat -hizkuntza ezgizatiarra, hau da, bizitzaren premietarako ezgaia- sortu, Richard Avenarius doktorea, filosofo irakaslea, Zürich-en, bere "*Esperientzia Hutsaren Kritika*"-n (*Kritik der reinen Erfahrung*) egiten saiatu zen bezala, aurrekontzeptuak ekiditeko. Eta Avenariusen, enpiriokritizisten buruzagiaren ahalegin kementsu hori, hertsikiro eskeptizismo hutsean amaitzen da. Halaxe diosku berak gorago aipaturiko obran: "Inoiz egia aurkitzerik izango dugulako haur-konfidantza hori aspaldian galdu zen; aurrera goazen heinean, horren zailtasunez jabetzen gara, eta horrekin geure indarren mugaz ere bai. Eta helburua?... Azken buruan gu geure baitan argi ikustera helduko bagina!"

Argi ikustea!... Argi ikustea!... Argi ikusi, mintzairaren orde aljebra lerabilkeen eta bere gizatasun propioaz askatzerik izango lukeen pentsalari huts batek ez bestek egin lezake; hau da, substantzibako izaki objektibo soil batek, izaki ez den batek, azken finean. Arrazoimenaren gogokoa ez bada ere, bizitzarekin pentsatu behar da, eta bizitzak gogoko ez badu ere, pentsaera arrazionaldu beharra dago.

Animazio hori, pertsonifikazio hori gure ezaguerak erraietan bertan darama. "Nork egiten du euri? Nork jotzen du trumoia?" galdetzen zion Strepsiades zaharrak Sokratesi Aristofanesen *Hodeietan*, eta filosofoak honela erantzun zion: "Ez Zeusek, hodeiek baizik". Eta Strepsiadesek: "Baina, nork darabiltza, Zeusek baizik?", horri Sokratesek hau ihardetsiz: "Pentsatu ere ez, eterear zurrunbiloak baizik". "Zurrunbiloak? - gaineratzen du Strepsiadesek-, ez nekien... Ez da, beraz, Zeus, Zurrunbiloa baizik, orain haren lekuan gobernatzen duena". Eta horrela zahar gaixoak Zurrunbiloa³³ pertsonifikatzen eta bizieratzen segitzen du, oraingoan bere erregetasunaren kontzientziarik gabe dagoen batek bezala erreinatzen duena. Eta guztiok, edozein Zeusengandik edozein zurrunbilotara, adibidez, Jainkoagandik materiara, jotzen dugunean, gauza bera egiten dugu. Eta hori da filosofiak zentzuen aurrean dugun errealitate objektiboaren gainean lan egiten ez duelako, asabengandik harekin batera geuganatuak izanik, mintzairaren mami barruan sarturiko ideia, imajina, nozio, somatze etabarren multzo konplexuaren gainean baizik,. Mundua deitzen duguna, mundu objektiboa, gizarte-tradizio bat da. Eginik eman digute.

Gizonak ez du etsitzen bera Unibertsoan bakarrik, kontzientzia gisa, egotea, ez eta fenomeno objektibo bat besterik ez izatea ere. Bere subjektibotasun bizikor edo grinatsua salbatu nahi du, unibertso osoa bizi, pertsonal eta animatu eginez. Eta horregatik eta horretarako, Jainkoa eta substantzia aurkitu ditu, era batera edo bestera mozorroturik bere pentsaeran beti itzultzen diren Jainko eta substantzia horiek. Kontzienteak garenez gero, existitzen sentitzen gara, existenteak garela jakitea guztiz ez

bezalakoa berau, eta gainerako guztiaren existentzia sentitu nahi dugu, gainerako gauza indibidual bakoitza ere ni bana izan dadila.

Batera inkongruenteena eta zalantzakorra izan arren, idealismo kontsekuenteena, Berkeley-rena, materiaren existentzia ukatzen zuena, alegia gure sentazioen kausa eta kanpoko fenomenoen substratua den zerbait inerte, hedatu eta pasiboa dena, funtsean izpiritualismo edo dinamismo absolutu bat besterik ez da, hots, sentazio guztiak, kausaz bezala, beste izpiritu batetik, hau da, beste kontzientzia batetik, datozkigulako ustea. Eta haren doktrinak, nolabait, Schopenhauer-enari eta Hartmann-enari luzatzen die eskua. Bi hauetako lehenaren Borondatearen doktrina eta bestearen Inkontzientearena, potentzialki, izatea hautemana izatea dela dioen berkeleyar doktrinan dautza jadanik. Eta horri hauxe gehitu behar zaio: eta bestek badena hauteman dezaten eragitea. Eta honela, *operari sequitur esse*, ihardutea izateari darraio, delako esaera zaharra aldatu beharra dago, izatea ihardutea dela esanez, eta diharduena besterik ez dela existitzen, hots, aktiboa, eta diharduen neurrian.

Eta Schopenhauerri doakionez, ez da ahalegin handirik behar, berak gauzen esentziazat ipintzen duen borondatea kontzientziazat datorrela erakusteko. Eta aski da Naturaren borondateari buruzko haren liburua irakurtzea, landareengan ere nolabaiteko izpiritua eta nolabaiteko nortasuna jartzen zuela ikusteko. Eta bere doktrina horrek, logikoki, ezkortasunera eramanez, borondateak duen gauzarik bereziena eta barrukoena sufritzea delako. Borondatea sentitzen den indarra da, hau da, sufritzen duena. "Eta gozaten duena ere bai", erants dezake norbaitek. Baina kontua da ezin goza daitekeela sufritzeko ahalmenik gabe, eta gozatzeko ahalmena oinazerako berbera ere badela. Sufritzen ez duenak gozatu ere ez du egiten, hotzik sentitzen ez duenak berorik ere sentitzen ez duen bezalaxe.

Eta oso logikoa da Schopenhauerrek, doktrina boluntaristatik edo oro pertsonalizatzeko doktrinatik ezkortasuna atera zuenak, bietatik moralaren oinarria errukia dela ateratzea. Baina gizarte- eta histori zentzurik ez izateak, Gizateria pertsonatzen, kolektiboa bada ere, ez sentitzeak, haren berekoikeriak, azken finean, Jainkoa sentitzen eragotzi zioten, Borondate osoa eta kolektiboa indibidualizatzea eta pertsonalizatzea eragotzi zioten: Unibertsoaren Borondatea, alegia.

Ulertzekoa da, bestalde, doktrina eboluzionista edo transformista erabat enpirikoen aurka zuen hudigoa, horiek Lamarck-ek eta Darwinek azaldurik ikustera heldu zen bezala, beronen teoriari, soilki *Times*-ko laburbilduma zabal batez juzkatuta, Adam Ludwig von Doss-i egindako gutunetarik batean (1860.eko Martxoaren 1ekoan) "azaleko enpirismoa" (*platter Empirismus*) kalifikatiboaz eritziz. Schopenhauer moduko boluntarista batentzat, Darwinen teoria hain zindo eta kauteloski enpiriko eta arrazional horretan, azken eragingailua, eboluzioaren funtsezko motiboa kontutik kanpoan geratzen zen. Zeren, izan ere, zein da indar ezkutua, organismoei ugal daitezen eta iraunerazten eta hedabarreiatzeko borrokan ahalegintzera eragiten dien azken agentea? Hautabidea, egokitzapena, herentzia, kanpoko baldintzak besterik ez dira. Barruko, esentziazko indar horri borondatea esan zaio, gainerako izakiengan ere geugan borondate sentimendutzat sentitzen duguna bera delakoan, dena izateko, geu garena izateari utzi gabe gainerakoak ere izateko bulkada. Eta indar hori geuk daukagun jainkozkotasuna dela, Jainkoa bera, gugan sufritzen duelako gugan diharduena esan daiteke.

Eta indar hori, kontzientziarako nahi hori, sinpatiak gauza guztietan aurkierazten digu. Izaki bizidun ñiminoenei mugierazi eta eragiten die, eta agian gure gorputz-organismoaren zelulei berei ere, asko edo gutxi, bizidunen federakuntza baterakoa osatzen dutenei mugierazi eta eragiten die; gure odoleko globuluak berak mugierazten ditu. Bizitzez osatzen da gure bizitza, eta goranahiez, agian azpikontzientziaren linboan,

gure bizirako goranahia. Ez da baliozko teoriatzat korritzen duten beste hainbat amets baino amets absurduagoa, gure zelulek, gure globuluek, kontzientzia gisako zerbait edo horren hasi-masizko oinarria, zelularra, globulutarra dutela sinestea. Edo izatera hel daitezkeela. Eta behin fantasi bidean abiatuz gero, zelula hauek elkarren arteko komunikazioa izan eta haietako batek kontzientzia kolektibo pertsonalaz hornituriko organismo gorago baten atalkide direla adieraz dezakeelako fantasia ere asma dezakegu. Eta giza sentimenduaren historian behin baino gehiagotan gertatu da fantasia hau, norbaitek, filosofo edo poetaren batek, gizonak, Izaki Gorenaren odoleko globuluen antzekoak garela uste izatean, horrek kontzientzia kolektibo pertsonala, Unibertsoaren kontzientzia, duelarik.

Baliteke gau izarratuetan ortzean dakusagun Esne-Bide neurrigabea, eraztun mugagaitz hori, hor gure planeta-sistema molekula bat besterik ez dela, bere aldetik unibertsoaren zelula bat izatea, Jainkoaren Gorputzarena. Gure gorputzaren zelula guztiak beren ihardueraz gure kontzientzia, gure arima, mantendu eta bizteko azpilanean aritzen eta elkarrekin ibiltzen dira; eta horien guztien kontzientziak edo arimak oso-osorik gurean sar balitez, neronek neure gorputz-organismoan gertatzen den guztiaren kontzientziarik baneuka, nigan zehar unibertsoa iragaten sentituko nuke, eta agian ene mugen sentimendu mingarria borra liteke. Eta izaki guztien kontzientzia guztiak oso-osorik kontzientzia unibertsalerantz biltzen ari badira, hori, hau da, Jainkoa, oro da.

Gugan une oro kontzientzia ilunak, hasi-masizko arimak, jaio eta hil egiten dira, eta horien jaiotze eta hiltze horrek gure bizitza eratzen du. Eta bat-batean, kolpez, hiltzen direnean gure oinazea egiten dute. Honela, Jainkoaren baitan kontzientziak jaio eta hiltzen -hiltzen?- dira, haien jaiotza-heriotzek haren bizitza eratuz.

Kontzientzia Unibertsal eta Gorenik baldin bada, ni haren ideia bat naiz, eta itzal al daiteke hartan erabat ideiarene bat? Ni hil eta gero, Jainkoak ni gogoratzen dirauke, eta ni Jainkoak gogoratua izatea, nire Kontzientzia Gorenak nire kontzientzia mantendua izatea, ez ote da izatea?

Eta inork Jainkoak unibertsoa egin duela esan baleza, ihardets lekioko gure arimak ere gure gorputza egin duela horrek hura egin duen baino neurri handiagoan. Arimarik baldin bada, behinik behin.

Errukiak, maitasunak, unibertso osoa bere kontzientzia erdietsi, kontserbatu eta handitzearen borrokan erakusten digunean, gero eta gehiago eta are gehiago kontzientziatzearen, bere barruan gertatzen diren diskordantzien oinazea sentituz, errukiak Unibertso osoak gurekin duen antza erakusten digu, hura gizatiarra dela, eta hartan geure Aita aurkierazten digu, gu horrexen haragiaren haragi izanez; maitasunak gu partaide gaituen osoa pertsonalarazten digu.

Sakonean, gauza bera da Jainkoa gauzak eternalki sortzen ari dela esatea, zein gauzak Jainkoa eternalki sortzen ari direla esatea. Eta Jainko pertsonal eta izpiritual batengan sinestea gure pertsonaltasun eta izpiritualtasun propioaren sineskeran oinarritzen da. Kontzientzia sentitzen garelako, Jainkoa kontzientzia sentitzen dugulako, hau da, pertsona, eta gure kontzientzia gorputzetik lokabe bizi eta izan dadin irrikatzen dugunez gero, jainkozko pertsona ere unibertsoetik lokabe bizi eta badela sinesten dugu, hori haren kontzientzi egoera *ad extra* izanik.

Jakina, logikariak etorri eta horretatik sortzen diren begien bistako eragozpen arrazional guztiak ipiniko dizkigute; baina esana genuen, itxura arrazional ez jantzirik egon arren, honen guzti honen mamia ez dela, zehazkiro, arrazionala. Jainkoari buruzko kontzeptio arrazional oro, bere baitan, kontraesankorra da. Jainkoaren baitako fedea Jainkoaganako maitasunetik sortzen da; badela sinesten dugu, izan dadin nahi dugulako, eta agian Jainkoak guregana duen maitasunetik ere sor daiteke. Arrazoimenak ez du frogatzen Jainkoa badenik, baina ezin izan daitekeenik ere ez.

Baina aurrerago, are gehiago izango dugu Jainkoaren baitako fedea unibertsoaren pertsonalizazioa delako honetaz.

Eta obra honetako beste nonbait esan genuena gogoratu, gauza materialak, ezagunak diren aldetik, ezagutzara gosetik jalgitzen direla esan dezakegu, eta gosetik unibertso sentikor edo materiala sortzen da, eta hor haiek konglobatzen ditugu, eta gauza idealak maitasunetik jalgitzen dira, eta maitasunetik Jainkoa jalgitzen da, eta horrengan gauza ideal horiek konglobatzen ditugu, unibertsoaren Kontzientzia gisa. Hori kontzientzia soziala da, maitasunaren umea, iraunerazteko instintuarena, oro sozializatza, orotan gizartea ikustera garamatzana, azkenik, Natura oro zein egiazkiro gizarte infinitua den erakusten diguna. Eta niri doakidanez, Natura gizarte dela ehundaka aldiz sentitu dut, oihanean egurasten ibiltzean eta bertako arteekin elkartasun-sentimendua izatean, horiek nolabaiteko era ilunaz ene presentziaz ohartzen ziren eta.

Fantasiak, zentzu soziala denak, arimagabea animatzen du eta guztia antropomorfitzatzen; dena gizatiartzen du, eta gizatzen ere bai. Eta gizonaren zeregina Natura naturaz gauditzea da, hau da, hura gizatiartuz jainkotzea, hura gizatiar egitea, bera kontzientziaz hornitzera laguntzea, azken buruan. Arrazoimenak, bere aldetik, mekanizatu edo materializatu egiten du.

Eta gizanabakoa -nolabait gizarte ere badena- eta gizartea, -gizabanako ere badena- bata besteagandik banaezinik, elkarrekin baturik eta elkar ernalduz ageri diren bezala, eta bata amaitu eta bestea non hasten den esaterik ez dagoenez, hobesanez, esentzia beraren bi aspektu besterik ez direlarik, era berean, horrelaxe ageri dira batera izpiritua, besteeikiko harremanak izatean kontziente egiten gaituen elementu soziala, eta materia edo elementu indibiduala edo banakogilea, eta batean ageri dira, elkar ernalduz, arrazoimena, adimena eta fantasia, eta batean dira, halaber, Unibertsoa eta Jainkoa.

* * *

Egia al da hau guztiau? "Eta zer da egia?" galdetuko dut neure aldetik, Pilatok galdetu zuenez. Baina ez, erantzunik itxaron gabe, eskuak berriro ikuzteko.

Egia arrazoimenean al dago, ala arrazoimenaren gainean, arrazoimenaren azpian ala hartatik kanpo, edonolako eraz? Egiazkoa den bakarra arrazionala al da? Ez al da, bere izaeraz beraz, arrazoimenak heltzerik ez duen errealitatearen bat izango eta, bere izaeragatik beragatik, haren aurkakoa denik? Eta nola ezagut genezake errealitate hori, arrazoimenaz besterik ezagutzen ez baldin badugu?

Gure bizitzeko gogoak, gure bizi-beharrak, geure burua kontserbarazten eta iraunerazten diguna, gizona eta gizartea mantentzen dituen egiazkoa izan ledin nahi luke; edanez gero egarria kentzen digun likidoa, kentzen duelako hain zuzen, egiazko ura izan ledin, eta egiazko ogia gosea asetzen diguna, asetzen gaituelako.

Zentzuak bizirik irauteko senaren zerbitzuan daude, eta geure burua kontserbatzeko premia hau asebate diezagukeen guztia, zentzuetatik pasatu gabe ere, errealitatea gure baitan barnetzeko era sakon modukoa da. Errealitasun txikiagoa al du elikadura asimilatzekeo ihardupideak, elikagaia ezagutzeko ihardupideak baino? Ogi bat jatea eta hura ikusi, ukitu edo dastatzea ez dela gauza bera esan daiteke; modu batean gure gorputzean sartzen dela, baina ez horregatik gure kontzientzian. Hau egia al da? Neure haragi eta odol egin dudana ogia ez al da ene kontzientzian gehiago sartzen, ikusi eta ukitu ondoren "Hau nirea da" diodan beste hura baino? Eta ene haragi eta odol horrela bihurturiko eta nireturiko ogi horri, ukitu besterik egiten ez dudanean, errealitasun objektiboak ukatu beharko al diot?

Bada airetik bizi dela dioenik, hori zer den jakin gabe ere. Eta honetara Jainkoagandik bizi gara, eta beharbada Jainkoagan, gizartearen eta unibertso osoaren, hau ere gizarte den neurrian, izpiritu eta kontzientzia den Jainkoagan.

Jainkoak ez du zentzurik bizitua den ginoan izan ezik, eta "ez da gizona ogi hutsetik biziko, Jainkoaren ahotik ilkitzen den hitz orotarik baizik" (*Mat. IV, 4; Deut. VIII, 3*).

Eta ororen, Unibertsoaren, pertsonalizazio hori, horra maitasunak, errukiak, garamatzalarik, beragan bera osatzen duten gainerako pertsonak besarkatzen dituen eta horiek barruan dauzkan pertsonarena da.

Unibertsoari zertarakotasuna emateko modu bakarra horixe da, kontzientzia ematea. Zeren kontzientziarik ez den lekuan zertarakotasunik ere ez baita, horrek xede bat behar du eta. Eta Jainkoaren baitako fedea ez datza, dakuskegunez, existentziari zertarakotasuna emateko bizi-premian, hots, hura halako xedeari egokieraztean besterik. *Zergatia* ulertzeko barik, azken *zertarakoa* sentitu eta sustatzeko behar dugu Jainkoa, Unibertsoari zentzua emateko.

Eta ez da harritzekoa unibertsoaren kontzientzia hori unibertsoa eratzen duten izakien kontzientziez, izaki guztien kontzientziez, osaturik eta integraturik dagoela esatea, eta halere, bera osatzen dutenena ez bezalako kontzientzia pertsonala izatea. Horrela besterik ez da ulertzen gu Jainkoagan bagarela, mugitzen garela eta bizi garela esatea. Emanuel Swedenborg argikusle handi hark horixe ikusi edo erdikusi zuen zeruaz eta infernuaz egin zuen liburuan (*De coelo et inferno*, 52) hau dioskunean: "Aingeru-gizarte osoa batzuetan aingeru bakar gisa ageri da, Jaunak ikusten utzi didan bezala. Aingeruen erdian Jauna bera agertzen denean, ez du egiten jendetza batekin lagundurik, aingeru itxurako izaki bakar moduan baizik. Hemendik dator Hitzean Jaunari aingerua deitzea, eta gizarte oso bat horrelaxe deitu izatea: Mikel, Gabriel eta Rafael ez dira aingeru-gizarteak besterik, betetzen dituzten funtzioengatik horrela deituak".

Ez ote da kontu hau izango, agian, sufritzen eta errukitzen dugun pertsonok eta beren burua pertsonalizatzearen, beren oinazearen eta mugen kontzientzia lortzearen, borrokatzen duten izakiek orok, guztiok estaltzen gaituen Pertsona Handi horrengan bizi eta maitatzen dugula, hau da, sufritzen eta errukitzen dugula? Eta ez ote gara gu, bagarela pentsatzean existentzia ematen digun Kontzientzia Handi horren ideiak? Ez ote da gure existentzia gu Jainkoak hautemanak eta sentituak izatea? Eta geroago argikusle berberorrek, bere era irudikorraz, badiosku aingeru bakoitza, aingeru-gizarte bakoitza eta zero osoa, batera behaturik, giza itxuraz agertzen direla, eta haien giza irudi horri esker Jaunak gizon bakar gisa gobernatzen dituela.

"Jainkoak ez du pentsatzen, sortu egiten du; ez da existitzen, betierekoa da", idatzi zuen Kierkegaardek (*Afsluttende uvidenskabelige Efterskrift*); baina beharbada zehatzagoa dateke Mazzini-rekin, italiar batasunaren mistikoarekin batera esatea "Jainkoa handia da obratuz pentsatzen duelako" (*Ai giovani d'Italia*), pentsatzea, Harengan, Berak pentsatze hutsez existentetzat pentsatzen duena sortzea eta izaneraztea delako, eta ezinezkoa dena Jainkoak ezin pentsatuzkoa da. Ez al da esaten Eskrituran Jainkoak bere hitzaz sortzen duela, hau da, bere pentsamenduaz, eta horregatik, bere Hitzagatik, den guztia egin zela? Eta ahanzten ote du Jainkoak behin pentsatu zuena? Ez ote diraukete Kontzientzia Gorenean hartatik behin iragandako pentsamenduek orok? Harengan, betierekoa izanez, ez ote da existentzia guztia betierekotzen?

Kontzientzia salbatzeko, Unibertsoari eta existentziari zertarakotasun pertsonal eta gizatiarra emateko dugun irrika hain handia denez gero, sakrifizio goren, urragari eta ezin mingarriagoa eginez, honelako esanak, Kontzientzia infinitu eta betierekoa aberastera joateko, gure kontzientzia ezerezten dela, eta gure arimek Arima Unibertsalaren elikaduratzat balio dutela entzutera helduko ginatke. Jainkoa aberasten dut, bai, ni existitu baino lehenago, existentetzat pentsatzen ez ninduelako, infinituen arteko bat gehiago izan arren, bat gehiago naizelako, eta benetan bizi eta sufritu eta maitatu dudanez gero, haren baitan gelditzen naizelako. Unibertsoari zertarakotasuna eman nahi izateko eta hura kontziente eta pertsonal egiteko irrika amorratuak eraman

gaitu Jainkoarengan sinestera, Jainkoa izan dadila nahi izatera, hitz batez, Jainkoa sortzera. Hura sortzera, bai! Eta honek ez du inor eskandalizatu behar, teistarik debotuenari esaten bazaio ere. Jainkoarengan sinestea, nolabait, hura sortzea delako; Berak gu lehenago sortu bagaitu ere. Bera baita gudan etengabeki bere burua sortzen duena.

Unibertsoa ezerezetik salbatzeko sortu dugu Jainkoa, zeren, kontzientzia eta betiereko kontzientzia, bere betierekotasunaz kontziente eta betiere kontziente ez dena, ez baita ezer, agerkeria besterik. Egiazki benetakoa, sentitzen, sufritzen, errukitzen, maitatzen eta irrikatzen duena da, kontzientzia alegia; substantzial den bakarra kontzientzia da. Eta kontzientzia salbatzeko Jainkoa behar genuen; ez existentzia pentsatzeko, hura bizitzeko baizik; ez zergatik eta nolakoa den jakiteko, zertarako den sentitzeko baizik. Maitasuna zentzuz kontrakoa da, Jainkorik ez bada.

Dakusagun orain Jainkoaren, Jainko logiko edo Arrazoi Gorenaren puntu hori, eta Jainko biotiko edo bihozkorrena, hau da, Maitasun Gorena.

VIII

JAINKOAGANDIK

JAINKOAGANA

Ez dut uste erlijio-sentimendua jainkotasun-sentimendua dela esatea egia bortxatzea denik eta, ohizko giza mintzaira bortxatuz izan ezik, ez dagoela erlijio ateistaz hitz egiterik. Alabaina, argi dago, guztia Jainkoaz eraten dugun kontzeptuaren arauerakoa izango dela. Kontzeptu hori, bere aldetik, jainkotasunaren menpekota izanik.

Izan ere, jainkotasunaren sentimendutik hastea komeni zaigu, nolakotasun horren kontzeptua letra larriz jarri eta, artikulatuz, Jainkotasun bihurtu baino lehen. Zeren, gizona Jainkoagana jainkotasunagatik joan baita, Jainkoagandik jainkozkoa ateratzen aritu baino gehiago.

Lehenago ere, bizitzaren sentimendu tragikoari buruzko gogoeta errakoi xamar eta, aldi berean, ekinkor hauen bidean, Statius-en *timor fecit deos* delakoa gogoratu nuen, hura zuzendu eta mugatzeko. Eta kontua ez da berriz ere herriek, kristautasunarena bezalako Jainko pertsonal baten sentimendu eta kontzeptura heldu arte, egindako ibilbide historikoa berriz ere markatzea. Eta herriak diot, eta ez bakarkako gizabanakoak, zeren, talde-sentimendu eta kontzepturik inon baldin bada, Jainkoarena soziala baita, gero giza banakoak hori indibidualiza badezake ere. Filosofiak jatorri indibiduala izan dezake eta, izan ere, holakoxea du; teologia, aldiz, nahitaez kolektiboa da.

Schleiermacher-en doktrina, erlijio-sentimenduaren jatorria, edo hobesanez, esentzia, menpekotasunezko sentimendu hurbil eta xumean ipintzen duena, azalpenik sakonena eta zehatzena dela dirudi. Lehen gizona, gizartean bizitzean, bera inguratzen duten ahalmen misterioitsu eta ikustezen batzuen menpean sentitzen da; elkarkidetasun sozialean sentitzen da, bere antzekoekin ez eze, Natura arimadun eta arimagabe osoarekin ere bai, eta horrek ez du besterik esan nahi, guztia pertsonalizatzen duela baino. Berak munduaren kontzientzia izateaz gainera, munduak ere, berak bezala, kontzientzia duela iruditzen zaio. Haurrak bere txakurrari edo panpinari hitz egiten dienean legez, ulertuko balute bezala, halaber basatiak bere fetitxeak entzuten diola uste du, edo hodei trumoisua beragaz gogoratu eta atzetik darraiola. Eta, izan ere, gizon naturalaren, lehendarraren, izpiritua ez da oraindik Naturaren umetokitik atera, eta ez du markatu lotaldi eta itzarraldiaren arteko zidorra, errealitatearen eta irudimenaren artean.

Jainkozkoa, beraz, ez zen izan zerbait objektiboa, kanporantz projektaturiko kontzientziaren subjektibotasuna baizik, hots, munduaren pertsonalizazioa. Jainkotasunaren kontzeptua horrexen sentimendutik jalgi zen, eta jainkotasunaren sentimendua ez da nortasunaren sentimendu ilun eta jaiokizuna bera besterik, kanpokorantz isuria. Eta ez dago, hertsiki mintzatuz, kanpoko eta barruko, objektibo eta subjektibo esaterik bereizketa hori sentitzen ez zenean, areago oraindik, jainkotasunaren sentimendua eta kontzeptua hori ez bereiztetik etorri direnean. Zenbat eta objektiboaren eta subjektiboaren arteko bereizketaren kontzientzia argiago, hainbat da gudan ilunago jainkotasunaren sentimendua.

Esana da, eta dirudienez arrazoi osoaz, heleniar paganismoa, politeista baino gehiago, panteista dela. Jainko askorengan sinestea, Jainkoaren kontzeptua gaur hartzen dugun bezala harturik, nik dakidala, ez da ezein gizonen buruan inoiz izan. Eta panteismotzat ulertzen baldin bada, ez gauza guztiak eta bakoitza Jainkoa dela dioen doktrina -enetzat proposamen pentsaezina-, baizik eta guztia jainkozkoa dela, bortxa handirik gabe, paganismoa panteista zela esan daiteke. Jainkoak gizonen artean ibili ez eze, haiekin nahasi ere egiten ziren; jainkoek emakume hilkorrengan, eta gizon hilkorrek jainkosengan erdijainkoak sorterazten zituzten. Eta erdijainkoak baldin bazeuden, hau da, erdigizonak, horrek jainkozkoa eta gizatiarra errealitate beraren aurpegiak besterik ez zirela erakusten du. Guztia jainkotzea hura gizatiartzea besterik ez zen. Eta Eguzkia

jainko bat zela esateak gizon bat zela esateak bezainbat, hots, giza kontzientzia aski edo gutxi handitu eta gurendu bat beste balio zuen. Eta horrek fetitxismotik hasi eta heleniar paganismorarte balio du.

Jainkoek gizonengandik zuten ezberdintasun berezia hilezinak izatean zetzan. Jainko bat, gutxi gora-behera, gizon hilezina zen, eta gizon bat hiltzean hura jainkotzea, jainkotzat hartzea, hertsiki, ez zela hil eriztea zen. Heroi batzuk hildakoen erresumara bizirik joan zirela uste izaten zen. Eta hau puntu ezin garrantzizkoagoa da jainkozkoa balioestean.

Jainkoen errepublika haietan beti izaten zen jainko gorenen bat, egiazko monarkaren bat. Jainkozko monarkia izan zen, monokultismoaren bitartez, jendeak monoteismora eramane zituena. Monarkia eta monoteismoa, hortaz, gauza bikiak dira. Zeus, Jupiter, jainko bakar bilakatzeko bidean zihoan, Yahveh bera ere, hasieran beste jainko askoren arteko bat, jainko bakar bihurtu zen bezala, lehenik Israelgo herriarena, geroago gizateriarena, eta azkenean Unibertso osoarena.

Monarkiak bezala, monoteismoak ere gerlari-jatorria izan zuen. "Ibilaldian eta gerradenboran -dio Robertson Smith-ek, *The Prophets of Israel, lect. I-* sentitu zuen bat-batean herri nomada horrek agintaritza zentralaren beharra eta, horrela, kuxaren saildutegiaren inguruko antolakuntza nazionalaren hasiera-hasieran, Israelek Yahveh-ren oztea zela uste izan zuen. Israelen izena bera gerrakoa da eta Jainkoak borrokatzen du esan nahi du, eta Yahveh, Testamentu Zaharrean *Yahweh Tzeba'aoth* da, Israelgo armaden Yahveh, alegia. Borroka-zelaian sentitzen zen nabariarik Yahveh-ren agerrera; baina antzinako lehen nazioetan gerra-denborako buruzagia bazen, halaber, bake-denborako epaile naturala ere".

Jainkoa, beraz, hau da, Jainko bakarra, gizonaren jainkotasun-sentimendutik Jainko gerlari, monarkiko eta sozial gisa jalgi zen; herriari agerterakutsi zion bere burua, eta ez gizabanako bakoitzari. Herri baten Jainkoa izan zen eta, zelati, gurkera Berari baizik ez egiteko eskatzen zuen, eta monokultismo horretatik monoteismora iragan zen, neurri handiz profeten ekintza indibidualari esker, hura, agian teologiko baino gehiago filosofikoa izanez. Profeten iharduera indibidual horrexek indibidualizatu zuen, hain zuzen, jainkotasuna. Hura etikoa egitean, batez ere.

Eta jainkotasun-sentimendutik giza kontzientzian horrela jalgiriko Jainko honetaz, geroago, arrazoimena jabetu zen, hau da, filosofia, eta hura definitzera, ideia bihurtzera jo zuen. Zerbait definitzea hura idealizatzea baita eta, horretarako, haren elementu neurtezin edo irrazionala, haren bizi-hondoa, alde batera utzi beharra dago. Eta Jainko sentitua, pertsonatzat eta, gu inguratu eta menperatu arren, gugandik kanpoko kontzientzia bakartzat sentituriko jainkotasun hori Jainkoaren ideia bilakatu zen.

Jainko logikoa, arrazionala, *ens summum, primum movens* hura, filosofia teologikoaren Izaki Gorena, ukoaren, bikaintasunaren eta kausalitatearen hiru bide famatuetatik, *viae negationis, eminentiae, causalitatis*, erdiesten dena, ez da Jainkoaren ideia bat besterik, zerbait hilik. Haren existentziaren froga tradizional eta hainbat aldiz eztabaidatuak, funtsean, haren esentzia zehazteko alferreko ahaleginak besterik ez dira; izan ere, Vinentek oso ongi oharerazten zuenez, existentzia esentziatik ateratzen baita, eta Jainkoa badela esateak, Jainkoa zer den eta nolakoa den esan gabe, ezer ez esatea bezalakoa da.

Eta Jainko hau, nolakotasun finituen bikaintasunaz eta ukoaz edo mugiduraz, azkenean Jainko pentsaezin bihurtzen da, ideia hutsa, duen bikaintasun ideal berberagatik, ez dela ezer esan dezakegun Jainko bat, Scottus Eriugenak jadanik definitu zuenez: *Deus propter excellentiam non inmerito nihil vocatur*. Edo Dionysio Areopagita faltsuaren esaldiaz, bere 5. epistolan: "Jainkozko ilunpea Jainkoa bizi omen deneko argi erdietsezina da". Jainko antropomorfiko eta sentitua,

giza ezaugarrietatik xahutuz joatean, horiek finituak, erlatiboak eta denborazkoak izanik, deismoaren edo panteismoaren Jainkoagan lurruntzen da.

Jainkoaren existentzaren ustezko froga klasiko guztiak Jainko-Ideia horri dagozkio, Jainko logiko horri, mugidurazko Jainkoari, eta horregatik ez dute hertsiki ezer frogatzen, hau da, ez dute frogatzen Jainkoaren ideia horrexen existentzia baino.

Gaztetxoa nintzelarik, betiereko problema hauez jada kezkatzen hasia, halako liburu batean, zeinen egilea ez dudan gogoratu nahi, hau irakurri nuen: "Jainkoa giza ezagutzen azken langaren gaineko ixa handia da; zientziak aurrera egiten duen neurrian, langak atzera egiten du". Eta bazterrean honela idatzi nuen: "Langatik hona, Hura gabe guztia azaltzen da; langatik hara, ez Harekin ez Hura gabe; Jainkoa, beraz, soberan da". Eta Jainko-Ideari, frogetakoari doakionez, eritzi berean nago. Laplace-ri esaldi hau egotzi ohi zaio, hots, Unibertsoaren sorrerari buruzko sistema eraikitzeke ez zuela Jainkoaren hipotesia behar izan, eta horrela da, egia hutsa hori. Jainkoaren ideiak ez gaitu ezertan laguntzen Unibertsoaren existentzia, esentzia eta zertarakotasuna hobeki ulertzeko.

Ez da bururagarriagoa Izaki Goren infinitu bat egotea, absolutua eta betierekoa, esentzia ezagutzen ez dioguna eta Unibertsoa sortu duena, Unibertsoaren beraren oinarri materiala, horren materia, betierekoa, infinitua eta absolutua izatea baino. Ez dugu ezertan ere hobeto ulertzen munduaren existentzia, hura Jainkoak sortu zuela esanez. Printzipio-eskaera bat edo berba hutsezko irtenbidea besterik ez da, geure jakineza estaltzeko. Hertsiki, Sortzailearen existentzia sorturikoa existitzen delako egintzatik ateratzen dugu, eta ez da arrazionalki Haren existentzia justifikatzen; egintza batetik ez da beharizan bat ateratzen, bestela dena beharrezkoa da.

Eta Unibertsoaren izateko modutik ordenua deritzon eta ustez ordenatzaile bat behar omen duenera pasatzen bagara, orduan esan daiteke ordenua dagoena dela, bestelakorik ezin burura dezakegularik. Unibertsoaren ordenuaren froga horrek ordenu idealetik errealerako urratsa inplikutzen du, gure burua kanporantz projektatzea, gauza baten azalpen arrazionalak gauza hori bera sortzen duela uste izatea. Giza arteak, Naturak irakatsita, egikera kontzientea du, eta horrekin egiteko modua ulertzen du, eta gero egikera artistiko eta kontziente hau artista baten kontzientziara lekualdatzen dugu, horrek bere artea zein naturatik ikasi zuen ez dakielarik.

Erloju eta erlojugilearen adibide jadanik klasikoa ezin aplikatu dakioke Izaki absolutu, infinitu eta betiereko bati. Gainera, ezer ez azaltzeko beste modu bat da. Izan ere, mundua den bezalakoa eta ez bestelakoa dela Jainkoak horrelaxe egin zuelako esatea, horrela zein arrazoiz egin zuen ez dakigun bitartean, ezer ez esatea da. Eta Jainkoak horrela zein arrazoiz egin zuen baldin badakigu, Hura soberan da, arrazoia nahikoa izanik. Guztia matematika balitz, eta elementu irrazionalik ez balego, ez zatekeen Ordenatzaile Gorenaren azalpen horretara jo beharrik izango, hori irrazionaltasunaren arrazoia eta gure jakinezaren beste estalki bat besterik ez da eta. Eta ez gaitetzen mintza burutazio barregarri hartaz, hots, moldiztegiko karaktereak menturaz edonola jaurtikiz, *Quixotea* konposaturik ezin irten daitekeelako kontuaz. Beste edozein gauza irtengo litzateke, hari atxeki, hartan hezi eta haren osakide izan beharko luketenentzat *Quixote* bat litzatekeena.

Ustezko froga jadanik klasiko hori, funtsean, fenomeno baten azalpena edo arrazoia hipostatizatu edo substantibatzaera murrizten da; Mekanikak mugimendua egiten duela esatera; Biologiak bizitza; Filologiak mintzaira; Kimikak gorputzak, horretarako, zientzia letra larriekin idaztea eta bera erauzten duguneko fenomenoetatik kanpoko ahalmen ezberdin bihurtzea aski izanik, zientzia hori hortik ateratzen duen gure burua ez bezalakoa. Baina horrela lorturiko Jainko hori, arrazoimen hipostatizatua eta

infinitura projektatua besterik ez dena, zerbait bizi eta errealtzat sentitzeko erarik ez dago, ez eta bururatzeko modurik ere, gurekin hilko den ideia huts gisa ez bada.

Galde egiten da, bestalde, irudimenezko baina existentziarik gabeko edozein gauza, ez ote den existitzen, Jainkoak nahi ez duelako, ala ez ote duen Jainkoak hura nahi, existitzen ez delako, eta ezinezkoari doakionez, ezin izan ote daitekeen, Jainkoak horrela nahi duelako, ala ez ote duen Jainkoak nahi, hura berez eta bere absurdutasunagatik beragatik ezin izan daitekeelako. Jainkoak bere burua kontraesanaren lege logikopean makurtu beharra dauka, eta ezin egin dezake, teologoen arauera, bi eta bi lau baino gehiago ego gutxiago izan daitezen. Halabeharraren legea Haren gainean da edo hura Bera da. Eta ordenu moralean galde egiten da ea gezurra, giza hilketa edo adulterioa gaiztoak al diren horrela erabaki zuelako ala horrela erabaki al zuen hura gaiztoa delako. Lehena baldin bada, Jainkoa Jainko apetsatu eta absurdua da, lege bat ezartzen duena, beste bat ezar zezakeelarik, edo, bestela, beragandik, hau da, gauzen barne-izaera eta esentzia bereziari obeditzen die, bere borondate subiranotik independente denari; eta horrela baldin bada, gauzen izateko arrazoiren bati obeditzen badio, arrazoi hori, bageneki, aski genuke Jainko gehiagoren premiari gabe, eta berori ez dakigularik, Jainkoak berak ere ez digu ezer argitzen. Arrazoi hori Jainkoaren gainetik legoke. Eta ez du balio arrazoi hori Jainkoa bera, gauzen arrazoi gorena dela esateak. Horrelako arrazoa, nahitaezkoa, ez da zerbait pertsonala. Pertsonaltasuna borondateak ematen du. Eta problema honek, Jainkoaren arrazoi nahitaez beharrezkoaren eta Haren borondate nahitaez askearen arteko problemak, Jainko logiko edo aristotelikoa Jainko kontraesankor egingo du beti.

Jainkozko presentziarekin eta Jainkoak etorkizun beharbadako eta askeaz duen ezaguerarekin giza askatasuna abenitzen saiatzean, teologo eskolastikoek ez dute behin ere jakin hor sartzen ziren eragozpenetatik beren burua desendredatzen; eta, izan ere, hertsikiro, Jainko arrazionala ezin aplikatu dakioke inola ere beharbadakoari, kontingentziaren nozioa, funtsean, irrazionaltasunaren nozioa besterik ez baita. Jainko arrazionala beharrezkoa da nahitaez bere izatean eta bere ihardunean; kasu bakoitzean ezin du onena besterik egin, eta gauza batzuk ezin daitezke batera onenak izan, ahalbide infinituen artean bat besterik ez baita bere helbururako egokiena, puntu batetik bestera marra daitezkeen lerro infinituen artean zuzen bat besterik ezin egon daitekeen bezala. Eta Jainko arrazionalak, arrazoimenaren Jainkoak, kasu bakoitzean, lerro zuzenari, lortu nahi duen helburura ongienik daramanari segitu besterik ezin dio egin, beharrezko helburura, alegia, hara daraman norabide zuzen bakarra ere beharrezkoa den bezalaxe. Eta honetara, Jainkoaren jainkotasuna Haren beharrianak ordezkatzeko du. Eta Jainkoaren beharrianean Haren borondate askea hiltzen da; hau da, haren nortasun kontzientea. Irrikatzen dugun Jainkoak, ezerezetik arima salbatu behar dugun Jainkoak, Jainko betierekotzaileak, Jainko arbitrarioa izan behar du.

Izan ere, Jainkoa ezin izan daiteke Jainko, soilki, pentsatzen duelako, diharduelako eta sortzen duelako baizik; ez da Jainko behakoaia, ihardulea baizik. Jainko Arrazoaia, Jainko teoriko edo behakorra, arrazionalismo teologikoaren Jainko hori bezala, bere buruari adi eta beha bere baitan urtzen den Jainkoa da. Jainko honi dagokio, dakuskegunez, ikuspen beatifikoa, betiereko zorionaren adierazpen goren gisa. Hortaz, Jainko geldikoaia, bere esentziaz beraz arrazoimena ere geldikoaia den bezalaxe.

Beste froga famatu hura geratzen da, kontsentimenduarena, herri guztiek, salbuespenik gabe, Jainko batengan sinesten dutelako ustea. Baina froga hori, hertsiki, ez da arrazionala, ez eta Unibersoa azaltzen duen Jainkoaren aldekoa ere, bizieratzen gaituen Jainko bihozkorren aldekoa baizik. Arrazionala deitzeko, arrazoimena, salbuespen bat edo beste gora-behera, herrien kontsentimendua dela sinetsi beharko genuke, hots, sufragio unibertsala, *vox Dei* omen den *vox populi*-a arrazoimen egingo bagenu.

Horrelaxe sinesten zuen Lamennais tragiko eta sutsu hark, bizitza eta egia gauza bakar eta berbera direla -aitz horrela!- zioenak, eta arrazoimena bat, unibertsal, betiraunkor eta saindutzat aldarrikatu zuenak (*Essai sur l'indifference*, IV. zatia, VIII. kap.). Eta Lactantioaren " guztiei sinetsi behar zaie edo inori ere ez" -*aut omnibus credendum est aut nemini*- delako hura glosatu zuen, eta Heraklitok esandakoa, hots, banakoaren eritzi orok huts egin dezakeela, eta Aristotelesek esandako hura, frogarik sendoena gizon ororen kontsentimendua dela eta, batez ere, Pliniorena (*Paneg. Traiani*, LXII), hau da, ez dituela batek guztiak engainatzen ez eta guztiek bat -*nemo omnes, nemines omnes fefellerunt*-. Ailtz horrela! Eta horrela Cicerok zioen hartan amaitzen da (*De natura deorum*, III. lib, II. kap. 5 eta 6), hau da, geure aurrekoei, arrazoirik ematen ez badigute ere, sinetsi egin behar diegula, *maioribus autem nostris, etiam nulla ratione reddita, credere*.

Bai; demagun antzinakoen eritzi hori, jainkozkoa Natura osoa blaitzen duela dioskuna, unibertsala eta etengabea dela, hots, aitatar dogma bat, (? ? v? ? ? ? ? ? ? v? ?) Aristotelesek dioenez (*Metaphysica*, VII. lib., VII. kap.); horrek herriak eta gizabanakoak -guztiak, ia guztiak edo asko badira ere- Jainko batengan sinestera daramatzen motibo bat badela besterik ez luke frogatuko. Baina ez al dago ilusio eta falaziarik giza izaeran bertan oinarritzen denik? Ez al dira herri guztiak sinesten hasten eguzkiak beren inguruan biratzen duela? Eta ez al da naturala guztiok geure irrika asebetetzen diguna sinesteko joera izatea? W. Hermann-ekin haxe esan beharko al dugu (ikus "Christliche systematische Dogmatik", *Systematische christliche Religion* liburukian, aita Hinneberg-ek argitaraturiko *Die Kultur der Gegenwart* bilduman), hots, "Jainko bat baldin badago, ez dela aritu nolabait guri adierazpenik egin gabe, eta geuk aurkitzea nahi duela"?

Nahi piadosoa, zalantzarik ez, baina hori ez da arrazoi bat, beronen adiera hertsian, augustindar esaera aplikatzen ez badiogu, arrazoi ere ez dena, "ene bila habilenez gero, jadanik aurkitua nauk", Jainkoak bere bila ibilerazten gaituela uste izanik.

Herrien ustezko kontsentimenduaren argudio famatu hori, antzinakoek instintu seguruz gehienik erabili zutena, funtsean, eta taldetik gizabanakoarengana aldaturik, ez da froga morala deritzona besterik, Kantek bere *Arrazoimen praktikoaren Kritika*-n erabilia, gure kontzientziatik -edo, hobeki esan, jainkotasunaz dugun sentimendutik- ateratzen dena, eta berez froga hertsiki eta bereziki arrazionala ez dena, bizikorra baizik, Jainko logikoari, *ens summum* delakoari, Izaki ezin bakunago eta ezinago abstraktuari, lehen motore geldi eta ezin paira dezakeenari, Jainko Arrazoiari, azken buruan sufritzen eta irrikatzen ez duenari, ezin aplikatu dakiokena, Jainko biotikoari baizik, hau da, Izaki ezinago konplexu eta ezin konkretuagoari, gudan eta gurekin sufritzen eta irrikatzen duen Jainko pairakorrari, Kristoren Aitari, Gizonaren, bere Semearen, bitartez baino ezin joan dakiokena (ikus Joanes, XIV, 6), horren errebelazio historikoa, edo, nahi izanez gero, anekdotikoa izanik, baina ez filosofikoa, eta kategorikoa ere ez.

Herrien salbuespenik gabeko kontsentimenduak -demagun horrela dela!-, hau da, beren gizatasunaren kontzientziara, hots, Unibertsoaren helburu eta zentzu izan nahi duenera, heldu ziren giza arima guztien irrika unibertsalak, irrika horrek, arimaren esentzia hura bera besterik ez denak, beti ere irauteko eta kontzientziaren jarraipena ez eteteko eginahal horrek Jainko gizatiarrarengana garamatza, antropomorfitikoa, geure kontzientziak Unibertsoaren Kontzientziara egindako projekzioa, Unibertsoari giza helburu eta zentzua ematen dion Jainkoagana, ez dena ez *ens summum* edo *primum movens* ez Unibertsoaren sortzaile, ez eta Ideia-Jainkoa ere. Jainko bizia da, subjektiboa -subjektibotasun objektibatua edo nortasun unibertsalizatua denez gero- ideia hutsa baino gehiago dena, eta arrazoimen baino gehiago borondate dena. Jainkoa Maitasuna

da, hau da, Borondatea. Arrazoimena, Hitza, Harengandik eratorria da; baina Hura, Aita, ororen aitzin, Borondatea dugu.

"Inolako dudarik gabe -idazten zuen Ritschl-ek (*Rechtfertigung und Versöhnung*, III, V. kap.)- Jainkoaren nortasun izpiritualari guztiz era ezosoan erizten zitzaion antzinako teologian, ezagutu eta gura izateko funtzioetara mugatzen baitzen. Erlijio-kontzepzioak Jainkoari sentimendu izpiritualaren esleipena ere aplikatu behar dio nora ezean. Baina antzinako teologiaren aburuz, sentimendua eta atxekimendua nortasun mugatu eta sortuaren ezaugarriak ziren, eta Jainkoaren zorionaren erlijio-kontzepzioa, adibidez, bere buruaren etengabeko ezagutze bihurtzen zuen, gorrotoaren kontzepzioa, aldiz, bekotua zigortzeko ohizko asmo bilakatuz". Bai, *via negationis* lorturiko Jainko logiko hark, hertsiki, ez maitatzen ez gorrotatzen zuen, gozatzen eta sufritzen ere ez zuelako; pena-gloriarik gabeko Jainkoa zen, ezgizatiarra, eta haren justizia justizia arrazional edo matematikoa zen, hau da, injustizia.

Jainko biziaren esleipenak, Kristoren Aitarenak, Ebangelioko eta fededun kristau bakoitzaren kontzientziako errebelazio historikotik atera behar dira, eta ez, Scottus Eriugenaren Jainko-Ezerezarengana, Jainko arrazional edo panteistagana, Jainko ateistagana, azken buruan Jainkotasun nortasungabetuarengana besterik ez daramaten arrazoiketa metafisikoetatik.

Eta, izan ere, Jainko biziagana, Jainko gizatiarrengana ez da arrazoimenaren bidetik heltzen, maitasunaren eta sufrimenduaren bidetik baizik. Hurbildu baino gehiago, arrazoimenak Harengandik urrundu egiten gaitu. Ezinezkoa da Hura ezagutzea, gero maitatzeko; hasieran maitatu beharra dago, irrikatu, eta ezagutu baino lehen, Haren gose izan. Jainkoaren ezagutza Jainkoaganako maitasunetik dator, eta ezagutza horrek ezer gutxi du arrazionalik. Jainkoa definezina delako. Jainkoa definitu gura izatea, Hura gure buruan mugatzen saiatzea da, hau da, hiltzea. Definitzen ahalegintzen garen bezain laster, ezereza jalgitzen zaigu.

Ustezko teodizea arrazionalaren arauerako Jainkoaren ideia ez da hipotesi bat besterik, eterraren ideia bezala, adibidez.

Hartan ere, eter hau ez da ustezko izakundea baizik, eta ez du baliorik, beraren bidez azaltzen saiatzen garena azaltzen duen neurrian izan ezik: argia, elektrizitatea, edo grabitazio unibertsala, eta soilik egintza horiek beste era batera ezin azal daitezkeen ginoan. Eta horrela, Jainkoaren ideia ere hipotesi bat da, berarekin azaltzen saiatzen garena geure buruari azaltzen diogun neurrian besterik balio ez duena: Unibertsoaren existentzia eta esentzia, horiek beste modu batez hobeki azaltzen ez diren bitartean behintzat. Eta, egia esan, hura, ideia horrekin, bera gabe baino hobeki azaltzen ez dugunez gero, Jainkoaren ideiak, printzipio-eskaera gorenak, kale egiten du.

Baina eterra argia azaltzeko hipotesi bat besterik ez bada ere, airea, aldiz, hurrean sentituriko gauza da; eta harekin hotsa ezin azal bageneza ere, haren sentsazio zuzena izango genuke, haren faltarena batez ere, itolarrian, aire-gosearena. Eta era berean, Jainkoa bera, ez jada Jainkoaren ideia, hurrean sentituriko errealitatea izatera hel daiteke; eta haren ideiaz Unibertsoaren existentzia eta esentzia azaltzerik ez badugu ere, batzuetan Jainkoaren sentimendu zuzena izaten dugu, batez ere izpirituzko itolarrian. Eta sentimendu hau, -adi beha bekio, bizitza osoaren sentimendu osoa honetan datza eta-, Jainkoaren gose-sentimendua da, Jainkorik ezarena. Jainkoagan sinestea, lehenengo eta behin, Jainkoa egotea nahi izatea da, Hura gabe ezin bizitzea.

Arrazoimenaren alorretan zehar Jainkoaren bila pelegrin ibili nintzen bitartean, ezin nuen hura aurkitu, Jainkoaren ideiak engainatzen ez ninduelako, ideia bat Jainkotzat ezin har bainezakeen, eta orduan, arrazionalismoaren eremuetan erraturik nenbilenean, neure buruari esan nion ez genuela egia ez beste kontsolakizunik hartu behar, horrela arrazoimena deituz, baina, hala ere, kontsolatu gabe geratu nintzen. Baina alde batetik

eskeptizismo arrazionalen eta bestetik sentimenduzko desesperantzan murgilduz joatean, Jainkoaren gosea biztu zitzaidan, eta izpirituaren itolarriak, haren faltarekin, haren errealitatea sentierazi zidan. Eta Jainkoa egotea, Jainkoa existitzea nahi izan nuen. Eta Jainkoa ez da existitzen, hobesanez, gainexistitu egiten da, eta gure existentziari eusten ari da, guri existierazten.

Jainkoa, Maitasuna dena, Maitasunaren Aita alegia, gudan maitasunaren seme da. Badira gizon arin eta azaleko batzuk, kanporatzen gaituen arrazoimenaren esklabu izanda, Jainkoak gizona bere antz eta irudira egin ordez, bere antz eta irudira bere Jainkoa edo bere jainkoak egiten dituen, gizona dela esanez zerbait esan dutela uste dutenak; konturatu gabe, kaskarinak halakoak, bigarren esaldi hori, den bezala, horrelaxe dela, hain zuzen, lehena egia txikiagoa ez delako. Izan ere, Jainkoak eta gizonak elkar egiten dute, bai; Jainkoa gizonagan egiten edo agerterakusten da, eta gizona Jainkoagan egiten da; Jainkoak bere Burua egin zuen, *Deus ipse se fecit*, esan zuen Lactantiok (*Divinarum institutionum*, II, 8) eta gizonagan eta gizonagatik egiten ari dela esan dezakegu. Eta gutariko bakoitzak, bere jainkotasun-bultzadan eta -gosean Jainkoa bere neurrira irudikatuko balu, eta Jainkoa bere neurrira beretzat egiten, badago Jainko kolektibo, sozial eta gizatiarra ere, hura irudikatzen duten giza irudimen guztien ondorioa. Jainkoa izan eta agerterakutsi kolektibitatean egiten delako. Eta, izan, giza kontzeptio aberatsena eta pertsonalena Jainkoa da.

Jainkotasun-maisuak hobezinak izateko esan zigun, gure Aita zeruetan dena hobezina den bezala (Mat. V, 48), eta sentitu eta pentsatzeko ordenuan gure hobezintasuna ekinaz saiatzean datza, gure irudimena gizateriaren irudimen osora hel dadin, Jainkoagan, horrexen partaide gara eta.

Gauza jakina da kontzeptu baten hedaduraren eta ulerkeraren arteko kontrajarreraren doktrina logikoa, eta, hortaz, bata haziz doan neurrian, bestea txikitzen dela. Kontzepturik hedatuena eta batera ulerker txikienekoa izaki edo gauzarena da, existitzen den guztia besarkatzen duen eta izatearen nota besterik ez duena, eta ulerker zabaleneko eta hedadurarik txikieneko kontzeptua, aldiz, Unibertsoarena da, berari besterik ezin aplikatu dakiokena, eta diren nota guztiak besarkatzen dituen. Eta Jainko logiko edo arrazionala, ukoaren bidez erdietsia, izaki gorena, errealitatetzat, ezerezean laburbiltzen da, izaki hutsa eta ezerez hutsa, Hegelek irakasten zuenez, identifikatu egiten direlako. Eta Jainko bihozkor edo sentitua, bizien Jainkoa, Unibertso pertsonalizatua bera da, Unibertsoaren kontzientzia.

Jainko unibertsoala eta pertsonala alegia, monoteismo metafisiko zurrunaren Jainko individual hura ez bezalako.

Hemen berriz ere oharterazi behar dut banakotasuna nortasunari kontrajartzen diodala, bata bestearen behar badu ere. Banakotasuna, horrela adierazterik baldin badut behinik behin, edukitzailea da, eta nortasuna edukina; edo, nolabaiteko adieran, esan nezake, halaber, ene nortasuna ene ulerker dela, daukadan eta nigan gordetzen dudana -nolabait Unibertso guztia dena-, eta ene banakotasuna ene hedadura dela; bata, infinitu nirea, eta bestea, nire finitua. Azal gogorreko buztinezko ehun suil, sendoki individualizaturik daude baina berdinak edo hutsak izan daitezke edo, gehienez ere, likido homogeen berberaz beteak, eta, aldiz, mintz mehe-meheko bi puxika, horien bitartez osmosi eta exosmosi trinkoa eginez, erabat ezberdinak izan daitezke, eta likido oso konplexuez beterik egon. Eta horrela bata besteengandik biziki nabarmen daiteke, norbanako gisa, krustazeo izpiritu gisakoa izanik eta, halere, ezberdintasun-mamitan urri-murrizta izan. Eta are gehiago, zenbat eta bat bederak nortasun handiagoa izan, zenbat eta barne aberastasun handiagoa, nor bere baitan zenbat eta gizarte gehiago den, are laztasun txikiagoa ohi du besteengandik bereizteko. Eta modu berean, deismoaren Jainko zurruna, monoteismo aristotelikoarena, *ens summum* delakoa, individualtasunak edo,

hobeki esan, bakuntasunak, nortasuna itotzen dion izakia da. Definizioak hil egiten du, definitzea mugak ipintzea delako, munarritzea delako, eta ez dago absolutuki definiezina definitzerik. Ez du Jainko horrek barne aberastasunik; ez da bere baitan gizarte. Eta hori bizitzaren goiagerpenak ekidin zuen Hirutasunaren sineskeraz, hots, Jainkoa gizarte bat eginez, bai eta bere baitan familia bat ere, eta ez banako huts bakarra. Fedeko Jainkoa pertsonala da; pertsona da, hiru pertsona barnebiltzen dituelako, nortasuna ez baita bakarrean sentitzen. Pertsona isolatua ez da jada halakoa. Izan ere, nor maiteko luke? Eta maitatzen ez badu, ez da pertsona. Ezina da, halaber, bakuna izanik, norbera maitatzea, bikoiztu ezik.

Jainkoa Aitatzat sentitzeak ekarri zuen, ondotik, Hirutasunaren baitako fedea. Jainko Aita bat Jainko ezkongabe, hau da, bakarti, ezin izan daitekeelako³⁴. Aita beti ere aita familiakoa da. Eta Jainkoa Aitatzat sentitzeak etengabeko lilura ekarri du ez jada antropomorfikoki, hau da gizakitzat *-anthropos-* ikusteko, andromorfikoki baizik, hots, gizakumetzat *-aner-*. Izan ere, herri-irudimen kristauak Jainko Aita gizonezkoztat dakusa. Zeren gizakia, *homo*, ez baitzaigu gizonezko, *vir*, edo emakume gisa, *mulier*, baizik agertzen. Eta honi haurra gehi dakioke, neutro dena³⁵. Eta hemendik, Jainko gizakume betearen sentimenduzko beharrezana osatzeko, hau da, familiarena, Jainko Amaren gurkera sortu da, Maria Birjinarena, eta Jesus Haurraren gurkera ere bai.

Ama birjinarenganako gurkera, mariolatria, Ama Birjinaren alde jainkozkoa pixkanaka, ia jainkotu arte, goratuz joan dena, Jainkoa gizon osoa izateko sentimenduzko beharrezanari besterik ez doakio, Jainkoagan emetasuna ere sar dadin. Jainkoaren Ama, *deipara*, esalditik hasita, pietate katolikoa Maria Birjina goretsiz joan da, berrerokide izendatu eta haren sortzapena jatorrizko bekatutik orbanik gabea aldarrikatzeraino heldu arte, horrela Gizatasunaren eta Jainkotasunaren bitartean kokatuz, eta honi hurbilago hari baino. Eta norbaitek, agerian, beharbada hura jainkozko pertsona bat gehiago egiteraino inoiz ez ote den helduko ere susmoa agertu du.

Eta agian hala eta guztiz ere Hirutasuna ez litzateke Lautasun bilakatuko. Baldin eta ? ? ? ? § ? ? , izpiritua grezieraz, neutroa izan beharrean femeninoa izan balitz, nork ote daki ez ote zatekeen honez gero Maria Birjina Izpiritu Sainduaren haragipen edo gizakuntzaren bat bihurtuko? Horretarako, nahikoa izango zukeen pietate sutuak Ebangelioaren textua, Lukasen arauerakoa, I. kapituluaren 35. bertsetean, Gabriel aingeruaren Iragarpena kontatzen duenean, honela diotsona" Izpiritu Saindua hire gainean etorriko dun", pietate horrek teologi espekulazioa bere nahietara beti makurterazten daki eta. Eta, horretara, lan dogmatiko paraleloa egingo zatekeen, Jesus, Semea, Hitzarekin identifikatu eta jainkotzean egin zen bezalaxe.

Edonola ere, Ama Birjinaren gurkera, betiereko emetasuna, edo, hobesanez, jainkozko emetasuna, jainkozko amatasunaren gurkera hori, Jainkoaren pertsonalizazioa osatzera dator, hura familia eginik.

Neure liburuetariko batean (*Don Quixote eta Sanchoren bizitza*, bigarren zatia, LXVII. kap.) esana dut "Jainkoa gure buruetan maskulinoa zen eta da. Gizonak epaitzeko duen modua, gizakumearen modua da, eta ez sexuaren gainetik dagoen gizakiarena; Aita-modua. Eta konpentsatzeko Ama falta zen, beti barkatzen duen Ama, aita haserretuaren esku altxatutik edo betosko zimurtutik ihesi doan semeari beti ere besoak irekitzen dizkion Ama; Ama horren altzoan, kontsolamendu gisa, haren barruan jaiotzaurrearen egunsentia izan genuen inkontzientziaren bake epel haren oroitzapen iluna eta inozentzi ametsak baltsamatu zituen diti gozo haren kutsua bilatzen delarik; barkamena ez den beste justiziarik eta maitasuna ez den beste legerik ezagutzen ez dituen Ama, alegia. Bizar luzeko eta trumoi ahotseko Jainkoaren ulerkera urri eta ezosoak, goitik aginduak ezarri eta epaiak jartzen dituenak, Jainko etxeko jaunak, erromatar erako *Pater familias* horrek, konpentsatu eta osatu beharra zeukan; eta barren-barrenean Jainko pertsonal eta

bizia, ez jada giza eitearen gainetik, ez eta gizakume-eitearen gainetik ere, eta are gutxiago Jainko neutro edo hermafrodita gisa, ezin uler dezakegunez gero, Jainko femenino bat jartzera gatoz, eta Jainko Aitaren ondoan Jainkosa Ama ipini dugu, beti barkatzen duena, maitasun itsuaz begiratzen duenez gero, erruaren barrua beti dakusana, eta barru horretan barkamenaren justizia bakarra..."

Eta horri orain haxe gaineratu behar diot, hots, Jainko bizi eta osoa gizakume soiltzat ezin ulertzeaz gainera, ezin dugula banako soiltzat ere ulertu, hau da, ni bakarti eta gizartetik kanpoko baten, ni egiazki abstraktu baten projekzioztat. Nire ni bizia errealitatean gu bat da; nire ni bizia, pertsonala, ez da bizi beste ni-engan, beste ni-engandik eta beste ni-engatik baizik; ni aitonamonateria handi batengandik nator eta nigan ekstraktuan daramatzat eta, era berean, nigan ilobateria handia daramat ahalmenez, eta Jainkoa, nire niaren infiniturako projekzioa -hobesanik, ni Jainkoaren infiniturako projekzioa-, multzotasuna da. Eta hortixek dator, Jainkoaren nortasuna salbatzeko, hau da, Jainko bizia salbatzeko, hura nolabaiteko barne-aniztasunaz -hau da, sentimenduz eta irudimenez- ulertzeko eta sentitzeko fedearen beharra.

Jainkotasun biziaren sentimendu paganoak hori politeismoarekin ekidin zuen. Haren Jainkotasuna haren jainkoen multzoak, horien errepublikak, osatzen zuen egiazki. Heleniar paganismoaren egiazko Jainkoa, Zeus Aita (*Jupiter*) baino gehiago, jainko eta erdijainko guztien gizarte osoa zen. Eta hortik dator Demostenesen deiaren gorentasuna, jainko orori, jainkosa guztiei hots egiten zienean: τοις θεοις ευχομαι πασι και πασαις. Eta arrazoitzaleek jainko berba, θεος, berez adjektiboa dena, hots, jainko bakoitzaz predikaturiko nolakotasuna, substantibatu eta artikulua erantsi ziotenean, *jainko-a* - arrazionalismo filosofikoaren jainko abstraktu edo hila forjatu zuten, nolakotasun substantibatu eta nortasunik gabea, beraz. *Jainko-a* ez baita *jainkozko-a* baino besterik. Eta, izan ere, ezin iragan daiteke, sentimenduarentzako arriskurik gabe, jainkotasuna orotan sentitzetik hura substantibatuz eta Jainkotasuna Jainko egitera. Eta Jainko aristotelikoa, froga logikoena, ez da Jainkotasuna baino besterik, hau da, kontzeptu bat eta ez pertsona bizi bat, senti daitekeena eta gizonak harekin, maitasunaren bidez, komunikatzeko modua duena. Jainko hori, adjektibo substantibatu besterik ez dena, jainko konstituzionala da, erreinatu bai, baina gobernatzen ez duena; Zientzia da haren karta konstituzionala.

Eta greko-latindar paganismoan bertan, monoteismo bizirako joera argi ageri da Zeus aitatzat ulertu eta sentitzean, Ζευς πατηρ, Homerok deritzenez; latindarren artean *Jupiter*, hau da, *Iu-Pater*, jainko-familia aski hedatuaren aita, harekin Jainkotasuna osatzen dutelarik.

Paganoen politeismoa eta juduen monoteismoa, Jainkoaren nortasuna bestelako bideetatik salbatzen ahalegindua berau, elkarrekin batzean Jainko katolikoaren sentimendua sortu zen, gizarte dena, lehen esan dudan Jainko pagano hori ere gizarte zen bezala, eta bat da, Israelgo Jainkoak ere azkenean bat izaten amaitu zuen bezala. Eta horixe da Hirutasuna, horren zentzu sakona deismo arrazionalistak, kristautasunaz aski edo gutxi kutsaturik baina beti bateratzaile edo sozinotarrak, oso gutxitan ulertzerik izan duena.

Eta kontua da Jainkoa, gizagainetiko kontzientzia bezala barik, giza leinu osoaren kontzientzia bera bezala sentitzen dugula, iraganaren, presentekoaren eta etorkizunekoarena, leinu osoaren talde-kontzientziatzat, kontzientzia oro, gizazpikoak, gizatiarrak eta agian gizagainekoak hartzen eta sostengatzen dituen kontzientzia orokor eta infinitu gisa. Orotan den jainkotasuna, beheenetik hasi, hau da, kontzientziarik txikiena duen bizidunetik, goreneraino joanda, gure giza kontzientzian zehar pasatuz, bere buruaz kontziente, Jainkoagan pertsonalizaturik sentitzen dugu. Eta gure giza kontzientziatik bete-betean jainkozko eta unibertsal den horretarainoko jauzia sentituz,

kontzientzi mailaketa horri dagokio, gure giza kontzientziaren eta Jainkoarenaren artekotzat harturik, aingeruengan, hierarkia ezberdinekin sinestea. Eta bere buruarekin koherente den fedeak mailaketa horiei infinitu eritzi behar die, ez baitago finitutik infinitura pasatzerik, maila infinitutan zehar ez bada.

Arrazionalismo deistak Jainkoa Unibertsoaren Arrazoimentzat dauka, baina horren logikak Hura arrazoi inpersonalizat ulertzera darama, hau da, ideiatzat, bizikortasun deistak Jainkoa Kontzientziatztat eta, beraz, pertsonatztat edo, hobesanez, pertsonen gizartetzat, sentitzen eta irudikatzen duen bitartean. Gutariko bakoitzaren kontzientzia, izatez, zenbait pertsonen gizartea da; nigan ni batzuk bizi dira, eta nirekin bizi direnen niak ere bai.

Arrazionalismo deistaren Jainkoa, hau da, bere existentziaren froga logikoen Jainkoa, *ens realissimum* eta lehen motore geldia, ez da Arrazoimen goren bat besterik, baina grabitazio unibertsalaren legeari, horrexen azalpena denari, gorputzen erorkeraren arrazoa dei diezaiokegun adiera berean. Baina esan al dezake norbaitek grabitazio unibertsalaren legea deitzen dugun hori, edo beste edozein lege edo oinarri matematiko, errealitate berezko eta burujabea dela, hots, aingeru bat dela, bere buruaren eta besteen kontzientzia duen zerbait? Pertsona dela? Ez, ez da ideia bat besterik, bera gogoan darabilenaren burutik kanpoan errealitaterik ez duena. Eta horrela, biotarik bat, Jainko Arrazoimen horrek bere buruaren kontzientzia du, edo bestela ez du errealitaterik Bera gogoan darabilenaren burutik kanpoan. Eta bere buruaren kontzientziarik baldin badu, orduan jada arrazoi pertsonala da, eta orduan froga haien balioa ezerezten da, froga horiek arrazoi bat besterik frogatzen ez baitzuten, baina ez kontzientzia goren bat. Matematikak ordenu bat frogatzen du, konstantzia bat, fenomeno mekanikoen segidetan arrazoi bat, baina ez du frogatzen arrazoi hori bere buruaz kontzientea denik. Premia logikoa da, baina premia logikoak ez du premia teleologikoa edo azken zertarakoa frogatzen. Eta zertarakorik ez den lekuan ez dago, halaber, nortasunik, ez dago kontzientziarik.

Beraz, Jainko arrazionalak, hots, Unibertsoaren Arrazoimena besterik ez den Jainkoak, holako Jainkotzat bere burua suntsitzen du gure buruan, eta gudan ez da pertsona bizitzat birpizten, bera bihotzean, Kontzientziatztat, eta ez Unibertsoaren Arrazoimen inpersonal eta objektibo soiltzat, sentitzen dugunean izan ezik. Makina baten eraketa arrazionalki azaltzeko, nahikoa dugu hura eratu zuenaren zientzia mekanikoa jakitea; baina halako makina existitzen dela ulertzeko, Naturak ez baititu egiten baina bai gizonek, izaki kontziente eta eratzaile bat suposatu behar dugu. Baina arrazoiketaren bigarren zati hau ezin aplika dakioke Jainkoari, Beragan makina eratzten duten zientzia mekanikoa eta mekanismoa gauza bakar eta berbera direla esan arren. Identifikazio hau, arrazionalki, printzipio-eskaera bat besterik ez da. Eta horrelaxe suntsitzen du arrazoimenak Arrazoimen goren hori pertsona den aldetik.

Izan ere, giza arrazoimena, bere aldetik irrazionaltasunaren gainean baizik oinarritzen ez den arrazoimena besterik ez da, hots, kontzientzia bizikor osoaren gainean, borondatearen eta sentimenduaren gainean oinarritua; eta ez da gure arrazoimen hori Arrazoimen Goren baten existentzia froga diezagukeena, horrek, bere aldetik, Irrazionaltasun Gorenaren, hau da, Kontzientzia Unibertsalaren gainean oinarritu beharko luke eta. Eta, hortaz, sentimenduzko eta irudimenezko errebelazioa da, maitasunaz, fedeaz, Kontzientzia Goren horren pertsonalizazioaren bidez, Jainko biziagan sinestera eramaten gaituena.

Eta Jainko hau, Jainko bizia, hire Jainkoa, gure Jainkoa, nigan da, higan da, gudan bizi da, eta gu, bizi, mugitu eta izan, Harengan gara. Eta gudan da, Haren gose garelako, Harenganako irrikagatik, gure apetari eragiten dio eta. Eta apalen Jainkoa da, Jainkoak munduko ergela aukeratu zuelako jakintsuak lotsarazteko, eta ahula indartsua

lotsarazteko, Apostoluaren arauz (*Kor. I, I, 27*). Eta Jainkoa bakoitzarengan da bakoitzak Bera sentitzen eta maitatzen duen ginoan."Baldin bi gizonetarik -dio Kierkegaardek- batak egiazko Jainkoari zintzotasun pertsonalik gabe otoitz badegio, eta besteak infinitutasunaren suhartasun osoaz idolo bati otoitz eginez gero, aurrena da idolo bati egiazki otoitzez dagokiona, bigarrenak Jainkoari egiazki otoitz egiten dion bitartean". Hobe da, Jainko egiazkoa, norberak benetan otoitz egiten dion eta irrikatzen duena dela esatea. Eta sineskeria bera teologia baino argigarriagoa izan daiteke. Bizar luzeko eta ile zuriko Aita zaharra, hodei artean munduaren bola eskuan daramala ageri dena, biziagoa eta egiazkoagoa da teodizeako *ens realissimum* delakoa baino.

Arrazoimena indar analitikoa da, hau da, disolbatzailea, intuizioen formaren gainetik, horiek bizirik irauteko sena edo bizirauteko gizarte-sena izan, obratzeari utzi eta hondoaren gainean, haien materia berberaren gainean obratzen duenean. Arrazoimenak mundu materiala eskaintzen diguten hautemate sentigarriak ordenatzen ditu, baina haren analisia hautemateen beren errealitatearen gainean egiten denean, horiek disolbatu eta gu agerkeriazko eta funtsik gabeko itzalen mundu batean murgiltzen gaitu, arrazoimena, formazko arlotik kanpoan, nihilista, ahitzzailea delako. Eta ofizio ikaragarri bera betetzen du, bere lanbide propiotik aterata, mundu izpirituala eskaintzen diguten irudimenezko intuizioak arakatzera daramagunean. Arrazoimenak suntsitu egiten duelako, eta irudimen *osoak*, aldiz, integratu edo orokortu; arrazoimenak, berak bakarrik, hil egiten du eta irudimenak, aldiz, bizitza ematen. Irudimenak, berak bakarrik, muga gabeko bizitza ematean, ororekin nahastera garamatzala eta, beraz, gizabanakoak garen aldetik, hil ere egiten gaituela egia den arren, halere, gehiegizko bizitzaz hiltzen gaitu. Arrazoimenak, buruak, honela diosku: "Ezer ez!"; irudimenak, bihotzak, aldiz, badiosku: "Oro!", eta ezerez eta ororen artean, oro eta ezereza gudan urturik, oro den Jainkoarengan bizi gara, eta Jainkoa gudan bizi da, Bera gabe ezereza garenongan. Arrazoimenak behin eta berriro errepikatzen du: "Hutsalkerien hutsalkeria, eta oro da hutsalkeria!". Eta irudimenak honela ihardesten: "Betetasunen betetasuna, eta oro da betetasuna!". Eta honetara, betetasunaren hutsalkerian bizi gara, edo hutsalkeriarren betetasunean.

Eta mundu ilogikoan, pertsonalean edo jainkozkoan bizitzeko beharrian bizikor hau gizonari hain barru-barrutik irteten zaionez gero, Jainkoarengan sinesten ez duten edo Harengan sinesten ez dutela uste duten guztiek, edozein jainkotxorengan, deabrukilo bat bada ere, edo zoriren batean, edo ausaz bideetan ustekabean aurkitu eta beren bihotzaren gainean gordetzen duten ferra batean, sinesten dute, zorte ona ekar diezaien eta horren zerbitzari leial eta zintzo izan uste duten arrazoimen horretatik jagon ditzan.

Gose ematen digun Jainko hori gure otoitzetako Jainkoa da, *Pater noster*-eko Jainkoa alegia, Jaunaren otoitzekoa, gauza guztien aurretik eta gainetik, konturaturik zein konturatzeke, fedea eman diezagula, Beraren baitako fedea eman diezagula eskatzen diogun Jainkoa, eta Berarengan sinesteraz gaitzala, Hura gudan egin dadila, Haren izena saindu izan dadila, eta Haren borondatea -Haren borondatea, eta ez Haren arrazoimena- zeruan bezala lurrean ere egin dadila eskatzen diogun Jainkoa, baina Haren borondatea gure borondatearen esentzia besterik ezin izan daitekeela sentituz, hots, betiereko irauteko nahia.

Eta horixe da maitasunaren Jainkoa, eta ez du balio norbaitek guri nolakoa den galdetzeak, aitzitik, bakoitzak galde degiola bere bihotzari eta utz biezaio bere irudimenari pinta diezaiola Unibertsoaren urruntasunean, haren milioika begietatik so, gaueko zeruko izar-argizagiekin, berari adi. Hik sinesten duan hori, irakurle, horixe duk heure Jainkoa, higan hirekin bizi izan dena, hirekin jaio eta hi haurra izan hintzanean haur izan zena, eta hi gizonduz hindoan ginoan gizonduz zihoana, eta lainotzen dena hi lainotzen haizenean, eta bizitza izpiritualean hire jarraitasun-oinarria dena, gizon

guztien arteko eta gizon bakoitzaren baitako elkartasun-oinarria delako, bai eta gizonen Unibertsoarekin dutenarena ere eta, hi bezala, pertsona dena. Eta Jainkoarengan sinesten baduk, Jainkoak higan sinesten dik, eta higan sinetsiz etengabeki sortzen hau. Hi, funtsean, Jainkoak hitaz duen ideia besterik ez haizelako; baina ideia bizia, Jainko bizi eta bere buruaz kontzienteari dagokionez, Jainko Kontzientziarena bezala, eta gizartean haizenetik kanpoan ez haiz ezer.

Jainkoa definitzea? Bai, horixe da gure irrika; horixe zen Jakob gizonarena ere, gau osoan, egunsentia arturratu arte, jainkozko indar haren aurka borrokan ihardun ondoan, esan zuenean: "Esadak, otoi, heure izena!" (*Gen. XXXII, 29*). Eta entzuzue predikari kristau handi hark, Frederick Williams Robertson-ek, Brighton-eko Hirutasunaren kaperan, 1849.eko Ekainaren 10ean, predikatzen zuena³⁶, honela zioelarik: "Eta gure borroka, borroka *nagusia* hauxe da. Jaits dadila gizon egiati bat bere izatearen sakon-sakonera eta erantzun diezagula: Zein da bere izaeraren zatirik errealemetik heltzen zaion oihua? Eguneroko ogia eskatzen duena al da? Jakobek Jainkoarekiko bere *lehenengo* jaunartzean hori eskatu zuen; segurantz eskatu zuen, kontserbazioa. Gure bekatuak barkatzeko ote da ba? Jakobek bekatu bat zuen, barkakizun; baina horretan, bere existentziako unerik larrienean, ez zuen hartaz hitzik ere esan. Ala hau ote da? "Santifika bedi zure izena!". Ez, neba-arreba neureok. Gure gizatasun hauskor, baina apal honetatik, gure erlijioaren ordu lurtarrenetan jalgi daitekeen eskaria hauxe dateke "Salba ezazu nire arima!"; baina lurtartasun txikieneko uneetan beste hau izan daiteke: "Esadak heure izena!"

"Misteriozko mundu batean ari gara mugitzen, eta galderarik sakonena hauxe da, ea zein den beti hurbil zaigun izaki hori, batzuetan sentitua, inoiz ez ikusia -haurtzarotik, amets erabat eta biziki eder eta behin ere argitzen ez zaigunarekin, obsesionatu gaituena- inoiz ariman zehar desolazio gisa iragaten dena, Herioaren Aingeruaren hegoen hatsa bezala, gure bakartasunean izuturik eta ixilik utziz -horrek bizi-bizian ukitu gaitu eta haragiak agoniaz dardar egin du, eta edukin hilkorak minez kizkurtu dira- nobletasun-nahialdietan eta gizagaineko bikaintasunaren kontzepzioetan datorkiguna. Nor denari zer deitu beharko al diogu (*It or Her?*)? Zer da zer hori? Nor da nor hori? Hilezintasun- eta Jainko-aurrentimendu horiek, zer dira ba? Nire bihotzaren antsia hutsak al dira, ningandik kanpoan bizi ez den zerbaitzat hartzekoak? Nire irriken hotsa al da, ezerezaren huts zabal sakonean zehar durundi egiten? Ala Jainko, Aita, Izpiritu, Maitasuna deitu beharko al diet? Nire barruan edo kanpoan den izaki bizidun bat ote? Esadak heure izena, maitasunaren misterio ikaragarri heurea! Halakoxea dut neure bizitza serio osoaren borroka".

Horrela Robertsonek. Eta horretaz oharterazi behar dut "esadak heure izena!" hori funtsean ez dela "salba ezazu nire arima!" besterik. Izena eskatzen diogu gure arima salba dezan, giza arima salba dezan, Unibertsoaren giza zertarakotasuna salba dezan. Eta Hura nor deitzen dela esaten badigute, *ens realissimum* edo izaki Gorena dela edo beste edozein izen metafisiko, ez dugu askiasten, bai baitakigu izen metafisiko oro ixa dela, eta hari bere izena eskatzen segitzen dugu. Eta gure irrika asebate dezakeen izen bakar bat besterik ez dago, eta izen hori Salbatzailea da, Jesus; Jainkoa salbatzen duen maitasuna da.

For the loving worm within its clod,

Were diviner than a loveless God

Amid his worlds, I will dare to say.

"Bere mokilean maitatzen duen harra, bere munduen artean maitasunik ez lukeen Jainkoa baino jainkozkoagoa litzatekeela esatera ausartuko naiz", dio Robert Browning-ek (*Christmas Eve and Easter Day*). Jainkozkoa maitasuna da, pertsonalizatzeko eta betierekotzeko borondatea, betierekotasunaren eta infinitutasunaren gose dena.

Jainkoarengan bilatzen duguna gure burua, gure salbazioa da, Hark gu jainko egin gaitzala. Browning horrek berak esan zuen ("*Saul*", *Dramatic Lyrics*) :

*This the weakness in strength, that I cry for! my
flesh that I seek*

In the Godhead!

"Sendotasuneko ahuleziagatik oihu egiten dut nik; Jainkotasunean neure haragiaren bila nabil!"

Baina salbatzen gaituen Jainko hori, Jainko pertsonal hori, gure kontzientziak inguratzen eta sostengatzen dituen Unibertsoaren Kontzientzia, sortzapen osoari giza zertarakotasuna demaion Jainko hori, ba al da? Ba al dugu haren existentziaz frogarik?

Hemen lehen-lehenik aurkezten zaiguna existentziaren nozio honen adiera da. Zer da existitzea eta nolakoak dira ez direla existitzen dioguzan gauzak?

Existitu, bere esanguraren indar etimologikoan, gugandik kanpoan egotea da, gure burutik at: *ex-sistere*. Baina ba al dago ezer gure burutik at, gure kontzientziatik kanpoan, ezagutzen den oro besarkatzen duenik? Zalantzarik ez, badago. Ezagutzaren materia kanpotik datorrigu. Eta nolakoa da materia hori? Ezin jakin daiteke, ezagutzea materia informatzea delako, eta, beraz, ez dago informe dena informetzat ezagutzerik. Kaosa ordenaturik izatea bezala litzateke.

Jainkoaren existentziaren problema hau, problema arrazionalki konponezina, funtsean ez da kontzientziaren problema besterik, kontzientziaren *ex-sistentziarena*, eta ez horren *in-sistentziarena*, arimaren existentzia substantzialaren problema bera, giza arimaren betiraupenaren problema bera, Unibertsoaren giza zertarakotasunaren problema berbera. Jainko bizi eta pertsonal batengan, ezagutzen eta maitatzen gaituen kontzientzia betiereko eta unibertsalean sinestea, Unibertsoa gizona-*rentzat* existitzen dela sinestea da. Gizonarentzat edo giza mailako kontzientziarentzat, haren izaera berekoarentzat, sublimaturik bada ere, ezagutzen gaituen kontzientzia batentzat, horren altzoan gure oroitzapena betiko bizi dadin.

Beharbada, etsipenezko ahalegin goren eta desesperatuan, jadanik esana dut, geure nortasunaren sakrifizioa egiteraino hel gintezke, hiltzean halako Nortasun, halako Kontzientzia Gorena aberastera lihoakeela baldin bagenek; Arima Unibertsala gure arimetatik elikatzen dela eta haien beharra duela bagenek. Agian etsipen desesperatuan edo desesperantza etsian hil gintezke, geure arima Gizateriaren arimari eskainiz, geure lana, gure pertsonaren zigilua daraman lana, hari ondaretan utziz, baldin eta gizateria horrek, bere aldetik, geroago bere arima beste arima bati ondarez utzi beharko balio, antsien dolozko Lur honen gainean azkenik kontzientzia iraungi dadinean. Baina, eta horrela gertatzen ez bada?

Eta gizateriaren arima betierekoa baldin bada, giza kontzientzia kolektiboa betierekoa bada, Unibertsoaren Kontzientzia bat izan eta hau betierekoa bada, zergatik gure kontzientzia indibidual propioa ere, hirea, irakurle, enea, ez da halakoxea izango?

Unibertso zabal osoan, bere burua ezagutu, burua maitatu eta sentitzen duen kontzientzia honek, hortaz, holako eta halako berotasun-gradu artean baizik ezin bizi daitekeen organismoari loturiko salbuespen bat izan beharko al luke, hots, fenomeno iragankor bat? Ez da, ez horixe, kuriositate hutsa, astroetan organismo bizi arimadunik, gure kontzientziaren anaia-arrebarik ba ote den jakin nahi izatea, eta bada irrika sakonik ere zeruko urruntasun sakon zabala populatzen duten astroetan zehar gure arimak gorputzez alda daitezkeelako ametsean. Jainkotasunaren sentimenduak guztia arimaduna dela eta kontzientzia, neurri handiago edo txikiagoan, orotara hedatzen dela nahi izan eta sinesterazten digu. Ez dugu, soilki, geure burua salbatu gura, mundua ere ezerezetik salbatu nahi dugu. Eta horretarako, Jainkoa. Horixe da sentitzen diogun zertarakotasuna.

Zer izango litzateke Unibertsoa, bera isladatu eta ezagutuko lukeen kontzientziarik bat ere gabe? Zer litzateke arrazoimen objektibatua, borondate eta sentimendu gaberik? Guretzat ezereza bezalakoxea; mila aldiz izugarriagoa hura baino.

Uste hori inoiz errealitate izatera helduz gero, gure bizitzak baliorik eta zentzurik ez.

Ez da, beraz, beharizan arrazionala, herstura bizikorra baizik, Jainkoarengan sinestera garamatzana. Eta Jainkoarengan sinestea, gauza guztien aurretik eta gainetik, berriro errepikatu behar dut, Jainkoaren gose izatea da, jainkotasunaren gose, haren ausentzia eta hutsunea sentitzea, Jainkoa izatea nahi izatea. Eta Unibertsoaren giza zertarakotasuna salbatu nahi izatea da. Zeren, norbera Jainkoak xurgatua izatera etsitzeraino ere hel daiteke, gure kontzientzia Kontzientzia batean oinarritzen bada, hots, Unibertsoaren zertarakoa kontzientzia baldin bada.

"Gaiztoak bere bihotzean honela esan zuen: ez dago Jainkorik". Eta horrela da egiaz. Justuak bere buruan "Jainkorik ez da" esan baitezake. Baina bihotzean gaiztoak ez bestek esan dezake. Jainkoa egoterik nahi ez izatea edo ez dagoela uste izatea, gauza bat da; Hura ez egoteaz etsitzea, beste bat, gizaurrekoa eta lazarria bada ere; baina Jainkoa egotea nahi ez izateak munstrokeria moral oro gainditzen du. Nahiz eta, izatez, Jainkoaz ernegatzen dutenek bera ez aurkitzeko desesperazioz egiten duten.

Eta orain, berriz ere, galdera arrazionala dator, esfingetarra -Esfingea, izan ere, arrazoimena da-, alegia, ba al da Jainkorik? Unibertsoari zentzua -eta ez dut "giza" erantsiko, ez baita besterik- ematen dion pertsona betiereko eta betierekotzaile hori, ba al da ezer substantzial, gure irrikatik kanpokoak? Hona hemen ezin konponduzko zerbait, eta hobe da horrela izatea. Aski beu arrazoimenak haren existentziaren ezintasuna ezin frogatzea.

Jainkoagan sinestea Hura izatea irrikatzea da, eta, gainera, Hura balego bezala aritzea da; irrika horretatik bizitzea da eta Hura gure ekintzen barru-barruko eragingailua bihurtzea. Jainkotasun-irrika edo gose honetatik esperantza sortzen da; horretatik fedea, eta fedetik eta esperantzatik, karitatea; irrika horrexetatik ilkitzen dira edertasunaren, zertarakotasunaren eta ontasunaren sentimenduak.

Dakusagun bada.

IX

FEDEA, ESPERANTZA ETA KARITATEA

*Sanctiusque ac reverentius visum de actis
deorum credere quam scire*

TACITO, *Germania*, 34.

Jainko bihozkor edo bizi honengana fedearen bidetik, eta ez komentzimendu arrazional edo matematikoaren bidetik, heltzen eta Beragana itzultzen gara, Jainko logiko edo hila zela eta, Hura utzi ondoren.

Eta zerik da, bada, fedea?

Honela galdetzen du eskolan irakatsi zitzaigun kristau doktrinaren katekismoak, eta honela erantzuten du: ikusi ez duguna sinestea.

Eta hori, duela dozena bat urte jadanik, entseiu batean zuzendu nuen, esanez: "Ikusi ez duguna sinestea, ez! Ikusten ez duguna sortzea baizik!". Eta lehenago esana dizuet Jainkoarengan sinestea, aurren-aurrenik behintzat, Hura izan dadila nahi izatea dela, Jainkoaren existentzia irrikatzea.

Fedearen teologi bertutea, Paulo apostoluaren arauz, horren definizioak hari buruzko kristau eztabaida tradizionalerako oinarritzat balio izanik, hauxe da "espero diren gauzen substantzia, ikusten ez denaren frogapena", (*Hebrearrak*, XI,1).

Horra hor esperantzaren substantzia, edo hobesanez, sostengua edo oinarria, haren garantia. Eta horrek fedea lotu, eta lotu baino gehiago, meneratu egiten du esperantzapean. Eta egitez, ez dugu espero sinesten dugulako, aitzitik, sinetsi, espero dugulako, egiten dugu, batez ere. Jainkoaren baitako esperantzak, hau da, kontzientziaren betierekotasuna berma dezakeen Jainkoa egoteko irrika sutsuak, horrexek garamatza Harengan sinestera.

Baina fedea, azken buruan zerbait osatua dena, hor ezagutze-, logika- edo arrazoi-arloko osagai baten ondoan beste bat, atxekimenduzkoa, biotikoa edo sentimentala, hertsiki irrazionala egonik, fedea ezaguera itxuran agertzen zaigu. Eta hortixek dator beste edonolako dogmatik bereizteko zailtasun gaindiezina. Fede garbia, dogmarik gabea, garai batez hainbeste idatzitan aipatu nuena, fantasma bat da. Fedearen baitako fedea delakoa asmatuta ere, ez zegoen zulotik irteterik. Fedeak materia bat behar du, hartaz iharduteko.

Sinestea ezagutzeko era bat da, gure bizi-irrika ezagutzeko eta berau formulatzeraino heltzeko besterik ez balitz ere. Baina kontua da "sinestea" berbak gure ohizko mintzairan esangura bikoitz eta kontraesankorra ere ohi duela; alde batetik, buruak ezagutza bati, egiazkotzat harturik, dion atxekidura-mailarik handiena eta, bestaldetik, atxekidura ahul eta ezbaikoa. Eta adiera bataz, zerbait sinestea eskain daitekeen baiezkorik handiena bada ere, "horrela dela uste dut, baina ez nago seguru" esaldia ere ohizkoa eta arrunta da³⁷.

Eta hori zuzen datorkio, segurgabetasunaz, fedearen oinarritzat harturik, esan genuenari. Federik sendoenak, *pistiko* edo fedezko -fidela esango bagenu bezala- ez den beste edonolako ezaguera ez bezalakoa denez, segurgabetasunean du oinarri. Izan ere, fedea, espero denaren garantia, hain zuzen, printzipio teorikoarekiko atxekidura baino gehiago, batez ere, zerbait seguratzeko digun pertsonaganako konfidantza da. Fedeak osagai pertsonal objektiboa suposatzen du aurretik. Zerbait sinetsi baino gehiago, hau edo bestea agintzen edo seguratzeko digun norbait sinesten dugu³⁸. Pertsona bat sinesten da, eta Jainkoa ere bai, pertsona eta Unibertsoaren pertsonalizazioa den aldetik.

Fedean den osagai pertsonal edo erlijiozko hau nabarmena da. Fedea, esan ohi denez, berez ez da egia batekiko ezaguera teoriko edo atxekidura arrazional bat, baina, halere, ez da haren esentzia nahikorik azaltzen Jainkoaren baitako konfidantzagatik ere. "Fedea

Jainkoaren agintaritzea izpiritualarekiko barne-menpetasuna da, berehalako obedientzia. Eta obedientzia hau printzipio arrazional bat lortzeko bidea den neurrian, fedea komentzimendu pertsonala da". Honela dio Seeberg-ek³⁹.

Jaun Done Paulok definituriko fedea, *pistis* grekoa, konfidantza gisa hobeki itzultzen da. Izan ere, *pistis* berba, *peitho* aditzetik dator, boz aktiboan *komentzierazi* esan nahi badu ere, erdikoan *norbaitez fidatu, kasu egitea, haren pentzutuan egon, obeditu* adierazten duena⁴⁰. Eta *fidatu, fidare se, fid* tematik dator -eta hortixek *fides, fedea, eta konfidantza* ere bai-. Eta *pith* -greziar erroak eta latinezko *fid* horrek haurride dirudite. Eta, ondorioz, kontua da fede berbak berak ere jatorrian konfidantza adiera daukala, beste baten borondatepera, pertsona baten menera, errendatzea. Fidatu, pertsonen baino ez da egiten. Probidentziaz fidatzen da, hori zerbait pertsonal eta kontzientzetat ulertzen dugu eta, ez Patuaz, hau zerbait inpersonala izanik. Eta honetara, egia dioskunagan sinesten dugu, esperantza ematen digunagan; ez zuzeneko eta berehalako egian bertan, ez eta esperantzan bertan ere.

Eta fedearen adiera pertsonal edo, hobesanez, pertsonifikatzaile hau haren erarik apalenetan ere nabari da, beronek sortera baitu gojariozko zientzian, goiarnasan eta mirarrietan ohi den fedea. Aski ezaguna da, izan, Pariseko mediku haren kasua, bere auzategian petrikilo osatzaile batek bezeroak kentzen zizkiola ikusita, beste auzategi urrunago batera aldatu zenarena, eta han inork ezagutzen ez zuenez gero, berak ere bere burua petrikilotzat aurkeztu zuen, halaxe arituz. Eta medikuntzan legez kontra ziharduela eta, salatu zutenean, bere titulua erakutsi zuen, gutxi gora-behera hauxe esanez: "Medikua naiz, baina horrela iragarri banintz, ez nukeen izanzen petrikilo moduan dudak bezera hau; baina orain nire bezeroek medikuntza ikasi dudala jakitean, niregandik ihes egingo dute, estudiatu ez dutelako garantia, goiarnasaz sendatzeko bermetasuna emanen dien petrikilo batengana joateko". Kontua da, titulurik ez eta ikasketarik ere ez dituela egin frogatzen zaion medikua kreditu gabe geratzen dela eta, petrikiloak ere, bere kreditua galtzen, halaber, ikasketak egin eta mediku tituluduna dela frogatzen zaionean. Batzuek zientzian eta ikastean sinesten dutelako, eta beste batzuek pertsonagan, goiarnasan eta ezjakintasunean ere bai.

"Bada munduko geografian bereizketa bat, gizonen erlijioari buruz dituzten pentsamenduak eta desirak ezartzean ageri zaiguna. Gogoan izan dezagun, honi dagokionez, mundu osoa, oro har, bi hemisferiotan banaturik dagoela. Munduaren erdi bata, Ekialde ilun handia, mistikoa da. Gauzarik bat ere argiegi ez ikusten saiatzen da. Jar ezazue argi eta bereiz bizitzako ideia nagusietarik edozein, eta berehalakoan irudituko zaio ekialdetarrari hori ez dela egiazkoa. Pentsamendu zabalenak giza bururako zabalegiak direla diotson sena dauka, giza buruak uler ditzakeen eran aurkeztu baldin bazaizkio, haien izaera bortxatzen eta haien indarra galtzen delakoan. Eta beste aldetik, mendebaldarrak argitasuna nahi, eta misterioak artega jartzen du. Proposamen zehaztua gogokoa du, haren anaia ekialdetarrak hura laketa ez duen neurri berean. Indar betiereko eta infinituek bere bizitza pertsonalerako zer esan nahi duten jakiten saiatzen da, bera pertsonalki zoriontsuago eta hobea nola egingo duten eta, ia-ia, bera babestuko duen etxea nola eraikiko eta afaria sukaldean nola egosiko dioten... Zalantzarik gabe, salbuespenak badira, izan; zenbait mistiko Bostonen eta Saint Louisen, egintzei so ari diren gizon batzuk Bombay-en eta Kalkutan. Gogo-joera biok ezin egon daitezke bata bestearengandik banaturik ozeano batez edo mendilerro batengatik. Nazio eta herrialde batzuetan, adibidez, juduen artean eta gure Ingalaterran bertan, elkarrekin oso nahasirik daude. Baina oro har, mundua horrela zatitzen dute. Ekialdeak misterioaren iltartegian sinesten du; Mendebaldeak, egintza zientifikoaren eguerdian. Ekialdeak Betierekoari zirriborrozko bulkadak eskatzen dizkio; Mendebaldeak orainaldia esku arinaz hartzen du, eta ez du askatu nahi, horretarako

motibo arrazoigarriak, ulergarriak eman arte. Haietako bakoitzak bestea gaizki ulertzen du, hartaz mesfidatzen da, eta, neurri handiz, mespreziatu ere egiten du. Baina mundu osoa hemisferio bi-biek eratzen dute, eta ez, bere bakarrean, horietako berezi batek". Horrela mintzatu zen bere sermoietako batean Philips Brooks agurgarria, Massachussets-eko apezpiku izandakoa, predikari baterakor handia bera (ikus *The mystery of iniquity and other sermons*, XII. sermoia).

Hobesanez, mundu osoan, bai Ekialdean eta bai Mendebaldean, arrazionalistek zehaztasuna bilatzen eta kontzeptuan sinesten dute, eta bizikorrek idarokizuna bilatzen dute, pertsonagan sinetsiz. Batzuek Unibertsoa ikertzen dute, haren sekretuak erazteko; besteek Unibertsoaren Kontzientziari egiten diote errezu, munduaren Arimarekin, Jainkoarekin, berehalako harremanetan jartzen ahalegintzen dira, espero dutenari hor garantia edo substantziarik aurkitzeko, hots, ez hiltzea, eta ez dakusatenaren frogapena.

Eta pertsona borondatea denez, eta borondatea beti ere etorkizunari dagokionez gero, sinesten duenak etortzekoan sinesten du; hau da, espero duenaren baitan. Ez da sinesten, hertsiki mintzatuz, dena eta izan dena, izatekoaren berme eta substantziatzat ez bada. Kristauak Kristoren biztuetan sinestea, hau da, Kristo birbiztu zela diotsoten tradizioari eta Ebangelioari sinestea -eta ahalmen biok pertsonalak dira-, egun batez, Kristoren graziaz bera birbiztuko dela sinestea da. Eta fede zientifikoak berak ere, hau ere bada eta, etorkizunari buruz dihardu, eta konfidantza-egintza da. Zientziaz sinetsi egiten du etortzeko den halako egun batean Eguzki-eklipse bat gertatuko dela, eta mundua gaurdaino gobernatu duten legeek gobernatzen segituko dutela sinesten du.

Sinestea, berriro diot, bati sinestea da, eta pertsonari doakio. Zaldia deritzon animalia badela dakidala diot, eta holako eta halako ezaugarriak dituela, hura ikusia dudalako, eta jirafa edo ornitorrinkoa deritzenen existentzia sinesten dudala, era honetako edo hartakoak direla, ikusi dituztela segurutzen didatenei sinesten diedalako. Eta hortixek dator fedea aldean daraman segurgabetasun-elementua, pertsona bat engaina baitaiteke, edo engaina baikaitzake.

Baina, bestaldetik, sineskeraren elementu pertsonal horrek atxekimenduzko, maitasunezko izaera berezia ematen dio eta, batez ere, erlijio-fedean, espero denari buruz erreferentzia egitean. Nekez aurki daiteke triangulu baten hiru angeluek bi zuzenen balioa dutela mantentzeagatik bizitza sakrifikatzeko prest dagoen inor, ez baitu horrelako egiak gure bizitzaren sakrifizioa behar; alabaina, anitzek bizia galdu dute beren erlijio-fedeari eustearren eta, izan ere, martiriek fedea areago egiten dute fedea martiriak baino. Fedea ez baita endeleguak printzipio abstraktu bati dion atxekidura hutsa, ez da egia teoriko baten onspena, borondateak hura ulerteraztera bultzatu besterik egiten ez gaituena; fedea borondatearen arazoa da, gogoak egia praktikoa baterantz, pertsona batenganatz, bizierazten gaituen, eta ez soilki bizitza ulerterazten digun, zerbaiterantz duen mugimendua⁴¹.

Fedea bizierazi egiten gaitu, bizitzak, arrazoimenaren pean badago ere, bere iturri eta indarra beste leku batean, naturaz gaineko zerbait miragarrian duela erakutsiz. Izpiritu bereziki orekatu eta zientziaz ongi elikatu batek, Cournot matematikariarenak, esana zuen jada, bizitza, naturaz gaineko eta miragarrianzko joerak ematen duela, eta hori ezean, arrazoimenaren espekulazio guztiek, azken buruan, ez dakartela izpirituaren samintasuna besterik. (*Traité de l'enchaînement des idées fondamentales dans les sciences et dans l'histoire*, § 329).

Alabaina, fedea borondatearen kontua dela diogun arren, agian hobe litzateke borondatea bera dela esatea, ez hiltzeko borondatea, edo hobesanez, adimena, borondatea eta sentimendua ez bezalako beste gogo-ahalmen bat. Horrela ba, sentitzea, ezagutzea, gura izatea eta sinestea, hau da, sortzea, genituzke. Hori ez baitute sentimenduak, ez adimenak, ez borondateak sortzen, aitzitik, lehendik emandako

materiaren gainean dihardute, fedeak emaniko materiaren gainean. Fedea giza sormena da. Baina, beste edozein ahalmenekin baino, borondatearekin harreman handiagoa duenez gero, nahi-itxuran aurkezten dugu. Ohartzekoa da, halere, sinetsi gura izatea, hau da, sortu gura izatea, ez dela prezeski sinetsi edo sortzea, baina bai behintzat horren hasiera.

Fedea, beraz, sormena ez bada ere, borondatearen lorea da, eta sortzea du lanbide. Fedeak, nolabait, bere objektua sortzen du. Eta Jainkoaren baitako fedea Jainkoa sortzean datza, eta Bere baitako fedea demaiguna Jainkoa denez gero, Jainkoa da gudan bere burua etengabeki sortzen ari dena. Horrexegatik esan zuen Done Augustinek: "Zure bila ibiliko naiz, Jauna, zuri dei eginez, eta dei egingo dizut, zudan sinetsiz. Nire fedeak dei egiten dizu, Jauna, zuk, zeure predikariaren ardurabideari esker zeure Semearen gizatasunarekin niri eman, iradoki zenidan fedeak (*Aitorkizunak*, I. lib. I. kap.). Jainko bat geure antz eta irudira sortzeko eta Unibertsoa pertsonalizatzeko ahalmenak ez du besterik esan nahi Jainkoa barruan daramagula baino, espero dugunaren substantziatzat, eta Jainkoak etengabeki bere antz eta irudira sortzen gaituela. Eta Jainkoa sortzen da, hau da, Jainkoak bere burua gudan sortzen du, errukiaz, maitasunaz. Jainkoarengan sinestea Hura maitatzea eta maitasunez haren beldur izatea da, eta Hura maitatzen, ezagutu baino lehenago ere, hasten da eta, azkenean, Bera maitatuz orotan ikusten eta aurkitzen da.

Jainkoarengan sinesten dutela esan, baina ez maitatzen ez haren beldur direnek, ez dute Harengan sinesten, Jainkoa badela irakatsi dietenengan baizik, horiek ere, maiz aski, Harengan sinesten ez dutelarik. Gogo-grinarik gabe, larridura gabe, segurgabetasunik gabe, duda gaberik, kontsolamenduan desesperantzarik izan gabe, Jainkoarengan sinesten duela uste dutenek, ez dute Jainkoaren ideian baizik sinesten, baina ez Jainkoarengan berarengan. Eta Harengan maitasunaz sinesten den bezala, beldurraz ere sinets daiteke, bai eta gorrotoz ere, Dantek Infernutik keinu dorpeekin Haren aurka laido-irainak esaten aurkezten duen Vanni Fucci lapur hark Harengan sinesten zuen bezala, (*Infernua*, XXV, I, 3). Deabruak ere Jainkoarengan sinesten dutelako, eta ateista askok ere bai.

Ez ote da ba, Harengan sinesteko era bat, Harengan ezin sinets dezaketelako, Jainkoa izaterik nahi ez dutenen eta Bera iraintzen dutenen furfurua hori? Jainkoa izatea nahi dute, sinestunek nahi duten bezala; baina gizon ahulak eta geldoak edo gaiztoak izan, eta horiengan borondateak baino arrazoimenak gehiago dezakeenez gero, horrek herrestan erabiliak sentitzen dira, barru-barruan horren damua izanik, eta desesperatzen dira, eta desesperantzaz ukatu egiten dute, eta ukatzean ukatzen dutena baieztatzen eta sortzen dute eta Jainkoa haiengan agerteratzen da, bere buruaren ukoaz bere burua baieztatuz.

Baina honetaz guzti honetaz, esango zait, fedeak bere objektua sortzen duela irakastea, eta objektu hori federako besterik ez dela irakastea gauza bera dela, ez duela errealitate objektiborik fedetik bertatik kanpo; herriko jendea poztu edo kontsolatzeko, fedea beharrezkoa dela mantentzea, bestaldetik, fedearen helburua ilusiozkotzat aldarrikatzea den bezala. Eta egia hauxe da, gaur Jainkoarengan sinestea, ororen aurretik eta gainetik, sinesle intelektualentzat, Jainkoa egotea nahi izatea dela.

Jainkoa egotea nahi izatea, eta Hura balego bezala aritu eta sentitzea. Eta, horrela, Haren existentzia nahi izateko eta nahi horren arauera aritzeko bide honetatik sortzen dugu Jainkoa, hau da, horretara sortzen da Jainkoa gudan, horrelaxe agertzen, irekitzen eta agerteratzen da gure baitan. Jainkoa Haren bila maitasunaz eta maitasunarren dabilenaren bidera irteten delako eta, aldiz, arrazoimen hotzaz, maitasunik gabe ikertzen duenagandik, ostentzen. Nahi du Jainkoak bihotzak atsedean har dezan, baina ez buruak atsedeenik hartzea, bizitza fisikoan buruak aldizka lo egin eta deskantsua hartzen baitu,

eta beilan eta atergabeki lanean iharduten bihotzak. Eta horretara, maitasunik gabeko zientziak Jainkoarengandik urruntzen gaitu, eta maitasunak, zientziarik gabe, eta behar bada hori gabe hobe, Jainkoaganatzen gaitu; eta Jainkoaren bidez jakituriara eramaten. Zorionekoak bihotz garbikoak, horiek Jainkoa ikusiko dute eta!

Eta galdetuko balitzait Jainkoarengan nola sinesten dudan, hau da, nola Jainkoa ni baitan sortzen den eta agerterazten zaidan, hori esango niokeenari agian irribarre, edo barre eragingo nioke, edo beharbada eskandalaraziko.

Jainkoarengan sinesten dut neure adiskideengan sinesten dudan bezala, Haren amorioaren arnasa nabaritu eta ni eraman, ekarri eta hersten nauen Haren ezin ikusizko eta ezin ukituzko eskua sentituz, neure Patu propioa markatzen didan Probidentzia berezi eta gogo unibertsal baten kontzientzia barru-barruan dudalako. Eta legearen kontzeptuak -kontzeptua azken buruan!- ez dit ezer esaten, ez eta irakasten ere.

Neure bizitzan zehar, behin eta berriro ikusi dut neure burua larri, lezearen gainetik zintzilik; behin eta berriz bidegurutzetan aurkitu naiz, horietan zidor-azaua irekitzen zitzaidalarik, horietako bat hartzean gainerakoei uko egin beharraz, bizitzako bideak atzeraezinak baitira, eta horrelako uneetan behin eta berriro sentitu izan dut indar kontziente, subirano eta maitakor baten bultzada. Eta gero norberari Jaunaren zidorra irekitzen zaio.

Norberak Unibertsoak deitzen eta gidatzen duela senti dezake, pertsona batek beste bat bezala, norbere barruan haren hitzik gabeko boza entzunez, honela diotsona: "Hoa eta predika iezaiek herri guztiei!" Nola dakizue aurrean duzuen gizon horrek baduela, zuek bezala, kontzientziarik, eta baduela, era berean, ilunago edo argiago bada ere, kontzientzia animaliak, baina harriak ez? Gizonak, gizon gisa, zuen antzera, zuekin aritzeko duen moduagatik, eta harria, zuen portaera pairatzen duen arren, zuekin ari ez den moduagatik. Horrela ba, uste dut nik Unibertsoak, nik bezala, baduela nolabaiteko kontzientzia, nirekin gizatiarki aritzen den eragatik, eta inguratzen nauen nortasuna sentitzen dudan moduagatik.

Horra hor ore eragabe bat; animalia moetaen bat dirudi; ez zaio gorputz-abarrik nabaritzen; begi bi besterik ez dakusat, eta nire antzeko baten giza begiradaz begiratzen didaten begiak dira, errukia eskatzen didan begiradaz, eta arnasa egiten duela dantzut. Eta ore eragabe horretan kontzientzia bat badela ateratzen dut ondorioz. Eta horrela, eta ez bestela, begiratzen dio sinesleak zeru izarratuari, giza gaineko begiradaz, jainkozkoaz, eta gau barean bihotz-muina ukitzen dion Jainkoaren arnasa dantzu, eta hari agerterazten zaio. Bizitzen, sufritzen, maitatzen eta maitasuna eskatzen duen Unibertsoa da.

Guri, inolako atxekidurarik izan gabe, etorri bezala joan ere egin zitzaizkigun garrantzizko gauzatxo hauek maitatzetik, gauza iraunkorrakoak eta eskuez ezin ora daitezkeenak maitatzera iragaten gara; ondasunak maitatzetik Ongia maitatzera pasatzen gara; gauza ederretatik Edertasunera; egiazkotik Egiara; gozaldiak maitatzetik Zoriona maitatzera eta, azkenean, Maitasuna maitatzera. Nor bere baitatik irteten da, bere Ni gorenean barrenago sartzeko; norbanako-kontzientzia irten egiten zaigu bera partaide deneko Kontzientzia orokorrean murgiltzeko, hartan urtzeke baina. Eta Jainkoa ez da oinaze unibertsaletik jalgi eta kontzientzia egiten den Maitasuna besterik.

Baina hau ere, esango da, burdinazko hesian mugitzea da, eta halako Jainkoa ez da objektiboa. Eta hemen arrazoimenari bere zatia aitortu eta zerbait existitzen dela eta objektiboa delako hori zer den aztertzea komeniko litzateke.

Zer da, izan ere, existitzea, eta noiz esaten dugu gauza bat badela? Existitzea, zerbait gugandik kanpoan jartzea da, hartaz dugun hautematea baino lehenagokoa izanik, gu desagertzean ere bera izaten segitzeko era duelarik. Eta seguru ote nago gero, zerbaitek ene atzetik biziraungo duela? Jakin ote dezake ene kontzientziak badela zerbait

beragandik at? Ezagutzen dudana eta ezagut dezakedana oro ena kontzientzian da. Ez gaitezen beraz endreda, geure hautemateen beste objektibotasun baten konponezinezko probleman, ez baita existitzen aritzen dena besterik, eta existitzea aritzea da.

Eta hemen berriz ere esango da ez dela Jainkoa, Jainkoaren ideia baizik, gudan aritzen duena. Eta esango dugu: Jainkoa bere ideiarene bidez eta, hobesanik, maiz bera berberaren bidez. Eta berrargudiatu egingo zaigu, Jainkoaren existentziaren egia objektiboaren frogak eskatuz, guk seinaleak eskatu behar eta. Hortaz, Pilatorekin hauxe galdetu beharko dugu: "Zer da egia?"

Horrela galdetu zuen, hain zuzen ere, eta erantzunari itxaron gabe, eskuak ikuztera itzuli zen, Kristo hiltzera kondenatzen utzi zuelako aitortpena egiteko. Eta horrela, zer da egia? galdetzen dute askok, erantzunik jasotzeko asmorik gabe, norbere kontzientziako edo besteen kontzientzietako Jainkoaren hilketan partaide izateko krimenetik eskuak ikuzteko, besterik ez.

Zer da egia? Bitariko egiak dira; logikoa edo objektiboa, honen aurkakoa errakuntza izanik, eta morala edo subjektiboa, gezurrari kontrajartzen zaiona. Eta honez gero, beste saio batean aritua naiz errakuntza gezurraren ume dela frogatzen⁴².

Egia moralak, era berean morala den bestera heltzeko bideak, ororen aurretik eta gainetik, zintzotasun eta apaltasun eskola den zientzia lantzen irakasten digu. Zientziak, horretara, geure arrazoimena egiaren menara jartzen eta gauzei berak diren bezala erizten irakasten digu; hau da, berek izan nahi duten eran, eta ez guk haiek izatea nahi dugun eran. Ikerkuntza erlijioski zientifikoan errealitatearen datuak berak, mundutik jasotzen ditugun hautemateak dira, gure buruan legetzat formulatzera heltzen direnak, eta ez gara gu haiek formulatzen ditugunak. Zenbakiak berek egiten dute matematika gudan. Eta zientzia apaltasunezko etsipen-eskola barrenkorrena da, niminoena dirudien egintzaren aurrean makurtzen irakasten digu eta. Eta erlijioaren ataria ere bada; baina horren barruan, haren zeregina amaitu egiten da.

Eta errakuntzari kontrajartzen zaion egia logikoa, eta gezurrari kontrajartzen zaion egia morala badiren bezala, bada, halaber, egia estetiko edo itxuragabekeriari kontrajartzen zaion egiantzekoa, eta egia erlijiosoa edo esperantzazkoa, eta beroni desesperantza absolutuaren kezka aurka jartzen zaio. Izan ere, egiantza estetiko, zentzuz adieraz daitekeenarena, egia logikoa, arrazoiekin frogatzen dena, ez den bezala, era berean, arrazoi erlijiosoa ere, fedearena, espero denaren substantzia, ez da egia moralaren baliokide, aitzitik, gainean jartzen zaio. Bere fedea segurgabetasunaren oinarriaz baieztatzen duenak ez dio eta ezin esan dezake gezurrik.

Eta ez da, soilki, sinesten, arrazoimenarekin, ez eta arrazoimenaren gainetik edo haren azpitik ere, arrazoimenaren aurka ere sinesten da eta. Fede erlijiosoa, berriz ere esan beharko, ez da jadanik soilki irrazionala, kontrarrazionala baizik. "Poesia, ezagutza aurreko ilusioa da; erlijiosotasuna, ezagutza ondoko ilusioa. Poesiak eta erlijiosotasunak bizitzeko jakituria mundutarraren *vaudeville*-a ezabatzen dute. Era poetikoz edo erlijiosoz bizi ez den gizabanako oro ergela da". Honela diosku Kierkegaardek (*Afsluttende unvidenskabelig Efterskrift*, IV. kap. II. atala, A, § 2), kristautasuna irtenbide desesperatua dela ere dioskun berberak. Eta horrela da, baina irtenbide horren desesperantzaren bitartez ez beste hel gaitezke esperantzara, duen ilusio bizikorraz beti ere arrazoimenera ezin murriz daitekeen zerbait badela dioskularik, ezagutza arrazional oro gainditzen duen esperantza horretara. Eta horretaz, arrazoimenez, Kristorena bera esan daiteke, harekin ez dena haren aurka dagoela. Arrazionala ez dena kontrarrazionala da. Eta horrelakoxea da esperantza.

Bide guzti honetatik esperantzara heltzen gara beti.

Maitasunaren misterioak, oinazearena denak, itxura misteriosoa du, denbora alegia. Atzoa biharrari antsiako katemailez amarratzen diogu, eta oraina, hertsiki, ez da

lehenak bere burua gero egiteko darabilen ahalegina besterik; ez da presentea iraganak etorkizun bilakatzeko darabilen ahalegina baizik. Oraina ahoz ebaki bezain laster ezabatzen den puntu bat da eta, halere, puntu honetan betikotasun osoa datza, denboraren substantzia.

Izan dena honez gero ezin izan daiteke, izan zen bezala ez bada, eta badena ezin izan daiteke den bezala ez bada; daitekeena beti etorkizun dukegu, askatasun-erresuma bakar horretan irudimena, sortzeko eta askatzeko ahalmena, fedearen haragi, bere gogara mugituz.

Maitasunak beti etorkizunera begiraten eta jotzen du, haren lana gure biziraupenaren lana da eta; maitasunari esperatzea dagokio, eta esperantzez ez beste elikatzen da. Eta maitasuna, bere irrika buruturik ikusi bezain laster tristatzen da, eta berehala aurkitzen du ez duela hura bere xede, hartara jotzen bazuen ere, eta Jainkoak amuzkitzat ezarri zuela han, obrara mugitzeko; eta bere helburua harago duela, eta haren atzetik abiatuz berriz ere bizitzaren aldeko engainu- eta desengainu-lasterketan hasten da. Eta bere esperientzia porrot eginekin oroipenak egiten ditu, eta oroipen horietatik esperantza berriak ateratzen. Gure geroaren ikuskizunen harrobia gure oroimenaren sotoetan datza; oroipenekin irudimenak esperantzak mamitzen ditu. Eta Gizateria irrikaz aseriko neskatxa bezalakoa da, bizitzaren gose eta maitasunaren egarri, bere egunak ametsez iruten dituen, esperoan, beti esperoan, etengabeki betiereko maitatzailearen esperoan, hori, lehen baino lehenagotik, bere oroipenik zaharrenak baino lehenagotik, iraganerantz, sehaskaz haragotik, berari esleiturik zegokionez gero, harekin eta harentzat, geroko gerorarte, bere esperantza urrunak baino askoz ere harago, nahilobiaz bestalderaino, etorkizunerantz bizi behar du eta. Eta maitemindu honenganako desira gupidakorrena, bere maitearen esperoan beti dagoen neskatxarenganakoa bezala, hau da, bizitzaren udaberriko esperantza gozoak, beraren neguan, oroipen are gozoago eta esperantza berrien sortzaile bilaka dakizkiola nahi izatea. Zer nolako zukua, zorion baketsuzkoa, Patuarekiko etsipenezkoa, ez ote du eman behar, gure eguzki laburreneko egunetan oraindik bete ez diren esperantzak gogoratzeak, bete ez direlako, beren garbitasuna gordetzen dutenak!

Maitasuna esperoan da, beti ere esperatzen du, espero izateaz behin ere nekatu gabe, eta Jainkoaganako maitasuna, Jainkoaganako gure fedea, ororen aitzin, Harengango esperantza da. Jainkoa ez baita hiltzen, eta Jainkoarengan espero duena beti biziko da. Eta gure esperantza funtsezkoa, gure esperantza guztien sustraia eta enborra, betiereko bizitzaren esperantza da.

Eta fedea esperantzaren substantzia baldin bada, esperantza, bere aldetik, haren forma da. Fedea, guri esperantza eman baino lehen, fede formagabea da, zirriborrozkoa, kaotikoa, ahalmenezkoa, sinesteko ahalmena, sinesteko irrika besterik ez dena. Baina zerbait sinetsi beharra dago eta espero dena sinesten da, esperantzan sinesten da. Iragana gogoratu egiten da, presentea ezagutu, sinetsi etorkizuna besterik ez da egiten. Ikusi ez duguna sinestea, ikusiko duguna sinestea da. Fedea, beraz, esperantzaren baitako fedea da; espero duguna sinestea.

Maitasunak Jainkoarengan sinesterazten digu, espero dugunarengan, beragandik geroko bizitza espero dugularik; maitasunak esperantzaren ametsak sorterazten diguna sinesterazten digu.

Fedea, betierekorako, Jainkoaganako dugun irrika da, eta esperantza Jainkoaren irrika, betierekoarena, gure jainkotasunaren irrika, fedearen bila bidera etorri eta gu goratzen gaituenarena. Gizonak fedeagatik Jainkoagana heldu nahi du, eta honela diotso: "Sinesten dut. Indazu, Jauna, zertan sinets!". Eta Jainkoak bere jainkotasunean, beste bizitzaren esperantza bidaltzen dio, hartan sinets dezan. Esperantza fedearen saria da. Sinesten duenak ez bestek espero du egiaz, eta egiaz espero duenak ez bestek sinesten

du. Espero duguna besterik ez dugu sinesten, eta ez dugu espero sinesten duguna besterik.

Esperantzak deitu zion Aita Jainkoari, eta berberak segitzen dio kontsolamenduz eta misterioz beteriko izen hori ematen. Aitak bizitza eman zigun eta hura mantentzeko ogia ematen digu, eta Aitari eskatzen diogu hura kontserba diezagun. Eta baldin Kristo izan bazen bihotz beteenaz eta aho garbienenaz bere aitari Aita deitu ziona, eta baldin kristau-sentimendua Jainkoaren aitatasunaren sentimenduan gailurreratua bada, hori guztiori giza leinuak Kristorengan bere betikotasun-gosea gorentzeari zor zaio.

Fedearen irrika hau, esperantza hau, beste ezer baino gehiago sentimendu estetikoa dela esan daiteke agian. Beharbada horrek ere informatzen du, baina erabat asebate gaberik.

Izan ere, Artean, betierekotzeko erremedioaren bila gabiltza. Ederrean izpiritua une batez gelditzen bada, atsedean hartzen eta lasaitzen, horregatik larridura osatu ez arren, hori, eder hori gauzen betierekotasunaren eta jainkozkotasunaren agerkizuna delako baino ez da, eta edertasuna mementukotasunaren irauneraztea. Eta egia ezaguera arrazionalaren helburua den bezala, horrela edertasuna ere esperantzaren helburua da, irrazionala, beharbada, bere barrenean.

Ez da ezer galtzen, ez da ezer guztiz iragaten, orok nola edo hala bere burua iraunerazten duelako, eta oro, denboran zehar iragan eta gero, betierekotasunera itzultzen da. Mundu tenporalak sustriak betierekotasunean dauzka, eta han da, atzoaren ondoan gaurarekin eta biharrarekin batera. Gure aurrean eskenak zinematografoan bezala iragaten dira, baina zintak bat eta osorik dirau denboraz harago ere.

Fisikariek diotenez, ez omen da materia zatitxo bat bera ere galtzen, ez eta indar kolpetxo batto bera ere; aitzitik, bata eta bestea aldatzen eta iraunez iraganerazten omen dira. Eta ba ote da ezer galtzen, den formarik iheskorrena bada ere? Ezetz sinetsi behar da -sinetsi eta esperatu!-, nonbait dena artxibaturik eta iraunerazirik geratzen dela, badagoela betierekotasun-ispilu bat, eta hor, denboran desfilatzen duten irudi guztiak, batzuk besteetan galdu gabe, batzen direla. Heltzen zaidan inpresio oro ene burmuinean metaturik geratzen da, hain barrenean edo indar urriz izanik, ene azpikontzientziaren sakonean murgildurik geratu arren; baina handik ene bizitza animatzen du, eta ene izpiritu guztia, ene arimaren edukin osoa kontziente egingo balitzait, birbiztu egingo lirakeke inpresio iheskor ahantzi eta ongi hauteman gabeak oro, eta oharkabean jatorikoak ere bai. Neure barruan daramat ene aurrean desfilatu zuen guztia eta neurekin iraunerazten dut, eta agian guzti hori ene germetetan doa, eta nigan ene asaba guztiak osorik bizi dira, eta nirekin batera biziko, ene ondorengoengan. Eta beharbada neu noa, neu osorik, neure unibertso oso honekin, neure obra bakoitzean edo, gutxienez, dudan funtsezkoena, neu izanerazten nauena, ene gizabanako-esentzia doa haietan.

Eta gauza bakoitzaren banako-esentzia hau, bera eta ez besterik izanerazten duen hau, nola agertzen zaigu, edertasun gisa ez bada? Zer da zerbaiten edertasuna, beraren betiereko funtsa besterik, haren iragana haren etorkizunarekin lotzen duena, betierekotasunaren erraietan harenik pausatzen eta geratzen dena baizik? Edo zer da, haren jainkotasunaren agerkizuna besterik?

Eta edertasun hau, betierekotasunaren erroa, maitasunaren bidez agertzen zaigu, eta Jainkoaren maitasunaren agerkizunik handiena da, eta denbora garaitu behar dugulako seinalea. Maitasuna baita, izan, geure betierekoa eta geure hurkoena agertzen diguna.

Ederrak, hots, gauzen betierekoak, iratzartzen eta pizten al du haienganako gure maitasuna, ala gauzenganako gure maitasunak agertzen al du haien ederra, haien betierekoa? Ez ote da ba edertasuna maitasunaren sorkari, mundu sentigarria bizirik irauteko senarena eta, adiera berean, zentzuez gainekoa iraunerazteko senarena? Ez ote da edertasuna, eta berarekin betierekotasuna, maitasunaren sorkari? "Gure kanpoaldeko gizona -idazten zuen Apostoluak (*Kor. II, IV, 16*)- higatuz doa, baina barnekoa egunez

egun berriztatzen da". Itxura iragankorretako gizona higatuz doa, eta haiekin iragaten; baina errealitateko gizona, aldiz, gelditu eta hazten da. "Zeren orain gure nahigabeen bat-bateko eta arina denak gloria-pisu agitz gora eta betierekoa ematen baitigu" (17. berts.). Geure oinazeak larritzen gaitu, eta larridura, bere baitako osotasunaz lehertzean, kontsolakizun iruditzen zaigu. "Ez guk ikusten diren gauzei behatuz, ikusten ez direnei baizik; zeren ikusten diren gauzak tenporalak baitira, baina ikusten ez direnak, betierekoak" (18. berts.).

Oinaze honek esperantza ematen du, bizitzaren ederra dena, edertasun gorena, hau da, kontsolamendu gorena. Eta maitasuna mingarri denez geroztik, hots, errukia eta gupida, edertasuna errukitik jalgitzen da, eta ez da beronek bilatzen duen kontsolamendu tenporala besterik. Kontsolamendu tragikoa. Eta edertasunik gorena tragediarena da. Oro iragaten dela, geu iragaten garela, gurea, inguratzen gaituen guztia iragaten dela, sentitzean larriturik, larridurak berak ez diraganaren kontsolakizuna, betierekoarena, edertasunarena agertzen digu.

Eta honela agerturiko edertasun hau, bat-batekotasunaren iraunerazte hau, karitatearen egitez baino ez da bizi. Ekintzaren baitako esperantza karitatea da, ekintzaren baitako edertasuna ongia den bezalaxe.

* * *

Maite duen guztia betierekotzen eta, ongia emanez, hartan ezkuturiko edertasuna ateratzen digun karitatearen sustraia, Jainkoaganako maitasuna da edo, nahiago bada, Jainkoaganako karitatea, Jainkoaganako errukia. Maitasunak, urrikiak, guztia pertsonalizatzen duela esana dugu; guztian sufrimendua aurkitu eta guztia pertsonalizatzean, Unibertsoa bera ere pertsonalizatzen du, horrek ere sufritzen baitu, eta Jainkoa agertzen digu. Zeren Jainkoa, sufritzen duelako eta sufritzen dugulako, agertzen baitzaigu; sufritzen duelako gure maitasuna eskatzen du, eta sufritzen dugulako berea demaigu, eta gure larridura betiereko eta amaigabeko larriduraz estaltzen du.

Hauxe izan zen kristautasunak judu eta heleniarren artera, farisear eta estoikoen artera ekarririko eskandalua, eta horrek, haren eskandalua izan zenak, gurutzearenak, hala izaten dirau, eta oraindik halaxe iraungo kristauen artean; gizon egiten den Jainkoarena, pairatzeko eta hiltzeko eta birbizteko, pairatu eta hila izateagatik, sufritzen eta hiltzen den Jainkoarena. Eta Jainkoak pairatzen duelako egia hau, gizonak ikaraturik uzten dituen, Unibertsoaren erraien beren agerkizuna da, eta haren misterioarena, bere Semea, sufrituz eta hilez, gu berreros gintzan bidaltzean agertu ziguna. Oinazearen jainkozkoaren agerkizuna izan zen, ez baita jainkozkoa sufritzen duena besterik.

Eta gizonak Kristo, pairatu zuena, Jainko egin zuten eta Haren bitartez Jainko biziaren, gizatiarraren betiereko funtsa aurkitu zuten; hau da, sufritzen duena -hildakoa da sufritzen ez duen bakarra, gizatiar ez dena-, maitatzen duena, maitasunaren eta errukiaren egarri dena, pertsona dena. Semea ez dazaguenak ez du behin ere Aita ezagutuko, eta Aita ez da ezagutzen Semearen bidez baizik; Gizonaren Semea ez dazaguenak, odolezko larridurak eta bihotz-urradurak sufritzen dituen, arima heriotzaraino tristeaz bizi dena, hiltzen eta birbizten duen oinazea sufritzen duena ez dazaguenak ez du Aita ezagutuko, ez eta Jainko pairakorraren berri izango ere.

Sufritzen ez duena, eta ez du sufritzen bizi ez delako, *ens realissimum* logiko eta izoztu hori da, *primum movens* hori, izakunde pairaezin, eta pairaezina delako, ideia hutsa besterik ez dena. Kategoriak ez du sufritzen baina, aldi berean, ez da bizi, ez existitzen, pertsona bezala. Eta nola jariatu eta biziko da mundua ideia pairaezin batetik? Munduaren ideia besterik ez litzateke. Baina munduak sufritu egiten du, eta sufrimendua errealitatearen mamia sentitzea da, izpirituak bere burua ukigarri eta garrantzizkoa sentitzea da, nork bere burua ukitzea, berehalako errealitatea.

Oinazea bizitzaren substantzia eta nortasunaren sustraia da, pertsona soilki sufrituz izaten baita. Eta unibertsa da, eta izaki guztiok elkarrekin batzen gaituena oinazea da, guztiotatik zehar biraka ari den odol orokor edo jainkozkoa. Borondatea deitzen dugun hori, zer da, oinazea besterik?

Eta oinazeak bere mailak dauzka, barrenera sartu ahala: itxurakerien itsasoaren gainean den oinaze hartatik bizitzaren sentimendu tragikoaren iturri den betiereko larriduraraino, betierekoaren sakonean kokatzera joan eta han kontsolamendua iratzartzen dueneraino; gorputza bihurrerazten digun min fisiko hartatik, Jainkoaren altzoan etzanerazi eta han haren jainkozko negarren ureztaketa hartzera garamatzen larridura erlijiosoraino.

Larridura oinazea baino zerbait askoz sakonagoa, mamiagoa eta izpiritualagoa da. Norbera larriturik senti daiteke zoriona deitzen dugun horren erdian, eta zorionagatik beragatik ere bai, ez baitugu horretan etsitzen, horren aurrean dardarka hasiz. Beren itxurazko zorientasunean, zorientasun iragankorrean, etsitzen duten gizon zorientasuek, substantziarik gabeko gizonak direla pentsa daiteke edo, gutxienez, ez dutela hura beren baitan aurkitu, ez diotela ukitu. Halako gizonak maitatzeko eta maitatuak izateko ezgaiak izaten dira eta, beren barrenean, pena eta gloriarik gabe bizi dira.

Ez dago egiazko maitasunik oinazean ez bada, eta mundu honetan hautatu beharra dago, edo maitasuna, oinazea dena, edo zoriona. Eta maitasunak ez garamatza maitasunaren beraren zorientasunera eta horren segurantzarik gabeko kontsolamendu tragikora besterik. Maitasuna zorientasu egiten den unetik, asebate egiten da, ez du jada desiratzen, eta jadanik ez da gehiago maitasun. Asebateek, zorientasuek ez dute maitatzen; ohituran loakarturik dautza, ia-ia ezereztearen marran. Ohitzea, jada ez izaten hastea da. Gizona are gizonagoa da, hots, are jainkozkoagoa, zenbat eta sentimendurako edo, hobesanez, larridurarako ahalmen handiagoa duen.

Mundura etortzean maitasunaren eta zorientasunaren arteko aukera eskaintzen zaigu, eta -gizaixook!- bata eta bestea nahi izaten ditugu: maitatzeko zorientasuna eta zorientasunaren maitasuna. Baina maitasuna, eta ez zorientasuna, eman dakigula eskatu behar dugu, ez gaitzate ohituran loakartzen utz, erabateko loa egin baikenezake eta, itzartu gabe, kontzientzia galdu, hori berriro ez eskuratzeko. Jainkoari, nor bere baitan, bere oinazean, senti dadila eskatu behar zaio.

Zer da Patua, zer da Halabeharra, maitasunaren eta oinazearen anaitasuna besterik, eta itzelezko misterio hori, maitasunak zorientasunerantz jotzen duelarik, berau ukitu bezain laster bera hiltzen denekoa, aldean egiazko zorientasuna ere hilez? Maitasunak eta oinazeak elkar sortzen dute, eta maitasuna karitatea eta errukia da, eta maitasun karitatetsua eta atseginkorra ez bada, ez da halako maitasuna. Maitasuna, azken buruan, desesperantza etsia da eta.

Matematikariek maximo eta minimoen problema deitzen duten hori, ekonomi legea ere deitzen dena, mugimendu existentzial, hau da, pasional, oren formula da. Mekanika materialean eta sozialean, industrian eta ekonomia politikoan, problema guztia honetan datza, ahal den ondorio baliagarri handiena lortu, daitekeen ahaleginik txikienaz, etekinik handienak gastu txikienekin, ahal diren atsegin gehienak ahalik eta oinaze gutxienekin. Eta barne-bizitza izpiritualaren formula lazgarria, tragikoa, hau da, hots, ahal den zorientasunik handiena ahalik eta maitasun txikienarekin, edo ahal den maitasunik handiena ahalik eta zorientasun txikienarekin. Eta gauza bata edo bestea aukeratu behar da. Eta seguru egon behar da, nor eta maitasunaren amaigabetasunera, amaigabeko maitasunera hurbilduko baita, huraxe zorientasunaren zerora hurbiltzen dela, larritasun gorenera. Eta behin zero hori ukituta, hiltzen duen miseriatik kanpo egoten da. "Ez hadi izan, eta den guztiak baino gehiago ahalko duk", dio frai Juan de los Angeles maisuak bere *Jainkoaren Erresuma konkistatzeko elkarriketa* haietako batez (III. Elk., 8)43.

Eta bada sufritzea baino zerbait larriagorik.

Gizon hark, hain kolpe beldurgarria hartzeko zenean, jaso beharko zuen sufrimendua hain handia izango zela eta, oinazepean ere ahituko zela espero zuen, eta kolpea gainera heltzean ia ez zuen minik sentitu; baina gero, bere senera etorrita, bere burua sentigaitz sentitzean, espantuz ikaratu zen, ikara tragikoaz, ikaragarrienaz, eta oihu egin zuen, hersturaz itorik: "Ez naiz existitzen, ordea!". Zerk ikaratuko hau gehiago: erraiak burdina gori batekin zeharkatzean konortea galdu arteko oinazea sentitzeak, ala horrela zulatzen dizkiatela ikusi eta ez duala inolako minik sentitzen konturatzeak? Ez al duk inoiz sentitu ikara hori, ikara lazgarri hori, negarrik eta minik gabe sentitzen haizenekoa? Minak bagarela diosku, doloreak maite ditugunak badirela diosku; minak bizi gareneko mundua badela diosku, eta oinazeak Jainkoa badela eta sufritzen duela esaten digu; baina hori larriduraren oinazea da, gainbizitzeko eta betierekoak izateko larriduraren mina. Larridurak Jainkoa agerian jartzen digu eta Hura maitarazten.

Jainkoagan sinestea Hura maitatzea da, eta maitatzea Hura sufrikor sentitzea da, hots, Haren gupida izatea.

Baliteke Jainkoak sufritzen duelako kontu honek blasfemia iruditzea, sufrimenduak aldean mugaketa dakar eta. Baina, halere, Jainkoa, Unibertsoaren Kontzientzia, bera bizi deneko materia gordinaren, inkontzientearen, mugapean dago, hortik bere burua askatzen eta gu ere askatzen saiatzen delarik. Eta guk, geure aldetik, hartatik Hura askatzen ahalegindu behar dugu. Jainkoak gutariko guztietan eta bakoitzean sufritzen du; materia iragankorpean atxiloturiko kontzientzia guztietan eta bakoitzean, eta guztiok Harengan sufritzen dugu. Larridura erlijiosoa jainkozko sufrikarioa besterik ez da, Jainkoak nigan sufritzen duela eta nik Harengan sufritzen dudala sentitzea.

Oinaze unibertsala bakoitzak gainerako oro izan nahi eta ezin lortzeagatik ooren larridura da, nor bera izatekoa, batera bera ez den oro ere delarik, eta betiko izanik. Izaki baten esentzia ez da, soilki, betiko irauteko saioa, Spinozak irakatsi zigunez, baizik eta, gainera, unibertsaltzeko ahalegina, betierekotasun- eta amaigabetasun-gosea eta egarria da. Sorturiko izaki orok bere baitan kontserbatzera ez eze, betirautera ere jotzen du eta, gainera, gainerako guztiak inbaditzera, berbera izateari utzi gabe besteak izatera, bere munarriak infinituraino hedatzera, hautsi gabe baina. Ez ditu bere ormak hautsi nahi eta oro lur lauean, amankomunean, defentsagabea utzi, bere banakotasuna nahasiz eta galduz; aitzitik, bere ormak sorkuntzaren muturretaraino eramanez nahi ditu eta horien barruan oro besarkatu. Ahal den banakotasunik handiena nahi du, ahalik eta nortasunik ere handienarekin; bera Unibertsoa izatea lortu nahi du, Jainkoa izatea.

Eta ni hedazabal hori, horren barruan ni bakoitzak Unibertsoa sartu nahi duena, zer da, Jainkoa besterik? Eta Harengana heldu nahi izateagatik, maite dut, eta Jainkoaganako dudanez heldu nahi hori Harenganako nire maitasuna da, eta nik Hura izateagatik sufritzen dudanez gero, Hark ere ni eta gutariko bakoitza izateagatik sufritzen du era berean.

Ongisko dakit, ene aurretiko oharra gora-behera, hau da, hemen sentimendu ilogikoen sistema bati itxura logikoa eskaini nahi zaiola, hala eta guztiz ere, irakurle batek baino gehiagok eskandalizatzen segituko duela Jainko pairakor, hots, sufritzen duen batez, mintzatzen natzaiolako, eta Jainkoari berari, Jainko den aldetik, Kristoren pasioa aplikatzen diodalako. Arrazional deritzon teologiaren Jainkoa, hain zuzen, oinaze orotatik salbuetsirik dago. Eta irakurleak pentsatuko du oinazearen kontu honek, Jainkoari dagokionean, balio metaforikoa besterik ezin duela izan, Testamentu Zaharrean omen duenez, hor, Israelgo Jainkoaren giza grinez mintzatzen zaigunean. Ez baitago sumin, ira eta mendekurik, sufrimendu gaberik. Eta materiazkoari loturik egoteak eragiten dion sufrimenduaz, esango zait, Plotinorekin (*Bigarren Eneada*, IX, 7) ooren arima ezin daitekeela berberak loturikoaz -gorputzez edo materiaz, alegia-loturik egon.

Honetan gaizkiaren sorburuaren problema ere badoa, bai erruaren gaizkiarena eta bai penako gaizkiarena; izan ere, Jainkoak sufritzen ez badu ere, sufrierazi behintzat egiten du; eta Haren bizitza, Jainkoa bizi da eta, kontzientzia oso gero eta beteagoa, hots, gero eta Jainkago eginez joatea ez bada, orduan gauza guztiak berarengana erakarriz joatea da, bere burua orori emanaz joatea, zati bakoitzaren kontzientzia ororen kontzientzian sarreraztea, hau da Haren Beraren baitan, azkenean Hura osorik guztietan izatera heldu arte, ? ? v? ? ? ? ? j? ? ? ? `? ? , lehen mistiko kristaua izan zen Jaun Done Pauloren adierazpidean bezala. Honetaz hurrengo saioan gehiago mintzatuko naiz, apokatastasiari, hots, batasun beatifikoari buruzkoan.

Oraingoz, derragun oinaze-korronte bortitz batek izaki batzuk beste batzuegana bultzatzen dituela, eta elkar maitatzen eta bilatzen eragiten dituela, eta elkar osatzen saiarazten, eta bakoitza norbera eta batera gainerakoak izanerazten. Jainkoarengan oro bizi da, eta Haren pairamenean orok pairatzen du, eta Jainkoa maitatzean Harengan sorkariak ere maite ditugu, sorkariak maitatzean eta haien erruki izatean ere haiengan Jainkoa maitatzen eta errukitzen dugun bezalaxe. Gurariko bakoitzaren arima ez da aske izango Jainkoaren mundu honetan esklabu den zerbait dagoen artean, eta Jainkoa bera ere, gutariko bakoitzaren ariman bizi dena, ez da aske izango, gure arima aske ez den bitartean.

Eta hurbilena, ene miseria sentitu eta maitatzea da, ene larridura, neure buruaz errukitzea, neure burua maite izatea. Eta gupida hau, bizi-bizia eta ezin oparagoa denean, nigandik besteengana isurtzen da, eta neure buruarekiko gupida handiegitik neure hurkoek errukitzen naiz. Norbere miseria hainbestekoa denez gero, neurekiko sorteraztan didan errukiak laster gainezka egin eta miseria unibertsala agertzen dit.

Eta karitatea, zer da errukiaren gainezkatzea besterik? Zer da oinaze isladatua besterik, gainez igona eta besteren gaitzak errukitzera eta karitatea egitera isuria?

Geure pairamenaren gailurrak geugan daukagun Jainkoaren kontzientziara gakartzanean, orotan isuririkoa jainkozko miseriagatik hain larridura handiz betetzen gaituenez gero, hura kanporatu behar eta, karitate itxuraz egiten dugu. Eta honela, kanporatzean, lasaitasuna eta ongiaren gozotasun mingarria sentitzen dugu. Horrexerri deitzen zion "min zaporetsua" Teresa de Jesús doktoresa mistikoak, maitasun zaporetsuen berri zekienak. Zerbait ederrari behatzen eta gainerakoei haren partaide egiteko premia sentitzen duena bezalakoa da. Zeren, ekoizpenerako bultzada, karitatea horrextan datza eta, maitasun mingariaren lana baita.

Izan ere, ongia egitean poztasuna sentitzen dugu, ongia soberan dugunean, errukiz asebererik gaudenean; eta horrez aserik gaude, Jainkoak, arima betez, bizitza unibertsalaren sentsazio mingarria, hau da, betiereko jainkotasunerako irrika unibertsalarena ematen digunean. Eta kontua da, ez gaudela munduan besteen ondoan besterik gabe jarririk, haiekiko erro komunik izan gabe, haien zoriak arduragabe utziko bagintu bezala, baina aitzitik, haien oinazeak min demaigu, haien larridurak geu larritzen gaitu, eta guztion jatorri- eta minkidetasuna sentitzen dugu, hura ezagutu ez arren. Oinazea eta beronetatik jaiotzen den errukia dira existitzen den bizidun eta gutxi edo aski kontziente den guztiaren arteko anaitasuna. "Anaia Otsoa" deitzen zion Done Frantzisko Asiskoak ardi-gose mingarria, eta agian haiek irentsi beharraren dolorea sentitzen duen otso gizaixoari, eta anaitasun horrek Jainkoaren aitatasuna agertzen digu, Jainkoa Aita dela eta existentziaduna dela. Eta, Aita denez gero, gure miseria amankomuna babesten du.

Karitatea, beraz, nik neure burua askatzeko eta neure lagun hurko guztiak oinazetik askatzeko bultzada da, eta Jainkoa, guztiok besarkatzen gaituena, hartatik askatzekoa.

Oinazea zerbait izpirituala da, eta kontzientziaren agerkizun hurbilena, eta beharbada ez zitzagun gorputza eman, oinazeak horren bidez azaltzeko aukera izan zezan baino.

Behin ere, aski edo gutxi, sufritu gabe egondakoak ez luke bere buruaren kontzientziarik. Gizakiak lehenbiziko negarra jaiotzean egiten du, airea bularrean sartu eta mugatzean, irudiz honela diotsolarik: "Bizi ahal izateko, arnastu behar nauk!".

Mundu material edo sentigarria, zentzuek sorterazten digutena, arrazoimenak irakasten diguna irakasten digula, fedearekin sinetsi behar dugunez, ez da existitzen, beste mundua, hau da, mundu izpirituala edo ukiezina, irudimenak sorterazten diguna mamitu eta sostengatzeko besterik. Kontzientziak gero eta kontzientziagoa izatera jotzen du, kontzientziatzeraz, bere buru osoaren, bere edukin guztiaren kontzientzia betea izatera. Gure gorputz propioaren sakontasunean, animaliangan, landareetan, arroketan, bizidun orotan, Unibertso osoan, arrazoimenak irakasten diguna irakasten digula, fedearekin sinetsi behar dugu badela izpiritu bat bere burua ezagutzearren borrokatzen duena, hots, bere buruaren kontzientzia lortzeagatik, bera izatearren -nor bera izatea nork bere burua ezagutzea da eta-, izpiritu huts izateagatik, eta hori gorputzaren, materiaren bitartez besterik ezin lor dezakeenez gero, horixe sortzen du eta beragaz baliatzen da, aldi berean beraren gatibu geldituz. Nork bere burua ezin dezake ikus ispiluan erretrataturik ez bada, baina burua ikusteko norbera gatibu gelditzen deneko ispiluan, eta hor burua dakusa ispiluak desitxuratzen duen erara, eta ispilua hausten bada, haren irudia hausten zaio, eta lurrunduz gero, hura ere lurrundu egiten zaio.

Izpiritua materiak mugaturik dauka, eta horretan bizi eta bere buruaren kontzientzia hartu behar du, pentsamendua haren gorputz soziala izanik, hitzak mugatzen duen bezala. Materiari gabe, izpiriturik ez, baina materiak izpiritua sufrierazten du, bera mugatuz. Eta oinazea ez da besterik materiak izpirituari jartzen dion oztopoa baino, kontzientziak inkontzientearekin duen elkarjotzea.

Oinazea da, izan ere, inkontzientziak, hau da, materiak, kontzientziari, izpirituari, jartzen dion langa; borondateren aurkako erresistentzia hori da Unibertso ikuskorrek Jainkoari jartzen dion muga, kontzientziak, inkontzientziaren kontura zabaldu nahi izatean, topatzen duen orma da, hots, inkontzientziak kontzientziatzeari jartzen dion erresistentzia.

Hala irakatsirik sinesten badugu ere, ez dakigu bihotza, urdaila edo biriak dauzkagula, min, herstura edo larritasunik ematen ez diguten artean. Min fisiko horrexek, edo eragozpenak behinik behin, erakusten digu geure erraien existentzia. Eta horrelaxe gertatzen da dolore izpiritualaz, hersturaz ere, ez baikara konturatzen arima dugunik ere, horrek min eman arte.

Larridurak eragiten dio kontzientziari bere baitara bihurtzea. Larri ez dagoenak badaki zer egiten eta zer pentsatzen duen, baina ez daki benetan egiten eta pentsatzen duena. Pentsatu egiten du, baina ez du pentsatzen pentsatzen duenik, eta haren pentsamenduk harenak ez balira bezala dira. Eta bera ere ez da berbera. Eta kontua da, giza izpirituak, bere buruaz jabetzeko, nahitaez larridura behar duela, hots, inoiz ez hiltzeko grina.

Oinazeak, desegintza izanik, geure erraiak aurkierazten dizkigu, eta desegintza gorenean, heriotzarenean, ezereztearen minaren bidez geure denborazko erraien erraietara helduko gara, Jainkoagana, izpirituzko larriduran arnastu eta maitatzen ikasten dugunagana.

Fedearekin honelaxe sinetsi behar da, arrazoimenak irakasten diguna irakasten digula.

Gaizkiaren etorkia ez da, antzinatek anitzek jadanik ikusi duten bezala, beste izen batez materiaren inertzia deitzen dena besterik, eta izpirituan, nagikeria. Eta horrexegatik esan zen nagikeria bizio guztien ama dela. Nagikeriarik gorena hilezintasuna eroki ez irrikatzea dela ahanzi gabe.

Kontzientzia, gehiago eta gehiago, gero eta gehiagorako antsia, betikotasun-gosea eta infinitutasun-egarria, Jainkoaren gura, ez dira behin ere asetzen; kontzientzia bakoitzak bera eta gainerako guztiak izan nahi du berbera izateari utzi gabe, Jainkoa izan nahi du.

Eta materia, inkontzientzia, gero eta gutxiago izatera lerratzen da, ezer ez izatera, harena atsedeen-egarria delarik. Izpirituak honela dio: "Izan nahi dut!", eta materiak erantzuten dio: "Ez dut hori nahi!".

Eta giza bizitzaren mailan, gizabanakoak, mundu materialaren sortzailea den bizirik irauteko sen hutsak eraginik, suntsitzera, ezerezera joko luke, gizarteagatik ez balitz, beronek hari betirauteko sena, mundu izpiritualaren sortzailea, eman eta orotara, ezin hiltzera eramanez eta bultzatzen baitu. Eta gizonak, gizartearen aurka, gizabanako huts gisa, bere burua kontserbatzearen egiten duen guztia, haren lepotik bada ere, txarra da; eta ona, aldiz, pertsona sozial gisa, bera sarturik dagoen gizartearen alde egiten duen guztia, hartan betirautearen eta hura betiraunerazteko. Eta berekoi handiak diruditen eta beren obra aurrera eramatearen guztia arrapaladan darabilten asko, ez dira karitatez izekirik eta gainezkaturiko arimak besterik, haien ni mizkina, betetzeko misio bat duen ni sozialaren menara makurtu eta uztarperatzen dutelako.

Maitasunaren, izpiritualtzearen, liberazioaren obra forma iragankor eta indibidualetara lotzen duenak, Jainkoa materiaren gurutzean josten du; materiaren gurutzean Jainkoa josten du ideala bere interes tenporalei edo gloria mundutarrari zerbitzarazten dienak. Eta halakoa jainko-erhailea da.

Karitatearen obra, Jainkoaganako maitasunarena, Bera materia gordinetik askatzen saiatzea da, oro izpiritualtzen, kontzientziatzen edo unibertsaltzen saiatzea; arrokak mintzatzea hel daitezkeela amestea eta amets horren arauz obratzea; hots, existentziadun guztia kontziente egin dadila, Hitza birbiz dadila.

Ez dago eukaristi sinboloan ikustea besterik. Hitza materiazko ogi zati batean atxilotu dute, eta bertan atxilotu dute geuk jan dezagun, eta jatean geure dagigun, izpiritua bizi deneko gorputz honena, eta bihotzean irabia dakigun, eta gure burmuinean pentsa dezan, eta kontzientzia izan dadin. Ogi horretan atxilotu dute, gure gorputzean ehortziz, gure izpirituan birbiz dadin.

Eta kontua hauxe da, guztia izpiritualdu beharra dagoela. Eta hori lortzen da guztiei eta orori erdibanatuago eta handiagoa dudanez neure izpiritua emanez. Eta neure izpiritua ematea besteenean sartzea da eta ni haien jabe egitea.

Honetan guzti honetan fedez sinetsi behar da, arrazoimenak irakasten diguna irakasten digula.

Eta orain, fantasia handi edo urriko doktrina hauen ondorio praktikoak ikusiko ditugu, logikoa, estetikoa, etikoa eta, batez ere, haien mamitze erlijiosoa. Eta beharbada orduan justifikatuagorik aurki ditzake doktrina horiek, ene aurretiko oharrak gora-behera, hemen sistema irrazional baten garapen zientifikoa, edo filosofikoa bederen, bilatzen ibili denak.

Ez dut uste irakurlea seigarren kapituluaren azkenean esan nuen guztira berriz ere bidaltzeaz salbuetsirik dagoenik, "Amildegia sakonean" zeritzon hartara, alegia; baina orain tratatu honen guztionen zati praktiko edo pragmatikora hurreratzen ari gara. Baina horra baino lehen, ikusteko dugu oraindik erlijio-sentimendua beste bizitzaren ikuste esperantzatsuan nola konkreta daitekeen.

X
ERLIJIOA, HILOBIAZ BESTALDEKO
MITOLOGIA ETA
APOKATASTASIA

Jainkotasunaren eta Jainkoaren sentimenduak, eta beronetan oinarrituriko fedeak, esperantzak eta karitateak, beren aldetik, erlijioa oinarritzen dute. Jainkoaren baitako fedetik gizonen baitako fedea jaiotzen da; Haren baitako esperantzatik, berauen baitako esperantza, eta Jainkoarenganako karitate edo gupidatik -Cicerok, *De natura deorum* (1. lib. 41. kap.) honela esan zuen eta: *Est enim pietas iustitia adversum deos*-gizonenganako karitatea. Jainkoarengan zifraturik dago, Gizateria ez eze, Unibertso osoa ere bai eta, berau, izpiritualdua eta mamitua, kristau fedeak Jainkoa azkenean guztia guztiengan izango dela baitiosku. Dona Teresak esan zuen, eta adiera latz eta desesperatuagoaz Miguel de Molinos-ek errepikatu, arimak kontu egin behar duela ez dagoela bera eta Jainkoa besterik.

Eta Jainkoarekiko harremanari, Harekiko batasun aski edo gutxi barnekoi eta mamiari erlijio esaten diogu.

Zer da erlijioa? Zertan bereizten da erlijiotasunetik eta zer nolako harremana dago bien artean? Erlijioa nork bere baitan sentitzen duen erara gehiago definitzen du, besteengan ikusten duen arauera baino, eta ez dago hura definitzerik era batera edo bestera hura sentitu gabe. Tacitok, juduez mintzo zela, honela zioen (*Hist. V, 4*), haientzat profanoa zela, berentzat, erromatarrentzat, sakratu zen guztia, eta erromatarrentzat lohi zena alderantzizkoa zela juduen artean: *Profana illic omnia quae apud nos sacra, rursum conversa apud illos quae nobis incesta*. Eta horrexegatik deitzen zien berak, erromatarra izanik, juduei (*V, 13*) sineskeriapeko jende, eta erlijioaren arerio: *Gens superstitioni obnoxia, religionibus adversa*, eta kristautasunari buruz, oso gaizki ezagutzen zuena eta judaismotik ia bereizten ez zuena, hari sineskeria galgarri erizten, *existentialis superstitio*, giza leinuari omen zion gorrotoagatik, *odium generis humani* (*Ab. excessu Aug. XV, 44*). Hori Tacitok eta harekin beste askok ere bai. Baina, non amaitzen da erlijioa eta sineskeria hasten? Edo, agian, non hasten da hau hura has dadin? Zein da biak bereizteko erizpidea?

Ez ginderamazke urrunera, erlijioaz, definitzaile bakoitzaren sentimenduaren arauz esan diren definizio nagusiak, gaingiroki bederen, hemen aipatzeak. Erlijioa, definitu baino gehiago deskribatu egiten da, eta deskribatu baino areago sentitu. Baina definizio horietako batek duela gutxi arrakasta izan badu, hori Schleiermacher-ena izan da, hots, gu baino gorago den zerbaiten peko harremanaren sentimendu soila eta ahalmen misteriotsu horrekin harremanak ezartzeko nahia. Ez dago gaizki, halaber, W. Hermann-ena ere (jadanik aipaturiko obran), gizonaren erlijio-irrika haren giza existentziaren egiaren nahia dela dioena. Eta inoren lekukotasunak amaitzeko, Cournot neurrizko eta argikuslearena aipatuko dut, "erlijio-agerraldiak gizonak mundu ikustezin, naturaz gainekoa eta miragarria sinesteko duen joeraren nahitaezko ondorioak dira, joera hori bai aurreko egoera baten oroitzapentzat eta bai etorkizuneko helburuaren aurrenentimendutzat hartua izan daitekeela" zioena (*Traité de l'enchaînement des idées fondamentales dans les sciences et dans l'histoire*, 396. §). Eta bagara, jadanik, etorkizuneko helburua delako horretan, betiereko bizitzan, hau da, Unibertsoaren, edo, bestela, Jainkoaren giza zertarakoan. Horra erlijio-bide guztietatik heltzen da, erlijio ororen esentzia bera da eta.

Erlijioa, Unibertso osoa fetitxean pertsonaltzen duen basatiarenetik hasita, Unibertsoari, Jainkoari giza zertarakotasuna emateko beharizan bizikorretik abiatzen da, eta horretarako bere buruaren kontzientzia esleitu behar zaio, eta, beraz, bere helburuarena

ere bai. Eta esan daiteke ez dela erlijioa, Jainkoarekiko batasuna baizik, Hura bakoitzak sentitzen duen bezala sentituz. Jainkoak bizitzari zentzu eta zertarakotasun transzendentala ematen dizkio; baina Harengan sinesten dugun gutariko bakoitzaren arauera ematen dio. Eta horrela, Jainkoa gizonarentzat da gizona Jainkoarentzat den bezainbat, bere burua gizonari eman baitzion, gizon eginez, gizatuz, harenganako amorearren.

Eta Jainkoarekin elkartzeko erlijio-irrika hau ez dator zientziatik, ez artetik; bizitzari dario. "Zientzia eta artea dituenak, erlijioa du; ez bata ez bestea duenak, beu erlijioa" zioen, bere paganismo-ateraldi ugari-ugarietako batean Goethek. Eta esaten zuena gora-behera, berak, Goethek...?

Eta Jainkoarekin batu nahia ez da Harengan galdu eta itotzea; galtzea eta itotzea beti ere nirvanako ametsik gabeko loan desegitera joatea da eta; guk Hura edukitzea da, Hark gu edukitzea baino gehiago. Aberats bat zeruetako erresumara sartzeko giza ezintasuna ikusita, dizipuluek Jesusi nor salba zitekeen galdetzen ziotenean eta Maisuak, erantzunez, hura gizonentzat ezinezkoa zela baina ez Jainkoarentzat azaltzean, Petrik honela esan zion: "Hara, guk gauza guztiak utzi ditiagu, hiri jarraitzeko. Zer izanen da, beraz guretzat?" Eta Jesusek erantzun zien ez zirela Aitagan itoko, baina hamabi tronotan eseriko zirela Israelgo hamabi leinuak epaitzeko (Mat. XIX, 23-26).

Espainol bat izan zen, eta oso espainola bera, Miguel de Molinos, bere *Guía espiritual*-ean⁴⁴, hau esan zuena: "Bost gauzatatik askatu eta horiexeri uko egin behar die zientzia mistikora heldu nahi duenak: lehena, sorkarrietatik; bigarrena, gauza tenporaletatik; hirugarrena, Izpiritu Sainduaren dohainetatik beraietatik; laugarrena, bere baitatik, eta bosgarrena, Jainkoagandik beragandik askatu behar duela". Eta hau erantsi zuen: "Azken hau hobezinena da, zeren honelaxe askatzen dakien arima Jainkoarengan galtzeraino heltzen baita, eta horrela galtzen denak du, hain zuzen, hura aurkitzen". Oso espainola Molinos hori, bai, eta bera bezain espainola geldikoitasunezko adierazpen paradoxiko hau, edo hobesanez nihilismozkoa, -berbera beste leku batean anikilazioaz mintzo baita-, baina ez gutxiago baino, agian, are espainolago izan ziren haren aurka borrokatu zuten jesuitak, oro ezerezaren aurkako foruen alde itzuliz. Erlijioa ez baita norbera anikilatzeko irrika, orokortzekoa baizik, bizi-irrika da eta ez herioarena. "Gizonaren erraietako betiereko erlijioa..., bihotzaren amets indibiduala, bere izatearen gurkera da, bere bizitzaren adorazioa", Flaubert tormentatuak sentitzen zuen bezala (*Par les champs et par les grèves*, VII).

Aro Berria deritzonaren hasieran, Ernazimendurekin, erlijio-sentimendu paganoa birbiztu zenean, hori bere era konkretuan zaldun-idealean mamitu zen, bere maitasun-eta ohore-kodeekin. Baina hura paganismo kristautua zen, bataiatua. "Emakumea, dama -la donna- zen bular trauskil haien jainkotasuna. Lehen aroko oroitzapenetan bila ari denak emakumearen ideal hau bere garbitasunean eta bere guztiahalean aurkituko du: Unibertsoa emakumea da. Eta halaxe izan zen Erdi Aroaren hasieran Alemanian, Frantzia, Proventzan, Espainian eta Italian. Irudi honen arauz egin zen Historia; troiarrak eta erromatarrak zaldun ibiltari iruditzen zitzaizkien, eta horretara, arabiarak, sarrasinak, turkoak, sultana eta Saladin... Anaitasun unibertsal honetan aingeruak, sainduak, mirariak eta paradisia aurkitzen dira, ekialdeko mundu fantasiako eta boluptuosoarekin era pitxiz nahastekatua, guztia *zalduntza* izenez bataiatua". Honela mintzo da Francesco de Sanctis (*Storia della letteratura italiana*, II), lehentxoago honela dioskuna, hots, gizon haien artean "paradisuan bertan, maitalearen gozamina bere damari -Madonna- behatzea zela, eta bere dama gabe, *hara joan ere ez zuela nahi*". Zer zen bada, izan ere, zalduntza, geroago Cervantesek *Don Quixote* -ren bidez araztu eta kristautu zuena, harekin irriaren bidez amaitu nahi izanez, egiazko erlijio munstroso bat, paganismoaren eta kristautasunaren arterko hibridoa besterik, haren ebangelioa,

beharbada, Tristan eta Isolde-en legenda izanik? Eta mistikoen erlijio kristauak berak - Jainko-erako zaldun ibiltari horienak-, ez ote zuen emakume jainkotuaren, Ama Birjinaren, gurkeran bere amaierako goren puntua? Zer da ba Done Bonaventura-ren mariolatria, Mariaren trobalariarena? Bizitzaren iturriarenganako maitasuna zen hura, heriotzarik salbatzen gaituenaganakoa.

Ernazimendua aurreratu ahala, emakumearen erlijio honetatik zientziaren erlijiora iragan zen; nahikunde lehendik ere barrutik eta bere funtsean bazen lekuan amaitu zen, jakin-minean, ongiaren eta gaizkiaren zuhaitzeko fruitua dastatzeko antsian. Europa Boloniako Unibertsitatera abiatzen zen lasterka, ikastera. Zalduntzari platonismoa zerraion. Munduaren eta bizitzaren misterioa eriden nahi zen. Baina, sakonean, hura bizitza salbatzeko zen, emakumearen gurkerarekin salbatu nahi zen eta. Giza kontzientziak Kontzientzia Unibertsalean barneratu nahi zuen; baina hori, jakin gainean edo jakin gabe, salbatzeko egiten zuen.

Eta kontua da ez dugula Kontzientzia Unibertsala sentitzen ez irudikatzen -eta sentimendu eta irudimen hauek dira erlijiotasuna- nor bere kontzientzia salbatzeko ez bada. Eta nola?

Behin eta berriz ere errepikatu behar dut arimaren betierekotasunaren irrika, gure kontzientzia pertsonal eta indibidualak, nola edo hala, irauteko duen gura hori, erlijioaren esentziazkoa dela, Jainkoa egoteko irrika bezainbat. Izan ere, ez da bata bestea gabe, funtsean, biak gauza bakarra eta bera direlako. Baina lehen irrika hura konkretatzen eta arrazionaltzen, geure buruaren aurrean hura definitzen ahalegintzen garen unetik, are eragozpen gehiago jalgitzen zaizkigu Jainkoa arrazionaltzen saiatu ginenean baino.

Gure arrazoimen urri propioaren aurrean hilezintasun-irrika hilezina justifikatzeko, giza kontsolamendura ere jo izan da: *Permanere animos arbitratur consensu nationum omnium* zioen, antzinakoekin, Ciceronek (*Tuscul. Quaest.*, XVI, 36); baina bere sentimenduen biltzaile berberorrek aitortzen zuen ezen Platonen *Fedon* -ean arimaren hilezintasunaren aldeko argudioak irakurtzen zituen bitartean, onesten zituela; baina liburua utzi eta bere buruan problema aztertzen hasi bezain laster, aurreko onespen hura ihesi zihoakiola, *assentio omnis illa illabitur* (XI. kap., 25). Eta Ciceroni bezala, gainerako guztioi ere horrela gertatzen zaigu, eta Swedenborg-i, beste munduaren ameslaririk ausartenari ere horrelaxe gertatzen zitzaion hau aitortzean, alegia, arimaz, edo honek gorputzarekin duen batzeko moduz, goi mailako hausnarketa handirik egin gabe, mundu honez bestaldeko bizitzaz mintzo denak, behin hil eta gero gozamenean eta ikuste zoragarrian biziko dela sinesten duela, gizon bat aingeruen artean bezala; baina arimaren gorputzarekiko loturaren doktrinaz, edo hari buruzko hipotesietan, zalantzak agertzen zaizkiola ea arima honelakoa edo halakoa ote den, eta horiek agertzean, aurreko ideia desagertu egiten dela (*De coelo et inferno*, 183. §). Eta, halere, "doakidana, kezkatzen nauena, kontsolatzen nauena, neure burua ukatzera eta sakrifiziora naramana, *niri* edo *nire pertsonari* dagokiokeen patua da, lotura harrezin horren jatorria, izaera edo esentzia direnak direla, lotura hori gabe, filosofoek ebatzi gogo dutenez, *nire* pertsona ezereztuko litzateke eta", Cournot-ek dioenez (*Traité...*, 297. §).

Betiereko bizitzaren baitako fedea hutsik eta biluzik onartu behar al dugu, bera nolakoa datekeen irudikatzen saiatzeke? Hori ezinezkoa da; ez dugu egingarri horretara egitea. Eta badira, halere, kristau direla dioten arren, irudikapen hori ia-ia bazterturik daukatenak. Har ezazue protestantismo ilustratuenaren edozein liburu, hau da, arrazionalistenarena, kulturalenarena, Julius Kaftan doktorearen *Dogmatik*-a, adibidez, eta bere seigarren argitaraldiak, 1909.ekoak, dituen 668 orrialdeetatik bat, azkena, besterik ez dio problema honi eskaintzen. Eta orrialde horretan, Kristo, hasiera eta erdia

den bezala, Historiaren azken helburua ere badela, eta Kristorengan direnek osotasunezko bizitza, hots, Kristorengan direnen betiereko bizitza lortuko dutela finkatu ondoren, bizitza hori zerik izan daitekeen azaltzeko hitzik bat ere ez. Gehienez ere, hiruzpalau berba betiereko heriotzaz, hau da, infernuaz, "fedearen eta kristau esperantzaren izaera moralak hala eskatzen duelako". Haien izaera moralak, ezta? eta ez haien izaera erlijiosoak, beronek ez baitu, nik dakidala, horrelakorik. Eta hori guztiori parsimonia agnostiko zuhurraz.

Bai, zuhurra, arrazionala, eta norbaitek bertutetsua ere esango du, gure ezagutzari galerazirik zaizkion misterioetan sartu nahi ez izatea da, betiereko gloriaren irudikapen plastikoa, *Jainkozko Komedia* batena bezalakoa, lortzen ez saiatzea. Egiatzko fedea, egiatzko pietate kristaua, esango zaigu, Jainkoak, Kristoren graziari esker, nola edo hala bere Seme Horregan bizieraziko gaituelako fidantzan egotea da; gure etorkizuna haren esku ahalguztidunetan denez gero, haietara abandona gaitzela Hark gutaz ahalik eta onena egingo duelako segurantzaz, bizitzaren, izpirituaren eta Unibertsoaren azken finerako. Horixe da mende askotan zehar eta, batez ere, Lutherrengandik Kantenganako tartean heldu zaigun irakaspena.

Eta, hala eta guztiz ere, gizonak beti ere saiatu dira betiereko bizitza hori nolakoa izan daitekeen irudikatzen, eta gero ere, gizonak, eta ez pentsatzeko makinak diren bitartean saiatzen segituko dute. Badira teologi -edo dena delakoaren- liburu batzuk dohatsuak bizi direneko egoerari buruzko eztabaidaz beteak, haien gozamenaren nolakoaz, gorputz gloriosoaren berezitasunez, inolako gorputzik gabe ez baitago arima bururatzerik.

Eta premia berberoni, beste bizitza izan daitekeenaren irudikapen konkretu bat eratzeko premia egiatzkoari, erantzuten dio, neurri handiz, izpiritismoaren, metenpsikosiaren, arimak astroetan zehar lekualdatzearen eta antzeko beste doktrinen bizitasun hautsezin horrek; izan ere, doktrina horiek garaituak edo hilak direla deklaritzen den aldi guztietan, beste horrenbestetan birpizten dira, nola edo halako era berri edo zaharraz. Eta dorpezia guztien gainekoa da horiek bazterrean utzi nahi izatea, eta berorien muin iraunkorra bilatu gura ez izatea. Gizonak behin ere ez du etsiko, ukoak gora-behera, beste bizitza hori irudikapenetan zehaztu arte.

Baina pentsagarria ote da gero, heriotzaz geroko betiereko bizitza amaigabea? Zer izan daiteke izpiritu desaragituaren bizitza? Zer izan daiteke horrelako izpiritua? Zer izan daiteke kontzientzia hutsa, organismo gorpuzdunik gabe? Descartesek mundua pentsamenduaren eta hedaduraren artean banatu zuen, arimaren hilezintasunaren kristau dogmak gainean ezarri zion dualismoa berau. Baina, hedadura, hots, materia al da pentsatzen duena edo izpiritualtzen dena, ala pentsamendua ote dugu hedatzen eta materialtzen dena? Metafisika arloko galdera larrienak praktikatik irteten dira -eta horrexegatik lortzen dute beren balioa, beste zereginik ez dutenen jakinmineko eztabaida alferrak izateari utzita- geure hilezintasunaren ahalbideaz konturatu gura izatean. Eta izan ere, metafisikak ez du baliorik, gure bizi-irrika hori nola bete edo ezin bete daitekeen azaltzen saiatzen ez den heinean izan ezik. Eta horrela badira, eta beti ere izango dira, metafisika arrazional bat eta beste bat, bizikorra, etengabeko gatazkan elkarren artean, bata kausaren noziotik eta bestea substantziarenetik abiaturik.

Eta hilezintasun pertsonala irudikaturik ere, ez al dago guk hura haren ukapena bezain gauza ikaragarritzat sentitzerik? "Kalypso ezin kontsola zitekeen Ulyssesek alde egin zuelako; haren nahigabea, erabat jota zegoen hilezina izateagatik" diosku Felon gozoak, mistikoak, bere *Telemako* -ren hasieran. Ez al zen antzinako jainkoen kondena, deabruena bezala, azkenean, beren burua ezin hiltzea?

Petri, Jakobe eta Joanes mendi gora batera eraman ondoren, Jesus haien aurrean antzaldatu zenean, haren jantziak elurra bezain zuri distiratsu bilakaturik eta, harekin hizketan, Moise eta Elia agertu zitzaizkionean, Petrik Maisuari honela esan zion:

"Maisua, on duk hemen garen. Egin ditzagun bada hiru denda, bat hiretzat, eta beste biak Moiseren eta Eliarentzat", une hura betikotu nahi zuelako. Eta menditik jaistean Jesusek agindu zien ikusi zutena inori ez esateko, harik eta Gizonaren Semea hiletarik birbiztu arte. Eta haiek, esan hori gogoan, beren artean zihardukaten hiletarik birbiztea delako hura zerik zatekeen eztabaidaka, ulertuko ez luketenek bezala. Eta horren ondoren aurkitu zuen Jesusek izpiritu mutuak preso zuen mutikoaren aita, esan ziona: "Sinesten dut, lagun iezaiozu ene sinesgabetasunari" (Marko, IX).

Hiru apostolu haiek ez zuten ulertzen hilak birbiztea delako hori zer zen. Ez eta saduzear haiek ere, Maisuari galdetu ziotenek ea birbiztean zeinen emaztea izango ote zen bizitza honetan senar batzuk izandakoa (Mat. XXII), eta orduantxe esan zuen Jainkoa ez dela hildakoen Jainkoa, biziena baizik. Eta, izan ere, ezin dugu beste bizitarik pentsatu oraingo bizitza mundutar eta iragankor honen itxura berberetan ez bada. Eta ez du ezertan misterio hori argitzen garauaren eta hartatik irteten den gariaren kontu guztiak, Paulo apostoluak "Nola birbiztuko dira hilak? Nolako gorputzaz datozke?" (Kor I, XV, 35) galderari bere baitan erantzuteko aipatuak.

Nola bizi eta Jainkoaz etengabeki goza dezake giza arimak, horregatik bere norbanako-nortasuna galtzeke, hau da, bere burua galdu gabe? Zer da Jainkoaz gozatzea? Zer da betierekotasuna denborarekiko oposizioz? Arima beste bizitzan aldatzen da, ala ez da aldatzen? Aldatzen ez bada, nola bizi da? Eta aldatzen bada, nola gordetzen du bere banakotasuna hain denbora luzean? Eta beste bizitzak espazioa bazter dezake, baina ezin du denbora bazterrean utz, Cournotek, lehen aipatuak, oharterazten duenez.

Zeruan bizitarik baldin bada, aldaketak izango dira, eta Swedenborgek aingeruak aldatzen direla oharterazten zuen, bestela, hartaz beti ere osotasunean gozatuz gero, zeruko bizitzaren atseginak pixkanaka bere balioa galduko lukeelako, eta aingeruek, gizonak bezala, beren burua maite dutelako, eta bere burua maite duenak egoera-aldaketak izaten ditu eta, gehitzen du, batzuetan aingeruak tristatu egiten direla, eta bera, Swedenborg, haietako batzuekin mintzatu zela, triste zeudenean (*De coelo et inferno*, 158, 169. §§); edonola ere, ezin dezakegu aldaketa gabeko bizitarik uler, hazteko edo urritzeko aldaketa, tristurarako edo pozerakoa, maitasunerako edo gorrotorakoa.

Kontua da betiereko bizitza pentsaezina dela, eta are pentsaezinagoa betiereko bizitza, erabateko zorionaz eta ikuspen beatifikoa betea.

Eta zer da ikuspen beatifikoa delako hori? Lehenengo eta behin ikuspen deitzen dela dakusagu, eta ez egintza, zerbait geldikorra delakoan. Eta ikuspen horrek, ez al dakar aldean norbere kontzientzia galtzea? "Zeruko saindu bat -dio Bossuet-ek- bere burua ia sentitu ere egiten ez duen izakia da, Jainkopean hain jabetua eta haren glorian hain murgildurik dagoenez gero... Norbera ezin da hartan geratu norberarengandik at aurkitzen delako, norbere izatearen eta norbere zorionaren iturriaganako maitasun aldaezinaz loturik" (*Du culte qui est dû à Dieu*). Eta hori Bossuetek dio, antigeldikoiak. Jainkoaren ikuspen maitakor horrek aldean Harengan xurgatu izatea dakar. Jainkoaz erabat gozaten duen dohatsuak ez du bere buruaz pentsatu behar, ez du bere buruaz gogoratu behar, ez bere buruaren kontzientziarik ere izan behar, etengabeko ekstasian egon baizik, beregandik at, inorenganaturik. Eta mistikoek ikuspen horren preludea deskribatzen digute ekstasian.

"Jainkoa dakusana hil egiten da", dio Eskriturak (*Epaileak*, XIII, 22), eta Jainkoaren betiereko ikuspena, ez ote da nortasunaren etengabeko ahultzea, heriotza etengabea? Baina Teresa Sainduak, bere *Bizitza*-ren XX. kapituluan, otoitzaren azken maila azaltzen digunean, hots, arimaren arrobamendua, eramapena, hegalaldia edo ekstasia, badiosku arima hodei edo arrano ahaltzu batek eramana bezalakoa dela, baina "bazaramatzatela dakusazue eta ez dakizue nora" eta "atsegingarria da", eta "aurka

jarkitzen ez bada, ez da kordea galtzen; gutxienez, halako eraz, neure senean nengoelarik, eramana nintzela uler nezakeen"; hau da, kontzientzia galdu gaberik. Eta Jainkoak "ez dirudi arima beregana hain zinez eramatea aski duenik, baina gorputza ere gura du, hain hilkorra eta hain lur zikinezkoa izan arren". "Maiz arima bere baitarazten da edo, hobeki esan, Jaunak bere baitarazten du, eta beragan pixka bat eduki eta gero, soilki borondatearekin gelditzen da", ez soilki adimenarekin. Ez da, beraz, ageri denez, ikuspena, borondatearen batasuna besterik, eta bitartean "endelegua eta memoria poz-irritsu... luzaro lotan eta ametsetan egon eta oraindik erabat itzartu ez den pertsona baten antzera". "Hegalaldi leun, hegalaldi atsegin, hegalaldi hotsik gabea" da. Eta hegalaldi atsegin horrekin batzen gara, bakoitzak bere kontzientzia duelarik, norbera batzen deneko Jainkoagandik burua bereizirik duela jakinik. Eta arrobamendu honetara, espainiar doktores mistikoaren arauz, Kristoren Gizatasunaren behakuntzaz igoten da, hau da, zerbait konkretu eta gizatiarraren bidez; Jainko biziaren ikuspena da, eta ez Jainko ideiarena. Eta XXVIII. kapituluaren dioskunez, "bista gozatzeko, zeruan beste gauzarik ez balego, gorputz glorifikatuen edertasun handia ezik, gloria txit handia da bereziki Jesu Kristo gure Jaunaren Gizatasuna ikustea...". "Ikuspen hau -gehitzen du-irudimenezkoa izan arren, ez nuen behin ere gorputzaren begiez ikusi, ez eta beste ezein ere, arimaren begiekin baizik". Eta kontua da zeruan ez dela Jainkoa bakarrik ikusten, guztia Jainkoarengan baizik; hobesanez, guztia Jainko, Hark guztia besarkatzen baitu. Eta ideia hau Jakob Böhme-k are azpimarratzenago du. Saindak, bere aldetik, *Zazpigarren Egoitzetan*⁴⁵, II. kapituluaren diosku: "Batasun sekretu hau arimaren barru-barruko erdian gertatzen da, Jainkoa bera dagoen lekua izan behar duen tokian".

Eta gero, "arima, arima horren izpiritua esan nahi dut, Jainkoarekin gauza bera eginik geratzen da..."; eta hau "argizarizko bi kandela hain hurbil hurreratuko balira bezala da, argi guztia bat izanez, edo babila eta argia eta argizaria bat balira bezala; baina geroago kandela bata besteagandik ongi bana daiteke, kandela bi edo argizariaren babila geldituz". Baina bada beste batasun bat are sakonagoa, hots, "zerutik ibai edo iturri batera ura eroriko balitz bezala, hor dena ur eginik geldituz, eta hortik ezingo dute jadanik banatu ez bereiztu zein den ibaiko ura edo zerutik eroria; edo erreka txiki bat itsasoan sartzen denean bezala, apartatzeko erremediorik izango ez duena; edo gela batek argi handia sartzen deneko leiho bi balitu bezala, zatiturik sartu arren, halere guztia argi bat eginez". Eta zer nolako aldea dago hemendik Miguel de Molinosen barne ixiltasun mistiko hartara, zeinen hirugarren maila txit gaintiezina pentsamenduaren ixiltasuna zen. (*Guía*, XVII. kap. 129. §). Ez al gara hurbil, gogo eraldatuaren egoera hartara heltzeko bidea ezereza delako hartatik? (XX. kap. 186. §). Eta zer zuen pitxirik Amielek bere *Barne-Egunkaria*-n⁴⁶ *nada* hitz espainola bi aldiz ere erabiltzeak, seguraski beste ezein hizkuntzan berba adierazkorragorik ezin aurkituz? Eta, halere, gure doktores mistikoa arretaz irakurritz gero, ikusiko dugu ez dela zentzuen elementua, hots, atseginarena kanpoan inoiz geratzen; hau da, norbere kontzientziarena. Arimak bere burua Jainkoari xurgatzen uzten dio, berak Jainkoa xurgatzeko, bere jainkotasun propioaren kontzientzia eskuratzeko.

Ikuspen beatifikoa, arima Jainkoari adi-adi eta Harengan galdurik bezala dagoeneko behakuntza maitekorra, norbere ezerezte edo gogaitze luzea iruditzen zaizkio gure sentitzeko modu naturalari. Eta hortiek dator maiz ikus dezakegun sentimendu hori, behin baino gehiagotan adierazpen satirikotan azaldua, inoiz irreberentzi- eta agian inpietate-ukiturik ere falta ez duena, hots, betiereko gloriaren zeru hori asperkizun betierekoaren egoitza ote den ustea. Eta ez du balio sentimendu horiek, hain bat-batekoak eta naturalak, erdeinatu nahi izateak, edo gaitzetsi guran ibiltzeak.

Argi dago gizonaren atsegin gorena kontzientzia eskuratu eta handitzea dela konturatzen ez direnek horrela sentitzen dutela. Ez, prezeski ezagutzeko atsegina, ikastekoa baizik.

Gauza bat behin ezagutu eta gero, hura ahanztera jotzen da, haren ezaguera inkontziente bihurtzera, hori esaterik badago behinik behin. Gizonaren plazerik eta atseginik garbiena, ikasteko, konturatzeko, ezagutza lortzeko egintzarekin loturik dago; hau da, ezberdintzearekin bat eginik. Hortixek dator Lessing-en esanera famatua, jadanik aipatua. Ezaguna da Vasco Núñez de Balboa-rekin zihoan agure espainol haren kasua, Darien mendiaren gailurrera heldu eta ozeano biak ikustean, belaunbiko erorita, oihu egin zuenarena: "Eskerrak, ene Jaungoikoa, holako miresgarria ikusi aurretik hiltzen utzi ez nauzulako". Baina gizon hori han gelditu balitz, miresgarriak hala izateari laster utziko zion, eta harekin, plazerak berak ere bai. Haren gozamina aurkikuntzarena zen, eta beharbada ikuspen beatifikoa gozamina ere, ez da prezeski izango Egia Gorena, osorik eta guztirik, behatzea, arimak ezingo bailuke hori jasan, haren atergabeko aurkikuntza baizik, hots, norbere kontzientziaren sentimendua beti manten dezakeen ahaleginaren bidez etengabeki ikastea.

Buru-gelditasunezko ikuspen beatifikoa, ezagutza osokoa, eta ez mailaz maila ikasiz joatekoa, ulertzeko zaila da, nirvanatzat hartzen ez bada, hau da, izpirituzko hedakuntzatzat, energiak Jainkoaren baitan izandako barreiapentzatzat, elkarjotzerik, ezberdintasunik, hau da, ekintzarik ezaz berriro inkontzientziara itzultzetzat hartu ezean. Jainkoarekiko gure batasuna pentsagarri egiten duen baldintzak berak ez ote du ba gure irrika suntsitzen? Nolako ezberdintasuna dago norbera Jainkoak xurgatua izatek, Hura nork bere baitan xurgatzera? Errekasto txikia al da itsasoan galtzen dena ala itsasoa errekasto txikian? Gauza bera da.

Sentimenduzko hondoa gure kontzientziaren iraupenaren zentzua ez galtzeko dugun irrika da, gure oroitzapenen elkarrekiko lotura ez haustekoa, gure identitate konkretuaren sentimendua, agian Hura aberastuz, pixkanaka Haren baitan xurgatuz goazen arren. Laurogei urte dituenean, nork du gogoan zortzi urterekin nor izan zen, bien arteko lotura sentitu arren? Eta sentimenduzko problema, esan liteke honexetan datzala, ea Jainko bat, hots, Unibertsoarentzako giza zertarakotasunik ba ote dagoen. Zer da zertarakotasuna, ordea? Izan ere, zergatik ororen zergatiaz beti galdetzea dagoen bezala, galde egin daiteke, era berean, zertarako ororen zertarakoaz ere. Hortaz, Jainko bat badela ontzat emanik ere, Jainkoa zertarako? "Bere baitarako", erantzun daiteke. Eta ez da faltako honela ihardetsiko duenik: "Eta zertan digu kontzientzia honek ardura handiago, kontzientziarik ezak baino? Halere, beti gertatuko da Plotinok jadanik esana (*Enn. II, IX, 8*), mundua zergatik egin zuen eta arima zergatik dagoen, gauza berbera dela. Edo are hobeki, zergatia ? ? ? v? ? ? , zertarako dela.

Bere baitatik landa jartzen denarentzat, jarrera objektibo hipotetikoan -ezgizatiarra esan nahi duena-, azken zertarako azken zergatia bezain helezina da eta, hertsiki, hura bezain absurdua. Zer ardura du, izan ere, zertarakotasunik bat ere ez izateak? Zer nolako kontraesan logikoa dago Unibertsoak inolako zertarakorik, ez gizatiarrik ez eta gizagainekorik ere, ez izatean? Zertan kontrajartzen zaio arrazoimenari honek guztiak existitzea baino beste helbururik ez izatea, existitzen eta pasatzen den bezala pasatuz? Hau bere baitatik landa jartzen denarentzat; baina barrutik bere baitan bizi eta sufritzen duenarentzat..., horrentzat hil ala biziko arazoa da.

Bila ezak, beraz, heure burua! Baina norbera aurkitzean, ez al du nork bere ezereza aurkitzen? "Gizona, bere buruaren bila ibiliz bekatari bilakatzean, bere burua aurkitzean zoritxarreko egin da", esan zuen Bossuetek (*Traité de la concupiscence*, XI. kap.). "Bila ezak heure burua!", has hadi "heure burua ezagutzen!". Horri Carlyle-k honetara ihardetsiz (*Past and present*, book III, chap. XI): "Mundu honetako azken ebangelioa hauxe da: "Ezagut ezak heure obra eta bete ezak!" Ezagut ezak heure burua...! Heure buru horrek luzaro tormentatu hau; ez haiz inoiz helduko heure burua ezagutzera: gizabanako ezagutezina haiz: ezagut ezak egin dezakeana eta egik Herkules

batek bezala. Hauxe izango duk onena". Bai, baina egingo dudan hori ere, ez al da azkenean galduko? Eta galtzekoa bada, zertarako egin? Bai, bai; nigan pentsatu gabe neure obra burutzea -eta zein da ene obra?- agian Jainkoa maitatzea da. Eta zer da Jainkoa maitatzea?

Eta, bestaldetik, Jainkoa nigan maitatzea, ez al da neure burua Jainkoa baino maiteago izatea, Jainkoarengan neure burua maitatzea?

Heriotzaz geroko, hertsiki irrikatzen duguna bizitza hau bizitzen segitzea da, bizitza hilkor berberau, baina honen gaitzik gabe, gogaitasunik eta heriorik gabe. Horixe da Senecak, espainiarrak, bere *Martiaren Kontsolamendua*-n (XXVI) adierazi zuena; horixe gura zuen, bizitza hau berriz bizitzea: *ista moliri*. Eta horixe da Job-ek eskatzen zuena (XIX, 25-27), Jainkoa haragitan ikustea, ez izpiritutan. Eta zer besterik esan nahi du *betiereko itzulera* delako burutazio komiko horrek, Nietzsche gizaixo eta hilezintasun konkretu eta tenporalaren gose zenaren errai tragikoetatik jalgiak?

Lehen irtenbide katolikotzat aurkezten zaigun ikuspen beatifiko hori, nola bete daiteke, berriz diot, norbere kontzientzia ito gabe? Ez al da izango zer amesten dugun ez dakigula, amesten dugun ametsean bezala? Nork gurako luke horrelako betiereko bizitzarik? Zer pentsatzen den jakin gabe pentsatzea, ez da nork bera sentitzea, ez da nor bera izatea. Eta betiereko bizitza, ez ote da ba betiereko kontzientzia; ez, soilki, Jainkoa ikustea, ikusten dugula ikustea baizik, aldi berean nork bere burua, eta Hura ez bezalakoa, ikusiz? Lo datzana bizirik dago, baina ez du bere buruaren kontzientziarik; eta horrelako lo betierekorik inork gurako ote du gero? Kirkek Ulyssesi, hildakoen egoitzara, Tiresias aztiari galdetzeraz, jaisteko gomendatzean, igarle hori han hilen itzalen artean, zentzua duen bakarra dela esan zion, gainerakoak itzalen antzera higitzen baitziren (*Odyssea*, X, 487-495). Eta, izan ere, besteek, Tiresias salbu, herioa garaitu ote zuten? Garaipena ote da ba, horrela noraezean aritzea, zentzu gabeko itzalak bezala?

Bestaldetik, ez al dago pentsatzerik, gure bizitza mundutar hau, bestearekiko, hemengo loa itzarraldiareriko den bezalakoa izan daitekeela? Ez al da gure bizitza osoa amets bat izango, eta heriotza itzartzea? Baina itzartzea, zertara? Eta hau guztiau Jainkoaren ametsa besterik izan ez, eta Jainkoa egunen batez itzartuko balitz? Bere ametsa gogoratuko al luke?

Aristoteles, arrazionalista, bere *Etika*-n behatze-bizitzaren -
?? v? ? ? ? ? ? ? ? ? ? v? - zorihobeaz mintzo zaigu eta, izan ere, eskuarki, arrazionalista orok poztasuna ezagutzen ezarri ohi dute. Eta betiereko zorionaren kontzepzioa, Jainkoaren gozamenarena, ikuspen beatifiko gisa, Jainkoaren ezagutza eta ulerkera gisa, jatorri arrazionalista duen zerbait da, aristotelismoren Jainko idealari dagokion zorion-moeta da. Baina kontua da, zorionerako, ikuspenaz gainera, atsegina ere behar dela, eta beronek arrazionalik oso gutxi du, eta ez da lorgarria norbera Jainkoa ez bezalakorik sentitu ezik.

Gure teologo katoliko aristotelikoak, Done Tomas Aquinokoak, honela diosku bere *Summa*-n (*primae, secundae partis, questio IV*, 1. art.), "atsegina beharrezkoa da zorionerako, lorturiko ongian apetak atsedean hartzean sortzen baita atsegina, eta zoriona ongi gorena lortzea besterik ez denez gero, ezin dagoke zorionik aldean atseginik ez badu". Nolako atsegina da, ordea, atsedena hartzen duenarena? Atsedena hartzea, *requiescere*, ez al da ba lo egitea eta norbera atsedenean dagoelako kontzientziarik ere ez izatea? "Jainkoaren ikuspenetik bertatik sortzen da atsegina", gaineratzen du teologoak. Baina arimak, sentitzen al du bere burua Jainkoa ez bezalakoa? "Endeleguaren eragiketari laguntzen dion atseginak ez du hura eragozten, aitzitik, sendotu egiten du", dio geroxeago. Noski! Bestela, zer nolako poza ote da hori? Eta atsegina, laketa eta plazera salbatzeko, beti ere, oinazeak bezala, zerbait materiala duena, eta gorputz batean haragituriko ariman baizik ulertzen ez duguna, arima zoriontsua bere gorputzari loturik irudikatu beharra zegoen. Nolabaiteko gorputzik

gabe, nolako atsegina? Arima hutsaren hilezintasuna, inolako gorputzik gabea, ez da egiazko hilezintasuna. Eta, barren-barrenean, bizitza hau luzatzeko irrika, hau eta ez beste bat, haragizko eta minezko bizitza hau, maiz, amaitzen delako besterik ez, madarikatu ohi duguna. Suizida gehienek ez lukete beren burua hilko, lur honen gainean inoiz hilko ez lirakeelako segurantza balute. Buruaz beste egiten duenak, hil arte ez itxarotearren hiltzen du bere burua.

Dantek, *Il Paradiso*-ko XXXIII. kantuan, Jainkoa ikustera nola iritsi zen kontatzera heltzean, honela diosku, ametsetan dakusanaren eta, amets ostean, grina inprimatua, eta ez besterik, gogoan geratu zaionaren antzera, halaxe berari ere; haren ikuspen osoa ia etenik ere, baina, halere, hartatik sorturiko gozoa bihotzari dariolarik.

Cotal son io, che quasi tutta cessa

mia visione ed ancor mi distilla

nel cuor lo dolce che nacque da essa,

elurra Eguzkipean urtzen denez, ez bestela

così la neve al Sol si disigilla.

Hau da, ikuspena, endeleguzkoa, joan doakio eta atsegina, aldiz, *la passione impressa*, zirrarakoa, irrazionala, gorpuztarra, azken buruan, gelditzen.

Zorion gorpuztarra, atsegingarria, ez soilki izpirituzkoa, ez ikuspen hutsa, horixe dugu guk apeta. Bestelako zorion horrek, *dohatsutasun* arrazionalista horrek, ulermenean itoztekoak ezin du... asebate eta engainatu ere ez dut esaten, ez baitut uste Spinoza bat asebate ez engainatu zuenik ere. Horrek, bere *Etika*-ren azken aldean, bosgarren zatia XXXV. eta XXXVI. proposamenetan, Jainkoak bere burua maitasun intelektual infinituaz maite duela ezarri zuen; gogamenak Jainkoaganako duen maitasun intelektuala, Jainkoak bere burua maitatzen dueneko Jainkoaganako maitasun berbera dela: ez infinitua delako, giza gogamenaren esentziaz, betierekotasunarekiko kontsideraturik azal daitekeelako baizik, hau da, gogamenaren Jainkoaganako maitasun intelektuala Jainkoak bere buruari dion maitasun infinituaren parte delako. Eta proposamen tragiko, proposamen goibel hauen ondoren, liburu osoaren azkenak, *Etika*-ren tragedia itzel hori amaitzen eta koroatzen duen proposamenak dioskunez, zoriona ez da bertutearen saria, bertutea bera baizik, eta ez dugula hartan gozaten apetak hertsatzearen, baina hartaz gozaten dugulako hertsia ditzakegula haiek. Maitasun intelektuala! Maitasun intelektuala! Zer da maitasun intelektuala delako hori? Zapore gorria, edo soinu mingotsa, edo kolore lurrintsua bezalako zerbait edo, hobesanez, triangelu maitemindu edo elipse koleratsuen gisako zerbait, metafora hutsa, metafora tragikoa baina. Eta bihotzak ere bere arrazoiak dituelako kontuari tragikoki dagokion metafora gainera. Bihotzaren arrazoiak! Buruko maitasunak! Atsegin endelegutarra! Endeleguketa atsegingarria! Tragedia, tragedia eta tragedia!

Eta, hala eta guztiz ere, bada maitasun intelektuala dei daitekeen zerbait, alegia, ulertzeko maitasuna, Aristoteles behatze-bizitza bera, ulertzea zerbait aktiboa eta maitakorra delako, eta ikuspen beatifikoa erabateko egia osoaren ikuspena da. Ez al datza ba jakin-mina grina ororen barrenean? Ez ote ziren ba gure lehen gurasoak erori, bibli kontakizunaren arauera, ongiaren eta gaizkiaren jakitateko zuhaitzeko fruitua dastatzeko eta jainko bezalakatzeko, zientzia horren jakile izateko antsiagatik? Jainkoaren ikuspenak, hots, Unibertsoa bera bere ariman, bere barru-barruko esentzian ikusteak ez al luke gure antsia amatatuko? Eta perspektiba honek gizon trauskilak ez beste utz ditzake asebate gabe, hots, gizon baten gozamenik handiena are gizonago izatea dela, hau da, Jainkoago izatea, eta zenbat eta kontzientzia handiagoa duen, are Jainkoagoa delaulertzen ez dutenak.

Eta maitasun intelektual hori, maitasun platonikoa besterik ez dena, meneratzeko eta jabe izateko era bat da. Ez dago, egon ere, menerapen hoberik ezagutza baino; zerbait

dazaguena, horren jabe da. Ezagutzak ezagutzailea ezagunarekin elkartzen du: "Behatzen dinat eta behatzean neuretzan haut"; honelakoa da formula. Eta Jainkoa ezagutzea, zer izango da ,ba, Hartaz jabetzea besterik? Jainkoa dazaguena, berbera da Jainkoa jada.

B. Brunhes-ek kontatzen du (*La Dégradation de l'Énergie*, IV^e partie, chap. XVIII, E 2) M. Sarrau-k kontatu ziola, beronek aita Graty-ren gandik jasorik, berau Luxembourgeko lorategietatik egurastan ari zela Cauchy matematiko eta katoliko handiarekin solasean, esanez hautatuek zer nolako poztasuna izango luketen, azkenean, mundu honetan luzaro eta nekepean jarraituriko egiak inolako murrizketa eta estalkirik gabe ezagutzean. Eta Cauchy argiaren isladapenaren teoria mekanikoaz eginiko ikerketak zirela eta, aita Gratyk geometria burutsuaren gozamen intelektual handienetako bat argiaren sekretuan barnetzea litzatekeelako ideia atera zuen, eta horri Cauchy ihardetsi zion esanez ez zitzaiola iruditzen horretan jadanik zekiena baino gehiago jakin ahal zitekeenik, eta ez zitzaiola bururatzen adimenik gorenak berak ere isladapenaren misterioa berak azaldu zuen baino hobeki ulertu ahal izatea, fenomenoaren teoria mekanikoa emana zuenez gero. "Haren pietatea -gehitzen zuen Brunhesek- ez zen heltzen beste gauzarik, eta hobeki ere, egin zitekeela sinesterraino".

Kontakizun honetan bi parte interesgarri ditugu. Lehena, goren mailako gizonentzat, grina nagusia ezagutzan jarria dutenentzat, behakuntza, maitasun intelektuala edo ikuspen beatifikoa izan daitekeenaren adierazpena, eta bestea, munduaren azalpen mekanizistaren azalpenaren baitako fedea.

Endeleguaren jarrera mekanizista honi loturik "ez da ezer sortzen, ez da ezer galtzen, oro aldatu egiten da" formula jadanik sonatua doa, horrekin energiaren kontserbazioaren printzipio anbigua interpretatu nahi izan delarik, guretzat, gizonentzat, energia, praktikan, energia erabilgarria dela ahantzirik, eta berau etengabeki galduz doala, beroaren barreiapenaz hedabanatzen dela, endekatzen dela, berdinketara eta homogeneousatasunera joz. Guretzat balio duena, areago oraindik, guretzat erreala dena, ezberdintasunezkoa da, hots, nolakotasunezkoa; zenbateko hutsa, ezberdintasunik gabea, guretzat, ez balitz bezala, ez baitu obratzen. Eta badirudi Unibertso materiala, Unibertsoaren gorputza, apurka-apurka erabateko egonkortasun-egoerara abiatzen dela, homogeneousatasunezkoa, hori atzeratzeko, organismo bizien ekintzak, eta areago gizonaren ekintza kontzienteak, baliorik gabekoak izanik (ikus Brunhes, *aip. lib.*). Hau da, izpirituak elkar biltzera jotzen badu ere, energia materialak, aldiz, barreiatzera jotzen duela.

Eta ez al du honek lotura hertsia-hertsia gure problemarekin? Ez al da halako harremanik izango egonkortasun- eta homogeneousatasunezko azken egoerari buruz filosofia zientifikoak ateratzen duen ondorio honen eta apokatastasiaren amets mistikoaren artean? Unibertsoaren gorputzaren heriotza hori, ez al da izango haren izpirituaren azken garaipena, Jainkoarena alegia?

Begien bistakoa da, heriotzondoko betiereko bizitzaren eskakizun erlijiosoaren, eta Unibertso material eta sentigarriaren ustezko etorkizunaz filosofia zientifikoak erdiesten dituen ondorioen -beti behin-behinekoen- artean, badela lotura hertsirik. Eta, izan ere, alde batetik Jainkoaren eta arimaren hilezintasunaren teologoak egoten diren bezala, bestetik, badaude, halaber, Brunhesek (*aip. lib. XXVI. kap. 2. §*) monismoaren teologoak deitzen dituenak ere, ateologoak deitzea hobe luketenak, hots, *a priori*-z baieztatzeko izpirituan dirauten jendeak; eta teologia erdeinatzeko hantustea dutenean -gehitzen du- jasangaitz egiten direnak. Jaun horietako ale bat Haeckel dugu, Naturaren enigmak argitzea lortu omen duena!

Ateologo hauek energiaren kontserbazioaz jabetu dira, "ez da ezer sortzen, eta ez da ezer galtzen, oro aldatu egiten da" delakoaz, jadanik Descartesengan teologi jatorria

duena, eta horregaz baliatu dira gu Jainkoaren premiatik salbuesteko. "Irauteko eraikiriko mundua -idazten zuen Brunhesek- higitzen ez dena edo, hobeki esan, bere baitan ageri diren arrakalak berberak konpontzen dakiena. Bai gai ederra hizlaritzagehipenak egiteko!; baina gehipen berberauek, XVII. mendean Sortzailearen jakituria frogatzeko balio izan ondoren, gure egunotan haren premiarik gabe pasatzeko asmoa dutenen argudio moduan balio izan dute". Betikoa da; filosofia zientifikoa deritzona, bere funtsean jatorri eta iradokizun erlijiosoa izanda, azkenean ateologia edo irreljiora doana, izan, teologia edo erlijioa besterik ez dena. Oroit gaitezen Ritschl-en esanaz, entseiu hauetan jadanik aipatua⁴⁷.

Orain, badirudi, zientziaren azken hitza, filosofia zientifikoarena baino gehiago, mundu material eta sentigarria, energiaren endekatzeagatik, atzeraezineko fenomenoengatik, azken berdinketara abiatua dela, azken homogeneo gisako batera. Eta horrek, Spencerrek hainbestetan erabili eta larrerabili zuen hasierako lehen homogeneo hipotetiko hura dakarkigu gogora, homogeneoaren irudimenezko ezegongortasuna, alegia. Eta ezegonkortasun horrek Spencerren agnostizismo ateologikoa behar zuen, homogeneotasunetik heterogeneotasunerako urrats azalezina azaltzeko. Izan ere, nola sort daiteke inolako heterogeneotasunik erabateko homogeneo absolututik, kanpotiko eraginik gabe? Halere, era guztietako sortzapenak alde batera utzi beharra zegoen eta, horretarako, zereginik gabeko ingeniari astitsuak, metafisikari bilakaturik, Papinik deitu zionez⁴⁸, homogeneoaren ezegonkortasuna asmatu zuen, Jainkoaren sortze-ekintza bera baino are... nola esan nezake? mistikoago eta, nahi bada, oraindik mitologikoago ere dena.

Zuzen ibili zen italiar positibista hura, Roberto Ardigò, Spencerren aurka eginez, naturalena, guztia gaur bezala beti izan zela uste izatea zela ziotsean, hots, beti izan zirela mundu batzuk eratzear, nebulosatan, beste mundu batzuk jadanik eratuak, eta desegiten ari ziren munduak ere bai; heterogeneotasuna betikoa dela alegia. Beste modu bat, dakusagunez, ezer ez ebatzeko.

Hauxe izango ote da ebazpena? Kasu horretan, ordea, Unibertsoa infinitua litzateke eta, egia esan, ez dago Unibertsoa betiereko eta mugatua bururatzerik, Nietzschek bere betiereko itzuleraren oinarriko baliabidez erabili zuen hura bezalakoa. Baldin Unibertsoa betierekoa izango bada, hartan, haren mundu bakoitzarentzat, homogeneotasun-aldiek, energia endakatzekoek, eta heterogeneotasunezko beste aldi batzuek segitu behar badute, orduan beharrezkoa da infinitua izatea, eta beti eta mundu bakoitzean kanpotiko eraginik gertatu ahal izatea. Eta, izatez, Jainkoaren gorputza ezin izan daiteke betierekoa eta infinitua besterik.

Baina, gure mundurako, haren mailaz mailako berdinketa edo, gurago badugu, haren heriotza, frogatua dela dirudi. Eta zein izango da, ihardupide honetan, gure izpirituaren zoria? Gure munduko energiaren degradazioarekin gutxitu eta inkontzientziara itzuliko ote da, ala, aitzitik, energia erabilgarria gutxitzen den ginoan eta ihardupidea atzeratzeko eta izpirituaren bizitza osatzen duen Natura menperatzeko ahaleginengatik, hazi egingo ote? Kontzientzia eta beronen euskarri hedatua bi botere kontrajarri ote dira ba, bata bestearen kontura haziz?

Kontua da gure zientzi lanik onena, gure industriarik hoberena, hau da, hor suntsipenerako azpilanean ari ez dena -eta asko da- energia endakatzeko ihardupide fatal hori atzeratzera zuzendua dela. Bizitza organikoa bera ere, kontzientziaren sostengua, halabeharrezko amaiera hori ahal den heinean ekiditeko eta haren epea luzatuz joateko ahalegina da jada.

Ez du deus balio Naturari, zentzurik sakonenaz Leopardik, ateista kristau hark, gisatsaren kantu bikainean (*La ginestra*) "erditzean ama, maitatzean amorde" deitu zionari, egindako himno paganoekin geure burua engainatu gura izateak. Giza

konpainia, hasieran, haren aurka ordenatu zen; Natura gupidagabearen aurkako izuak koropilatu zituen gizarte-katean gizonak. Gizartea da, izan ere, kontzientzia gogoetatsua eta hilezintasun-antsiaren ama, Naturaren gainean grazi egoera inauguratzen duena, eta gizona da, Natura bere industriarekin gizatiartuz, izpiritualduz, bera naturaz gaingaitzen duena.

Antero de Quental portugaldar poeta tragikoak, *Berrerospena* izenburua jarri zien hamalaurkunen bikain bitan, amets egin zuen badela izpiritu preso bat, ez jadanik atomo, ioi edo kristaletan, baizik eta -poetari dagokionez- itsasoan, zuhaitzetan, oihanean, mendian, haizean, materiazko banakotasun eta forma guztietan, eta egunen batez arima horiek guztiok, oraindik existentziaren linboan direnak, kontzientzian itzartuko direla, eta pentsamendu huts gisa gora hegaldatuz, handik itxurak, ilusioaren umeak, deseginik erortzen ikusiko dituztela, amets faun gisa. Orogen kontzientziazioaren amets handiosoa da.

Ez ote zen ba Unibertsoa hasi, gure Unibertso hau -batek jakin bestetzuk badiren ere- izpiritu zero batekin -eta zero eta ezereza ez dira gauza bera- eta materia infinituarekin, eta ez ote doa harez gero materia zerodun izpiritu infinituan amaitzera? Amesetak!

Ez ote du ba orok bere arima izango, eta arima hori askapena eskatzen arituko?

¡Oh tierras de Alvargonzález

en el corazón de España,

tierras pobres, tierras tristes,

tan tristes que tienen alma!,⁴⁹

kantatzen du gure poeta Antonio Machadok (*Campos de Castilla*). Landen tristura, haietan da, ala behatzen diegunongan? Ez ote dute sufritzen? Baina zer izan daiteke arima indibiduala materiaren munduan? Arroka edo mendia banakoa al da ba? Eta zuhaitza ere bai?

Eta, azkenean, izpiritua eta materia beti ari dira elkarrekin borrokan. Hala zioen jadanik Esproncedak hau esatean

aquí, para vivir en santa calma,

o sobre la materia o sobre el alma.⁵⁰

Eta pentsaeraren edo, gurago baduzue, giza irudimenaren historian, ez al dago materialezkoaren bihurtze-ihardupide horri dagokiokoen zerbait, dena kontzientzia bihurtzeko adieran?

Bai, badago, eta lehen mistiko kristauarena da, hain zuzen, Done Paulo Efesokoarena, jentilen apostoluarena, haragizko Kristo hilkor eta etikoaren aurpegia haragizko begiekin ikusia ez zuelako, bere baitan hilezin eta erlijioso sorterazi zuenarena; hirugarren zerura, han ezin esanezko sekretuak ikusteko, arrobatua izan zenarena, (*Kor. II, XIII*). Eta lehenbiziko mistiko kristau honek ere izpirituaren azken garaipenaren ametsa izan zuen, kontzientziarena, eta teologian honi teknikoki apokatastasia edo berreraketa deritzo.

Horrela, Korintoarrei egindako lehen epistolaren XV. kapituluaren 26.etik 28.erainoko bertsetetan dioskunez, meneratzeko azken etsaia herioa izango da, Jainkoak guztia haren oinpean jarri baitzuen; baina dena azpiraturik duela dioenean, argi dago guztia haren azpian jarrerazi zuena salbuesten duela, eta guztia azpira diezaionean, Bera ere, Semea, guztia azpiratu zionaren azpiko izango da, Jainkoa ororengan oro izan dadin. Hau da, azken fina Jainkoa, Kontzientzia, guztia guztian izaten amaitzea da.

Eta doktrina hau, Apostolu berak Efesoarrei egindako Epistolaren munduaren historia osoaren amaierari buruz azaltzen duenarekin osatzen da. Horretan, jakina denez, Kristo aurkezten digu -beragatik zeruko eta lurreko gauza guztiak, ikusgarriak eta ikustezinak egin ziren eta (Kol. I, 16) - ororen burutzat (I, 22), eta beragan, buru horrengan, guztiok birbiztu behar dugu, sailduetako elkartasunean bizitzeko, eta saildu guztiarekin batera

Kristoren maitasuna, ezaguera oro gainditzen duena (III, 18,19), zabalera, luzera, sakonera eta garaieran nolakoa den ulertu eta ezagutzeko. Eta Gizateriaren buru eta haren bilduma modukoa den Kristo horrengan biltze honi deitzen dio Apostoluak norbera osorik Kristorengan babestu, laburbildu edo barnebiltzea. Eta laburbilketa hau, *anakefaleosia* - munduaren eta giza leinuaren historiaren amaiera, ez da apokatastasiaren beste ikuspegi bat baizik. Hau, apokatastasia, Jainkoa ororengan oro izatera heltzea, beraz, anakefaleosia besterik ez da, hots, Kristorengan, Gizaterian, guztia biltzea, Gizateria, beraz, sortzapenaren helburua izanik. Eta apokatastasi honek, ororen gizakuntza edo jainkokuntza honek, ez al du materia ezabatzen? Baina, behin materia ezabatu eta gero, indibidualkuntzaren printzipioa dena *-principium individuationis*, Eskolaren araura- ez al da oro atzera kontzientzia hutsera itzultzen, hutsaren hutsez, bere burua ez ezagutzeaz gainera, ulergarri eta sentigarri ez den zerbait geldituz? Eta behin materia guztia ezabatu eta gero, zertan oinarritzen da izpiritua? Zailtasun berberak ditugu, pentsaezintasun berberak, oraingoan beste bide batetik etorriak.

Norbaitek esan dezake, bestaldetik, apokatastasiak, Jainkoa ororengan oro izatera heltzeak, lehenago hala ez zelako ustea dakarrela aldean. Izaki guztiak Jainkoaz gozatzera heltzeak Jainkoa izaki guztiez gozatzera heltzen delako ustea du lagun, ikuspen beatifikoa elkarrekikoa baita, eta Jainkoa zenbat eta ezagunago, hainbat da osahobatzeko, eta arimez da elikatzen eta haiekin aberasten.

Ameseta eroen bide honetan abiatuz, Jainko inkontziente bat burura liteke, materiaren erdi lo, eta Jainko erabat kontziente, bere jainkotasunaz kontziente, batengana abiatua; litekeena, Unibertso oro bere buruaren orotasunaz eta bera osatzen duten kontzientzia guztiez banan-banan kontziente egitea, Jainko egitea. Baina, kasu horretan, nola hasi zen Jainko kontziente hori? Ez al da materia bera? Jainkoa, horretara, ez litzateke Unibertsoaren hasiera, azkena baizik; baina, azkena izan ote daiteke hasiera izan ez zena? Ala, denboratik landa, betierekotasunean, ba ote da ezberdintasunik hasieraren eta azkenaren artean? "Guztiaren arima ez da loturik egongo berak loturik daukanaz (hau da, materia)" dio Plotinok (*Enn.* II, IX, 7). Ala, hobesanez, ez ote da Guztiaren Kontzientzia atal bakoitzarena egiten saiatzen, atalkako kontzientzia bakoitzak harena, guztiarena, kontzientzia izan dezan? Ez ote da Jainko monoteista edo bakartia, bere burua panteista egitera doana? Eta horrela ez bada, materia eta mina Jainkoak arrotz baditu, norberak buruari galdera hau egin diezaioke: Zertarako sortu zuen Jainkoak mundua? Zertarako egin zuen materia eta sartu zuen oinazea? Ez al zatekeen hobe, ezer egin ez balu? Zer nolako gloria gehitzen dio eror daitezkeen eta betiereko oinazera kondenatu behar dituen aingeruak eta gizonak sortzeak? Gaizkia egin ote zuen bada, ondoren sendatzeko? Ala berrerospena izan ote zen, eta berrerospen oso eta absolutua, ororena eta guztiena, haren xedea? Ez baita hipotesi hau bestea baino arrazionalago ez eta gupidatsuagoa ere.

Betiereko zoriona begietaritzen saiatzen garen bezain laster, erantzun asebetegarririk, hau da, arrazionalik ez duen galdera andana bat aurkezten zaigu, bai ustekizun monoteistatik eta bai panteistatik, edo panenteistatik bederen, irteten garen arren.

Baina itzul gaitezen paulotar apokatastasira.

Jainkoa ororengan oro egitean, ez ote da Bera osatzen, kontzientzia guztiak besarkatzen dituen kontzientzia infinitua den Jainkoa izaten amaitzen? Eta zer da kontzientzia infinitua? Kontzientziak aldean mugaketa badakar, dakarren bezala, edo kontzientzia, hobesanez, mugaren, bereizketaren kontzientzia baldin bada, ez al du horrexegatik bazterrean uzten mugagabetasuna? Nolako balioa du, kontzientziari aplikaturik, mugagabetasunaren nozioak? Zer da oso-osorik kontzientzia den kontzientzia, beragandik kanpoan halakoa ez den ezer ez duena? Zeren kontzientzia da, kasu

horretan, kontzientzia? Bere edukinarena ote? Ala, hobesanik, ez ote gara apokatastasi edo azken apoteosira hurbiltzen arituko, hartara behin ere heltzeke, iraganaren betierekotasunean, anabatatik, erabateko inkontzientziatik irtenda?

Apokatastasia, oro Jainkoarengana itzultzeko kontu hori, ez ote da gehiago izango, azken buruko xede ideal bat, hartara, batzuk beste batzuk baino lasterrago ibiliz, etengabeki hurbiltzen ari garenekoa baina behin ere heltzerik ez duguna? Betiereko zorion absolutu eta hobezina ez ote dateke betiereko esperantza, behin betez gero hilko litzatekeena? Esperantzarik gabe, ba al dago zoriontsu izaterik? Eta behin lorpena burutu eta gero jadanik ez dago esperorik, horrek esperantza, antsia hiltzen baitu. Ez ote da izango, diot nik, arima guztiak etengabeki hazten ari direla, batzuk beste batzuk baino proportzio handiagoaz, baina guztiak halako hazte-maila berberetik noizbait iragan behar izanik, eta infinitura, Jainkoarengana, sekula heldu gabe, horrexengana atergabeki hurbilduz? Ez ote da betiereko esperantza betiereko zoriona, bere penazko betiko gunearekin, horrela poztasuna ezerezean suntsi ez dadin?

Aurrera diraute erantzunik gabeko galderek.

"Guztia guztiengan izango da" dio Apostoluak. Baina bakoitzean era ezberdin banaz izango da, ala guztiengan era berberaz? Ez ote da Jainkoa guztia izango kondenatu batengan? Ez al dago haren ariman? Ez al dago infernua deritzon horretan? Eta nola dago han?

Hortik arazo berriak jalgitzen dira, zero-infernu arteko aurkaritzari doazkionak, betiereko zorionaren eta zoritxarraren artekoak.

Ez ote dirateke azkenean guztiak salbatuko, Kain eta Judas eta Satan bera ere bai, paulotar apokatastasia garatuz, Origenesek nahi zuen bezala?

Gure teologo katolikoek infernuko penen betierekotasunaren dogma hori arrazionalki - hau da, etikoki- justifikatu nahi dutenean, ematen dituzten arrazoiak hain dira axaleko, irrigarri eta umekeriazkoak, ezen gezurra baitirudi halakoek hedadura izatea ere. Izan ere, Jainkoa infinitua delako, Hari egindako iraina ere infinitua dela eta, beraz, betiereko gaztigua eskatzen duela esatea, irain infinituaren ulertezintasuna alde batera utzirik ere, hauxe ez jakitea da, moralean, eta giza polizian ere, irainaren larritasuna, irainduaren duintasunaren arauera baino gehiago, iraintzailearen intentzioaz neurtzen dela, eta erru-intentzio infinitua burugabekeria dela, eta ez besterik. Hemen Kristoren hitz haiek aplikatu litezke, bere Aitari zuzenduak: "Aita, barka iezaezu, ez baitakite zer egiten duten!", eta ez dago gizonik, Jainkoa edo bere hurkoa iraintzean zer egiten duen dakienik. Giza etikan, edo gurago bada, giza polizian -zuzenbide penala deitzen duten hori, eta zuzenbidea ezik beste edozer dena- betiereko zigorra burugabekeria da.

"Jainkoa zuzena da, eta zigorra ematen zaigu; horra hor jakin behar dugun guztia; gainerakoa ez dugu alferreko jakin-mina besterik". Horrela mintzo zen Lammenais (*Essai*, IV. atala, VII. kapitulua), eta horrela beste batzuk ere harekin. Eta horrela Calvin bera ere. Baina, ba al da inor horrekin asebate daitekeenik? Alferreko jakinmina! Bihotza gehienik hertsatzen digunari alferreko jakin-mina deitzea ere!

Ez ote da izango, gaiztoa anikilatzen dela bere burua anikilatu gura izan zuelako edo, gaiztoa zelako, ez zuela betierekotzea nahikorik gura izan? Ez al dugu esaterik, beste bizitzan sinesteak ez duela on egiten pertsona, baina, ona delako, hartan sinesten duela? Eta zer da ona izatea eta gaiztoa izatea? Hau jadanik etikaren alorrean datza, eta ez erlijioarenean. Edo hobeki esan, ez al dagokio etikari ongi egitea, gaiztoa izan arren, eta erlijioari ona izatea, gaizki egiten badu ere?

Bestaldetik, ez al dakiguke esan, agian, bekatariak betiereko gaztigua pairatzen duela etengabeki bekatu egiten duelako, kondenatuek bekatu etengabeak egiten dituztelako? Baina horrek ez du arazoa konpontzen, eta horren absurdu osoa hemendik dator, gaztigua, zuzenketatzat barik, asperkunde edo mendekutzat ulertzetik; herri barbaroen

erara ulertzetik. Eta hortixek polizi infernua, mundu honi beldurra emateko. Are okerragoa da baina: jadanik ez du ikaritzen, eta itxi beharra izango da.

Halere, bestaldetik, erlijio-ulerkeran eta misterioaren barruan, zergatik ez dolorezko betierekotasunik, horrek gure sentimenduak matxinarazi arren? Zergatik ez gure oinazetik elikatzen den Jainko bat? Gure zoriona ote da ba Unibertsoaren azken helburua? Ala ez ote dugu geure minaz beste inoren zoriona elikatzen? Berrirakur ditzagun Eskhylo aparteko tragedialari haren *Eumenides* obrako Furien koru haiek, jainko berriek, lege zaharrak birrinduz, Orestes esku artetik kentzen zietelako; apollotar berrerospenaren aurkako mintzaldi sutsu haiek. Ez ote dizkie berrerospenak jainkoei beren eskuetatik gizonak, berauen minekin jolastu eta gozatzeko bide dituzten ehizi eta jostailuak kentzen, haurrek kakarraldo bat tormentatuz bezala, tragedialarien esanaren arauera? Eta gogora dezagun "Ene Jainkoa, Ene Jainkoa! Zergatik abandonatu nauzu?" delako hura.

Bai, zergatik ez minezko betierekotasuna? Infernua arima betierekotzeko era bat da, penatan bada ere. Eta pena ez al du bizitzak funtsezkoa?

Gizonak teoriak asmatzen ari dira gaizkiaren jatorria deitzen duten hori azaltzeko. Eta zergatik ez ongiaren jatorria? Zergatik uste izan positiboa eta jatorrizkoa ongia dela, eta gaizkia, aldiz, negatiboa eta eratorria?, "Den heinean den guztia ona da" erran zuen Done Augustinek; baina, zergatik? Zer esan nahi du on izateak? Ona zerbaiterako ona da, zerbait xede batera daroana, eta oro ona dela esateak oro bere xedera doala esateak bezainbat balio du. Baina, zein da haren xedea? Gure apeta geure burua betierekotzea da, irautea, eta on deritzogu xede horren alde ari den guztiari, eta gaitz gure kontzientzia gutxitu edo birrintzera jotzen duen orori. Giza kontzientzia xedea, eta ez, giza edo gizagaineko kontzientzia ez den beste gauza baterako bidea delakoan gaude.

Baikortasun metafisiko orok, Leibnizena bezalako, edo maila bereko ezkortasunak, Schopenhauerrena bezalako, ez dute beste oinarririk. Leibnizen ustez, mundu hau onena da, kontzientzia irauneraztearen alde ari delako, eta horrekin borondatea, adimenak borondatea handitu eta hobatzen duelako, gizonaren xedea Jainkoaren behakuntza baita; eta Schopenhauerren eritziz mundu hau litezkeen guztietarik txarrena da, borondatea suntsitzeko azpilanean ari delako, adimenak, irudikapenak, borondatea, bere ama, ezabatzen baitu. Eta horretara, Franklinek, beste bizitzan sinesten zuenak, hau, bizi zuen bizitza hau, berriro biziko zuela segurtatzen zuen, hasi eta buka, *from its beginning to the end*; eta Leopardik, bestean sinesten ez zuenak, bizi zuen bizitza inork ez zuela berriro bizitzerik onartuko segurtatzen zuen. Doktrina biok etikoak ez baina erlijiosoak dira, eta ongi moralaren sentimendua ere, balio teologikoa den aldetik, erlijio-jatorrikoa da.

Eta berriz ere nor bere buruari galdetzen dio: ez al dira salbatzen, betierekotzen, eta ez jada oinazean, zorionean baizik, guztiak, bai onak deitzen ditugunak eta bai gaizto deituak ere?

On eta gaizto kontu horretan, ez ote da epaitzen duenaren malizia sartzen? Gaiztotasuna egintza betetzen duenaren asmoan dago ala ez ote dago gehiago horri gaizto deritzonaren baitan? Baina, ikaragarriena gizonak bere burua epaitzea da, bere buruaren epaile egitea!

Nortzuk salbatzen dira? Oraingoan beste irudipen bat -galderaz azaldu diren guztiak baino arrazionalago edo irrazionalago ez dena-, hauxe, ez direla salbatzen salbatzeko irrika izan zutenak besterik, betierekotu, ez direla egiten betierekotasun- eta betierekotzeko gose itzelak jorik bizi zirenak baizik. Behin ere ez hiltzeko irrikaz dagoenak eta izpirituz ez dela inoiz hilko sinesten duenak, hori merezi duelako egiten du, edo hobesanik, betierekotasun pertsonala, jadanik barruan daramanak ez bestek irrikatzen du. Grinaz, eta arrazoi orenen aurkako grinaz, bere betierekotasun propioa

irrikatzeari ez dio uzten, hura merezi ez duenak besterik, eta merezi ez duelako, irrikatzen ez duenak. Eta ez da bidegabekeria, berak nahi izaten ez dakiena berari ez ematea; izan ere, eska ezazue eta emanen zaizue. Baliteke bakoitzari berak eskatu zuena ematea. Eta agian Izpiritu Sainduaren aurkako bekatua, Ebangelioaren arauera barkamenik ez duena, ez dateke Jainkoa nahi ez izatea besterik, betierekotzeko irrikarik ez izatea.

"Nolakoa zuen izpiritua, halakoa da zuen bilaketa ere; nahi duzuen aurkituko duzue, eta haxe da kristau izatea"

As is your sort of mind

So is your sort of search: you'll find

what you desire, and that's to be

A Christian

zioen R. Browning-ek (*Christmas Eve and Easter Day*, VII).

Dantek bere Infernuan epikurearrak, beste bizitzan sinetsi ez zutenak, hori ez izatera baino zerbait izugarriagora kondenatu zituen, hots, bizitza ez dutelako kontzientziara, eta hori era plastikoa, betierekotasun osoan beren hilobien barruan itxirik egotera, argirik gabe, airerik gabe, su gaberik, mugimendurik ezaz, bizitarik gabe (*Inferno*, X,10-15).

Zer nolako bihozgabekeria da norbaiti nahi ez zuena edo nahi ezin izan zuena ukatzea? Virgilio gozoak, bere *Eneida* -ren VI. kantuan (426-429), infernuaren sarreran negarrez ari diren haurren ahots eta intziriak entzunerazten dizkigu

continuo auditae voces, vagitus et ingens

infantumque animae flentes in limine primo,

bizitzan sartu bezain laster, beronen gozotasunak ezagutu gabe, halako egun beltzak amaren bularretatik ebatsi zituen zoritxarreko umeenak, ondoren lutu latzean murgiltzeko

quos dulcis vitae exsortes et ab ubere raptos

abstulit atra dies et funere mersit acerbo.

Baina, zer nolako bizitza galdu zuten, hura ezagutzen ez irrikatzen ez bazuten? Ala kontua ote da egiazki irrikatu ere ez zutela egin?

Hemen esan daiteke haien orde bestek batzuek irrikatu zutela; beren gurasoek betierekoak nahi izan zituztela, haiekin gero glorian pozteko. Eta honela irudipen-alor berrian sartzeko gara, betiereko salbazioaren elkartasun eta ordezkotasunarenean.

Asko dira, izan ere, giza leinua izakitzat, norbanako kolektibo eta elkarkidetzat hartzen dutenak, hor kide bakoitza talde osoaren ordezkari izan daitekeelarik, salbazioa ere zerbait taldekotzat hartuz. Merezimendua zerbait taldekotzat, eta errua ere taldeko zerbaitzat; eta berrospena ere bai. Guztiak salbatzen ez badira, ez da inor salbatzen, sentitzeko eta gauzak irudikatzeko era honen arauera; berrerospena osoa eta elkarrekikoa da; gizon bakoitza bere lagun hurkoaren Kristo bat.

Eta ez al da, nolabait, hori antzematea, Garbitokiko arima bedeinkatuen eta horien alde, beren hilen alde, biziek eskaintzen dituzten sufragioen eta aplikatzen dizkieten merezimenduen herri-sineskera katolikoan? Ohizkoa du herri-sineskera katolikoak merezimendu-aldaketa hau, bai biziekikoa eta bai hilekikoa ere.

Ez da ahortzi behar, halaber, sarritan giza pentsaera erlijiosoaren historian betierekotasunaren ideia hau halako hautatu gutxi batzuegan murrizturik aurkeztua izan dela jada, hots, besteak nolabait berengan barneratzen dituztelarik, gainerakoan ordezkari diren izpirituengan, etorki paganoko ideia berau -heroiak eta erdijainkoak halakoxeak ziren eta- hori guztiori, batzuetan, asko dira deituak, gutxi ordea hautatuak delako esaldiaren barruan sartzeko delarik.

Entseiu hau prestatzen ari nintzen egunetan Charles Bonnefon-en *Dialogue sur la vie et sur la mort*-en hirugarren argitaraldia heldu zitzaidan eskura, azaltzen aritu naizen moduko irudipenek liburu horretan adierazpen kontzentratua eta iradokiorra daukatelarik. Ez arima bizi daiteke gorputza gabe, ez eta hau hura gabe ere, diosku Bonnefonek, eta horrela, errealitatean ez dago heriotzarik, ez jaiotzarik ere, ez eta, zehazki mintzatuz, ez gorputzik, ez arimarik, ez jaiotzarik, ez heriotzarik, hori guztiori abstrakzio edo itxurakeriak baitira, bizitza pentsatzaile bat baizik, gu horren osakide izanez, ezin jaio ez hil daitekeena. Horrek gizakiaren banakotasuna ukatzera darama, inork "Ni naiz" ezin esan dezakeela baieztatuz, "Gu gara" baizik, edo are hobeki: "Gugan da". Gizateria da, espeziea, gugan pentsatzen eta maitatzen duena. Eta gorputzak nola aldatu, halaxe aldatzen dira arimak ere.

"Gu garen pentsaera bizia edo bizitza pentsatzailea berehalaxe aurkituko da gure etorkia izan zen, eta gure izateari dagokion era analogoan, emakume baten barrualde ernalduan". Gutariko bakoitza, beraz, jadanik bizi izana da, eta berriro ere biziko da, berak hori ez badaki ere. "Gizateria mailaz maila bere buruaren gainetik igoten baldin bada, nork diosku azken gizona hiltzeko unean, bere baitan gainerako guztiak edukiko dituen, ez dela Gizateria gorenera heldua izango, beste edozein lekutan, zeruan, existitzen den bezala?... Guztiok elkarkide izanda, guztiok apurka-apurka geure ahaleginen fruituak bilduko ditugu". Irudikatze eta sentitzeko era honen arauera, inor jaiotzen ez denez, ez da, halaber, inor hiltzen, baina arima bakoitzak etengabe borrokan ihardun du, eta giza gudukaren erdian murgildua izan da "kontzientzia berberari zegokion enbrioia giza fenomenoaren segidan irudikatzen zenetik". Garbi dago, ordea, Bonnefon-ek, hasieratik gizabanakotasun pertsonala ukatzen duenez, gure egiazko irrika, hura salbatzekoa alegia, kanpoan uzten duela; baina, bestaldetik, berak, Bonnefonek, gizabanako pertsonala izanik, irrika hori sentitzen duenez, deituen eta hautatuen arteko bereizkuntzara jotzen du, izpiritu ordezkarien noziora, eta halako gizon kopuru bati ordezeko hilezintasun hori ematen die. Hautatu hauek direla eta, "Jainkoarentzat gu baino pixka bat beharrezkoagoak izango direla" dio. Eta ameseta handioso hau honela amaitzen du "igokundez igokunde, litekeena da gu zorian gorenera heltzea, eta gure bizitza Bizitza hobezinean urtzea, ur-tanta itsasoan bezala. Orduan ulertuko dugu -segitzen du esaten- oro beharrezkoa zela, filosofia edo erlijio bakoitzak bere egi ordua izan zuela, geure itzulunguru eta errakuntzetan zehar, eta geure historiaren une ilunenetan, faroa antzeman dugula, eta guztiok Betiereko Argiaren partaide izatekoak ginela. Eta baldin berraurkituko dugun Jainkoak gorputzik badu -eta ezin burura dakiguke holakorik gabeko Jainko bizirik-, haren zelula kontzienteetako bat garateke eta, aldi berean, milioika eguzkitatik jalgiriko milioika arrazak. Ameseta hau beteko balitz, maitasunezko ozeano batek gure hondartzei lerauntseke, bizitza oren xedea haren infinitutasunari ur-tanta bat gehitzea izanik". Eta zer da Bonnefonen ameseta kosmiko hau paulotar apokatastasiaren era plastikoa baino?

Baina, ameseta hau, kristau jatorri zaharrekoa, sakonean, ez da paulotar anakefaleosia besterik, gizon guztiak Gizonarengan urtzea, Pertsona bilakaturiko Gizaterian, Kristo dena, eta gizon guztiekin, eta gero hori guztiori Jainkoari lotzea, Jainkoa, Kontzientzia, oro ororengan izan dadin. Horrek, noski, talde-berrerospenaren eta hilobiz bestaldeko gizartearen ustea dakar aldean.

XVIII. mendearen erdialdean, protestante jatorriko pietista bik, Johann Jakob Moser-ek eta Friedrich Christoph Oetinger-ek paulotar anakefaleosiari indar eta balio berria eman zioten. Moserrek azaltzen zuenez, haren erlijioa ez zetzan halako doktrina batzuk egiazkotzat hartu eta, haien arauera, bertutetsu bizitzean, Kristoren bidez Jainkoarekin berriz elkartzean baizik; eta horrexerri dagokio norbere bekatueneta Jainkoaren bihozperatasun eta eroapenaren ezagutza, bizitza amaitu

artean hazkorra berau, zentzu natural oren aldaketa, Kristoren heriotzan oinarrituriko abenikoa lortzea eta, bekatuen barkamenari dagokionean, Izpiritu Sainduaren etengabeko lekukotasunean, Jainkoarekiko bakearen gozamina; Kristoren ereduaren arauz aritzea, fedetik besterik jalgitzen ez dena; Jainkoagana hurbildu eta Harekin tratatzea, eta grazian hiltzeko jarrera eta Jainkoaren gozamen hurbilean eta *saindu guztiekiko tratuan* dohatsutasuna ematen duen judizioaren esperantza (Ritschl; *Geschichte der Pietismus*, III, 43. §). Saindu guztiekiko tratua, hau da, betiereko gizartea. Eta Oetingerrek, bere aldetik, ez deritzo betiereko zorion Jainkoa bere mugagabetasunean ikusteari, Efesoarrei egindako epistolan oinarrituz, sorkariak Kristorekiko harmonian izanda, Jainkoa behatzeari baizik. Saindu guztiekiko tratua, haren ustez, funtsezkoa zen betiereko zoriontasunaren edukinean. Jainkoaren erresumaren burutzea zen, horretara Gizonaren erresuma gertatzen zelarik. Eta pietista bien doktrina hauek azaltzean, Ritschlek aitortzen duenez (aip. lib., III, 46. §), lekuko biek, beren doktrina horien bidez, Spencerren, beste pietista baten, metodo teologikoak bezainbateko balioa duen zerbait lortu zuten protestantismorako.

Agerian da, beraz, barne-irrika mistiko kristaua, Done Pauloren garaitik, Unibertsolari giza zertarakotasuna, hau da jainkozkoa, ematea izan dela, giza kontzientzia salbatzea, hots, gizateria guztia pertsona bat eginez salbatzea. Horrexetara dator anakefaleosia, guztiaren, lurreko eta zeruko guztiaren, ikuskorraren eta ikustezinaren laburbilketa Kristorengan, eta apokatastasia, guztia Jainkoagana itzultzea, kontzientziara, Jainkoa guztian guztia izan dadin. Eta Jainkoa guztian guztia izatea, ez al da ba guztiak kontzientzia eskuratzea eta beronetan gertatu zen guztia birbiztea, eta denboran izan zen guztia betierekotzea? Eta horren artean, banako kontzientzia guztiak, izan direnak, direnak eta diratekeenak, eta gertatu ziren, diren eta gertatuko diren bezalaxe, gizartean eta elkarkidetasunean.

Baina noizbait izandako oro kontzientziarako birbizte honek, ez al dakar aldean nahitaez berdintasunaren urtzea, antzekoaren amalgama? Giza leinua Kristorengan egiazko gizarte, sainduekiko elkartasun, Jainkoaren erresuma bihurtzean, ez ote dira banako ezberdintasun engainagarriak eta bekatuzkoak ere borratzen, izan zen gizon bakoitzetik funtsezkoena ez beste gizarte hobezinean geldituz? Ez ote litzateke gertatuko, Bonnefonen ustearen bidetik, XX. mendean herrialde honetako txoko honetan bizi izandako kontzientzia honek bere burua, beste mende eta agian beste herrialde batzuetan bizi izandakoak bezalakoxea sentitzea?

Eta zer ez da izango egitezko eta egiazko batasuna, substantziazko eta barru-barruko batasuna, arimaz arimakoa, izan diren guztiena! "Edonolako izaki bi bat egingo balira, munduak egin duen baino gehiago legikete".

If any two creatures grew into one

They would do more than the world has done,

erran zuen Browning-ek (*The flight of the Duchess*), eta Kristok esana zigun haren izenean bi bilduko diren lekuan, Bera bertan izango zela. Gloria, beraz, askoren ustez, gizarte da, mundu honetakoa baino gizarte hobea; gizartea pertsona bilakaturik. Eta ez da falta giza aurrerapen orok gure espeziearekin egiazko kontzientzia duen talde-izakia egitera lanean diharduela uste duenik -ez al da ba giza organismo indibiduala zelulen nolabaiteko federakuntza?- eta hori osorik eskura dezanean, lehenago izan ziren guztiak hartan birbiztuko direla.

Gloria, askok pentsatzen dutenez, gizartea da. Inor isolaturik bizi ez den bezala, inor ezin da isolaturik ere gainbizi. Ezin dezake Jainkoaz zeruan goza bere anaia infernuan sufritzen duela dakusanak, errua eta merezimendua amankomunean izan zituzten eta. Pentsatu, besteen pentsamenduez pentsatzen dugu, eta haien sentimenduekin sentitzen.

Jainkoa ikustea, Jainkoa guztiengan guztia izan dadinean, Jainkoagan guztia ikustea da eta Jainkoarengan guztiarekin bizitzea.

Gizateriaren azken elkarkidetasunaren amets handioso hau paulotar anakefaleosia eta apokatastasia da. Kristauok, zioen Apostoluak (Kor. I, XII, 27), Kristoren gorputza gara, haren abarkideak, haren haragiaren haragi eta haren hezurren hezur (*Efesoarrei*, V, 30), mahatsondoaren xirmenduak".

Baina azken elkarkidetasun honetan, sorkari guztien *kristaukuntza* egiazko eta goren honetan, zer da banako kontzientzia bakoitzaz? Zer da nitaz, ni hauskor gaixo honetaz, denboraren eta espazioaren esklabu den ni honetaz, arrazoimenak akzidente iragankor hutsa dela diostan baina bera salbatzearen bizi eta sufritzen eta esperatzen eta sinesten dudan ni honetaz? Unibertsoaren giza zertarakoa behin salbatu eta gero, azkenean salbatzen baldin bada, behin kontzientzia salbatu eta gero, neure ni gaixo honen sakrifizioa egiteko prest egongo nintzateke etsipenaz, ni horrek eta horrexek ez bestek, zertarakotasun eta kontzientzia hori ezaguterazten didanean?

Eta hona hemen gu, tragediaren gailurrean, haren korapiloan, erlijio-sakrifizio goren honen perspektiban: norbere gizabanako kontzientiarena Giza Kontzientzia hobezinaren fabore, Jainkozko Kontzientiaren alde.

Baina ba al da horrelako tragediarik? Anakefaleosi hori argi ikustera hel bagintez, Kristo aberastera goazela ulertzera eta sentitzera helduko bagina, zalantzarik izango al genuke une batez ere Hari geure burua oso-osorik eskaintzeaz? Itsasoan sartzen den eta ozeanoaren gatzaren mingostasuna sentitzen duen erreka, bere iturrirantz atzeratuko al litzateke, itsasotik jaio zen hodeira itzuli nahiko al luke? Ez al da gozamina norbere burua xurgatua sentitzea?

Eta, halere...

Bai, hala eta guztiz ere tragediak hementxe du goren puntua.

Eta arimak, ene arimak behintzat, besterik irrikatzen du, xurgatzerik ez, gelditasunik ez, bakerik ez, amatatzerik ez, sekula heldu gabe betiereko hurbiltzea baizik, amaigabeko irrika, inoiz erabat bukatu gabe beti ere berriztatzen den esperantza buzagabea. Eta horrekin zerbaiten falta betiere izan eta betiereko oinazea. Oinazea, pena bat, horri esker kontzientziaz eta irrikaz atergabeki hazteko. Ez ezazue Gloriaren atean jar, Infernukoan Dantek ezarri zuen bezala, *Lasciate ogni speranza* hura! Ez ezazue denbora hil! Gure bizitza esperantza da etengabeki oroitzapen bihurtzen ari dena, bere aldetik esperantza sorterazten duena. Utz gaitzazue bizitzen! Betikotasuna, oroitzapenik eta esperantzarik gabeko betiereko orainaldi gisa, heriotza da. Horrelakoxeak dira Jainko-Ideia bariaren baitako ideiak; baina gizonak ezin daitezke Jainko biziarengan, Jainko-Gizonagan, horrela bizi.

Gloria barik, betiereko garbitokia; betiereko igokundea. Oinaze oro, uste izan dezakegun bezain huts eta izpiritualdurik ere, antsia oro desagertuz gero, zerk bizierazten ditu dohatsuak? Han Jainkoagatik sufritzen ez badute, nola maita dezakete? Eta han ere, Glorian, Jainkoa pixkanaka eta gero eta hurbilago ikusiz, Harenganaino erabat behin ere heldu gabe, beti ezagutzeko eta irrikatzeko zerbait gelditzen ez bazaie, segurgabetasun-hondarren bat bederen gelditzen ez bazaie, nola ez dira ba loakartzen?

Edo, azken buruan, han arimaren barne-tragediarenik ezer gelditzen ez bada, zer nolako bizitza da hori? Ba al da gozamen handiagorik zorionaldian miseriaz gogoratzea baino, hartaz gogoratzea bera sentitzea izanik? Ez al du gartzelaren faltarik izaten hartatik askatu zenak? Ez al ditu faltan askatasun-irrika haiek?

* * *

"Mitologi amesetak" esango dute. Ez ditugu bestelakotzat agertu. Baina, ez al dauka mitologi amesetak ere bere egia? Ez al dira ameseta eta mitoa ezin esanezko egiaren agerkizunak, egia irrazionalarenak, ezin froga daitekeen egiarenak?

Mitologia? Litekeena da; baina beste bizitzari buruz mitologizatu beharra dago, Platonen garaian bezala. Ikusi berri dugunez, gure hasierako lehen irrikari, oinarri-oinarrizko eta funtsezkoari, betiereko bizitza bere buruaz eta bere banakotasunaz kontziente denari, itxura konkretu eta ulergarria, hau da, arrazionala, ematen saiatzen garenean, absurdu estetiko, logiko eta etikoak ugaltzen dira, eta ez dago ikuspen beatifikoa eta apokatastasia kontraesan eta itxuragabekeriarik gabe bururatzeko modurik.

Eta, halere...

Halere, bai, hura irrikatu beharra dago, irudi dakigukeen absurdua gora-behera; are gehiago, nola edo hala, bizitzeko, hartan sinetsi behar da. Bizitzeko, gero! ez Unibertsoa ulertzeko. Hartan sinetsi behar da, eta hartan sinestea erlijiosoa izatea da. Kristautasuna, guk, XX. mendeko europarrok benetan senti dezakegun erlijio bakarra, Kierkegaardek zioenez, irtenbide desesperatua da (*Afsluttende uvidenskabelig Efterskrift*, II, I, I. kap.), fedearen martiritzaz besterik lortzen ez den irtenbidea, hau da, arrazoimena gurutzan josiz, pentsalari tragiko berberak esandakoaren arauera.

Ez zuen arrazoirik gabe esan, esan ahal izan zuenak esanda, gurutzearen eromenaren kontu hura. Eromena, dudarik ez, eromena. Eta ez zebilen guztiz oker humorista yankee hura, Oliver Wendell Holmes, bere elkarrizketa argietako pertsonaia bati honela esaneraztean, hots, erlijio-monomaniagatik eroetxean sarturik zeudenez eritzi hobea zuela, erlijio-printzipio berberak profesatu arren, hortik solte eta erotu gabe zebiltzanez baino. Baina, egia esan, ez ote dira berauek ere, Jainkoari esker, eroturik bizi? Ez al dira eromen mantsoak ere egoten, eta gizarteari kalterik egiteke, ez al digute geure lagun hurkoekin bizitzen uzten, gainera, hartara lagunduz, bizitzarako eta gizarterako ematen diguten moduko zentzua emanaz?

Eta, azken buruan, zer da eromena, eta nola bereiz daiteke arrazoimenetik, norbera batetik eta bestetik kanpoan jartzen ez bada, eta hori, ez al da ezinezkoa?

Eromena, beharbada, eta eromen ere handia, hilobiaz bestaldeko misterioan barrendu nahi izatea; eromena, geure irudipenak, barne-kontraesanez erneak, arrazoimen zentzudunak agintzen digunaren gaineratik ipini nahi izatea. Eta arrazoimen zentzudunak ezer ez dela zimendurik gabe oinarritu behar diosku, eta alferrekoa baino gehiago, lan kaltegarria dela ezezagunaren zuloa fantasiaz bete nahi izatea. Eta, halere...

Beste bizitzan sinetsi behar da, hilobiaz bestaldeko bizitzan, eta bizitza indibidual eta pertsonalean, gutariko bakoitzak bere kontzientzia senti dezakeen bizitzan, eta gainerako kontzientzia guztiekin Kontzientzia Gorenean, Jainkoarengan, batzen sentitzea, besteekin baina nahastekatu gabe; beste bizitzan sinetsi behar da oraingo hau bizi, jasan, horri zentzua eta zertarakoa eman ahal izateko. Eta beste bizitza horretan sinetsi behar da, beharbada bera merezitzeko, bera lortzeko edo, beharbada, ez du hura merezi ez lortzen, arrazoimenaren gaineratik, eta, behar izanez gero, haren aurka ere, irrikatzen ez duenak.

Eta, batez ere, sentitu eta ibili behar dugu, heriotzaz gero, geure bizitza lurtarraren amaigabeko iraupena erreserbaturik balegokigu bezala; eta erreserbaturik dagokiguna ezereza baldin bada, ez utzi horri justizia izaten, Obermannen perpausaren arauera.

Eta honek eskutik bezala gakartza geure problema bakarraren ikuspegi praktikoa edo etikoa aztertzea.

XI

PROBLEMA PRAKTIKOA

L'homme est périssable.-Il se peut, mais périssons en résistant, et si le néant nous est réservé, ne faisons pas que ce soit une justice.

SÉNANCOUR: *Obermann*, lettre XC.

Behin baino gehiagotan, entseiu hauen ibilbide errakorrean, definizioei diedan ikara gora-behera, neure jarrera propioa definitu dut aztertzen ari naizen problemari buruz; baina badakit ez dela behin ere irakurle asegabea faltako, edonolako dogmatismoan hezia, bere buruari honela esango diona: "Gizon honek ez du zirt edo zart egiten, zalantzan ari da; oraingoan badirudi gauza bat dioela, eta geroxeago aurkakoa; kontraesanez beterik dago; ezin sailka dezaket; zer da?" Ba horixe, elkarren aurkakoak esaten dituen bat, kontraesan eta borrokako gizona, bere buruaz Jobek zioen bezala: bihotzarekin gauza bat eta buruagaz aurkakoa dioen bat, eta borroka hau bere bizitza bihurtzen duena. Argiago, tontorretako elurrari darion ura bera ere ez.

Hau jarrera eustezina dela esango zait, gure ekintza eta gure obrak oinarritzeko oinarria behar dela, ez dagoela kontraesanetan bizitzerik, batasuna eta argitasuna bizitzaren eta pentsaeraren funtsezko baldintzak direla, eta hori bateratu beharra dagoela. Eta beti gauza berean diraugu. Ene bizitza bateratzen duena, hain zuzen, barne-kontraesana baita, izateko arrazoi praktikoa ematen diona.

Edo, hobesanez, gatazkak berak, segurgabetasun grinatsuak bateratzen du ene ekintza eta bizierazi eta obrarazten dit.

Pentsatu, bizitzeko egiten dugu, esan dut; baina beharbada, zuzenago litzateke bizi garelako pentsatzen dugula esatea, eta gure pentsaeraren forma gure bizitzarenari doakiola. Behin eta berriro errepikatu behar dut, oro har, gure doktrika etiko eta filosofikoak ez direla izaten gure portaeraren, gure egintzen *a posteriori*-zko justifikazioa besterik. Gure doktrinak geure aritzeko modua besteei eta geure buruari azaltzeko bilatu ohi ditugun bideak izaten dira. Eta hau azpimarratzekoa da, ez soilki besteei, geure buruari baizik. Egiten duena, eta ez beste gauza bat, zergatik egiten duen funtsean ez dakien gizonak, bere iharduteko arrazoiak konturatu beharra dauka, eta hori moldatzen du. Geure jokabidearen eragingarritzat dauzkagunak ez dira izaten aitzakiak besterik. Batek, bizitza luzatzeko, bere burua jagotera bultzatzen duela uste duen arrazoi berberorrek, beste bat, bere ustean, buruari tiro ematera darama.

Ezin uka daiteke, halere, arrazoiketek, ideiek, giza ekintzei eragiten ez dietenik, eta batzuetan, hipnotizatu batengan lilurak duen moduko ihardupideaz, haiek determinatzen ez dituztenik, eta hori dator ideia guztiek -hasitako edo porrot egindako egintza besterik ez dira eta- ekintzatan ebazteko duten joeragatik. Nozio honek eraman zuen Fouillée ideia-indarren kontu hartara. Baina indar hauek, eskuarki, beste barrenago eta askoz ere inkontzienteago batzuei egokierazten dizkiegu.

Halere, hau guztiau alde batera utzirik, hauxe ezarri nahi dut, segurgabetasuna, zalantza, gure azken helburuaren misterioarekiko borroka etengabea, gogamenaren desesperantza eta eustazpi dogmatiko sendo eta egonkorrik eza moral-oinarri izan daitezkeela.

Bere portaera -barrukoa edo kanpukoa, sentimenduzkoa zein ekintzazkoa- dogma edo printzipio teoriko, bere eritziz, eztabaidaezinen batean oinarritzen edo oinarritu uste duenak fanatiko bihurtzeko arriskua du eta, gainera, dogma hori hautsi edo kolokan jartzen zaion egunean, haren moralak nasaitu egiten da. Hark irmotzat daukan lurra higitzen hasten bada, bera, lurrikararen aurrean, dardarka hasten da, ez baikara guztiok ideal estoiko hori, mundu zatikatuaren kondarrek zauritzean higitzeke gelditzen dena. Zorionez, bere ideien azpikoak salbatuko du bera. Izan ere, norbaitek esaten badizue ez duela iruzur egiten, edo ez diola bere lagunik minenari adarrik jartzen, infernuaren beldur delako, segurki esan dezakezue, horretan sinetsiko ez balu ere, ez lukeela

holakorik egingo, orduan beste edonolako azalpena asmatuz. Eta hau giza generoaren ohoretan.

Baina almadia mugikor eta gainezkagarrian, agian nora gaberik, nabigatzen ari dela uste duena, ez du ikaratuko bere oinen azpian almadia mugitu eta hondoratzeko mehatxuak. Honek ihardun uste du, ez bere egintza-printzipioari egiazkoa deritzolako, hura holakoa egiteko baizik, hots, bere buruari haren egia frogatzeko, buruan bere mundu izpirituala sortzeko.

Nire jokabidea dateke frogarik onena, nire irrika gorenaren froga morala; eta espero dudanaren egiaz, azken segurgabetasun erremediogabearen barruan, guztiz komentzitzen ez banaiz, orduan nire jokabidea ez da aski garbia izan. Ez da oinarritzen, beraz, bertutea dogman, berau hartan baizik, eta martiriak egiten du fedea, fedek martiria baino gehiago. Ez dago segurantza eta atsedetik -esentziaz segurgabe eta nekagarria den bizitza honetan lor daitekeenik- grinazko jokabide onean baizik.

Jokabidea, praktika da, doktrinaren, teoriaren frogatzat balio duena. "Haren borondatea -bidali ninduen Harena, dio Jesusek- egin nahi duenak ezagutuko du Jainkoaren doktrina ote den ala nire kontutik mintzo ote naizen" (Joanes, VII, 17); eta ezaguna da Pascalek esaniko hura, hots, "has hadi ur bedeinkatua hartzen, eta azkenean sinetsiko duk". Bide bereon pentsatzen zuen Johann Jakob Moser-ek, pietistak, ez ein ateistak edo naturalistak ez zuela eskubiderik kristau erlijioari oinarri gabe eritzeko, haren agindu eta manuak konplitzeko froga egin ez duen artean (ikus Ritschl, *Geschichte der Pietismus*, VII lib. 43).

Zein da ba gure egia bihozkor eta antirrazionala? Giza arimaren hilezintasuna, gure kontzientziaren mugarik gabeko bizieraupenarena, Unibertsoaren giza zertarakoarena? Eta zein da horren froga morala? Honetara formula dezakegu: ari hadi heure eritziz eta besteren eritziz betierekotasuna merezitzeko, ordezkazekin bilakatzeko, hiltzerik merezi ez izateko moduan. Edo agian honela: ari hadi bihar hilko bahintz bezala, baina gainbizi eta heure burua betierekatzeko. Moralaren helburua Unibertsoari zertarakotasun gizatiar eta pertsonala ematea da; hark daukana -baldin badauka- aurkitzea, eta ihardun-arian aurkitzea.

Honez gero mende bat pasea da, 1804ean, Rousseau patriarkaren seme izpiritualetarik sakonen eta trinkoenak, frantses pentsalaririk tragikoenak, Pascal salbuesteke, Sénancour-ek, bere *Obermann*-en monodia neurrigabea osatzen duten eskutitzetatik XC.ean, kapitulu honen buruko goiburutzat doazen hitzak idatzi zituen: "Gizona ahikorra da. Baliteke, baina ahi gaitezen jazarka, eta erreserbaturik dagokiguna ezereza baldin da, ez diezaiogun utz horri justizia izan dadin". Alda ezazue esakune hau bere ezezko formatik baiezkora, esanez: "Eta erreserbaturik dagokiguna ezereza baldin bada, egin dezagun hori injustizia izan dadin", eta hortxe izango duzue ekintza-oinarririk sendoena dogmazale izan nahi ez duen edo ezin izan daitekeenarentzat.

Irreligiosoa, deabrutarra, ekintzarako ezindu edo geure joera txarren aurka defentsarik gabe uzten gaituena, Goethek Mefistofelesen ahoan ipintzen zuen ezkortasuna da, honela esanerazten zionean: "Jaiotzen den guztiak hondoratzea merezi du" (*denn alles was entsteht ist wert da? es zugrunde geht*). Hauxe da gizonok gaizto deritzogun ezkortasuna, eta ez azken buruan guztia ezereztuko delako beldurpean, hori deitoratu eta beldur horren aurkako borrokan mamitzen den beste hura. Mefistofelesen, jaiotzen den guztiak hondoratzea, ezerezte merezi duela dio, baina ez hondoratzen edo ezerezten denik, eta guk badiogu jaiotzen den guztiak jaikitzea, betierekotzea merezi duela, holakorik lortzen ez badu ere. Jarrera morala aurkakoa da.

Bai, guztiak merezi du betierekotzea, guzti-guztiak, gaiztoak berak ere bai, gaizto deitzen duguna, betierekotzean, bere gaiztakeria galduko bailuke, bere denboratasuna

galtzean. Gaizkiaren esentzia bere denboratasunean baita, azken fin iraunkorrera zuzendua ez izatean.

Eta beharbada ez legoke sobera hemen ezberdintasun horretaz, direnik nahastuenetakoaz, zerbait esatea, hots, baikortasuna eta ezkortasuna deitu ohi direnen arteko bereizketaz, horko nahastea ez baita txikiagoa indibidualismoa sozialismotik bereiztean nagusi ageri dena baino. Honez gero ia ez dago ezkortasuna delako hori zer den konturatzerik.

Gaur, hain zuzen, *The Nation*-en (1912.eko Uztailaren 6ko zenbakian) "Infernu dramatiko" (*A dramatic Inferno*) deritzon editorial bat irakurri dut, Strindberg-en ingeles itzulpen bati buruzkoa, eta ohar zuhur hauekin hasten da: Munduan zin-zinezko eta erabateko ezkortasunik balego, ezinbestean ixila litzateke. Boza lortzen duen desesperantza modu soziala da, anaia batek beste anaia bati jaurkitzen dion herstura-oihua da, biak burkidez betea den itzalen haran batetik oztopoka doazenean. Bere hersturan bizitzan zerbait onik badela erakusten du, aurretik sinpatia nabari duelako... Benetako larridura, zinezko desesperantza, mutua eta itsua da; ez du libururik idazten, eta ez du inolako bultzadarik sentitzen Unibertso jasanezina brontzea bera baino monumentu iraunkorragoekin zamatzeko⁵¹. Erizpen honetan bada, dudarik ez, sofisma bat, egiazko oinazetik duen gizonak, bakarrik egon eta inork entzuten ez badio ere, asaskatzeko negar eta oihu ere egiten duelako, hau guztiau, agian, gizarte-ohituretatik etorria izan arren. Baina basamortuan bakarrik dagoen lehoiak, ez al du orrore egiten haginak min ematen badio? Baina, hortik aparte, ez dago gogoeta horien sakoneko egia ukatzerik. Protesta egiten eta burua defendatzen duen ezkortasuna ezin daiteke esan halako ezkortasuna denik. Eta, edonola ere, hertsiki, ez da halakoa, dena hondoratzen den arren, ez dela ezer hondoratu behar aitortzen duena, eta bada, ordea, ezer hondoratzen ez den arren, dena hondoratu behar dela dioena.

Ezkortasunak, gainera, balio batzuk eskuratzen ditu. Bada ezkortasun eudemonistiko edo ekonomikoa, zorientasuna ukatzen duena; bada etikoa ere, ongi moralaren garaipena ukatzen duena, eta erlijiosoa ere bada, Unibertsoaren giza zertarakotasunaz, hots, arima indibiduala betierekotasunerako salbatu ahal izateaz desesperatzen dena.

Salbatzea guztiek merezi dute, baina gauza guztien aurretik eta gaintetik, nire aurreko kapituluan esana dudanez, hilezintasuna, hura grinaz, eta arrazoi oren aurkako grinaz, nahi duenak merezi du bereziki. Profeta gisa ari den ingeles idazle batek -hori ez da hain arraroa haren herrian-, Wells-ek, *Anticipations* bere liburuan honela diosku "gaur egungo era guztietako erlijio-konfesioetako gizon azkar eta trebeek, praktikan hilezintasunaren arazoa erabat saihesteko joera izaten dute (*to disregard... altogether*)". Wellsek aipatzen dituen gizon azkar eta trebe horien erlijio-konfesioak gezurra baino besterik izaten ez direlako, eta gezurra, halaber, haien bizitzak, horiek erlijio gainean oinarritu nahi badituzte. Baina Wellsek dioen hori baliteke, barrenean, berari eta beste batzuri iruditzen zaien bezain egiazkoa ez izatea. Gizon azkar eta trebe horiek kristau printzipioetan blaituriko gizarte baten altzoan bizi dira, kristautasunak mamieraziriko erakunde eta sentimendu sozial batzuen pean, eta arimaren hilezintasunaren fedea haien arimetan lurpeko ibai baten antzekoa da, ikusi eta entzun gabea, baina horren urak gizon horien ekintzen eta asmoen sustraiak bustitzen ditu.

Aitortu behar da, ez dela, hertsiki mintzatuz, moralitasunaren aldeko oinarri sendoagorik moral katolikoaren oinarria baino. Gizonaren azken xedea betiereko zoriona da, berau menderen mendetan Jainkoa ikusi eta gozatzean mamituz. Oker dabil, ordea, azken xede horretara daramaten bideen bilaketan; izan ere, betiereko zoriona lortzeko baldintza, Izpiritu Saindua Aitagandik eta Semeagandik datorrela, eta ez soilki Harengandik, edo Jesus Jainkoa izan zela, edo batasun hipostatikoaren kontu guztia, edo Jainkoa badela ere sinestean edo ez sinestean jartzea, horretaz pixka bat pentsatuz gero, munstrokeria

hutsa da eta. Jainko gizatiar batek -burura dezakegun bakarrak- ez luke sekula gaitzetsiko Beragan buruaz ezin sinets lezakeena; eta ez bere buruan, bere bihotzean baizik, dio gaiztoak ez dagoela Jainkorik, hau da, ez duela Hura egoterik nahi. Betiereko zoriona lortzea sineskeraren bati loturik egotekotan, zorion horren sineskerari egon beharko luke, eta hori horrela ahal izateari.

Eta zer esango dugu pedanteen enperadoreak esandako beste kontu hartaz, hau da, mundura ez garela zoriontsuak izatera etorri, geure eginbeharra betetzeko baizik? (*Wir sind nicht auf der Welt, um glücklich zu sein, sondern um unsere Schuldigkeit zu tun*). Munduan *zerbaiterako* baldin bagara -um etwas-, nondik atera daiteke *zertarako* hori gure borondatearen barren-barrenetik baizik, azken xedetzat zoriona, eta ez eginbeharra, eskatzen duenetik? Eta *zertarako* horri bestelako baliorik eman nahi bazaio, balio objektiboa, edozein pedante saduzearrek liokeen bezala, orduan errealitate objektiboa onartu behar da, Gizateria desagertu arren geldituko litzatekeena, gure eginbeharrari gure zorionari bezain arduragabe zaiona; gure moraltasunak horri gure zorionak beste axola dio. Nik dakidala, behintzat, guk geure eginbeharra betetzen dugun edo ez dugunaren arauera, Jupiterrek, Uranok edo Siriusek ez dute beren ibilbidea aldatzen, zoriontsuak garen edo ez garenaren arauera baino gehiago.

Kontsidero hauek horrelako pedantei arruntkeria irrigarriak eta *dilettantearen* azalkeria irudituko zaizkie. (Intelektualgoa bitarikoon artean banatua da: alde batetik *dilettanteak* eta bestetik pedanteak). Zer egingo diogu, ba! Gizon modernoak egia jakiten eta kulturaren multzoa ezjakiten etsi du eta, ezpere, ikus Windelband-ek Hölderlin-en patuaz eginiko ikerketan horretaz dioena (*Präludien*, I). Bai, gizon kultural horiek etsi egiten dute, baina oraindik bagaude zenbait basati gaixo, etsi ezinik. Ez dugu egun batean desagertu beharraz etsitzen, eta Pedante Nagusiaren kritikak ez gaitu kontsolatzen.

Zentzuzkoa, gehienez ere, Galileo Galileirena litzateke, hauxe zioenean: "Norbaitek, apika, bizia galtzeko oinazea ezin latzagoa dela esango du, baina nik besteak baino txikiagoa dela esango dut; zeren bizitzaz erantzen dena, aldi berean, kexatzeko ahalmenaz gabetzen baita, ez soilki horretaz, gainerako beste edozein galeraz baizik". Esakune horrek, bere humorismoa du, ez dakit Galileorengan hori kontziente ala inkontzientea zen, baina edonola ere tragikoa.

Eta atzera itzuliz, nik diot betiereko zoriona lortzea sineskeraren bati loturik egotekotan, hori burutzeko ahalmenaren sineskerari egon beharko lukeela. Baina, hertsiki hitz eginez, horixe ere ez. Arrazoibideko gizonak bere buruan honela dio: "Honen ondoren ez dago beste bizitzarik", baina hori bere bihotzean gaiztoak ez bestek esaten du. Areago oraindik, gaizto hori bera, agian desesperatua besterik ez dena, Jainko gizatiarrak kondenatuko ote du ba bere desesperantzagatik? Nahikoa zoritxarra du horrekin ere!

Baina, edozein modutan, har dezagun calderondar goiburua, haren *Bizitza ametsa da* liburutik:

*que estoy soñando y que quiero
obrar bien, pues no se pierde
el hacer bien aun en sueños*⁵²

Ez da benetan galtzen? Ba al zekien hori Calderónek? Eta hau gehitzen zuen:

*Acudamos a lo eterno
que es la fama vividora,
donde ni duermen las dichas
ni las grandezas reposan.*⁵³

Benetan ba al zekien hori Calderónek?

Calderonek fedea zuen, fede katoliko gotorra; baina holakorik ezin izan dezakeenari, don Pedro Calderón de la Barcak sinesten zuena ezin sinets dezakeenari, Obermannena gelditzen zaio beti ere .

Erreserbaturik badagokigu, egin dezagun ezereza injustizia izan dadin; borroka dagigun patuaren aurka, garaitzeko esperantzarik gabe ere; borroka dezagun haren aurka Quixote gisa.

Eta ez da haren aurka borrokarik egiten, soilki, irrazionaltasuna irrikatuz, gu ordezkaezin bihurtzeko moduan arituz baizik, besterengan geure marka txanponduz, geure lagun hurkoen gainean, haiek meneratzeko, arituz, haiei geure burua emanez, ahal den neurrian betiereko gaitzen.

Gure ahaleginik handienak ordezkaezin bihurtzea izan behar du, gutariko bakoitza bakarra eta ordegabea delako egintza teorikoa egia praktiko bihurtzea -egintza teoriko delako honek barruan kontraesan *in adiecto* bat ez baldin badauka behinik behin-, hiltzen uzten dugun hutsunea beste inork betetzerik izan ez dezan.

Izan ere, gizon bakoitza, bakar eta ordezkaezina da; beste ni bat ezin gerta daiteke; gutariko bakoitzak -gure arimak, ez gure bizitzak- Unibertso osoak beste balio du. Eta izpiritua diot, eta ez bizitza, horiek, gerraren eta hiltzeko zigorraren aurka dihardutenek adibidez, izpirituan, hau da, honen hilezintasun pertsonalean, benetan sinetsi gabe giza bizitzari gehiegizko balio irrigarria ematen diotenez, bizitza bere zerbitzuan duen izpirituan egiazki ez sinesteagatik ematen baitiote, hain zuzen, balio hori. Izan ere, bizitzak ez du balio bere jaun eta jabe duen izpiritua zerbitzatzan duen heinean ez bada, eta ugazaba zerbitzariarekin hiltzen bada, ez bata ez besteak dute askorik balio.

Eta gure anikilazioa injustizia izan dadin moduan aritzea, gure neba-arrebek, seme-alabek eta gure neba-arreben seme-alabek eta haien seme-alabek ez genuela hil behar aitortzea, guztion eskumenean dago.

Kristau berrerespenaren doktrinaren muin sakona pasioa eta heriotza gizon bakarrak pairatu behar izatea da, hots, Gizonak, Gizonaren Semeak, hau da, Jainkoaren Semeak, bere errugabetasunagatik hiltzerik merezi ez zuenak, eta jainkozko oparigai hau hil zen, birbiz zedin eta birbiz gintzan, bere merezimenduak guri aplikatuz eta bizitzaren bidea erakutsiz, heriotzatik gu askatzeko. Eta Gizateriako bere neba-arrebei bere burua osorik, berarentzat ezertxo ere erreserbatu gabe, eman zien Kristo hura dugu ekintzarako eredu. Guztiok, hau da, bakoitzak, ahalegina egin dezake, eta behar ere bai, bere baitarik ahal dezakeen guztia emateko, eman ahal dezakeena baino gehiago ere, gehiegizkoa egin, norbere burua gainditu, ordezkaezin bihurtu, besteei burua eman, gero haiengan bere burua biltzeko. Eta nork bere ofizioan, bere hiritar lanbidean. Ofizio hitzak, *officium*, eginbeharra, betebeharra esan nahi du, baina konkretuan, eta horixe adierazi behar du beti praktikan. Eta, beharbada, kontua ez da nori bere ustez ongienik doakion eta dagokion bokazioa bilatzen saiatzea, zoriak edo Probidentziak, eta ez gure borondateak, ipini diguten zeregina bokazio bihurtzea baizik.

Lutherrek kristau zibilizazioari agian egin dion zerbitzurik handiena, grinazko eta irudimenezko lainoetz inguraturiko nozioa eta itzelezko bizi-tragedien sortzaile zen Erdi Aroko monastegietako erlijio-bokazioaren nozioa hautsiz, norbere hiritar lanbidearen balio erlijiosoa ezartzea izan da. Klaustroetan barneratuko bagina, beren gurasoen berekoikeriak txiki-txikitandik nobiziategi baten gelaskan sartu zituen, eta bat-batean munduko bizitzara itzartzen diren -inoiz itzartzen badira- gizon gaixo horien bokazioa delako hori zerik den aztertzer! Edo, liluraren liluraz, beren burua engainatu zutenak. Eta Lutherrek, hori hurretik ikusi eta pairatu zuenak, hiritar lanbidearen balio erlijiosoa, inor hilarteko botupean estekatzen ez duena, ulertu eta sentitu ahal izan zuen.

Apostoluak kristauen bokazioez Efesoarren Epistolaren IV. kapituluan dioskun guztiaz den bezainbatean, hori hiritar bizitzara aldatu behar da, gaur egun, gure artean, kristaua

-dakiela ez dakiela, nahi duela edo ez duela- hiritarra baita, eta hark, Apostoluak "Erromako hiritarra naiz!" oihu egin zuen kasuan, gutariko bakoitzak, bai eta ateistek ere, "Kristaua naiz!" oihu egingo genuke. Eta, horretarako, kristautasuna *zibilizatu* behar da, hau da, bera deseklesiastizatuz hiritartu, horixe baitzen Lutherren lana, geroago berak, bere aldetik, eliza egin arren.

The right man in the right place, dio ingeles esakuneak: "Gizon egokia, dagokion lekuan". Horri hau erants dakioke: "Zital zirola, nork gudura haroa?"⁵⁴ Nork zer daki berari gehien komeni zaion eta bera gaituenik dagoeneko postuaz? Berak hobeto al daki gainerakoek baino? Gainerakoek hobeto al dakite berak baino? Ahalmenak eta gaitasunak nork neurtzen ditu? Erlijiozkoa, dudarik gabe, aurkitzen gareneko postua geure bokazioa egitea da eta, txarrenean, haren ordeztu beste bat hartzea.

Norbere bokazioarena, agian gizarte-problemarik larriena eta sakonena dugu, gainerako guztien oinarrian datzana. Antonomasiaz gizarte-arazoa deitua, beharbada, aberastasunak banatzeko problema bat barik, bokazioak banatzeko problema bat da gehiago, ekoizteko moduenak. Bakoitzaren ofizioa, orain arte, honela erabaki izan da, ez gaitasunaren bidez -aurretik aproban jarri gabe ia jakin ezinezkoa, eta gizon bakoitzarengan ongi bereziturik ez datorrena, gizona, ofizio gehienetan, ez baita hartarako jaiotzaz, ekintzaz baizik- ez gaitasun bereziaz, baina bestelako arrazoi sozial, politiko eta errotuzkoen bidez. Denbora eta herrialde batzuetan, erlijio-kastak eta herentzia izaten dira; beste batzuetan gildeak⁵⁵, eta artisau-elkarteak; gero makina, ia beti beharrezana, askatasuna ia inoiz ere ez. Eta horren tragedia, bizimodua irabaztearen arima saldu behar izaten deneko lenozinio-ofizio horietara heltzen da, hor langileak lan egin behar baitu ez jada bere lanaren alferrekotasunaren, baizik eta horren gaiztakeria sozialaren kontzientziaz, pixkanaka bera hilko duen pozoia fabrikatuz, eta agian bere seme-alabak asasinatuko dizkiotenen armak eginez. Hauxe da, eta ez alokairuarena, problemarik larriena.

Bizitza osoan ez dut ahantziko, neure jaioterrian, Bilboko itsasadarrean, begi aurrean izan nuen ikuskizuna. Haren bazterrean untzigintzako langile batek ez dakit nik zer zerabilen mailuka, eta gogoz kontra egiten zuen, indarrik ez duenaren edo soldatarako aitzakia hutsaz ari denaren moduan, eta halako batean emakume baten oihua entzun zen: "Lagundu!". Ume bat itsasadarrera jausia zen. Eta orduan gizon hura behingoan eraldatu zen, eta kemen, adore eta odol hotz mirezgarriekin, zenbait arropa erantzi eta uretara jauzi egin zuen, umetxua salbatzeko.

Nekazarien mugimendu sozialistari bere gogorkeria larregia, beharbada, honexek kentzen dio, baserriko morroiek, industriako edo meatzetako langileek baino gehiago irabazi ez arren eta hobeki bizi ez badira ere, beren lanaren balio sozialaren kontzientzia argiagoa izateak. Ez baita gauza bera garia ereitea eta lurpetik diamanteak ateratzea.

Eta agian aurrerapen handiena lanaren nolabaiteko indiferentziazioan datzake, lan bat utzi beste bat hartzeko erraztasunean, ez, apika, onuragarriago bat, nobleagoa baizik -lan batzuk beste batzuk baino nobleagoak baitira-. Halere, sarri askotan, lanbide batean egon eta uzten ez duena, tamalez, ez da arduratzen hartaz bokazioa erlijioso egiteaz, eta hura utzi eta beste baten bila doanak ere ez du hori egiten erlijio-asmoeekin.

Eta, ez al dituzue ezagutzen, beharbada, horrelako kasuak, horietan lagun batek, bera sarturik dagoen eta lanean ari den lanbide-organismoa gaizki antolaturik dagoela eta behar bezala funtzionatzen ez duelako, bere lana hertsiki bete gabe uzten duela, beste betebeharrak gorago baten aitzakiaz? Ez al diote konplimentu honi ordenantzismoa deitzen eta, hori dela eta, ez al da mintzatzen burokrazia eta funtzionarioen farisaukeriaz? Eta batzuetan hori honelatsu izaten da, militar adimentsu eta oso ikasi batek, bere sorterriaren antolakuntza belikoaren hutsunez konturaturik, eta haiek bere nagusiei, eta agian publikoari ere, salatu ondoren -horretan bere eginbeharra betez-, kanpainan

agindu zaion ekintza konplitu nahi ez izatea, horretan arrakasta izateko ahalbide ezin urriagoak dituelakoan, edo beharbada haren porrotari seguru eritziz, hutsune haiek zuzentzen ez diren bitartean. Halakoak afusilatzea mereziko luke. Eta farisaukeriari doakionez...

Eta beti geratzen da aginduz obeditzeko modua, absurdu erizten zaion egitekoa burutzeko modua, haren absurdutasuna zuzenduz, norbere heriotzaz besterik ez bada ere. Neure burokrazi funtzioan inoiz legezko xedapenen batekin topo egin dudanean, haren absurdutasun nabarmenagatik desusarioan egonik, beti ahalegindu naiz hura aplikatzen. Ez dago ezer txarragorik erabiltzen ez den eta zokoan datzan pistola kargatua baino; halako batez, ume bat dator, harekin jolasean hasi eta bere aita hiltzen du. Erabiltzen ez diren legeak legerik ikaragarrienak dira, erabilerarik eza legearen txartasunetik datorrenean.

Eta hauek ez dira hutsalkeriak, eta are gutxiago gure herrian. Izan ere, zenbaitzuk hemendik ez dakit nik zer nolako betebeharrak eta erantzunkizun idealak, hau da, fikziozkoak, bilatzen ari diren bitartean, berek ez dute beren arima osoa ipintzen bizi direneko zeregin hurbil eta konkretuan, eta gainerakoek, gehien-gehienek, ez dute beren ofizioa betetzen, eskuarki esaten denez konplitzeko besterik *-konplitzearren*, itzelezko esaldi inmoralak-, estuasunetik irtetearren, zeozer egiten delako itxura egitearren, sariari, diruzkoari edo bestelakoari, aitzakia, eta ez justizia, emateagatik.

Horra hor non duzuen zapatari bat: zapatak egitetik bizi da eta, bere bezeria gorde eta ez galtzeko, behar den fintasunaz egiten ditu. Beste zapatari hori maila izpiritual goragoan bizi da, ofizioaren buruestima baitu, eta buruerizkoa edo harrokeritxoagatik hiriko edo erresumako zapatariarik onena izateko ospea eskuratzen ahalegintzen da, horrek bezeria ugariago ez etekin handiagoak eman ez arren, entzute eta prestigio handiago hutsagatik baizik. Zapatagintza lanbidearen hobakuntza moralean baina, bada maila goragoa ere, hots, norbere bezeroentzat zapatari bakar eta ordezkaezin bilakatzen saiatzea, horretara, oinetakoak hain era berezian egiten dizkielako, hil dakienean - "hil *dakienean*", eta ez, soilki, "hil *dadinean*"- haren falta izan dezaten, eta horiek, haren bezeroek, ez zukeela hil behar pentsa dezaten, eta hori horrela da, oinetakoak edozelako eragozpenak kentzeko pentsatuz egin zizkielako, eta beren oinen ardurak, egia gorenei behatzeko, hegaz ibiltzea galeraz ez ziezaien; oinetakoak haienganako eta Jainkoaganako maitasunarren egin zizkien, erlijiotasunagatik.

Adibide hau agian arrunta irudi dakizueke, baina apropos aukeratu dut. Gutariko bakoitzaren zapatagintzako sentimendu, ez etikoa, erlijiosoa baizik, oso behetik dabilelako.

Langileak elkarte egiten dira, lankidego eta erresistentzi elkarteak eratzen dituzte, eta beren klasearen hobakuntzaren alde zuzen eta nobleki ari dira borrokan; baina ez da ageri elkarte horiek ofizioaren moralean eragin handirik dutenik. Dagokion langile-elkarteak kasu bakoitzean erabakitzen dituen langileak, eta ez beste batzuk, lanean onartzeraz ere behartu dituzte ugazabak; baina hautatu horien gaitasun teknikoaz ondo ardura gutxi izaten dute. Batzuetan ugazabak ia-ia ez du ezgai hori bere ezgaitasunagatik gaitzesteko aukerarik ere izaten, haren lagunek berorren alde egiten dute eta. Eta lan egiten dutenean, maiz konplitzearren besterik ez da izaten, soldatarako aitzakia hutsaz, eta hori, ugazabari kalte egitearren, gauzak txarto apropos egiten ez dituztenean, horrelako kasuak ere izaten dira eta.

Horren guztiorren itxurazko justifikazioan hauxe esan daiteke, ugazabak, beren aldetik, beren langileak baino ehun bider errudunagoak izaten direla, eta ez dutela inolako ardurarik agertzen, ez eta madarikazioz ere, hobeto lan egiten duenari hobeto ordaintzeko, eta langilearen hezkuntza orokorra eta teknikoa bultzatzeaz ere ez, eta are gutxiago produktuaren berezko ontasunaz ere. Eta produktu horren hobakuntzak,

industri eta merkatal konkurrentzi arrazoiez landa ere, kontsumitzaileen onerako, karitatez, garrantzikoena izan beharko lukeen arren, ez da horrela izaten, ez langileentzat ez eta ugazabentzat ere, haiek eta horiek beren gizarte-ofizioa erlijioski sentitzen ez dutelako. Ez batzuek ez besteek nahi dute ordezkaezin izan. Gaitz hori are larriagoa da industri enpresa eta elkarteen zorigaiztoko era anonimo horrekin, sinadura pertsonalarekin batera, kreditatzeko lehenagoko harrokeria hura ere, betierekotzeko irrikaren ordezkoa, galtzen delako. Erlijio ororen zimentarria den gizabanakotasun konkretuarekin batera, ofizioaren erlijiotasuna ere desagertzen da.

Eta ugazaba-langileez esaten dena, lanbide liberaletan dihardutenez eta funtzionari publikoek oraindik ere hobeto esan daiteke. Ia ez da Estatuaren zerbitzari bat bera ere bere egiteko ofizial eta publikoaren erlijiotasuna sentitzen duenik. Ez dago gure artean ezer uherragorik, nahasiagorik Estatuarekiko betebeharren sentimendua baino, eta sentimendu hau Eliza katolikoak are gehiago oztopatzen du, hori, Estuari doakionez, anarkista baita. Horko ministroen artean ez da arraroa izaten estraperloaren eta kontrabandoaren zilegitasun morala defendatzen dutenak aurkitzea, estraperloan edo kontrabandoan ari denak, legez eraturiko eta hori galerazten duen agintaritza desobedituz, Jainkoaren legeko laugarren manamenduaren aurka bekatu egingo ez balu bezala, aita-amak ohoratzeko manatzean, legezko agintaritza horrek agintzen duena ere obeditzeko manatzen baitigu, agindurikoa Jainkoaren legearen aurkakoa ez den bitartean behintzat, zerga horiek jartzea hala ez den bezala.

Asko dira, "heure kopetako izerdiaz janen duk ogia" delakoagatik, hiritar ofizioko lana, horren ikuspegi ekonomiko-politikotik eta, gehienez ere, horren ikuspegi estetikutik besterik estimatzen ez dutenak, lana gaztigutzat harturik. Halakoentzat -eta horien artean jesuitak aurkitzen dira bereziki- negozio bi dira: bizimodua irabazteko negozio apal eta pasakorra, geuretzat eta geure seme-alabentzat ogia era onestuaz irabaztea -eta gauza jakina da onestasunak zer nolako zalutasuna izaten duen-, eta geure salbazioaren negozio nagusia, betiereko gloria irabaztekoa. Lanbide apal eta mundutar hura egiteko, aski da, engainu gabe eta geure lagun hurkoei kalte larririk egiteke, geure gizarte-mailaren arauera deduz bizitzeko moduan hura betetzea, baina, beste negozio nagusi horretan arduratzeko, ahalik eta denbora luzeena utz diezagun moduan. Eta badira, gure hiritar lanbidearen kontzepzio, etiko baino gehiago, ekonomiko, horren gainetik apur bat igonez, horren kontzepzio eta sentimendu estetikoetara doazenak, gure lanbidean distira eta ospea erdiesteko gogoaz mamituak, arlo horretan artea arteagatik beragatik, edertasunagatik, egiteraino ere helduz. Baina gorago igon beharra dago oraindik, gure hiritar lanbidearen sentimendu etikoraino, gure erlijio-sentimendutik, gure betierekotasunaren gosetik, eratorri eta eratsia bera. Nork bere hiritar lanbidean, begiak Jainkoagan jarrita, Jainkoaren amorearren lan egitea, gure betierekotasunaren amorearren esan nahi duena, lan horrekin erlijio-lana egitea da.

"Heure kopetako izerdiaz janen duk ogia" delako textu hark ez du esan nahi Jainkoak gizona lanera kondenatu zuenik, haren nekera baizik. Lanera ezin kondena zezakeen propioki, lana jaio izanaren kontsolakizun praktiko bakarra delako. Eta lanera propioki kondenatu ez zuelako froga, kristauarentzat, hau da: Paradisuan jartzean, erorkera baino lehen, oraindik errugabetasun-egoeran zegoenean, Eskriturak dioenez, han jarri zuela hura gorde eta lan zezan (*Genesis*, II, 15). Eta, izan ere, zertan emango zukeen astia Paradisuan, hura lantzen ez bazuen? Eta, ikuspen beatifikoa, ez ote da nolabaiteko lana? Eta lana gure gaztigua balitz ere, saiatu beharko genuke, hartatik, gaztigutik bertatik, geure kontsolakizuna eta geure berrerospena egiten, eta gurutzeren bat besarkatzekotan, ez du bakoitzak ezer hoberik norbere hiritar lanbidearen gurutzea baino. Ez baitzigun Kristok esan: "Har ezak ene gurutzea eta harrait niri", "Har ezak heure gurutzea eta harrait niri" baizik; nork berea, Salbatzailearena Berak bakarrik darama eta. Eta, beraz,

Kristoren imitazioa ez datza monastegiko ideial hartan, *Kempis* izen arrunta daraman liburuan distiratu eta, lagun kopuru oso mugatuari aplikatu dakiokeen ideala izanez, beraz, antikristaua den idealean; aitzitik, Kristo imitatzea nork bere gurutzea hartzea da, bere hiritar lanbidearen gurutzea, Kristok berea hartu zuen bezala, bere ofizioarena, hiritarra eta batera erlijiozkoa zena, eta hura besarkatu eta eramatea, begiak Jainkoagan jarririk, ofizio horrexetako egintza bereziekin egiazko otoitza egiten saiatuz. Zapatagintzan, eta zapatak egiteagatik, gloria irabaz daiteke, zapataria zapatari hobe zina izaten saiatzen baldin bada, gure Aita zerukoa hobe zina den bezala.

Jadanik Fourier-ek, ameslari sozialistak, bere falansterioetan, bokazioak libreki hautatuz eta beste bide batzuetatik, lana erakargarri egiteko ametsa zerabilen. Horretarako bide bakarra askatasuna da. Zorizko jokoen xarma, hori ere lana baita, nondik dator, norbera libreki Naturaren askatasunpean, hots, zoripean, jartzetik baizik? Eta ez gaitzen gal lanaren eta kirolaren elkarrekiko gonbaraketetan.

Eta gu ordezkazekin bihurtzeko, heriotza merezi ez izateko, gure ezerezte, erreserbatu badagokigu, injustizia izan dadin egiteko sentimenduak, ez gaitu soilki, Jainkoaren eta geure betierekotasun eta betierekotzearen amorearren, geure lanbidea erlijioski betetzera eraman behar, grinaz, tragikoki nahiago bada, betetzera baizik. Geure zigiluaz besteak zigilatzen eraman behar gaitu, haiengan eta haien seme-alabengan guk bizirauteko, haiek meneratuz, orotan geure hatza hilezko uzteko. Moralik ugalkorrena elkarri zerbait gainjartzeko morala da.

Ororen aitzin, Lege Zaharrak ezezko eran utzi zizkigun manamenduak baiezko bihurtu behar. Eta horrela, "Ez duk gezurrik esanen" esaten zitzaigun lekuan, hauxe esaten zaigula ulertu: "Egia esanen duk beti, egokiro eta desegokiro!, egokitasun horri buruzko eritzia gutariko bakoitzarena, eta ez besterena, izan arren". Eta "Ez duk hilko!" esan zitzaigun lekuan, hauxe ulertu: "Bizitza emanen duk, eta bera ugalduko!". Eta "Ez duk ebatsiko" den lekuan "Aberastasun publikoa ugalduko duk!". Eta "Ez duk adulteriorik eginen!" ordez, hauxe: "Heure herriari eta Zeruari seme-alaba osasuntsu, sendo eta onak emanen dizkiek!". Eta honela gainerako guztia.

Bere bizia gal ez dezanak ez du bera lortuko. Emaiek, beraz, besteei heure burua, baina besteei emateko, aurretik menara itzak. Ez baitago inor meneratzerik norbera meneratua izan gaberik. Bakoitza, irensten duenaren haragitik elikatzen da. Lagun hurkoa meneratzeko, hura ezagutu eta maitatu behar da. Neure ideiak sartzen ahalegintzean harenak hartzen ditut. Lagun hurkoa maitatzea hura ni bezalakoa izan dadin nahi izatea da, beste ni bat izan dadin; hau da, nik hura izan nahi izatea; haren eta nire arteko muga ezabatu nahi izatea, gaizkia deusezte. Besteren gainean ni jartzeko egiten dudana ahaleginak, ni haren eta harena izateko eta bizitzeko, hura neurtzeko -ni beretzeko bezalakoxea-, horrexek ematen dio erlijio-zentzua giza taldeari, giza elkarkidetasunari.

Elkarkidetasun-sentimendua ene baitatik jalgitzen da; elkarte naizen aldetik, gizarteaz jabetu beharra daukat; ekoizpen soziala naizenez gero, sozialdu beharra daukat, eta nigandik Jainkoagana noa -ni Guztiagana projektatua naizena-, eta Jainkoagandik neure lagun hurko bakoitzagana.

Neure lehen intentzioaz, inkisidorearen aurka protestatzen dut, eta hura baino bere salgaiak eskuratzen datorkidan merkataria nahiago dut; baina, neure baitan bildurik, hobeto pentsatzen badut, hark, inkisidoreak, intentzio onekoa denean, gizontzat tratatzen nauela ikusiko dut, hots, berezko helburutzat eta, eragozten banau, nire arima salbatzeko nahi karitatetsuagatik egiten du; besteak, aldiz, bezero hustzat, bitartekotzat, hartzen nauen bitartean, eta haren indulgentzia eta tolerantzia, funtsean, ene xedearekiko arduragabekeria biribilena besterik ez da. Inkisidoreak askoz ere gizatasun handiagoa du.

Gerran ere bakean baino gizatasun handiagoa izaten den bezala. Gaizkiari ez jarkitzeak ongiari jarkitzea inplikatzeko du, eta defentsatik landa ere, eraso bera agian gizatartasunak duen gauzarik jainkozkoena da. Gerra anaitasunaren eskola eta maitasuneko lotura da; gerrak jarri ditu, elkar-jotzeaz eta elkarrekiko erasoaz, herriak harremanetan, eta elkar ezagutu eta maitarazi ere egin ditu. Gizonen artean izan daitezkeen maitasuneko besarkadarik garbien eta emankorrena, borroka-zelaian garaitzaileak eta garaituak elkarri egiten diotena da. Eta gerratik jalgiriko gorroto birfindua bera ere emankorra da. Gerra, bere adierarik hertsienean, gizerhaitearen santifikazioa da; Kainek armada-general gisa berrerosten du bere burua. Eta Kainek bere anaia Abel hil ez balu, agian beronen eskuetan hilko zatekeen. Jainkoak, batez ere, gerran agertu zuen bere burua; armadetako Jainkoa izaten hasi zen, eta gurutzearen zerbitzuetarik handienetako bat ezpatan bera darabilen eskua defendatzea da.

Kain anaierhailea izan zen Estatuaren fundatzailea, haren etsaiek diotenez. Eta honela onartu behar da, eta Estatuaren gloriatzat hartu, hau gerraren ume baita. Zibilizazioa hasi zen, gizon batek beste bat lotu eta hura biezat lan egitera behartuz, munduari patxadaz behatzen aritzeko era izan eta bere menpekora luxuzko lanetan ihardutera behartu zuen egunean. Esklabutzak utzi zion Platoni errepublika idealaz espekulatzen, eta gerra izan zen esklabutzat ekarri zuena. Ez da alferrik Athenea gerraren eta, zientziaren jainkosa. Baina beharrezkoa ote da gero, begien bistako egia hauek, mila aldiz kasu egin gabeak eta beste milatan birjaioak behin eta berriro errepikatzea?

Jainkoarenganako maitasunetik jalgitzen den eta moral ororen agindu gorena hauxe da: Emak heure burua osorik; emak heure izpiritua bera salbatzeko, betierekotzeko. Holakoxea da bizitza-sakrifizioa.

Eta burua emateko, errepikatu behar dut, besteren gain jarri beharra dago. Erliijoaren egia morala, funtsean, erasokorra da, eta indarrez sartzen da.

Gizabanakoak, gizabanako den aldetik, bizirik irauteko senaren gatibu bizi den norbanako miserableak, ez du bizirik irautea besterik gura, eta duen axola bakarra besteak bere esferan ez sartzea da, ez dezatela kezkaraz, ez diezaiotela nagikeria hauts, eta horren truke, edo exenplu eta arau emateko, berak ere uko egiten dio besterenean sartzeari, besteren nagikeria hausteari, kezkarazteari, haiez jabetzeari. "Nahi duana heurtzat, besterentzat" delakoa hark honela itzultzen du: ni ez naiz besteekin sartzen; beraz, ez daitezela besteak ere nirekin sar. Eta izpirituzko zikoizkeria honetan txikertu, tximurtu eta hil egiten da, indibidualismoaren moral higuigarri honetan: bakoitza beretzat. Eta bakoitza berbera ez denez gero, nekez izan daitezke beretzat.

Baina gizabanakoa gizartean sentitzen den heinean, Jainkoarengan sentitzen da, eta bere iraunerazteko senak Jainkoarenganako maitasunean eta karitate menperakorretan izekitzen du, besterengan bere burua irauneraztea bilatzen du, bere izpiritua gorderaztea, betierekotzea, Jainkoari iltzeak desjostea, eta bere izpiritua beste izpirituetan zigilatzea eta horien zigilua hartzea beste irriskik ez du. Izan ere, izpirituzko nagikeria eta zikoizkeria atereak ditu jadanik gainetik.

Nagikeria bizio guztien ama omen da, eta, izan ere, nagikeriak bizio biok zikoizkeria eta bekaizkeria sorterazten ditu, gainerako guztien iturri direnak. Nagikeria guban dugun materia berez inertearen pisua da, eta nagikeria horrek, aurreztuz kontserbatu nahi gaituela dioskun bitartean, egiazki gu txikertzen, ezereztan saiatzen da.

Gizonak materia soberan du edo izpiritua du soberan edo, hobeki esan, izpituaren gose da, hau da, betierekotasunaren, edo bestela materiaren gose, ezerezteko etsipenaz. Izpiritua soberan duenean, eta horren gose handiago denean, isuri eta kanporatu egiten du, eta kanporatzean gainerakoenarekin berea gehitzen zaio; alabaina, bere buruaren zikoitz, hobeto kontserbatzea pentsatuz, bere baitan biltzen denean, azkenean guztia galtzen du, eta talentu bakarria jaso zuenarena gertatzen zaio: ez galtzeko, hortzi egin

zuen, eta hura gabe gelditu. Duenari emango zaiolako; baina gutxi besterik ez duenari, gutxi hori ere kenduko.

"Izan zaitezte hobezinak zuen Aita zerukoa den bezala" esan zitzaigun, eta agindu izugarri honek -izugarria Aitaren hobezintasun infinitua ezin erdietsizkoa dugulako- izan behar du gure jokabidearen arau nagusia. Ezinezkora heltzeko irritsik ez duenak ia ez du benetan merezi duen ezer egingarri burutuko. Ezinerako irritsa izan behar dugu, erabateko eta mugagabeko hobezintasunerakoa, eta Aitari honela esan: "Aita, ezin dut: lagun iezaiozu ene ezintasunari". Eta Hark gudan hala egingo du.

Hobezin izatea guztia izatea da, ni izatea eta gainerako guztiak izatea da, gizateria izatea da, unibertso izatea. Eta ez dago gainerako guztia izateko beste biderik guztiari burua ematea baizik, eta guztia guztian izango denean, guztia gutariko bakoitzarengan ere izango da. Apokatastasia ameseta mistiko bat baino gehiago da, ekintza-araua da, balentria goretako faroa.

Hortixek dator moral oldarkor hori, menerakorra, erasokorra, inkisidorea, nahi baduzue. Egiako karitatea oldarkorra baita, eta horren arauz, ene izpiritu beste izpirituetan sartu behar du, ene oinazea beren oinazeen bazka eta kontsolakizuntzat eman, ene kezkarakin beren kezka sortu, eta beren Jainko-gosea ene Jainko-gosearekin larritu. Karitatea ez da gure neba-arrebak materiaren inertzia eta lozorroan kulunkatu eta lo eragitea, haiek izpirituaren ezinegonean eta oinazean iratzartzea baizik.

Kristau doktrinaren katekismoan irakatsi zitzaizkigun miseriak hamalau obrei batzuetan beste bat gehitu beharko litzaieke, loakartua iratzartzekoa. Batzuetan behinik behin eta, bereziki, loakartua leze baten hegalean lo datzanean, iratzartzea askoz ere miseriak osoagoa da, behin hil eta gero hura ehortzea baino, hilek beren hilak ehortz ditzaten utzi behar dugu eta. Ongi esana da "On deritzanak eragingo dik negar" delakoa, eta karitateak negar eragin ohi du. "Hilduratzen ez duen maitasunak ez du jainkozko izen hori merezi", zioen frai Thomé de Jesus portugaldar apostolu suharrak (*Trabalhos de Jesus*, lehen zatian), jakulatoria honen egileak: "O, su amaigabea, o maitasun betierekoa, non besarkatu, non luzatu eta erretzeko bihotz asko ez badituzu, negar egiten duzun hori!". Hurkoa maite duenak bihotza erretzen dio, eta bihotzari, erretzen den egur hezeak bezala, kexak irten eta negarrak darizkio.⁵⁶

Eta hori egitea eskuzabaltasuna da, inertzia eta nagikeria garaitzen direnean jalgitzen diren bertute ama bietako bat. Miseria gehienak izpirituzko zikoizkeriatik datozkigu.

Oinazerako erremedioa, esan genuenez, kontzientzia inkontzientziaren aurka jotzea alegia, ez da inkontzientzian murgiltzea, kontzientziara igon eta gehiago sufritzea baizik. Oinazearen gaitza min handiagorekin, oinaze are goragoarekin sendatzen da. Arimaren zauriari ez zaiok opiorik jarri behar, gatza eta ozpina baizik, lo dagianean eta jadanik minik senti ez dezaanean, orduan ez haizateke eta. Eta izan beharra dago. Ez itxi, beraz, begiak esfinge larrigarriari; aitzitik, so egiozue aurpegira, eta utziozue har zaitzaten, eta bere ehun mila hortz pozoitsutako ahoan hausnar eta irents zaitzaten. Ikusiko duzue orduan, irentsiak izan eta gero, nolako oinaze zapoetsua.

Eta honetara praktikan elkarri zerbait gainjartzeko moralaren bidez joaten da. Gizonek batzuek besteen gainean jartzen saiatu behar dute, beren izpirituak elkarri ematen, arimak elkarri zigilatzen.

Zer pentsa ematen du batzuek kristau moralari esklabuen morala deitu izanak. Nortzuek? Anarkistek! Anarkismoa bai esklabuen morala, esklabuak ez bestek kantatzen baitu askatasun anarkikoa. Anarkismoa ez! *panarkismoa* baizik; "Ez Jainkorik ez ugazabarik" delako horren orde, guztiok Jainko eta ugazaba, guztiok jainkotzen ahaleginduz, hilezkortzen. Eta horretarako, gainerakoak meneratu behar.

Eta meneratzeko hainbat modu dira! Batzuetan, pairakorki, itxuraz bederen, konplitzen da bizi-lege horrekin. Ingurunera ekantzea, imitatzea, norbera besteren lekuan jartzea,

kidetasuna, azken buruan, espeziearen batasunaren agerrera bat izateaz gain, norbera hedatzeko, beste bat izateko modua ere bada. Garaitua izatea edo, gutxienez, garaiturik agertzea, maiz garaitzea da; besterena hartzea harengan bizitzeko modu bat da.

Eta, izan ere, meneratzea esatean, ez dut horrekin tigrearen antzera esan nahi. Meneratu, azeriak ere egiten du maltzurki, eta erbiak iheska, eta sugedorriak bere pozoiaz, eta eltxoak bere txikitasunaz, eta txipiroiak bere tintaz ingurua ilundu eta ihes egitean. Eta ez bedi inor honegatik eskandaliza, guztion Aitak berak, tigreari erasokortasuna, erpeak eta ahutzak eman zizkionak, azeriari maltzurkeria eman baitzion, erbiari zango lasterrak, sugedorriari pozoia, eltxoari txikitasuna eta txipiroiari bere tinta. Eta nobletasuna ez datza erabiltzen diren armetan, espezie bakoitzak, eta banako bakoitzak ere, bereak baititu, arma horiek erabiltzen dituen eran baizik eta, batez ere, norberak zertarako darabiltzan, helburuan.

Eta garaitzeko armen artean badira pazientzia eta etsipen grinatsuenak ere, ihardueraz eta lehenagoko irrikaz beteak. Gogora ezazue John Milton borrokalari handiaren, kezkatzaille puritano bikainaren soneto apart hura, Cromwell-en jarraitzaile eta Satanen kantatzailearena, bere burua itsu ikustean, bere argia jada itzalirik ikusi eta beregan talentu hura, ezkutatzean heriotza zekarkiona, alferrekotzat jotzean, Pazientziari honela esaten entzun zionarena: "Jainkoak ez du gizakumeren obrarik ez eta haren dohainik ere behar; bere uztarri biguna ongienik daramatenek, horiexek zerbitzatzen dute hobekien; horien egoera erregetarra da; milaka dira haren seinalera abiatzen direnak, itsasoak eta lehorrak atsedenek gabe zeharkatuz; baina egonean eta begira daudenek ere zerbitzatzen dute".

They also serve who only stand and wait. Bai, haren begira baino ez daudenek ere zerbitzatzen dute; baina soilki Harengan hilezkortzeko irrikaz beterik haren begira grinatsuki, gosez beterik daudenean.

Eta gainean jarri beharra dago, pazientziatz besterik ez bada ere. "Nire edalontzia txikia da, baina neure edalontzitik edaten dut", zioen zikoitzen herriko poeta berekoi batek. Ez, nire edalontzitik guztiek edaten dute, guztiek hartatik edan dezaten nahi dut; ematen diet, eta nire edalontzia hazi egiten da, hartatik edaten dutenen kopuruaren arauera, eta guztiek, hartan beren ezpainak ezartzean, han zerbait uzten dute beren izpirituarenik. Eta besteen edalontzietatik ere edaten dut, haiek niretik edaten duten bitartean. Izan ere, zenbat eta neure buruarenago eta neruarenago izan, are besteenago naiz eta; neure buruaren betetasunetik neure nebabengana isurtzen naiz, eta haiengana isurtzean, haiek enegan sartzen dira.

"Izan zaiteze hobezinak, zuen Aita bezala", esan zitzaigun, eta gure Aita hobezina da Bera delako, eta Beragan bizi, izan eta mugitzen diren bere umeetatik bakoitza ere delako. Eta hobezintasunaren helburua guztiok gauza bakarra izatea da (*Joanes XVII, 21*), guztiok gorputz bat Kristorengan (*Errom. XII, 5*), eta azkenean, gauza guztiak Semearen menea loturik, guztia lotu zionaren menea Semea bera lot dadin, Jainkoa guztia guztiengan izateko. Eta hauxe da Unibertsoa kontzientzia izatea; egizue Natura elkarte, eta gizarte. Eta orduan Jainkoari Aita deitu ahal izango zaio aho betean.

Badakit, etika zientzia dela diotenek, azaltzen ari naizen hau guztiau erretorika hutsa dela esango dutela; baina nork bere mintzaira eta bere grina izaten du. Hau da, honelakorik izan baina grinarik ez duenari, zientzia izateak ez dio ezertarako balio.

Eta erretorika honen bidez adierazten den grinari, zientzia etikodunek egotismoa deitzen diote, eta egotismo delako hori egoismoaren, izpirituzko zikoizkeriaren, hots, burua emanez, iraunerazten saiatu beharrean, norbere burua kontserbatu eta aurrezteko bizioaren aurkako egiazko erremedio bakarra da.

"Ez hadi izan, eta den guztiak baino gehiago ahalko duk" zioen gure frai Juan de los Angelesek bere *Diálogos de la conquista del reino de Dios* -eko elkarriketa batean (III.

Elk., 8); baina zer esan nahi du ez hadi izan delako horrek? Ez ote du esan nahiko, paradoxaz, mistikoengan maiz gertatzen den bezala, hitzez hitz harturik eta lehen irakurkeraz esaten duenaren alderantzizkoa? Ez ote da paradoxa neurgaitza, hobesanez, kontrazentzu tragiko handia, menekotasunaren eta geldikortasunaren moral gutzia? Monastegiko morala, huts-hutsik monastegikoa, ez al da absurdua? Eta hemen monastegiko morala kartuxako bakartiarenari esaten diot, eremutarrarenari, mundutik iheska -agian hura bere barruan eramanez- bakarrik eta Jainko halaber bakar eta bakarti batekin bakarka bizitzeko alde egiten duenarenari; moral horri, eta ez, albitarren bihotzak erretzearen, Proventza zeharkatzen duen domikutar inkisidorearenari.

"Egin beza guztia Jainkoak!", esan dezake norbaitek; baina gizona besoak gurutzaturik geratzen denean, Jainkoa lotara joaten da.

Kartuxako moral hori eta beste moral zientifikoa, zientzia etikotik ateratzen dutena -oi, etika, zientziatzat! etika arrazional eta arrazionalista! Pedantekerien pedanteria eta dena da pedanteria!- horixe bai izan daiteke egoismo eta bihotz hoztasuna.

Bada Jainkoarekin bakartzen dena dioenik, horrela bere burua hobeki salbatzeko eta hobeki berrerrosia izateko, baina berrerospenak taldekoa izan behar du, errua ere halakoxea da eta. "Erljiotasuna orotasun-mugaketa da, eta honez landa den guztia zentzuen engainua da, eta horregatik kriminalik handiena, sakonean, errugabea eta gizon ongilea da, saindua". Horrela Kierkegaard (*Afsluttende* etab., II, 11, IV. kap. II. atal. A).

Eta, bestaldetik, ulertzekoa al da norbaitek beste bizitza, betierekoa, irabaztearen, honi, denborazkoari, uko egin nahi izatea? Beste bizitza ezer izatekotan, oraingo honen segida izango da, eta honexen segida aski edo gutxi araztu gisa baizik ez du gure irrikak bururatzen, eta horrela baldin bada, denborazko bizitza hau nolakoa, betierekoa ere halakoa izango da.

"Mundu hau eta bestea senar bakarraren bi emazte bezalakoak dira, batarekin atsegina baldin bazara, bestea bekaizkor jartzen duzu", dio Windelband-ek aipatzen duen arabiar pentsalari batek ("Das Heilige", *Präludien*-eko II. lib.); baina horrelako pentsamendua ezin izan da jalgi, borroka emankorrean, kontraesan praktikoa, bere izpirituaren eta munduaren arteko gatazka tragikoa konpontzen jakin ez duenagandik besterik. "Betor guregana zure erresuma", erakutsi zigun Kristok bere Aitari eskatzen, eta ez "Goazen zure erresumara", eta hasierako kristau sineskeren arauera, betiereko bizitza lur honetantxe bete beharko zen, eta bertokoaren segida moduan. Gizon egin ginen, eta ez aingeru, geure zoriona bizitzaren bidez bila genezan, eta kristau fedearen Kristoa ez zen aingerutu, gizatu baizik, gu berrerosteko, egiazko eta benetako gorputza hartuz, eta ez itxurazkoa. Eta fede berberorren arauera, aingeruek, bai eta gailurrekoenek ere, Ama Birjina adoratzeko dute, lurtar Gizateriaren sinbolo gorena. Hortaz, ideal aingerutarra ez da ideal kristaua eta, noski, gizatiarra ere ez, eta ezin izan daiteke gainera. Bestalde, aingerua zerbait neutroa da, sexu eta sorterririk gabea.

Ezin senti dezakegu beste bizitza, betiereko bizitza, honez gero zenbait aldiz errepikatua dudanez, aingerutar behakuntza-bizitza gisa; ekintza-bizitza izan behar du. Goethek zioenez, "Gizonak hilezintasunean sinetsi behar du; horretarako eskubidea du, izaerarekin bat datorkiona". Eta honako hau gehitzen zuen: "Gure biziraupenaren komentzimendua ihardueraren kontzeptutik ilkitzen zait. Neure azkeneraino etengabeki ihardunean ari banaiz, Natura beharturik dago -so ist die Natur verpflichtet- niri bestelako existentzi era bat eskaintzera, nire oraingo izpirituak jada gehiagorik ezin jasan dezakeenez gero". Alda ezazue Natura hitza, hor Jainkoa jarriz, eta kristau izaten dirauen pentsamendua izango duzue, Elizaren lehenbiziko Aitek ez baitzuten sinesten arimaren hilezintasuna dohain naturala zenik -hau da, zerbait arrazionala- Jainkoaren graziazko dohaina baizik. Eta graziazkoa, barrenean, justiziazkoa izaten da, justizia,

naturala barik, jainkozkoa eta graziatzkoa baita. Eta Goethek hau eranstean zuen: "Betiereko zorionarekin ez nuke ezer hasten jakingo, hark zeregin berriak eta gaintzeko zailtasun berriak eskainiko ez balizkit". Eta horrela da: behakuntzazko alferkerian zoriontasunik ez.

Baina, ez al du inolako justifikaziorik moral eremutarrak, kartuxakoak, Tebaidakoak? Ezingo da esan, agian, salbuespenezko tipo horiek kontserbatu beharra dagoela besteentzako betiko eredu gisa balio izan dezaten? Ez al dituzte gizonek lasterketa-zaldiak hazten, bestelako zereginetan erabiltzeko alferrekoak, baina odolaren garbitasuna gorde eta gurdi- eta zela-zaldi bikainen guraso izaten direnak? Ez al dago, apika, luxu etikoa ere, gutxienez bestea bezain justifikagarria? Baina, bestaldetik, hau ez ote da estetika, eta ez morala eta are gutxiago erlijioa? Erdi Aroko monastegiko behakuntza-ideal hura, erlijiosoa eta etikoa ere izan barik, ez ote dateke, berez, estetikoa? Azken finean, bakarti horien artean Jainkoarekiko beren bakarkako bakarriketak kontatu dizkigutenek betierekotzeko obra egin dute, eta besteen arimetan sartu dira. Eta horrexekin bakarrik, klaustroak Eckhart bat, Suso bat, Tauler bat, Ruysbroek bat, Juan de la Cruz bat, Caterina da Siena bat, Angela Folignoko bat, Teresa de Jesus bat eman ahal izan dizkigunez gero, klaustroa justifikaturik dago.

Baina gure espainiar Ordenak, batez ere, hauek dira: Predikariena, Domingo de Guzmán-ek ezarria, heresia erazteko lan erasokorra egiteko; Jesusen Konpainia, munduaren erdian jarririko milizia, eta horrekin guztia esanik dago; Eskolapioena, irakaskuntzaren obra halaber erasokorra egitekoa... Esango zait, egia, Karmeldarren Erreforma ere, Teresa de Jesusek bultzaturiko behakuntza-Ordena, obra espainiarra izan zela. Bai, espainiarra izan zen, eta hartan askatasuna bilatzen zen.

Askatasun-antsiak, barruko askatasunarenak zeramatzen, eraman ere, Inkisizio-garai uher haietan arima hautatuak klaustrora. Gartzelaratu egiten ziren askeago izateko. "Ez al da gauza polita Done Joseperen moja gaixo bat lur osoaz eta elementuen jaun eta jabe izatera heldu ahal izatea?", zioen bere *Bizitza*-n Dona Teresak. Askatasun-antsia paulotarra zen, kanpoko legea gaintetik astintzekoa, hura oso gogorra baitzen eta, frai Luis de León maisuak zioenez, aski buruhandia orduan.

Baina askatasunik lortu al zuten horrela? Oso zalantzazkoa da hura lortu izana, eta gaur egun ezinezkoa. Egiazko askatasuna ez baita kanpoko legea norbere gaintetik astintzea; askatasuna legearen kontzientzia da. Askea ez da legea bere gaintetik astintzen duena, hartaz jabetzen dena baizik. Askatasuna munduaren erdian bilatu behar da, legea hortxe bizi baita, eta legearekin batera, errua, haren umea. Askatu, errutik egin behar da, hau talde osoarena da eta.

Munduari, bera meneratzeko, uko egin beharrean -nork ez dazagu Ordena erlijiosoek meneratzeko duten talde-sena, berorien kideek munduari uko egin arren?-, mundua meneratzea bilatu beharko litzateke, hari uko ahal izateko. Ez pobreziaren eta menekotasunaren bila ibili, aberastasuna bilatzea baizik, horrela hura giza kontzientzia handitzen enplegatzeko, eta boterearen bila aritu, beragaz helburu berbererako baliatzeko.

Gauza kuriozkoa da fraideek eta anarkistek elkarren aurka borrokatzea, barrenean moral berbera profesatu eta elkarrekin hain ahaidetasun hurbila izanik. Egia esan, anarkismoa nolabaiteko fraidego ateista da, eta etika edo ekonomia edo gizarte arlokoa baino gehiago, erlijio eremuko doktrina da. Batzuk gizona, jatorrizko bekatuaz, gaizto jaio eta gero graziak ontzen duelako ustetik, holakotzen badu behintzat, abiatzen dira, eta besteak on jaio eta gero gizarteak gaiztotzen duelakotik. Eta azken buruan, gauza batak zein besteak berdin dio, bietan gizabanakoa gizartearen aurka jartzen baita, horren aurrekoa balitz bezala, eta beraz, horren ondoan bizirik iraun beharko bailuen. Eta biak klaustroko moralak dira.

Eta errua talde osoarena izateak ez du balio izan behar, bera neure gainetik kendu eta besteen gainera astin dezadan, besteen erruak, guztienak, neure gainean kargatzeko baizik; ez neure errua hedabanatu eta erru orokorrean itotzeko, erru orokorra neuretzeko baizik; ez neure errua inorenganatzeko, guztiena, barruratuz, neure baitaratu eta hartaz jabetzeko baizik. Eta bakoitzak haren sendakide izan behar du, besteek egiten ez dutenagatik. Gizartea erruduna izateak gutariko bakoitzaren errua larritzenago du. "Norbaitek egin behar du; baina, zergatik neuk izan behar?, horixe da asmo oneko ahulek errepikatzen duten leloa. Norbaitek egin behar du; baina zergatik ez neuk?, hauxe da gizonaren zerbitzari serioaren oihua, arrisku serioa aurrez aurre hartzen duenarena. Esakune bi hauen artean aurrerabide moralezko mende osoak aurkitzen dira". Horrela esan zuen mistress Annie Besant-ek⁵⁸ bere autobiografian. Horrela esan zuen andre teosofoak.

Gizartea erruduna izateak gutariko bakoitzaren errua larritzenago du, eta errua gehienik sentitzen duena huraxe da errudunena. Kristo, errugabea, erruaren larritasuna inork baino hobeki zekienez gero, nolabaiteko adieran, errudunena zen. Harengan Gizateriaren jainkotasuna kontzientzia mailara heldu zen, eta horrekin, haren erruduntasuna ere bai. Anitzi barregura ematen die saindu oso handiek huts ñimiñoengatik, munduko gizonei irri eragiten dieten hutsengatik, beren buruak bekatari ezin handiagotzat eduki zituztela irakurtzeak. Baina erruaren larritasuna ez da kanpoko egintzaz neurtzen, horren kontzientziaz baizik, eta bati min ezin biziagoa sorterazten dio beste bati ia axaleko kilikilirik ere egiten ez dionak. Eta sainduarengan kontzientzia morala hainbesteko betetasun eta zorroztasunera hel daitekeenez gero, bekaturik arinenak are horzkada handiagoa egin diezaioke gizerhailerik handienari bere krimenak baino. Eta errua beronen kontzientzia izatean datza; epaitzen duenarengan da eta epaitzen duen neurrian. Norbaitek, fede onez egintza bertutetsua egiten duelakoan, egintza kaltegarria burutzen duenean, hori ezin dugu moralki erruduntzat jo, eta beste batek egintza indiferentea, edo agian onuragarria, gaiztoa dela uste duenean, hori betetzen duena erruduna da. Egintza iragaten da, asmoa baina geratzen, eta egintza gaiztoak duen gaiztoena asmoa gaiztotzea da, jakinaren gainean gaizki egitean norbera hori egiten segitzeko prestatzea, kontzientzia iluntzea. Eta ez da gauza bera gaizkia egitea eta gaiztoa izatea. Gaizkiak kontzientzia iluntzen du, eta kontzientzia morala ez eze, kontzientzia orokorra ere bai, hots, psikikoa. Eta, izan ere, kontzientzia goratzen eta zabaltzen duen guztia ona da, eta gaiztoa beheratzen eta murrizten duena.

Eta hemen, beharbada, Platonek zioenez, Sokratesek galdetzen zuen hura sar daiteke, hots, ea bertutea zientzia ote den. Ea bertutea arrazionala ote den galdetzeak bezainbeste balio duena.

Etikazaleek, morala zientzia dela diotenek, gogoaren itzulinguru hauek guztiok irakurtzean "Erretorika, erretorika, erretorika!" esango dutenek, uste izango dute, iruditzen zaidanez, bertutea zientziaren bidez lortzen dela, ikasketa arrazionalaz, eta matematikak ere gu hobek izaten laguntzen gaituela. Ez dakit, baina nik sentitzen dut bertutea, erlijiotasuna, inoiz ez hiltzeko irrika bezala -eta hori guztia funtsean gauza bera da- grinaz lortzenago dela.

Baina, grina, zer da? esango zait. Ez dakit; edo, hobeki esan, oso ongi dakit, hura sentitzen dudalako, eta sentitzen dudanez gero, ez dut definitu behar. Are gehiago: beldur naiz, definitzera heltzen banaiz ez ote naizen bera gehiago sentitu eta eduki gabe geratuko. Grina oinazea bezalakoa da, eta oinazeak bezala, bere objektua sortzen du. Errazagoa du suak erregaia aurkitzea, erregaiak sua baino.

Honek hustasun eta sofisteria iruditu behar du, ondotxo dakit. Eta grinaren zientzia ere badela esango zait, eta arrazoimena eta bizitza esfera moralean bateratzen direla.

Ez dakit, ez dakit, ez dakit... Eta agian horiek, norekin borrokatu ahal izateko, neronek asmatzen ditudan gezurrezko aurkari horiek, argiago, xehekiago eta arrazionalago diotena bera esaten ari naiz neu ere, uherrago baina. Ez dakit, ez dakit... Baina haien gauzek izoztu egiten naute eta atxekimenduzko hustasunaren zantzua dakarkidate.

Eta lehengo berera berriro itzuliz, bertutea zientzia al da? Zientzia bertute al da? Izan, bi gauza ezberdin dira eta. Bertutea zientzia izan daiteke, ongi ari izateko zientzia, horregatik beste edozein zientzia bertute izan gabe. Zientzia Machiavellirena da, eta ezin esan daiteke haren *virtú* hura beti bertute morala denik. Gauza jakina da, gainera, adituenak eta ikasienak ez direla onenak izaten.

Ez, ez, ez; fisiologiak ez du digeritzen irakasten, ez logikak pentsatzen, ez estetikak edertasuna sentitzen edo adierazten, ez eta etikak ona izaten ere. Eta hipokrita izaten irakasten ez badu, gaitzerdi; zeren pedanteria, logikarena, zein estetikarena, zein etikarena izan, funtsean, ez baita hipokrisia besterik.

Baliteke arrazoimenak zenbait bertute burges irakastea, baina ez du ez heroirik ez saindurik egiten. Sainduak ongia ongiagatik beragatik ez baina Jainkoarren, betierekotzearen egiten baitu.

Beharbada, bestalde, kultura, hau da, Kultura -oi kultura!-, filosofoen eta zientzilarien obra, batez ere, ez dute ez heroiek ez sainduak egin. Sainduak arreta gutxi egin baitiote giza kulturaren aurrerapenari; eta are ardura handiagoa izan zuten berekin bizi zirenen banakako arimen salbazioaz. Nolako esangura du, adibidez, giza kulturaren historian, gure Done Juan de la Cruzek, frailetxo gori hark, kulturalki- ez dakit kulturaz -deitu zaion bezala-, Descartesaren parean?

Saindu horiek guztiok, beren hurkoenganako karitate erlijiosoz izekiek, beren buruen eta inoren betierekotzearen gose zirenek, besteren bihotzak erretzera zihoazenez, inkisidore gisa agian, saindu horiek guztiok, zer egin dute zientziaren, etikaren edo aurrerapenaren alde? Haietako inork asmatu al zuen, ba, inperatibo kategorikoa, Königsberg-eko mutilzaharrak asmatu zuen bezala, saindu izan ez zen arren, hala izatea merezi zuenak?

Egun batez inperatibo hori ahotik ia utzi ere egiten ez zuen etikako irakasle handi baten semeak kexaka kontatzen zidan bera izpirituzko idortasun latzean bizi zela, barruko hustasunean. Eta honela esan behar izan nion:

"Kontua da, ene adiskidea, zure aitak izpirituan lurrazpiko ibai bat zeukala, txikitandiko sineskera zaharren korrante fresko bat, hilobiaz bestaldeko esperantzena; eta bere arima inperatibo horrekin edo antzeko zerbaitekin elikatzen zuela uste zuenean, izan ere, haurtzaroko ur haiez elikatzen ari zen. Eta zuri agian bere izpituaren lorea eman dizu, moralezko doktrina arrazionalak, baina ez sustraia, ez lurrazpikoa, ez irrazionala".

Zergatik errotu zen hemen, Espainian, krausismoa, eta ez hegelianismoa edo kantismoa, sistema hauek, arrazionalki eta filosofikoki, hura baino askoz ere sakonagoak izan arren? Bata sustraiekin ekarri zigutelako. Herri edo garai baten filosofi pentsaera, horren lorea, edo nahiago bada, horren fruitua bezalakoa da, kanpoan eta gainean dagoena da; baina lore horrek, edo, nahiago bada, fruitu horrek, bere zukuak landarean sustraietatik hartzen ditu, eta sustraiak, barruan eta lurraren azpian dautzanak, erlijio-sentimenduak dira. Kanten filosofi pentsaerak, germaniar herriaren gogamen-bilakaeraren lore gorenak, sustraiak Lutherren erlijio-sentimenduan dauzka, eta ezinezkoa zatekeen, kantismoak, bere alde praktikoa batez ere, Erreformatik pasatuak ez ziren eta agian pasa ere ezin egin zitezkeen herrietan lur hartu eta lore eta fruiturik ematea. Kantismoa protestantea zen, eta gu espainiarrok, funtsean katolikoak gara. Eta Krause-k hemen sustrai batzuk egin bazituen -pentsa baino gehiago eta uste baino iraunkoragoak-, hori Krauseren sustrai pietistei esker izan da, eta pietismoak, Ritschleken haren historian frogatu zuenez (*Geschichte der Pietismus*) sustrai bereziki katolikoak dauzka, eta

mistizismo katolikoak arrazionalismo protestantearen baitan eginiko eraso edo, hobesanez, bertan izandako irautea esan nahi du. Eta horrela ulertzen da zergatik hemen hainbeste pentsalari katoliko krauseztatu ziren.

Eta espainiarrok katolikoak garenez gero, dakigula edo ez dakigula, nahi dugula ez dugula, eta gutarikoren bat arrazionalista edo ateista izateaz harrotu arren, beharbada gure kulturazko lanik sakonena, eta kultura baino gehiago balio duena, erlijiotasunezkoa -biak gauza berbera ez badira -gure kontzientziapiko, gizarteko edo herriko katolikotasun horretaz argi konturatzen ahalegintzea izan da. Eta hauxe izan da obra honetan egiten saiatu naizena.

Gizonen eta herrien baitako bizitzaren sentimendu tragikoa deitzen dudana, bizitzaren gure sentimendu tragikoa da bederen, espainiarrona eta espainiar herriarena, nire kontzientzian, espainol eta Espainian egina den kontzientzia honetan, isladatzen den bezala. Eta bizitzaren sentimendu tragiko hau, beraren sentimendu katolikoa bera da, katolikotasuna, eta herritarra askoz ere gehiago, tragikoa delako. Herriak komedia gaitzesten du. Pilatok, handikiak, apartekoak, estetak, arrazionalistak, nahiago baduzue, komedia eman nahi eta Kristo irriz aurkeztuz "Hona hemen gizona!" esan zionean, herriak, matxinaturik, oihu egin zuen: "Iltza ezak gurutzean! Iltza ezak gurutzean!". Ez zuen komediarik nahi, tragedia baizik. Eta Dantek, katoliko handiak, jainkozko komedia deitu zuena, inoiz idatzi den tragediarik tragikoena da.

Eta entseiu hauetan espainol baten arima eta horretan espainiar arima erakutsi gura izan dudanez, espainol idazleen aipuak urritu ditut, beste herrietakoenak, agian gehiegi, ugalduz. Izan ere, giza arima guztiak neba-arrebak dira eta.

Eta bada figura bat, figura komikoki tragikoa, giza komediaren tragikotasun sakona agertzen duena, Don Quixote Gure Jaunaren figura, Kristo espainola, hor ene herri honen arima hilezina mamitzen eta ezkututzen delarik. Beharbada, Figura Tristeko Zaldunaren pasioa eta heriotza espainol herriaren pasioa eta heriotza da. Haren heriotza eta haren biztuera. Eta badago filosofia kixotetarra, eta metafisika bat ere badago, bai eta logika eta etika kixotetarrak ere, eta erlijiotasun -erlijiotasun katoliko espainol-kixotetarra ere bai. Obra honetan zirriborratzen, eta areago iradokitzen, saiatu naizen filosofia da, logika hori, etika hori, erlijiotasun hori. Horiek arrazionalki garatu, hori ez; kixotetar eromenak ez baitu logika zientifikorik onesten.

Eta orain, bukatu eta neure irakurleei agur egin baino lehen, europar tragikomedia modernoan Don Quixoteri erreserbatuak dagokion zereginaz mintzatzea geratzen zait.

Dakusagun hori, bada, entseiu hauetarik azkenean.

ONDORIOA
DON QUIXOTE
GAURREGUNGO
EUROPAR
TRAGIKOMEDIAN

Desertuan oihuz dagoenaren boza!

Isaia, XL, 3.

Amaitu beharra daukat, oraingoz bederen, saio hauek, behin ere bukatzen ez den ipuina bihurtzeko mehatxua egiten didate eta. Nire eskuetatik moldiztegira ia inprobisazioz irteten aritu dira, urteetan bilduriko oharren gainean, eta saio bakoitza idaztean aurrekoak kontutan izan gabe. Eta honela barne-kontraesanez beterik joango dira - itxurazkoak bederen- bizitza bezala eta neu bezalaxe.

Ene bekatua, honelakorik izan bada behintzat, besteren aipamenez gehiegi apaintzea izan da, eta horietako askok nolabaiteko bortxaz ekarriak irudi dezakete. Baina beste behin azalduko dut.

Gure Jaun Don Quixote Espainian zehar ibili ondoan, urte gutxi geroago, Jakob Boehme-k zioskun (*Aurora*, XI. kap., 75. §), ez zuela idazten bestek kontaturiko istorio bat, aitzitik, berberak batailan izan behar zuela, eta hartan borroka handian, maiz, gizon guztien antzera, bera ere garaitu beharko zutelarik, eta geroago (83. §) gaineratzen zuen ezen, munduaren eta deabruaren ikuskizun bilakatu behar bazuen ere, etorkizuneko bizitzaz Jainkoaren esperantza geratzen zitzaiola, eta harengan arriskatu nahi zuela, Izpirituari erresistitu gabe. Amen. Eta neuk ere, aleman pentsaeraren Quixote horren antzera, ez diot Izpirituari erresistitu nahi.

Eta horrexegatik jaurtikitzen dut neure boza, desertuan oihuz dagokeena eta, jaurtiki, Salamancako Unibertsitate honetatik egiten dut, bere buruari harrokeriaz *omnium scientiarum princeps* deritzona, eta Carlyle-k ezjakintasunaren gotorlekua deitu zuena, eta frantses literato batek, duela gutxi, Unibertsitate fantasma; Espainia honetatik, "errealitate bilakatzen diren ametsen herria, Europaren defendatzailea, zalduntza idealaren etxea" -honela zioetan gutunez arestian mister Archer M. Huntington-ek, poetak-; XVI. mendean Kontrarreformaren buru izandako Espainia honetatik. Eta hori ongi ezkututzen dute!

Saio hauetarik laugarrenean katolikotasunaren esentziaz mintzatu nintzaizuen. Eta *desesentziaztera*, hau da, Europa deskatolikotzera, Ernazimenduak, Erreformak eta Iraultzak lagundu dute, mundu honez bestaldeko bizitza betikorren ideal haren orde, aurrerapenaren, arrazoimenaren eta zientziaren ideala jarritz. Edo hobeki esan, Zientziarena, letra larriaz. Eta azkena, gaur gehien ageri dena, Kultura da.

Eta XIX. mendearen bigarren erdian, garai ezfilosofiko eta teknizista, berezilaritza miopearen eta materialismo historikoaren menpe, ideal hori bulgarizazio ez baizik arruntkeria zientifikoaren obra batean mamitu zen -edo, hobesanez, sasizientifiko-, biblioteka demokratiko merke eta alderdikoietan asaskatzen zen batean. Horrela zientzia herritartu nahi zen, hark herriagana jaitsi eta haren grinak zerbitzatu behar balitu bezala, herriak harengana igon eta, harengatik, are gorago, irrika berri eta sakonagoetara joan beharrean.

Honek guztionek bultzatu zuen Brunetièrre zientziaren porrota aldarrikatzera, eta zientzia horrek, edo dena delakoak, izan ere, porrot egin zuen. Eta hark esebetetzen ez zuenez gero, etengabe zorionaren bila ari zen; eta ez zuen hura aurkitzen ez aberastasunean, ez jakiturian, ez boterean, ez gozamenean, ez etsipenean, ez kontzientzia moral onean, ez eta kulturaren ere. Eta ezkortasuna heldu zen.

Aurrerazaletasunak, halaber, ez zuen asebetetzen. Aurrera egin, zertarako? Gizonak ez zuen arrazionala askiesten, *Kulturkampf* ez zuen nahikoa; bizitzari azken zertarakoa

eman nahi zion, azken zertarakoa deitzen dudan hau egiazko ? [? ? ? ? ? ?] [? da eta. Eta *maladie du siècle* zorionekoa, Rousseau-rengan jadanik iragartzen zena, eta Sénancour-en *Oberman*-ek inork baino nabariago duena, ez zen eta ez da arimaren hilezintasunean, Unibertsoaren giza zertarakoan fedea galtzea besterik.

Horren sinbologia, horren benetako sinbologia fikziozko izaki bat da, Faust doktorea.

Faust doktore hilezin hau, XVII. mendearen hasieran, 1604ean, Ernazimenduaren eta Erreformaren bitartez eta Christopher Marlowe-ren ministraritzaz jadanik ageri zaiguna, Goethek berraurkituko duena bera da jada, zenbait ikuspegitan berezkoagoa eta freskoagoa izan arren. Eta haren ondoan Mephistophilis ageri da, eta horri Faustek honako hau galdetzen dio: "Zer onik eginen dio ene arimak hire jaunari?" Eta erantzunez diotso: "Bere erresuma hedatzea". "Eta hori al da gu honela tentatzeko arrazoia?" galdetzen dio berriro doktoreak, eta izpiritu gaiztoak erantzun: *Solamen miseris socios habuisse doloris*, gaizki itzulirik, gaztelaniaz honela esaten duguna bera: "Askoren gaitza, ergelen kontsolamendua". "Gu non garen, hortxe da infernua, eta infernua den lekuan, hantxe izan behar dugu beti", gehitzen du Mephistophilisek; eta horri Faustek horrelako infernua bere ustez alegia besterik ez dela gaineratzen dio, eta mundua zeinek egin zuen galdetzen dio. Eta doktore tragiko honek, gure torturaz torturatuak, azkenean Helena aurkitzen du, berori, Marlowek agian susmatzen ez bazuen ere, birjaiotzen ari zen Kultura besterik ez zena. Eta bada hemen, Marloweren *Faust* honetan, eskena bat Goetheren *Faust* -en bigarren zatia osoak beste balio duena. Faustek Helenari honela diotso: "Helena gozoa, egin nazan hilezin mosu batez (eta mosu ematen dio). Honen ezpaineak arima zurruputzen didate; ikusan nola ihesi doan! Hator Helena, hator; itzul iezadan arima! Hemen geratu nahi dut, zerua ezpain hauetan baita, Helena ez den guztia zaborra da eta".

Itzul iezadan arima! Hona hemen Fausten oihua, doktorearena, Helenari behin mosu eman eta gero, betiko galtzera doanean. Ez baita inolako Margarita amarrugaberik jatorrizko Faust hura salba dezakeenik. Salbazioaren kontu hori Goetheren imintzioa izan zen. Eta nork ez du bere Faust ezagutzen? Faust gurea, filosofia, jurisprudenzia, medikuntza, eta teologia ere estudiatu zituena, eta deus ezin jakin dezakegula soilki ikusiz, baserri alde zabalera ihes egin nahi izan *-hinaus ins weite Land!-*, eta beti ongia eginez beti gaizkia nahi duen indar horren partaidearekin, Mefistofelesekin, topo egin zuen, eta horrek Margaritaren besoetara, herriko jende xumeagana, jakintsuak, galdua zuenagana eraman zuen; baina beragatik burua eskainita, horrexeri esker salbatu zen, fede xumeko herriko jendeak berrerosirik. Baina bigarren parte hori izan zuen, hain zuzen, beste Faust hura Faust anekdotikoa zelako, eta ez Goetheren kategoriko hura, eta berriz ere Kulturari, Helenari burua eskaini eta harengan haur bat, Euforion, sorterazi ziolako, hori guztiori, koru mistikoen artean, betiereko emetasuna delakoarekin amaituz. Euforion gizaixoa!

Eta Helena hau Menelao ilehoriaren emaztea da, Parisek ebatsi eta Troiako gerra ekarrerazi zuena, eta hargatik troiar zaharrek zioten ez zela haserre eragitekoa aurpegikeraz jainkosa hilezinen hain antz ikaragarria zuen emakume hargatik borroka egitea. Usteago dut, halere, Fausten Helena hori beste bat zela, Simon aztiari lagun egiten ziona, hark jainkozko adimena zela zioena. Eta Faustek honela esan diezaioke: "Itzul iezadan arima!".

Izan ere, Helenak, bere mosuekin, arima ateratzen digu. Eta nahi eta behar duguna arima da, eta arima ukigarri eta substantziakoa.

Baina Ernazimendua, Erreforma eta Iraultza etorri ziren, aldean Helena zekarkigutela edo, hobeki esan, horrexek bultzaturik, eta oraingoan Kulturaz eta Europaz mintzo zaizkigu.

Europa! Nozio lehendar eta hurbilki geografikoa magiazko arteaz kategoria ia metafisiko bihurtu digute. Nork ote daki gaur jada, Espainian behinik behin, Europa zer den? Nik *shibbolet*⁵⁹ bat dela besterik ez dakit (ikus nire *Hiru Entseiu*). Eta gure europartzaileek Europa deitzen dutena arakutzen hasten naizenean, maiz iruditzen zait beragandik kanpoan periferiako gauza asko gelditzen dela -Espainia noski, Ingalaterra, Italia, Eskandinavia, Errusia...- eta erdialdekoa besterik ez dela, Frantzia eta Alemania alegia, berorien eranskin eta banaketekin.

Hau guztiau ekarri digute, diot, Ernazimenduak eta Erreformak, itxurazko barne-gerran bizi izandako anaia bikiak. Italiar ernazituek, guztiak sozinotarrak; humanistek, Erasmo buru zutelarik, Luther fraide hura barbarotzat eduki zuten, bere oldarra klaustrotik atera zuen eta, Brunok eta Campanellak handixek atera zuten bezala. Baina barbaro hura haien anaia bikia zen; haien aurka borrokatzean, haien alde egiten zuen borroka, etsai komunaren kontra. Horrek guztiorrek Ernazimendua eta Erreforma ekarri dizkigu, eta gero Iraultza, haien umea, eta Inkisizio berria ere bai: zientziarena edo kulturarena, haien ortodoxiapean errendatzen ez direnen aurka irrigarritasuna eta mesprezioa armatzat erabiliz.

Galileok Toscanako duke nagusiari Lurraren mugikortasunari buruzko bere eskribua bidaltzean, nagusien erabakiak obeditzea eta sinestea komeni dela ziotson, eta eskribu hura "poesiatzat edo, agian, amestzat" zeukala "eta horrelakotzat har beza berorren gorentasunak". Eta beste batzuetan "kimera" eta "matematikazko burukeria" deitzen dio. Eta horrela, nik, entseiu hauetan, -zertarako uka?- Inkisizioaren, baina gaurkoaren, Inkisizio zientifikoaren beldurrez, poesia, amets, kimera edo burukeria mistikotzat aurkezten dut barrenenetik jalgitzen zaidana. Eta Galileorekin *Eppur si muove!* diot neuk ere. Baina beldur horregatik besterik al da? Ez horixe!; beste Inkisizio tragikoagoa baitago, gizon moderno, ikasi eta europarrak -ni neu, nahi eta nahi ez, horrelakoa izanik- barruan daramana. Badago irrigarritasun are ikaragarriagorik, nork bere buruaren aurrean eta berekiko duen irrigarritasuna. Ene arrazoimena da, ene fedez mespreziaz burlatzen dena.

Eta hementxe jo behar dut neure Jaun Don Quixotegana, irrigarritasunaren aurka jartzen eta hura garaitzen ikasteko, berak beharbada -batek jakin!- ezagutu egin ez zuen irrigarritasuna, hain zuzen.

Bai, bai; nola ez die ene arrazoimenak irribarrerik egingo eraiketa sasifilosofiko, mistiko izan gurako, eta diletantezko hauei, horietan era guztietako gauzarik egonik, salbu pazientziatzko ikerketa, objektibotasun eta metodo... zientifikorik? Eta, halere... *Eppur si muove!*

Eppur si muove!, bai! Eta ni diletantismoari natxekio, pedante batek filosofia *demi-mondaine* deituko lukeenari, pedantekeria berezituaren aurka, filosofo profesionalen filosofiaren kontra. Eta batek jakin... Aurrerakadak barbaroagandik etorri ohi dira, eta ez da deus geldiagorik filosofoen filosofia eta teologoaren teologia baino.

Eta horiek guri Europaz mintzatzea ere! Tibeteko zibilizazioa gurearen parekidea da, eta gu bezala desagertzen diren gizonei bizierazi eta bizierazten die. Eta zibilizazio ooren gain *Eklesiastes*a geratzen da zintzilik, eta "horrela hiltzen da jakintsua bezala ezjakina ere" (II, 3).

Gure herriko jendeen artean "Zer moduz?" edo "Zelan zabilta?" galdera arruntari erantzun miresgarria egin ohi zaio, honela erantzuten duena: "Bizi!..." Eta, izan ere, honela da; bizi egiten da, besteak bezainbeste bizi gara. Eta, zer gehiago eska daiteke? Eta nork ez du kopla hura gogoratzen?

*Cada vez que considero
que me tengo que morir,
tiendo la capa en el suelo*

*y no me hartó de dormir*⁶⁰

Baina ez, lorik ez, amets egitea baizik; bizitza amestu, bizitza ametsa da eta.

Gure artean, espainolon artean, halaber, kontua denbora ematea dela, hau da, denbora pasatzea esaera bihurtu da aspaldi honetan,. Eta, izan ere, denbora egin egiten dugu bera emateko⁶¹. Baina bada beste zerbait beti ere denbora pasatzeak -halako jarrera estetikoak markatzen duen formula, berau- bezainbat edo are gehiago kezkatu gaituena, hots, betierekotasuna irabaztea, jarrera erlijiosoaren formula. Eta kontua da arlo estetiko eta ekonomikotik arlo erlijiosora salto egiten dugula, logiko eta etikoaren gainetik; artetik erlijiora.

Gure elaberrigile gazte batek, Ramón Pérez de Ayalak, bere oraintsuko elaberrian, *La pata de la raposa*-n⁶², heriotzaren ideia lakioa dela diosku; izpiritua, aldiz, azeria, hau da, halabeharraren segadei burla egiteko bertute maltzurra, eta honela gehitzen du: "Lakioan harrapatuta, gizon ahulak eta herri ahulak lurrean dautza...; izpiritu sendoek eta herri indartsuek arriskuan harridura argikusgarria hartzen dute, bat-batean bizitzaren neurritz gaineko edertasunaz jabetzen dira, eta hasierako arintasun eta erokeriari betiko uko eginda, lakiotik irteten dira giharreak ekintzarako teink, eta arimaren indarrak, oldarez, ahalmenez eta eraginkortasunez, ehun aldiz gehiturik". Baina dakusagun: gizon ahulak..., herri ahulak..., izpiritu sendoak..., herri indartsuak..., zer ote da hori? Nik ez dakit. Jakin uste dudana hau da, gizabanako eta herri batzuek ez dutela oraindik heriotzaz eta hilezintasunaz benetan pentsatu; ez dituzte horiek sentitu, eta beste batzuek haiez pentsatzeari utzi egin diotela edo, hobeki esan, ez dituztela jadanik haiek sentitzen. Eta ez dut uste adin erlijiosotik iragan ez diren gizonak eta herriak horregatik harro senti daitezkeenik.

Bizitzaren neurritz gaineko edertasuna ederki dago idazteko, eta badira, izan ere, etsi eta hura den bezala onartzen dutenak, eta lakioa delako hori ez dela problema sinesterazi nahi digutenak ere bai. Baina jadanik Calderón-ek berak esan zuen (*Gustos y disgustos no son más que imaginación*, I. ek. IV ag.) ezen

No es consuelo de desdichas,
es otra desdicha aparte,
querer, a quien las padece,
persuadir que no son tales⁶³

Eta, gainera, "bihotz bati ez dio beste bihotz batek besterik hitz egiten", Frai Diego Lizarrakoaren arauera (*Vanidad del mundo*, XXI. kapitulua).

Duela gutxi, eskandalizatu itxura egin duen norbait izan da, nik, espainoloi geure ezintasun zientifikoa aurpegiratzen zigitenei erantzutean, hemen argi elektrikoak argitzen duela eta hemen lokomotorea badabilela sortu ziren lekuan bezain ongi, eta logaritmoak ideatu ziren herrian bezala haiez baliatzen garela gu ere oharterazi ondoan, harako hura esan nuelako: "Bestek sor dezala!". Uko egiten ez diodan paradoxazko adierazpena. Joseph de Maistre kondeak, Errusiako hezkuntza publikoa dela eta, Rasumovsky kondearentzako gutun miresgarri haietan, errusiarrei, gure antzekoei, egiten zizkien aholku zuhur haietako asko geureganatu beharko genituzke espainolok, honela esaten zionean, nazio batek, zientziarako eginik ez dagoela eta, ez duela horregatik bere burua gutxietsi behar; erromatarrek ez zutela arteaz askorik ulertu eta matematikari bat ere ez zutela izan, eta horrek ez ziela, halere, eragotzi beren eginbeharra betetzen, eta sasiakintsu faltsu eta harro aldra horrez, gustuen, moden eta atzerriko hizkuntzen idolatra horiez, mespreziatzen duten guztia, oro dena, birrintzeko beti prest daudenez, gaineratzen zuen guztia ere bai.

Ez dugula izpiritu zientifikorik? Eta zer, izpirituren bat baldin badugu? Eta ba al daki inork duguna beste horrekin bateragarri den ala ez?

Baina "Bestek sor dezala!" esatean ez nuen esan nahi geldi egoteko zereginaz askietsi behar genuenik, ez. Bestek ekin biezaio geu ere baliatuko gareneko zientziari; guk geureari. Ez da aski nork bere buruaren alde egitea, eraso ere egin behar da.

Baina eraso, tentuz eta zuhurtziaz. Arrazoimenak izan behar du gure arma. Eta, izan, eroaren arma ere bada. Gure ero gorenak, gure ereduak, Don Quixotek, kasko lumadunarekin loturiko zelata erdi itxurako hura bi ganibetadaz birrindu ondoren, "berriz ere hura egiten hasi zen, barruko aldetik burdinazko barra batzuk jarriz, eta horrela haren sendotasunari aski eritziarik, hartaz entseiu berririk egin nahi izan gabe, hura disputatu eta farfaileriazko zelata ezin finagotzat eduki zuen". Eta hura buruan jantzita hilezin egin zen. Hau da, irrigarri gelditu zen. Baina irrigarri gelditzean lortu zuen hilezintasuna Don Quixotek.

Eta hainbeste modu dira irrigarri gelditzeko...! Cournot-ek (*Traité de l'enchaînement des idées fondamentales*, etab., 510. §) honela esan zuen: "Ez zaie printzeei ez eta herriei ere beren hiltzeko ahalbideez mintzatu behar: printzeek ausartkeria hori zoritxarraz gaztigatzen dute; herriko jendea, horretaz, irrigarrikeriaz mendekatzen da. Horrela da, eta horregatik mendearekin bizi beharra omen dago. *Corrumpere et corrumpi saeculum vocatur* (Tacito, *Germania*, 19).

Nork bere burua irrigarri agertzen jakin behar du, eta ez, soilki, besteren aurrean, norbere aurrean baizik. Eta are gehiago orain, gainerako herri landuekiko dugun atzerapenaren kontzientziaz hainbeste berba egiten deneon; orain, geure historia ez dekiguten zenbait ergelek -oraindik egiteko dena, aurretik protestanteen kalumniak horren inguruan bilbatu duena lehenago deseginez- diote ez dugula zientziarik izan, ez arterik, ez filosofiarik, ez Ernazimendurik (hori agian soberan genuen), ez ezer.

Carducci-k, *contorcimenti dell'afannosa grandiosità spagnola* direlakoez mintzo zelarik, (*Mosche cochiere*-n) hauxe utzi zuen idatzirik "Espainiak berak ere, pentsaera-hegemoniarik sekula izan ez arren, bere Cervantes izan zuen". Baina, Cervantes hemen bakarrik, isolaturik, errorik gabe sortu ote zen ba? Halere, ulertzekoa da italiar arrazionalista batek, Espainia bere sorterrian Ernazimenduaren aurka jarri zela gogoratzen duenak, Espainiaz *non ebbe egemonia mai di pensiero* esatea. Eta zer? Ez al zen zerbait, eta kultur arloan zerbait hegemonikoa, Espainiaren buruzagitzapeko Kontrarreforma hura, egitez Erromako zakuraketaz hasi zena, Ernazimendu pagano hartako Aita Saindu paganoen hiriaren aurka probidentziazko gaztigua izanik? Utz dezagun orain Kontrarreforma txarra ala ona izan ote zen; baina ez ote ziren zerbait hegemoniko Loiola eta Trentoko Kontzilioa? Hori baino lehen, baziren Italian kristautasuna eta paganismoa edo, hobesanik, hilezkortasuna eta hilkortasuna, basarkada eta nahaste negargarrian, bai eta Aita Saindu batzuen arimetan ere, eta filosofian egia zen, teologian hala ez zena, eta dena konpontzen zuen *fedea salbatzen du*-elako formulak. Gero, jadanik ez; gero arrazoimenaren eta fedearen arteko borroka garbi eta ageria etorri zen, zientziaren eta erlijioaren artekoa. Eta hori ekartzea, batez ere, espainiar burugogortasunari esker, ez al zen hegemonikoa izan?

Kontrarreformarik gabe, Erreformak ez zion segituko harez geroko ibilbideari; hura gabe, hau, agian, pietismoaren sostengurik ezaz, *Aufklärung* delakoaren, ilustrazioaren, arrazionaltasun belaxka hartan hilko zatekeen. Carlos I.a gabe, Felipe II.a gabe, gure Felipe haundia, dena berdin izango ote zen?

Lan negatiboa, esango du norbaitek. Zer da hori? Zer da negatiboa? Eta zer positiboa? Denboran, beti norabide berean, iraganetik etorkizunera doan lerroa, non da positibo eta negatiboaren artean markatzen duen zeroa? Espainia, zaldunen eta pikaroen herrialde hau -eta guztiak pikaro- Historian gehien kalumniatua izan da, Kontrarreformaren buruzagia izan zelako, hain zuzen. Eta bere harrokeriak herriko plazara, hutsalkerien feriara, bere burua zuritzera irteten eragotzi diolako.

Utz dezagun zortzi mendetan mairuteriaren aurka izan zuen borroka, Europa mahometismotik defendatzen; bere barne-batasunaren lana, Amerika eta Indiak aurkitzea -Espainiak eta Portugalek egindakoa eta ez Colomb-ek eta Gamak- utz dezagun hori eta gehiago, eta ez da gutxi uztea. Ez al da ezer kulturalik hogeitaz sortzea, beretzat ezer erreserbatu gabe, eta indiar emakume jopu gaixoengandik gizon askeak sortzea, konkistatzaileak sortu zituen bezala? Hortik landa, pentsaeraren arloan, ez al da ezer gure mistika? Agian egunen batean hartara itzuli beharko dute, beren arimaren bila, Helenak bere mosuekin hori ebatsi zien herriek.

Baina jakina da, Kultura ideiez eta ideiez baino ez da osatzen, eta gizona ez da haren tresna besterik. Gizona ideiarako, eta ez ideia gizonarentzat; gorputza itzalerako. Gizonaren xedea zientzia egitea da, unibertsoa katalogatzea, Jainkoari hura ordenaturik itzultzeko, duela urte batzuk *Amor y Pedagogía*⁶⁴ neure elaberrian idatzi nuen bezala. Gizona ideia bat ere ez da, dirudienez. Eta azkenean giza leinua biblioteken oinean ahituko da -hazietan biltzen den papera egiteko, oihan osoak moztuta-, museo, makina, fabrika, laborategien pean..., horiek nori uzteko baina? Ez baititu Jainkoak hartuko.

Literatura birsortzaile lazgarri hark, ia guztia gezur hutsa, gure azken kolonia amerikarren galera eragin zuenak, ekinezko lan ixilaz hitz egiteko pedanteria ekarri zigun -hori bai, hura boz goraz aldarrikatuz, ixiltasunaz aldarrikatuz-, eta zuhurtziaz, zehaztasunaz, moderazioaz, izpirituzko sendotasunaz, sinderesiaz, orekatasunaz, bertute sozialez mintzatzeko, batez ere, horiek falta ditugunongan. Literatura barregarri horretan ia espainol guztiok erori ginen, batzuk gehiago eta beste batzuk gutxiago, eta Joaquín Costa artzaespainol sutsu haren kasua ere izan zen, izan dugun europartasun gutxienerako izpirituetako bat bera, gu europartzeko kontua atera eta *cideiatzen* hasiz, bitartean Cid-en hilobia zazpi giltzaz itxi eta ... Afrika konkistatu behar zela aldarrikatuz. Eta nik, hil bedi Don Quixote! oihu egin zuen, eta blasfemia horretatik, zioenaren alderantzizkoa esan nahi zuena -horrela geunden orduan- nire *Don Quixote eta Sanchoen bizitza* jalgi zen eta kixotismorako nire gurkera, berau erlijio nazionaltzat harturik.

Liburu hura cervantisten eta erudituen aurka Quixotea birpentsatzeko idatzi nuen, bizitzarako obra egiteko, gehienentzat letra hila zena eta horrela izaten segitzen zuena. Zer ardura dit Cervantesek han ipini nahi zuenak edo ez zuenak, eta egiaz ipini zuenak? Bizirik dagoena nik hantxe aurkitzen dudana da, Cervantesek jarria izan zein izan ez, nik han ipini, gainipini eta azpipintzen dudana, eta han guztiok ipintzen duguna. Han gure filosofiaren lorratzen bila aritu nahi izan nuen.

Izan ere, gero eta gehiago komentaturik nago, gure filosofia, espainiar filosofia, gure literaturan, gure bizitzan, gure ekintzan, gure mistikan batez ere, urtu eta zirriborraturik dagoela, eta ez filosofi sistemetan. Konkretua da. Ez ote dago bada Goetherengan, esate baterako, Hegelen baitan bezainbat filosofia edo gehiago? Jorge Manriqueren koplak, Erromantzetegia, *Don Quixote, Bizitza ametsa da, Karmel Mendirako Igoera* moduko lanek munduaren intuizioa eta bizitzaren kontzeptua, *Weltanschauung und Lebensansicht*, dauzkate estarian. Eta, izan, gure filosofia hau XIX. mendearen bigarren erdian formulatzeko zaila zen, hura garai afilosofiko, positibista, teknizista, historia hutsezko eta natur zientzietakoa baitzen, hots, garai funtsean materialista eta ezkorra.

Gure hizkuntzak berak, kultur hizkuntza orok bezala, bere filosofia dauka estarian.

Hizkuntza, izan ere, filosofia potentziala da. Platonismoa Platonengan linburtzen den greziar mintzaira da, anitz mendetako bere metaforak garatuz; eskolastika Erdi Aroko latin hilaren filosofia da, hizkuntza arruntekiko borrokan; Descartesengan frantses mintzaira ari da; alemanera Kant et Hegelengan, eta ingelesa Hume eta Stuart Mill-en baitan. Izan ere, filosofi espekulazio guztien abiapuntu logikoa ez da ni-a, ez eta irudikapena -*Vorstellung*- edo mundua ere, hau zentzuetan bat-batean agertzen zaigun

bezala, bitarteko edo historiazko irudikapena baizik, giza eraz landua eta mintzairan, horrexen bidez mundua ezagutzen baitugu, nagusiki eskaintzen zaigun bezala; ez da irudikapen psikikoa, pneumatikoa baizik. Gutariko bakoitza, pentsatzeko, dakiela edo ez dakiela, nahi zein nahi ez, besteek, bere aurrekoek eta ingurukoek, pentsatu dutenetik abiatzen da. Pentsaera ondoretasuna da. Kantek alemanez pentsatzen zuen, eta alemanera itzuli zituen Hume eta Rousseau, hurrenez hurren ingelesez eta frantsesez pentsatzen zutenak. Eta Spinozak, ez al zuen judu-portugaleraz pentsatzen, holanderapean blokeaturik eta horrekiko borrokan?

Pentsamendua aurre-eritzietan datza, eta aurre-eritziak hizkuntzan doaz. Arrazoiak eratzekitzen zion Baconek mintzairari *idola fori*-en anitz errakuntza. Baina ba al dago filosofatzerik aljebra hutsez, edo esperantoz bederen? Avenarius-en liburua irakurri besterik ez dago, esperientzia hutsaren kritikarena *-reine Erfahrung-* gizaurreko esperientzia honena, hau da, esperientzia ezgizatiarrarena, horrek nora eraman gaitzakeen ikusteko. Eta Avenariusek berak, mintzaira bat asmatu behar izan du, eta latindar tradizioaren gainean asmatu du, beren indar metaforikoan esperientzia kutsatzeko eta giza esperientzia sozialezko edukin oso bat daramaten sustraiekin.

Filosofia oro, beraz, barrenean, filologia da. Eta filologiak, eraketa analogikoen lege handi eta emankorraz, zoriari, irrazionalari, absolutuki neurtezinari bere zatia ematen dio. Historia ez da matematika, eta filosofia bera ere ez. Eta, funtsean, zenbat ideia filosofiko ez ote zaizkio zor errima gisako zerbaiti, kontsonante bat jartzeko beharizanari! Kantek berak ere ugari nabari du honelakorik, simetria estetikorik, errimarik.

Irudikapena, beraz, mintzaira bezala, arrazoimena bera bezala -barne-mintzaira besterik ez dena- gizarte- eta arraza-ekoizkina da, eta arraza, izpirituaren odola, hizkuntza da, behiala Oliver Wendell Holmesek, yankiak, esanik utzi eta nik askotan errepikatu dudan legez.

Gure mendebaldeko filosofia Athenasen sartu zen helduarora, bere buruaren kontzientziara helduz, Sokratesekin, eta kontzientzia horretara dialogoaren bidez iritsi zen, gizarte-elkarrizketaz. Eta esangura sakonekoa da, izan, sortzetiko ideien doktrina, ideien balio objektibo eta araugarria, geroago, Eskolastikan, errealismo deitu zenarena, elkarrizketetan formulatua izatea. Eta ideia horiek, errealitate direnak, izenak dira, nominalismoak irakasten zuen bezala. Kontua ez da izenak besterik ez izatea, *flatus vocis*, horiek, zer eta, hain zuzen, izenak izatea baizik. Mintzairak ematen digu errealitatea, eta ez haren bitarteko xume bezala, haren egiazko haragi gisa baizik, horren gainerako guztia, irudikapen mutu edo artikulatugabea, eskeleto besterik ez delarik. Eta horrela, logikak estetikaren gainean dihardu; kontzeptuak adierazpenaren gainean, hitzaren gain, eta ez hautemate gordinaren gainean.

Eta hau maitasunaz ari garenean ere bai. Maitasunak ez du bere burua aurkitzen mintzatu arte, "maite haut" esan arte. Oso intuizio sakonaz Stendhal-ek *La Chartreuse de Parme* bere elaberrian, Mosca kondeari, jelsiaz sumindurik eta Sanseverinako dukesa bere loba Fabrizio-rekin lotzen duen maitasunean gogoeta eginik bere buruari hitz hauek esanerazten dizkio: "Lasaitu beharra dago; manera latzak erabiltzen badituz, dukesa, harrokeriazko ukitu hutsagatik, gai da hari Belgirate-ra jarrartzeko, eta han, bidaiari zehar, zoriak halako hitza ekar dezake, batak besteagana sentitzen dutenari izena emanen diona, eta gero, instant batez, horren ondorio guztiak datozke".

Horrela da: eginiko guztia hitzaz egin zen, eta hasieran hitza zen.

Pentsaera, arrazoimena, hau da, mintzaira bizia, ondoretasuna da, eta Ibn Tufayl bakartia, Guadix-ko arabiar filosofoa, Descartes-en ni-a bezain absurdua. Egia konkretua eta benetakoa, metodiko eta ideala ez dena, *Homo sum, ergo cogito* da. Gizaki sentitzea pentsatzea baino hurragoa da. Baina, bestaldetik, Historiak, kulturaren iharduerak, ez du

bere hobakuntza eta eginetaratze osoa gizabanagoagan ez bada; Historiaren eta Gizateriaren helburua gizon guztiak dira, gizaki bakoitza, gizabanako bakoitza. *Homo sum, ergo cogito: cogito ut sim Michael de Unamuno*. Gizabanakoa Unibertsoaren helburua da.

Eta gizabanakoa unibertsoaren helburua delako hau oso ongi sentitzen dugu guk, espainolok. Ez al zuen Martin A. J. Hume-k esan (*The spanish people* [hitzaurrea]) espainolen barne-begiradazko gizabanakotasuna delako hura, *La España Moderna* aldizkarian argitaratu nuen entseiu batean nik iruzkindua?⁶⁵.

Eta beharbada barne-begiradazko indibidualismo hau berau izan da hemen sistema hertsiki filosofikoak edo, hobeto esan, metafisikoak, jalgitzen utzi ez diguna. Eta hori Suárez gora-behera, horren formazko xehetasunek ez baitute izen hori merezi.

Gure metafisika, ezer izatekotan, metantropika izan da, eta gutarrak, filologoak, edo, hobeto esan, humanistak, adierarik zabalenean.

Benedetto Croce-k (*Estetika*, bibliografi eranskinean) zehaztasunez esan zuen Menéndez y Pelayo idealismo metafisikorantz makurtzen zela, baina bazirudiela beste sistemetik, bai eta teoria enpirikoetatik ere, zerbait onartzen zuela; eta horregatik haren obrak, Croce-ren ustez, -haren *Espainiako ideia estetiko*en *Historia*-z ari zelarik-nolabaiteko zalantza ageri zuen, autorearen ikuspuntu teorikotik; Menéndez y Pelayok, Ernazimenduari uko egin nahi ez zion espainiar humanista berotu gisa, vivismoarena asmatu zuen, Luis Vivesen filosofia, eta beharbada, beste espainol hau ere, hura bezala, ernaziente eta eklektikoa zelako. Eta, izan ere, Menéndez y Pelayok, haren filosofia, egiazki, osorik segurgabea izanik, Bartzelonan, katalan izpiritura itzuliriko eskoziartasunaren berdurkerietan, konpromezurik nahi ez zuen eta osorik konpromezuzkoa zen *common sense* -ko filosofia herrestari izan eta Balmesek hain ederki irudikatu zuen hartan heziak, beti ere barne borroka sendo guztietatik ihes egin zuen eta bere kontzientzia konpromezuekin gatzatu zuen.

Zuzenago ibili zen, ene irudiko, Angel Ganivet, igarmen eta instintu osoaz, gurea senekismoa zela pregonatu zuenean, kordobar estoiko pagano haren filosofia, pentsaeran originaltasunik gabea bai, baina azentuz eta tonuz ezin handiagoa, kristauen artean ez gutxi beretarikotzat eduki zutena. Haren azentua azentu espainola izan zen, latino-afrikarra, ez helenikoa, eta haren oihartzuna -hain gurea zen- Tertuliano harengan ere entzuten da, hark Jainkoa eta arima, gorpuztarrak eta ukigarriak zirela uste baitzuen, bigarren mendeko kristau pentsaeraren Quixote moduko bat izanik.

Baina, beharbada, gure pentsaerako heroia bilatu behar izanez gero, ez genuke haragiz eta hezurrez bizi izandako ezein filosofoarengana jo behar, fikziozko eta ekintzazko izaki batengana baizik, filosofoak oro baino egiazkoagoa bera; Don Quixoterengana alegia. Izan ere, bada kixotismo filosofikoa, noski, baina filosofia kixotetarra ere bai. Besterik al da ba, funtsean, konkistatzaileen filosofia, kontrarreformatzaileena, Loiolakoarena eta, batez ere, jadanik pentsaera abstraktuaren mailan, baina sentituz, gure mistikoena? Zer ote zen ba Done Juan de la Cruz-en mistika, sentimenduaren jainko-erako zalduntza ibiltaria besterik?

Eta Don Quixoteren ezin esan daiteke, hertsiki, idealismoa zenik; ez baitzuen ideiegatik borrokatzen. Izpiritualismoa zen hura; borroka izpirituagatik egiten zuen eta. Bihurreraz ezazue Don Quixote erlijio-espekulaziora, berak ere behin, baserriar batzuek beren herriko erretaularako zeramatzatzen erliebezko imajina landu haiek aurkitu zituztenean, amets egin zuen bezala⁶⁶, eta egia betierekoen meditaziora, eta ikusazue bera arimaren gau ilunaren erditik Karmelo Mendira igoten, handik goitik, tontorretik, sartzen ez den eguzkia irteten ikusten, eta Done Joanek Patmosen lagun zuen arranoa bezala, ikusazue bera eguzkiari aurrez aurre begiratzen eta haren ilununeak ikertzen, Atheneak Olympoan lagun zuen hontzuriari -begi glaukoak, hau da, hontzezkoak,

dituenari, itzaletan dakusan baina eguerdiko argiaz itsutzen denari- bere begiekin itzalen artean bere kumeentzako harrapakina bilatzen utziz.

Eta espekulaziozko edo meditaziozko kixotismoa, praktikoa bezala, eromena da; eromena, gurutzearen eromenaren umea. Eta horrexegatik mespreziatzen du arrazoimenak. Filosofiak, sakonean, gaitzetsi egiten du kristautasuna, eta ongi frogatu zuen hori Marco Aurelio otzanak.

Kristoren tragedia, jainkozko tragedia, gurutzearena da. Pilatok, eskeptikoak, kulturalak, isekaz sainete bihurtu nahi zuen hura, eta kanaberazko zetroko eta arantzezko koroadun erregearen fartsa hura asmatu zuen, esanez: "Hona hemen gizona!"; baina herriak, hura baino gizatiarrago, tragediaren bila dabilen herriak, oihu egin zuen: "Iltza ezak gurutzean! Iltza ezak gurutzean!". Eta beste tragedia, giza tragedia, gizaki-barrukoa, Don Quixoterena da, aurpegia xaboizaturik, haren lepotik Duke-dukesez zerbitzariak barre egin zezaten, eta Duke-dukesez berek ere bai, haiek bezain morroi ziren eta. "Hona hemen eroa!", esango zuten. Eta tragedia komikoa, irrazionala, iseka eta mesprezio egiteko grina da.

Gizabanakoaren heroismorik gorena, herriarena bezala, irrigarritasunari aurre egiten jakitea da; areago oraindik, norbere burua irrigarri jartzea da, hartan kikildu gabe.

Antero de Quental portugaldar suizida tragiko hark, eta horren soneto zuhurrez lehenago mintzatu natzaizue, bere sorterrian mindurik, hari 1890ean ingelesez egindako *ultimatum* -aren ondorioz, honela idatzi zuen⁶⁷: "Joan den mendeko Estatu-gizon ingeles batek, behatzaile argia eta filosofoa ere bera, hain zuzen, Horace Walpole-k, esan zuen bizitza, sentitzen dutenentzat, tragedia dela, eta pentsatzen dutenentzat, aldiz, komedia. Ederki ba: tragikoki amaitu behar badugu, guk, portugaldarrok, *sentitzen dugunok*, nahiago izan dezagun, askoz ere, patu ikaragarri baina noble hau, etorkizun agian ez hain urrunean, *pentsatzen eta kalkulatzeko duen* Ingalaterrari erreserbatuak dagokiona, hots, miserable eta komikoki bukatzeko patua baino". Utz dezagun Ingalaterrak pentsatzen eta kalkulatzeko duelako kontua, ez duela sentitzen inplikatu nahi bezala, hor bidegabekeria baita, hori idatzi zeneko egoerak azal dezakeen arren, eta utz dezagun portugaldarrek sentitzen dutelakoa, pentsatu eta kalkulatu ia egiten ez duela inplikatu, gure neba-arreba atlantiarrak beti halako pedanteria sentimentalaz nabaritu baitira, eta geldi gaitezten ideia ikaragarriaren mamian, eta horrela, batzuk, pentsamendua sentimenduaren gainean jartzen dutenak, arrazoimena fedearen gainean esango nuke nik, komikoki hiltzen dira, eta tragikoki hiltzen, aldiz, fedea arrazoimena gainean ipintzen dutenak. Burlatzaileak baitira, izan, komikoki hiltzen direnak, eta Jainkoak gero haiez barre egiten du, eta burlatuei tragedia dagokie, hots, parte noblea.

Eta, Don Quixoteren oinatzetan burla bilatu behar da.

Eta berriz ere esango al zaigu ez dela espainiar filosofiarik, hitz horren adiera teknikoan? Eta nik diot, zein da adiera hori? Zer esan nahi du filosofia hitzak? Windelband-ek, filosofiaren historialariak, filosofia zer den azaltzeko bere entseian ("Was ist Philosophie?", bere *Präludien*-etako lehen liburukian) dioskunez, "filosofiaren izenaren historia zientziaren kultur esanguraren historia da"; hauxe gehituz: "Pentsaera zientifikoak, ezagutzaren jakiteko bulkadatzat independizatzen den bitartean, filosofia izena hartzen du; geroago, zientzia bateratua bere abarretan bereizten denean, filosofia munduaren ezagutza orokorra da, beste ezagutzak hartzen dituen alegia. Pentsaera zientifikoa berriz ere arlo moral edo erlijio-behakuntzakora jaisten denean, filosofia bizitzaren arte edo erlijio-sineskeren formulazio bilakatzen da. Eta bizitza zientifikoa horrela askatu eta gero, filosofiak berriz ere munduaren ezagutza independentearen izaera berraurkitzen du, eta problema honen soluzioari uko egiten hasten denean, zientziaren beraren teoria izatera pasatzen da". Hona hemen filosofiaren historiaren

karakterizazio laburra, Talesengandik Kantengana, erlijio-sineskerak oinarritu nahi zituen Erdi Aroko eskolastikan zehar iraganez. Baina, ez ote dago lekurik filosofiaren beste zereginetarako ere, aztertu dugun bezala, bizitzaren sentimendu tragikoaren beraren gogoeta izateko, alegia, arrazoimenaren eta fedearen, zientziaren eta erlijioaren arteko borrokaren formulazioa izateko, eta haren mantentze erreflexiborako?

Windelbandek honela dio geroago: "Filosofiatzat, adiera sistematikoan, ez historikoan, ez dut ulertzen baliagarritasun orokorreko balioen (*allgemeingültigen Werten*) zientzia kritikoa besterik. Baina zeintzuk baliok izan dezakete baliagarritasun unibertsalagorik, ororen aurrean eta ororen gain, arimaren hilezintasun pertsonal indibidualizatu eta konkretua, hau da, Unibertsuaren giza helburua nahi duen giza borondatearenak, eta giza arrazoimenarenak baino, arrazionaltasuna eta irrika horren ahalbidea bera ukatuz? Zeintzuk baliok izan dezakete baliagarritasun unibertsalagorik unibertsuaren borondatezko edo teleologi balioak eta balio arrazional edo matematikoak baino, bata bestearekiko gatazkan?

Windelbanden ustez, oro har kantiar eta neokantiarrentzat bezala, hiru kategoria araugarri besterik ez dago, hiru arau unibertsal, alegia, hauexek: egiazkoa eta faltsua, ederra eta itsusia eta on eta txar morala. Filosofia, hortaz, logika, estetika eta etikaren baitara murrizten da, zientzia, artea edo morala aztertzen duen arauera. Kanpoan beste kategoria bat geratzen da, gogokoa eta gogoz kontrakoa -edo atsegina eta atsekabezkoa-; hau da, hedonikoa. Hedonikoak, haien ustez, ezin erdiets dezake baio unibertsalik, ezin daiteke araugarria izan. "Filosofiaren gainean -idazten du Windelbandek-baikortasunaren eta ezkortasunaren arazoan erabakitzeke zama jar dezanak, mundua plazer baino oinaze gehiago sortzeko egokiagoa ote deneko arazoan, edo alderantzizkoan, eritzia eska diezaionak, halakoak, dilettanteki baino harago baldin badoa, determinazio absolutua aurkitzeko iratxoaren atzetik dihardu lanean, hots, ezin gizon arrazoizkok hori bilatu ez duen arloan". Ikusi behar da, halere, ea hori, dirudien bezain argia ote den, ni gizon arrazoizkoa baldin banaiz eta dilettanteki baino harago baldin ez banoa, hori desolazioaren abominazioa litzateke eta.

Zentzu aski sakonaz, Benedetto Croce-k, bere izpirituaren filosofian estetikaren eta logikaren ondoan, bata adierazpenaren zientziatzat eta bestea kontzeptu soilaren zientziatzat harturik, praktikaren filosofia abar bitan banatu zuen: ekonomikoan eta etikoan. Izan ere, izpirituak maila praktikoa bat duela onartzen du, ekonomiko hutsa, singularitasunera zuzendua, unibertsaltasunaz kezkatu gabea. Yago edo Napoleon hobezintasunaren ereduak dira, ekonomi jeinutasunarenak, eta maila hori moralitasunetik landa geratzen da. Eta hortik gizon oro pasatzen da, gauza guztien aurretik berbera izan nahi baitu, gizabanako gisa, eta maila hori gabe ez litzateke moralitasuna azalduko, logikak, estetikarik gabe, zentzurik ez duen bezalaxe. Eta hedonikoaren bila ari den maila ekonomikoaren balio araugarria italiar batek, Machiavelliren dizipulua zenak, *virtù*-az efikazia praktikoa, inondik ere bertute morala ez denaz, hain zintzoki espekulatu zuenak aurkitu behar zuen.

Baina maila ekonomiko hori, barrenean, maila erlijiosoaren inkoazioa besterik ez da. Erlijiosoa ekonomiko edo hedoniko trszendentala da. Erlijioa ekonomia edo hedonistika trszendentala da. Gizonak erlijioan, fede erlijiosoan, bilatzen duena bere banakotasun berezia salbatzea da, hura betikotzea, ez zientziaz, ez arteaz, ez moralaz lortzen dena. Ez zientziak, ez arteak, ez moralak eskatzen digute Jainkoa; Jainkoa erlijioak eskatzen digu. Eta jeinuzko asmamen osoaz mintzo dira gure jesuistak gure salbazioaren negozio handiaz. Negozio, bai, negozioa, ekonomi arloko zerbait, hedonistikoa, trszendente izan arren. Eta Jainkoa ez dugu behar gauzen egia, ez haien edertasuna, erakuts diezagun, ez eta moralitasuna penaz eta zigorrez ziurta diezagun ere, salba gaitzan baizik, erabat hiltzen utz ez gaitzan. Eta irrika singular hau unibertsala eta

araugarria da, gizon normal guztiena -basakeriagatik edo superkulturagatik anormal direnak ez baitira kontutan hartzen- eta bakoitzarena delako.

Beraz, erlijioa era bateko ekonomia traszendentea da edo, nahiago bada, metafisikoa. Unibertsoak, bere balio logiko, estetiko eta etikoekin batera, badu gizonarentzat balio ekonomikoa ere, horrela unibertsal eta araugarri bihurturik, eta hori balio erlijiosoa da. Kontua ez da, soilki, guretzat egiaz, edertasunaz eta ontasunaz aritzea; era berean, eta batez ere, gizabanakoaren salbazioaz aritzea da, betirauteaz, eta hori ez digute arau haiek eskuratzen. Ekonomia politikoa deritzonak gure premiak asebetetzeko era egokiena eta ekonomikoa erakusten digu, haiek arrazionalak izan zein izan ez, itsusiak zein politak, moralak zein inmoralak -ekonomi negozio ona iruzurra izan daiteke, edo luzera begira heriotzara garamazkeen zerbait-, eta giza *premia* nagusia ez hiltzea da, norik bere banakotasunaren mugaketaren betetasuna betiko gozatzea. Izan ere, eukaristiaren doktrina kristauak Jesukristoren gorputzaren substantzia hostia kontsakratuan osorik dagoela, eta osorik horren zati bakoitzean irakatsi arren, horrek esan nahi du Jainkoa Unibertso osoan osorik eta hura eratzen duten banako bakoitzarengan osorik dagoela. Eta oinarri hau, funtsean, ez da logiko, ez estetiko, ez etikoa, ekonomiko, transzendente edo erlijiosoa baizik. Eta Arau horrekin filosofiak baikortasuna eta ezkortasuna juzka ditzake. *Giza arima hilezina baldin bada, mundua ekonomiko edo hedonistikoki ona da; eta hala ez baldin bada, txarra da.* Eta on eta txar kategoriei baikortasunak eta ezkortasunak ematen dieten adiera, ez da adiera etikoa, adiera ekonomiko edo hedonistikoa baizik. Ona, gure bizitzeko irrika asebetetzen duena da, eta txarra asebetetzen ez duena.

Hortaz, filosofia bizitzaren tragediaren zientzia ere bada, hots, haren sentimendu tragikoaren gogoeta. Eta entseiu hauetan filosofia horren saio bat egin nahi izan dut, ekidinezinik barru-barrutik darizkion kontraesan edo antinomiekin. Eta irakurleak ez du ohartzeke utzi behar neure buruaz operatzen aritu naizela; berau buru-kirurgiazko lana izan dela, eta ez dela beste anestesikorik izan lana bera baizik. Neure burua operatzeko poztasunak operatua izateko mina nobletzen zidan.

Eta ene beste nahikundeaz den bezainbatean, hauxe da bera: hau guztiau espainiar filosofia izatea, agian espainiar filosofia *berezia*, hots, italiar batek maila ekonomikoa balio araugarri eta unibertsala aurkitu arren, espainol bat izan dela hau jakinerazi duena: maila hori ez dela erlijiozkoaren printzipioa besterik, eta gure erlijioaren esentzia, gure espainiar katolikotasunarena, hain zuzen, ez dela ez zientzia bat, ez arte bat, ez moral bat izatea, betierekotasunaren erako ekonomia bat baizik, hau da, jainko-erakoa; berau, diodanez, bereziki espainiarra den, hori justifikatzeko ahalegina bederen, hurrengo lan baterako -historikoa izatekoa- uzten dut. Baina oraingoz, eta tradizio espresu eta kanpokoa, histori dokumentuetan agertzen zaiguna, alde batera utzirik ere, ez ote naiz ni bada espainola? -Espainiatik ia irten ere ez den espainola-, espainiar tradizioaren ekoizpena, beraz, tradizio biziarena, amets egiten duten sentimendu eta ideietan, eta ez lo dautzan textuetan, iraganerazten den tradizioarena?

Filosofia neure herriaren ariman zait ageri, Don Quixoteraren arimaren tragediaren pareko barne-tragedia baten adierazpen gisa, zientziaren arrazoiak erakusten digun bezala, mundua denaren eta, geure erlijioaren fedek dioskunaren arauera, guk hura izatea nahi dugunaren arteko borrokaren adierazpen gisa. Eta filosofia horretan datza esan ohi denaren sekretua, hots, funtsean Kulturarako⁶⁸ meneraezinak garela; hau da, ez diogula hari amorerik ematen. Ez. Don Quixotek ez die munduari ez haren egia amore ematen, ez zientziari, ez logikari, ez arte edo etikari, ez moral edo etikari ere.

"Kontua da, horrekin guztiarekin -behin baino gehiagotan eta batek baino gehiagok esan didatenez- ez zenukeela lortuko, gehienik ere, jendeak katolikotasunik eroenera

bultzatzea besterik". Eta erreakzionari eta jesuista ere izateaz salatua izan naiz. Hala biz! Eta zer?

Bai, badakit, badakit erokeria dela ibaiako urak beren iturrira itzulerazi nahi izatea, eta pertsona arruntak direla beren gaitzen sendabidea iraganean bilatzen dutenak; baina badakit, halaber, edozein idealengatik borrokatzen duenak, horrek iraganeko dirudien arren, mundua etorkizunerantz bultzatzen duela, eta erreakzionari bakarrak orainaldian ongi aurkitzen direnak direla. Iraganaren ustezko berrezarkuntza oro etorkizuna egitea da, eta iragan hori ametsetakoa baldin bada, txarto ezaguturiko zerbait... hobeto oraindik. Beti bezala, etorkizunerantz joaten gara; dabilena, haraxe doa, bizkar emanda joan arren... Eta batek jakin hori hobe ez ote den!...

Erdi Aroko arima baten jabe sentitzen naiz, eta begitandu egiten zait ertarotarra dela ene sorterriaren arima; berau, bortxaz, Ernazimendutik, Erreformatik eta Iraultzatik zehar iragan dela, haiengandik, bai ikasiz, baina haiei bere arima ukitzen utzi gabe, ilunbetsu deritzen garai haietako heredentzia izpirituala gordez. Eta kixotismoa ez da Erdi Aroak, hartatik irtendako Ernazimenduaren aurka, izandako borrokaren alderik desesperatuena besterik.

Eta batzuek erreakzio katolikoaren obra baten zerbitzuan aritzeaz salatzen banaute, agian besteek, katoliko ofizialek... Baina horiek, Espainian, ia ez dira ezein gauzatzat arduratzen, eta ez dute ezertan denbora ematen, beren arteko eztabaida eta kereiletan ez bada. Eta, gainera, gaixoez duten endelegu horrekin!

Baina nire obra -nire misioa, esatera nindoan- batzuen eta beste batzuen eta hirugarrenen fedea arrakalatzea da, baieztatzeko fedea, ezeztatzeko fedea eta abstenitzeko fedea, eta hori fedearen beraren baitako fedeagatik; etsi egiten duten guztien aurka aritzea, dela katolikotasunean, dela arrazionalismoan, dela agnostizismoan; eta guztiak urduri eta irrikatsu bizierazi.

Eraginkorra izango ote da hau, gero? Baina, sinesten ote zuen, bada, Don Quixotek bere obraren berehalako eta itxurako eraginkortasunean? Oso zalantzarria da eta, gutxienez, badaezpada, ez zuen berriro ere bere zelata bigarren aldiz zastatu. Eta haren historiako anitz pasartek nabari dute ez zuela askorik sinesten zalduntza ibiltaria berehalakoan berrezartzeko zuen asmoan. Eta zer ardura zuen, baldin bera horrela bizi eta bere burua hilezin bihurtzen bazuen? Eta igarri beharko zuen, eta igarri ere egin zuen, bere obra haren beste efikazia gorago bat ere, izpiritu debotuaz haren balentriak irakurriko zituzten guztiengan eragingo zuena.

Don Quixotek bere burua irrigarri jarri zuen, baina ezagutu al zuen irrigarrikeriarik tragikoena, irrigarrikeria erreflexua, nor bere buruaren aurrean, bere arimaren begietan egiten duena? Alda ezazue Don Quixoteren borroka-zelaia haren arimara; jar ezazue hartan borrokan Erdi Aroa Ernazimenduagandik salbatzearen, bere haurtzaroko altxorra ez galtzearen; egizue hartaz barne-Don Quixote bat -aldean bere Sancho duela, Sancho halaber barnekoa, eta heroikoa ere bai- eta esango didazue tragedia komikoa zerik den.

Eta zer utzi du Don Quixotek? esango duzue. Eta nik esango dizuet bere burua utzi duela, eta gizon batek, gizon bizi eta betierekoak teoria guztiek eta filosofia guztiek beste balio duela. Beste herri batzuek, batez ere, erakundeak eta liburuak utzi dituzte; guk arima utzi dugu. Dona Teresak edozein institutuk adina balio du, edozein *Arrazoimen Hutsaren Kritikak* beste.

Bai baina, Don Quixote, aldatu egin zen. Bai, hiltzeko, gaixoa. Baina bestea, benetakoa, geratu zena eta, bere arnasaz gu elikatuz, gure artean bizi dena ez zen aldatu; horrek geure burua irrigarri jar dezagun gu bultzatzen dirau, horrek ez du hil behar. Eta bestea, hiltzeko aldatu zena, alda zitekeen eroa zelako, eta haren eromenak, eta ez haren heriotzak ez aldaketak, bihurtu zuen hilezin, horregatik, jaio izateagatik hobenaren

barkamena merezi duelarik. *Felix culpa!* Eta sendatu ere ez zen egin, eromena aldatu baizik. Haren heriotza haren azken zaldun-abentura izan zen; harekin indarra pairatzen duen zerua bortxatu zuen.

Hil zen Don Quixote hura eta infernuetara jaitsi zen, eta haietan lantza aurrera begira sartu zen, eta kondenatu guztiak askatu zituen, galeretakoak bezala, eta haren ateak itxi zituen, eta han Dantek ikusiriko kartela kenduta, beste bat jarri zuen, honela zioena: "Bizi bedi esperantza!", eta barre egiten zioten askatuek eskoltaturik, zerura joan zen. Eta Jainkoak aitakiro barre egin zion, eta jainkozko barre horrek arima betiereko zorionaz bete zion.

Eta beste Don Quixote hori hemen geratu zen, gure artean, esperantza gabeko borrokan. Ez al da ba horren borroka desesperotik abiatzen? Zergatik, ingelesak gure hizkuntzari mailegatu dizkion hitzen artean, *siesta*, *camarilla*, *guerrilla* eta beste batzuen artean, *desperado* ere ageri da, hau da, desesperatua? Esaten nizuen barne-Quixote hau, bere komikotasun tragikoaz kontziente dena, ez al da ba desesperatu bat? *Desperado* bat, bai, Pizarro eta Loiola bezala. Baina Salazar y Torres-ek "desesperantza gauza ezinen jabea" dela irakasten digu (in *Elegir al enemigo*69, I. ekitaldia), eta desesperantzatik, eta hortiek besterik ez, jaiotzen da esperantza heroikoa, esperantza absurdua, esperantza eroa. *Spero quia absurdum*, esan beharko litzateke, *credo* baino gehiago.

Eta Don Quixotek, bakarrik zegoenak, are bakartasun handiagoa bilatzen zuen, Peña Pobre-ko bakartasunen bila ari zen, han, bakarka, lekukorik gabe, are burugabekeria handiagoetan murgiltzeko, arima asaskatzeko. Baina ez zegoen hain bakarrik, Sanchok laguntzen baitzuen. Sancho onak, Sancho fededunak, Sancho xumeak. Batzuek diotenez, Don Quixote Espainian hil bazen eta Sancho gelditzen bada, salbaturik gaude, Sancho, behin haren ugazaba hil eta gero, zaldun ibiltari egingo delako. Eta, edonola ere, beste zaldun ero baten zain dago, horri berriz zerbitzatzeko.

Bada, halaber, Sanchoren tragedia ere. Hura, bestea, Don Quixoterekin ibili zena, ez zen hil, ez da inon ageri hil zenik, nahiz eta baten batek burutik erabat eginda hil zela uste duen, lantza eskatuz eta haren ugazabak heriotza- eta aldaketa-ohean gezurtzat gaitzetsi zuen guztia egia izan zela sinetsiz. Baina ez da inon ageri, halaber, Sansón Carrasco batxilerra, ez apeza hil zirenik, ez barbera, ez duke-dukesak ez eta kalonjeak ere, eta horiexekin borrokatu behar du orain Sancho heroikoak.

Bakarrik ibili zen Don Quixote, Sanchorekin bakarrik, bakarrik bere bakartasunarekin. Eta ez ote gara bakarrik ibiliko, era berean, haren maitaleak ere, geure gogoan besterik ez den Espainia kixotetarra asmatzen?

Eta berriz ere galdetuko zaigu: Zer utzi dio Don Quixotek Kulturari70? Eta esango dut: Kixotismoa, eta ez da gutxi! Metodo oso bat, epistemologia oso bat, estetika oso bat, logika oso bat, etika oso bat, erlijio oso bat batez ere, hau da, betiereko eta jainko-erako ekonomia oso bat, absurdu arrazionalen esperantza oso bat.

Zergatik borrokatu zen Don Quixote? Dulcineagatik, gloriagatik, bizitzearren, gainbizitzearren. Ez Isolde-gatik71, haragi betikorra dena; ez Beatrizengatik, teologia dena; ez Margaritagatik, herria dena; ez Helenagatik, kultura dena. Dulcineagatik egin zuen borroka, eta lortu ere egin zuen, bizirik dago eta.

Eta harengan handiena burlatua eta garaitua izatea izan zen, garaitua zelarik garaitzen baitzuen; eta mundua meneratzen zuen bere buruaz barre eraginez.

Eta gaur? Gaur bere buruaren komikotasuna sentitzen du eta denborazkoari buruz egindako ahaleginaren alferra; kanpotik dakusa bere burua -kulturak burua objektibatzerira irakatsi dio; hau da, besterenganatzera, bere baitaratu beharrean-, eta bere burua kanpotik ikustean, buruari barre egiten dio, baina saminez. Pertsonaia tragikoena beharbada Margutte barnekor bat izan daiteke, Pulci-rena bezala, barrez leher eginik

hiltzen dena, baina bere buruaz barrezka. *E riderà in eterno*, "barre sekulako egingo du", esan zuen Margutte-z Gabriel aingeruak. Ez al duzue Jainkoaren barrea entzuten?

Don Quixote hilkorrek, hiltzean, bere komikotasuna ulertu eta bere bekatuez negar egin zuen; baina hilezinak, komikotasun hori ulertuta, haren gain jarri eta, baztertu gabe, garaitu egiten du.

Eta Don Quixote ez da errendatzen, ezkorra ez delako, eta borroka egiten du. Ez da ezkorra, ezkortasuna harrokeriaren umea delako, modako gauza, *snobismo* hutsa, eta Don Quixote ez da harro, ez alfer, ez eta ezein modernotasuneko modernoa ere - modernista, are gutxiago-, eta ez du ulertzen *snob* delako hori zer den, kristau zaharren espainieraz esaten ez dioten artean. Don Quixote ez da ezkorra, eta *joie de vivre* delako hori zer datekeen ulertzen ez duenez gero, ez du ulertzen horren aurkakoa ere. Eta ez du tontakeria futuristez ere ulertzen. *Clavileño* gora-behera, ez da aeroplanora heldu, hau, itxura denez, Zerutik hainbeste ganorabako urrundu nahian dabilelarik. Don Quixote ez da bizitzaz gogaitzeko adinera heldu, bizitza leku batetik bestera korri-korrika iraganez, eta ez, doazen lekuarenganako maitasunaz, datozen beste harenganako gorrotoaz baizik, guztietatik iheska, anitz izpiritu modernoren topofobia karakteristiko horretan mamitu ohi dena. Desespero-moduetariko bat horixe.

Baina Don Quixotek jadanik bere barrea dantzu, jainkozko barrea dantzu eta, ezkorra ez den aldetik, betiereko bizitzan sinesten duenez gero, borrokatu behar du, zientziaren inkisizio-ortodoxia modernoari esetsiz, Erdi Aro berri eta ezinezko bat, dualistikoa, kontraesankorra, grinatsua ekartzearen. Era berriko Savonarola baten antzera, XV. mendearen bukaerako Quixote italiarra bera, Erdi Aro honen aurka ari da, Machiavellik irekia eta komikoki amaituko dena. XVIII. mendetik heredaturiko arrazionalismoaren aurka diharduka. Honez gero, Jainko aurrikusleari eskerrak, ez dago kontzientziaren bakerik, arrazoimenaren eta fedearen arteko abenikorik. Munduak Don Quixotek nahi duen bezala izan behar du, eta bentek gaztelu izan behar dute, eta mundu horren aurka ibiliko da borrokan, eta dirudienez, garaitua izango da, baina irrigarri jartzean garaituko du. Eta bere burua garaituko du, bere buruaz barre eginez eta buruari barre eraginez.

"Arrazoimena mintzo da eta zentzuak haginka egiten du" esan zuen Petrarca; baina arrazoimenak ere badaki haginka egiten, eta haginka, bihotzaren barru-barruan egiten du. Eta zenbat eta argi handiago, ez dago, horregatik, bero handiago. "Argia, argia, are argi handiago!"⁷² esan omen zuen Goethek hiltzorian. Ez; beroa, beroa, are bero handiagoa, hotzaz hiltzen baikara, eta ez iluntasunaz. Gauak ez du hiltzen; hil leiak egiten du. Eta Printzesa sorgindua askatu behar da eta maese Pedroren erretaula birrindu.

Eta ez da pedantekeriarik egongo, ene Jainkoa, honetan ere, norbera burlatua eta Quixoterena egiten ari dela sentitzean? Erneberrituek (*Opvakte*) mundu zital fedegabea haiez burla dadin nahi dute, horrela erneberrituak izateko seguru egoteko, iseka egiten zaienez gero, eta munduaren errukirik ezaz kexatu ahal izateko abantailaz baliatzeko, esan zuen Kierkegaardek (*Afsluttende uvidenskabelig Efterskrift*, II, Afsnit II, 4. kap. II. atala B).

Nola eskapa pedantekeria batetik edo bestetik, itxurakeria batetik edo bestetik, gizon naturala mito bat besterik ez bada, eta guztiok artifizialak baldin bagara?

Erromantizismoa! Bai, agian, hitza, zatiz bederen, horixe izan daiteke. Eta bere zehazgabetasunaz beraz gehiago eta hobeki balio digu. Horren aurka, erromantizismoaren aurka, oraintsu, Frantziar batez ere, pedantekeria arrazionalista eta klasizista agertu da oldarka. Bera, erromantizismoa, beste pedantekeria bat dela, sentimentuzko pedantekeria? Litekeena da. Mundu honetan, gizon ikasiak, dilettante ez bada, pedantea izatea dauka; aukera hortxe dago. Bai, beharbada pedanteak dira René,

eta Adolfo, eta Obermann, eta Larra... Kontua kontsolamendua deskontsolamenduan bilatzea da.

Bergsonen filosofiari, berrezarkuntza izpiritualista, funtsean mistiko, ertarotar eta kixotetarra denari, filosofia *demi-mondaine* esan zaio. Ken iezaiozue *demi* hori; *mondaine*, mundutarra. Mundutarra, bai, munduarentzat eta ez filosofoentzat, kimikak soilki kimikarientzat izan behar ez duen bezala. Munduak engainatua izan nahi du - *mundus vult decipi*-, arrazoimenaren baino lehenagoko engainuaz, poesiaz edo haren ondoko engainuaz, erlijioaz hain zuzen. Eta Machiavellik esana zuen jada, engainatu nahi duenak beti aurkituko duela bere burua engainatzen uzten dionik. Eta zorionekoak kokolo gisa dabilzanak! Frantses batek, Jules de Gaultier-ek bere herriaren abantaila "*n'être pas dupe*" zela esan zuen, hots, "kokolo ez izatea". Abantaila tristea benetan!

Zientziak ez dio Don Quixoteri ematen hark eskatzen diona. "Hori ez eskatzea besterik ez du! -esango dute-; etsi dezala, onar ditzala bizitza eta egia diren bezala!" Baina hark ez ditu horrela onartzen, eta seinaleak eskatzen ditu, eta horretara Sanchok, aldamenean duenak, bultzatzen du. Eta kontua ez da, horrela mintzazen zaionak, bizitza eta egia arrazionalak onartzera etsipenaz ahalegintzen den lagunak ulertzen duena Don Quixotek ez ulertzea. Ez; kontua haren egitezko premiak handiagoak izatean datza. Pedantekeriak? Batek jakin...!

Eta mende kritiko honetan, Don Quixotek, kritizismoz kutsaturik bera ere, bere buruaren aurka esetsi behar du, intelektualismoaren eta sentimentalismoaren meneko, eta zenbat eta berezkoago izan nahi, hainbat eta itxuratiagorik agertzen da. Eta gaixoak irrazionala arrazionaldu nahi du, eta arrazionala irrazionaldu. Eta mende kritikoaren barne-desesperoan amiltzen da, hor Nietzsche eta Tolstoi biktima nagusiak izanez. Eta desesperoagatik klaustrotik ihes egin zuen pentsamenduaren Quixote hark, hots, Giordano Brunok, aipatzen zuen amorru historikoan sartzen da, eta arima loakartuen iratzartzaille, *Dormitantium animarum excubitor*, bilakatzen da, bere buruaz domikutar-ohiak esan zuenez, hauxe idatziz: "Maitasun heroikoa goren izaerei dagokie, insanoak deritzenei alegia *insane*-, ez, ez dakitelako *non sanno*-, goitik nabaritzen direlako baizik *soprasanno*-".

Baina Brunok bere doktrinen garaipenean sinesten zuen edo, behintzat haren estatuaren oinean, Vatikanoko aurreko Campo dei Fiori deritzon hartan, estatua hori hark igarririko mendeak, *il secolo da lui divinato* delakoak eskaintzen diola ipini dute. Baina gure Don Quixotek, birbiztuak, barnekoak, bere buruaren komikotasunaz jabetuak, ez du sinesten bere doktrinek mundu honetan arrakasta izango dutenik, ez baitira mundu honetakoak. Eta Don Quixote errege egin nahi balute, mendira erretiratuko litzateke bakarrik, aldra erregegileen eta errege-erhaileengandik Kristok alde egin zuen bezala, ogien eta arrainen mirariaren ondoan errege izendatu nahi izan zutenean. Errege-titulua gurutzearen gainerako utzi zuen.

Zein da, bada, Don Quixoteren misio berria gaur mundu honetan? Oihu egin, basamortuan oihu egitea. Baina basamortuak badantzu, gizonak ez badantzute ere, eta egunen batez oihan ozen bihurtuko da, eta basamortuan hazi gisa kokatzen ari den boz bakarti horrek, itzelezko zedro erraldoia emango du, bere mila mihiekin bizitzaren eta heriotzaren Jaunari *hosanna* betierekoa kantatuko diona.

Eta orain zuek, erneberritzeko europartzaletasunaren Carrasco batxilerrok, europar erara, metodo eta kritika... zientifikoekin lan egiten duzuen gazteok, aberastasun egizue, sorterri egizue, arte egizue, zientzia egizue, etika egizue, egizue edo, hobesanez, itzul ezazue, batez ere, Kultura73, horrela bizitza eta heriotza hilko duzue eta. Horrek guztiak iraun behar digunerako...!

* * *

Eta honekin bukatzen dira -ordua zen gero!- oraingoz behinik behin, bizitzaren sentimendu tragikoari buruzko saio hauek, gizonen eta herriengan, edo nire baitan bederen -gizona bainaiz- eta nire herriaren ariman, nirean isladatzen den bezala.

Espero dut, irakurle, gure tragediak dirauen artean, ekintza-bitarteren batean, berriz aurkituko garela. Eta elkar ezagutuko dugula. Eta barka, neure luma hartzean, zure ilusioetatik pixka bat ateratzeko, behar eta noraezekoa baino min handiago eman badizut, nahi izan nuena baino gehiago. Eta Jainkoak ez demaizula bakerik, eta bai gloriarik!

Salamancan, 1912.eko grazi urtean.